

Jean-Baptiste ORPUSTAN

BIDENABARR...

*

*



**Orzaize. Baigurako zolan:
Harizmenditik Iriberriko auzora**

I. HAUR BIDE

(In memoriam)

1. Laur alde

Etxetik abiatzean, laur aldetarik bat hartu behar zen:

etxe-atzineko korroila hesten zuten hexila beltzetarik athera eta xuxen goiti, iguzki sortalde 'ta mendira buruz, auzoaldeko etxe, labe 'ta lurren artean hara, Irigoizgaraia, Irigoizartea, Mentaberria, lehenago noizpait Irisarritik Ahizera eta Orzaizera sartzeko bide zaharrari jarraikiz Tipireneko ondotik, ezkerrera Irissariko bidea 'ta eskunera, Etxegorri izena ukana zuen etxola barreatu baten ondotik, Urruzpurura zeramana utziz, Tipiren-xilorano - hiruzpalaur haritz eta gaztainondo zaharren azpian gelditzen baitzen larrazkenetan gaztain andana eta onddo buru beltz zenbaiten biltzen -, eta, Axaramendin goiti, Arrabit-leporano, hegitik gero Menttaren-bordara, eta urrunago Tipiren-bordara eta Kompaseneko aldetara jausteko;

eskun, etxetik ageri den "Bordda" etxetiarraren etxe, landa 'ta oihanetara joateko, eta handik hara Ahaizeko alhorretara, noiz oinez "heinka" edo "barnez", "phentze bizkarra" ginionera hexila ttipi batetik sarturik beheiti soroetan zehar, atheka-hesiak jauziz, Xomberroko ("Xomborro" erraiten ginakon) landan hara; noiz, abere, orga, tresnekin joan behar zen aldietan, etxe aitzineko bideari jarraikirik Irigoizgaraiko sahetserano, eta han eskun itzulirik larrainean barna jautsiz, Borddarako orgabide ohikotik;

ezker, edo etxe aitzinetik berehala Izpuaitzeko arteka 'ta landa iraganik Uhalde 'ta Lakako aldera, edo berdin etxe gibeletik bi urhatsetan barrokia bere sabaiarekin inguratuz "Lakogibela" utzirik, beheiti alhorren erditik, Lakako erreka errekaren iragaiteko ("ur handia" zioten etxean, etxeko erreka ttipitik berexteko) Uhaldeko zubitik, eta urak apha baziren, laburrago, han berean zen ibia hartuz, harri zabaletan jauzika, Iriberrira eta Ugartzanera buruz, aitatxi-amatxien etxetara;

beheiti, sartaldera, hara ere bi moldez, aro arau: lurra idor zenean "barnez", etxeko munoa Lakogibeletik jautsiz haritz handi erdi erre baten sahetserano, udako bero saminetan

itzala, handik alhor zabalaren erdiko bidexka luze zuzenari jarraikiz, Zubialdeko zubira heltzeko, eta han berehala etxetik hurbil bezala ezkiladorre mehar luzearekin bere harri-gorrietan gora ikusten zen elizara, Hartzako plazara, saldegietara, eskoletara, handik urrunago joan nahi zenean errepidez Arrosako geltokira (“gara” zen xoilki guretako), eta burdin-bidez alde batetik ezker Donibane Garazira, bertzetik eskun Baionara ...

2. Menttaren-bordan

Entzuten direnean orai “traktorrak” eta, ihizi aroan edo bertzela, beribilak ere, lehenago zioten “Kompaseneko hil-bide” zaharretik (ehortzetan hil khutxekin etxeko ezkaratzean gelditzen omen ziren elizara jauts aitzin) mendiko bideari lotzen (hemen ezpaita gehiago aiphatuko hor berriki eta zorigaitzez egin duten behargabeko etxola), Axaramendin gora Arrabit-lephora abiatuak, bide gaitz zutean burrumbaka, gogora heldu zazta etxeko norbaitekin ala nihaurek hainbertzetan “Menttaren-bordara” egin ditutan joan-jinak.

Orai lurrera joana den Mentaberriaren borda izanik, iragan mendean etxekoek eresia zuten “Menttaren-borda” giniona, hegitik haraindian, Tipiren-borda (hau Tipirenetik berexia XIX-garren mende erditan eta Irisarriko Laugier batek eresia) eta Kompasenerako bidean: hamar bat hektara, larre, oihan, gaztain-ondo, haritz eta ametzez, phago eder zut azal zuri multxo bat ere orduan, phentze “handi” eta “ttipi”, ithurri hotx bat erditan, aberen edangia udan, oihan zola batean. Udako alha lekuak, larrazkenetan urde gizengai, ihiziko, gaztain eta onddo biltzeko leku hautak, etxera jausten zirenak arrastiriko iguzki gozoari buruz, mendian behera, kantu xarameletan ...

Amatxik erraiten zaukun nola gaineko hegietan, gure haurrean oraino ageri ziren laur kantoineko zilho batzu eginak zituzten lurrean, han neguan, elhurtetan, suak phizturik atxiki behar baitziren otsoen urruntzeko. Erraiten zaukun ere “Jan-Pierre” ttipia etxeko anaia gaztena hara igorriarik abere zain edo bila, iguzki sartzean etxetik beha egoiten zirela, jausteko hegira heltzean, Arrabit-lephotik etxera buruz oihu egin behar baitzuen, etxekoen segurtatzeko: bazakiten orduan bide

onean zela, eta oren erdi bat barne etxean sartuko. Gero Argentinara joanik amatxiren hirur anaia zaharrenak bezala, han gazterik galdu zen, eta bazen etxeko salan argazki bat Argentinara joaiten hartua, hura mutiko gazte-gaztea floka lephoan bestaburuetako jantzitan amaren (sortzez Dominica Laharrague) ondoan xutik, hau, amatxiren ama, emazte iduriz oraino lerdena, kadera batean jarria, zaia luzeak oinetarano, beharri eta papoan gero etxean ikusi ditugun edergailu handi batzu dirdiran.

Bizpahirur urtez gehiago enukeen aitag, gerla aitzinean, borda hura berritu zuenean, eta hara ereman ninduten lehenbiziko aldietan. Bera goizetik han baitzen langilekin joana, etxetik ereman behar zizazkon edariak eta bazkaria, astoz egiten zena; astorik etxean ez izanez, amaren etxondotik ekharr-arazten zen, eta ama edo amatxi harekin joaiten, untziak “kakoletan” dilindan, bide xutari gora harri mokorretan behaztopaka, ni ere aldi zenbaitez astoaren bizkarrean ezarria. Etxean entzunik dakit egun batez astoak harri zenbait jorik edo hartan lerraturik eltzea uzkaile zuela eta harekin bazkaria. Amak zion, ja biderditara heldua, dolurekin etxerano berriz jautsi behar ukan zuela, eta bazkaria egun hartan arratsaldekoarekin batean egin zutela Menttaren bordan.

Astozko bidaia horietaz, iguzkitara bide harritsuari gora ala behera, etzata orduko orhoitzapenik batere gelditu, gero bidaia hura bera oinez, aldi bakar bat ere zaldiz, hainbertzetan eginik. Aldiz zerbait badakusat oraino, lanho batean nahasia eta abantzu ezabatua bezala bada ere, argi 'ta urrekolore, hango gisu-harriak arratsalde beteko iguzkitara diren bezala: bizpahirur gizon, etxera lanera jiten diren Laurentz, “Manezun”, orhoit enizan hargin edo mahaxturu zenbait behar bada, nahiz aitag baduen eraikuntza ttipietako marrazkietako eta kantuko bezala gostua, harresiaren eraikitze “harri-plegatzen”, gapirio eta teila emaiten hegaztegiko. Guziak han gaztain edo ametz-pean jarriak inguruan, azieta edo baso zenbait eskuetan, bidexka bazterreko mugari emanak, amatxiren zaia beltz luzea edo amaren argiago eta laburragoa, lastozko xapelak buruan, gizonen artean, hauk guziak bere bonet beltzekin athorra-has, zerbaitetz solasean, artetan batek edo bertzeak kantu bat hasten duela, uda arrastirietako omere onean.

(1937?)

3. Elizan

Gogoan ditutan orhoitzapen phorroska urrunduenak etxe barnekoak, Menttaren-bordakoak, ala elizakoak ote dira? Ala guziak urte beretik edo beretarik gelditu eta, aroaz ezin berexiak? Zaharrenetarik dira hasteko elizako batzu. Nolaz ez? Eskolara baino lehenago, eta hobeki, hara joiteko zen aphaizten, eztaikit hea ordukotz urte hetako argazki ttipi batean ikusi ditutan “mariñel” moldeko eta orduan haurrendako arrakasta handia zuen jantzian ezartzen nindutenez. Udako bestaburuetan haurrak elizara eremaiten dira, gurasoen besoetan ala eskutik aldizka, bi urtetarik goiti. Hori aro ederrez eta “barnez”, bide laburrez, elizara jauts zaitekeenean.

Bestaberi eguna da, elizako athari aitzinera jendea metan bildua, arratsaldean bezperetarik landa, badiduritanaz, eta beraz ohiko “prosesioea” eginik, noiz Ibarrondoko gurutzera, noiz seroretakora, Beirineseneko parkeko aldarera, edo Nagithurrikora. Eliza barneko ohoitzapenik ezpaitut, ordu hartako jautsia nukete etxetik: jendea gustu onean elheketara, oro argi, iguzki, athorra xuri, bonet, xingola 'ta gerriko gorri, papoetan joiak dirdiran (amatxik andana badu, eta urte oroz Bestaberi eguneko eta Otabako hetarik zenbait uzten etxera bila jiten zazkon gazte ezaguner), mintzo 'ta harrabots, arteka tuten eta atabalen soinua; gero joanen dira “klika”-koak bere soinuekin auzoz auzo, bizpahirur ere etxeko sahetserano jinen, han entzun direneko aita atherako baita botoila eskuan baso bat arnoren eskaintzera, atseginekin edaten dutena, bide luzean eta etxeko malda zutean goiti, izerditan gorrituak. Eliza aitzinean eta Hortzako plazan jendea soldado aphaizduen artera badoa, nor bere etxekoen, eta ni ere amak edo amatxik eremanik, aitaren ondora eta, uste dut, besoetara, eta gero etxera lanera jiten den Manexunenetara - badakit, orhoituz, ala gero norbaitek erranik, “Manexunia” deritzotala -, eta haren bonet gorritik dilindan den pumpula xuria eskuaz hartzen dut eta thiratzen ...

Urte bat edo bertze berantago, ezpainiz oraino aldare aitzinean eskolan abiatu diren haurren banketara joiteko heinean, amak edo amatxik, gehienetan hunek, berekin eramaiten nau eliza-giblean ezkerreko zutabe edo “pitraila” diogunaren ondoan diren etxeko emazten jar-lekuetara: bi kadera aphaiz, bat

beltza amaxiren edo haren amaren izeneko hizkiak gainean zilhar-kolore itzatuak, bertzea ondoan amarendako zur gorritz eta hizkiak burdin-horiz. Zaia eta mantalina luzen, eta ahokietako mantaleta zabal beltzen artetik, mottoan biribilkatu diren ezko argiak lurrean xare ttipi batzuetan phiztuak; handik ikusten dira urrun eta gora aldare nagusiko edergailuak, urre 'ta gorri, argitan. Begia bezainbat emaiten dut alta beharria, han aitzinean nunbait “harmonium”-ak, “Charlotte” ala “Auguzta” gazten eskupean aldizka, batzuetan Etchegaray bikariarenean, badematzan soinu enetako gozagarrir (etxean ezta musikaririk orduan, gure kantuak salbu); eta bila nago begiez nun ote den, han nunbait eskunetik nexkato gazte mantalina xuridunen ondoan, idekia den liburu baten azpi-aldean lerro xuri bat doi-doia artetan ageri, gainean esku bat badabilkiola, botoin xurail batzuen azpian (uste dut, ama galdekaturik eta hark erranik edo nik hala entzunik, botoin xuri hek zapatuz dela musika egiten, eta jakinik ere gero laster musika nola egiten den organo ala pianoan, luzaz amets egin dut “botoin xuriak” zapatuz musikan ari ...).

4. “Behereko eskolan”

Herriko *behereko eskola* giniona beti, aphez-
eskola zen, berantago jakin baitzen “libroa” ziotela ere. Harizmendiko Etcheverry-tarrek jabe izanik zenbait urtez salgai ezarri zutenean, Argentinako gure jendakia batek – Léon Laharrague amaxiren lehen gusia – Baionan 1926-an egin kontratuz eresia zuen eta berehala parropiaren eskuan utzia. Etxea, ordukotz han nexkatoen aphez-eskolarekin jarria, Etxebertzea, herriko etxe zaharrenetarik da. Nexkatoen ikastetxearekin batean han ziren “ouvroir” erdal-izenarekin baliatzen zen nexkato gazten lan ikasteko sala 'ta serorategia, etxeak berak izen hori luzaz atxiki baitu. Hara ereman nindutenean eraikitzen ari zuketzen, etxe haren lurretan, herrian bi alderdien arteko aharra eta bertsu zenbaiten artetik, 1938-an agorrileko igande batez “estreinatu” baitziren ezker-parata eta eskola berria (eztut batere orhoitik, baina irakur daiteke *La Petite Gironde* egunkariko artikulua batean han zirela bertze ainitzekin Ibarregaray deputatua eta Saint-Pierre apezpikua). “Saint-

Michel” izendatu zuten – saildua zizelkatu eta margotu zen athe ondoan, ezpataz zangopetan herensuge gorri baten kalitzen ari -, “Michel Laharrague” amatxiren “osaba Baionakoa”-ren izenarekin (1925-an zendua zen) haren orhoitzapenez omen. *Gaineko eskola* zioten aldiz guziek publiko 'ta laikoari, hau Herriko-Etxean. Auzoko haur batzu, Irigoizartekoak, han ibiltzen ziren eta, hurbil izanak gatik eta batzu gure adinekoak, usu “gainetik” zoazen, Uhaldeko ondo-tik errepidera laburrago baitzuten hek, eta aski guti ginen hortakotz eskolako bidean haiekin guruzatzen.

Hastapenetako urtetarik, eztauta orhoitzapen handirik utzi. Hau ba, alta: laur urtetako (1938-ko urriaren 3-an), han ezarri baininduten, larrazken arratsalde batez uste dut (ala aitzineko Bazko ondotik?), etxean eskolara joanen nintzala erranik, eta ez tut uste batere beldurtu nintzan. Amak lagundurik, ile arinezko laur-kantoineko lits luzedun bat bizkarrean, etxetik abiatu gira eta errepide aldeko “ttipien” eskolako athera heldu. Andere begi zuri batek, gazte oraino (bitxikeriaz izena *Mademoiselle Etchevers* zuen), sarr-arazten gitu agurtuz, eta amarekin bi elhe eginez frantzesez, ezpaitakit andereak euskara bazakienez ere, bere mahi ttipietan, nexkato ala muttiko, ari diren lagun batzuen ondora eremaiten nau; hetan batere ez tuket ezagutzen, ez elhaide hasteko, elizan edo etxean aldi bat edo bertze doi-doi ikusirik baizik. Laur urtetara heltzean, erdarako hitz bakar zenbait baino gehiago eztakigu, etxean beti euskaraz ari baikira, irratiarik ez, telebixtarik are gutiago, ez eta ere 1940-rano eletrikarik ere, erdara ezta entzuten etxekoek elgarri guk jakin gabeko zerbait erran nahi dutenean baizik. Amatxiri entzunik badakit alta kantu hastapen bat edo bertze, hark ere eskolan zabilalarik (1880 inguruan) ikasiak, hau baitzata bakarrik gogoan gelditu: “*Bonjour chère Pauline, comment te portes-tu?...*” eta urrunago “... *couchée sur un grabat, ha-ha, ha-ha...*”; edo gaskoinez errepika bateko hitz motz hau “... *lou peiroton, lou peiroton...*”. Zur eta berinazko arteheskailu eta athe batetik ageri dira bertze sala batean handiagoak, hek nexkatoak bakarrik, mutiko handiak “gaineko eskolan” baitira oraino edo jadanik “bikariaren eskola” berrian, andere lodi ja zahar iduri duen baten aitzinean (izena *Mademoiselle Legor* du ala horrelako zerbait). Eta begiak berriz gibelera itzultzen ditutalarik, amari zerbaiten erraiteko edo, hura ez gehiago ageri, ni han

utzirik joana, egonen zela hura ere hitzemana zatararik alta bietan, eta badakit orduan nigar zenbait begira jin zatala.

Gainerateko arratsaldea, ama edo bertze norbait bila jin arteo, nola iragan zen eztaikit aldiz. Ondoko egun zenbaitez, etxera bazkaltzera ekharri da Ahaizeko etxe bateko nexka ttipi bat, eskolan adixkidetuak girelakotz eta etxe hartako jendekin, lanetako edo bertzela, auzoko bertzeekin baino gehiago gurutzatzen baikira. Eta han badakusat oraino bazkariz, aldi bat edo bertze, gure sukaldeko mahi-aska handiaren harateko aldean, aita eta amatxi beti bezala bi mahi buruetan. Handik hara egun oroz eskolara laguntzen ninduen lehen auzoko nexka ni baino borzpasei urtez zaharragoak. Lehenbiziko aldi horiek eginik, laster gustu hartua dut eskolan, eta hara igortzeko etxean ez tute lanik batere ukan.

...

Ttipien eskola utzirik, “Saint-Michel” handienera joaiten zen, “bikari-errienta”-renera, orduan herriko bikaria baitzen han erakasle, eskola hori eraiki zenetik hara (gure aitaren haurzaroan oraino mutikoendako bakarra “gainekeo eskola” publikoa zen, haren hango liburu bat edo bertze gelditu baitzata hemen). Ukan nuen lehenbiziko erakaslearen izena “Lascanotéguy” zela badakit, Azkaindarra, “gerlan” omen laster galdu zena; baina biziki laket nuela etxean ainitzetan entzunik ere, batere ez tute haren itxurarik gogoan, iduriz gizon gazte luze bat zela orduko aphez guziak bezala bere sotana beltzean ezpada. Eskola hartako azken urteak Iriartegaray-rekin egin ditut. Gizon lodi tipi gorri bat zen orduan, elizan pherediku egile suharra, kantaria ere ustez. Gerla ondoan egun batez (1945?) ukan zuen Akademiako inspektorren ikustaldia: gizon mehar sudur luze bat, xapel hautsaran batekin; errientaren mahian jarri zen, han paper zenbait mihatu, eta joan. Iriartegaray khexu-khexua zen gero, jaun hark “Monsieur” erran baitzaukon, xoil-xoila, eta ez “Monsieur l’abbé”. Ikastetxe guzietan bezala, bazen “*antibasque*” izeneko erregela berde ttipi bat, jostetaldietan eskolako korroilan den ezker-parata ondoan haur zenbait euskaraz hasten bazen emaiten zizakona, eta bazen, “menditarretan” gehienik, nori eman. Erdara laster ikasirik, guti ukan duket nihaurek.

Azken urtetarik batez (1944-45?), urteko besta egin da eskolan, eta antzerti ttipi bat ikas-arazi daukute erdaraz. Ikusgarria nexkatoen eskola handian emaiten da, ordukotz “serorategi” bilakatua eta serorak erakasle 'ta erizain. Bagira bi jokari, Hortz-Iriarteko M. M., ni baino urte bat zaharragoa, hura eria hortzetarik minez, ni sendatzalea, gaiaz bertze hitz bat ezpaitut gogoan, salbu erasian ari girela elgarri, nik hura lehenik oihal zuri batez inguraturik ... Ikusleak han dira, tauladaren behean, herritar eta haurren etxeko, eta erdi-erdian jargia batean ezarria, serorak inguruan, herriko erretora, Chorhy aiphatua, beti zaintsu eta bizi, ondoko urtean, gerla bururatu eta, herritik igorria izan baitzen eta Hazparneko misionestetera baztertua. Iriartegaray-ek liburu zenbaiten zati bat irakurtzen dauku ebiakoitzetan uste dut (gogoan dut eta liburua etxean luzaz atxiki *Trémor aux mains rouges*, Britainian iraultza aroko gerlaz, elizatiar eta erregetiarren aldekoa, nolaz ez!), eta ere kantatu batzuek ikasten. Harekin dut ikasi Probenzako himnoa *Campo santo*, baina frantzesez, hitz gehienak geroztik ahatzi alta (... *des flots si bleus, que l'on croit y voir les cieux, encor' plus radieux! tralala lalalalala ...*), baina ez airea, ederra 'ta alegera, notaz ezarririk pianoko, orai ere joiten baitut artetan...

5. Ihiztorrak

1992-ko hazaroaren zortzia, larrazkena, ihiziko urtaro ...

Igande goiz huntan, hamarrak hirian, erausialde azkar luze batek mahitik jeik-arazi nau, liburuak utzirik: Ahaize aldeko oihan gorrailduetarik joiten zuen Tipireneko leihoetara. Hirurzpalauro tiro ilunek iragan dute ordu berean ibar osoa. Urrun-behatzekoak harturik, gaineko leiho batera igan niz, eta ikusi ditut zuhatzen azpiko maldan, ihiztorrak ibilki eta itzaltzen, beti erausiaka. Buruari eman dut, gehiagokorik jakin gabe, ihizi-aldi zenbait bazatekeela han, mendian berriz usu omen diren basahuntz edo basurden ondotik.

Berantago, beribilen burrumba eta tutek ezeztatu dituzte ihiztorren erausiak; ikusi ditut errepide hertsian lerroan jausten, gizon oiho batzuek ere artetik ageri, ihizi zenbait

hatzemana duketela egin dut. Arratsaldean jakinen dut auzoko arrebaren ganik basahuntz bat hartu dutela.

Ihiztorrak eta ihiztariak Ahaizeko maldetan ...

Gogoratu dautate nunbait, buru zokoan, lo zagon noizpaiteko bertze ihizialdi bat.

Igande goiz batez, etxe aitzineko leihoetara entzun ziren gaitzeko erausialdeak, iguzki-haize batek ekharririk ala, Mugondo aldera bademan Antzaramendiko gain eta Arrabit-lepho arteko mazelatik, iguzki sortaldean. Ikusi nuena ere zerbait, ala bertzek erranik atxiki? urrunera tita zurail andana bat han hemenka othetan ibilki, ihiztorrak; jende itxura zenbait ere, menturaz zaldizko bat haien artean ilunago? Argiago dut etxekoek erran zautatena: Ibarnegaray zela bere ihiztorraldearekin - jakin badut ere gero haren alaba baten ganik bera ihizin beti oinez zela - , Uhartetik, Arradoian gaindi bide aski laburrez Ahaizeko mendietarano jina, basa-ihizi zenbaiti jarraikiz behar bada.

Oraino ttipia niz, sei-zazpi urte gehien gehienik edo gutiago, aitak (edo aitamek?) ereman nuelarik, Donibaneke merkatu egun batez, Mailh-en autobusean egiten zen bidaia (ala gerla demboran burdin-bidez?), orai barreatua den Ibarnegaray-en “Argaba” jauregi ondoan, baratze bazter batean duen zakurtegi handira. Aitak erakusten dauzta han, muga baten gainetik, ihiztor gorri-zurail hek berak, alde guzietara jauzika, erausian, gose amikatuak, bazka ordua baitukeke, eta guti asetzen ihizira ereman aitzin, izitzen ere nauela iduriz nihaur haien mogimendu bizi bortitzak ...

Eta urrunago badoat gogoa ... etxe aitzineko korroilan ikusten baititut, bidearen haraindiko zakurtegitik ekharriak, lehenik ezagutu ditutan ihiztorrak: “Tamela” beltza, ni bezain handi, platanaren ondoan, beharri zabal erori batzu eskuan hartzen dauzkot eta thiratzten hura higitu ez khexatu gabe, hain da maltsoa eta ezta. Eztomba zaharra ari da, bertze aldetik, pompa berriko ziloaren barnatzen (hamabortz metretara jautsi zela jakin dut geroztik uraren hatzemaiteko), eta hark barnetik oihu eginik, soka bat errota baten inguruan eskuaz itzulikatuz jalgitzen dute, bertz handi baten barnean zutik, ura goititzen ari

dela baitio. Geroztik, herriko ura jin arteo, gaina mahats adar eta mulko itxura batzuekin duen pompa hartarik, burdinazko errota handi bat eskuaz itzulikatuz, hartu da etxeo ura, batzuetan auzo zenbaitena ere.

Gero sortu ziren Tamelaren bi umeak, oilategi azpiko ala etxe gibelean zen sabaiko etzangian. Etxean egon ziren luzaz, aita atxiki dituzkeen azken zakurretarik: “Tambour”, ama bezain beltza, meharrago eta zaintsu alta, arra, gutienik iraun zuena, eta “Fleuri” Ibarregaray-en ihiztorrak bezala zuri-gorrail titakatua, emea hau, jostakina eta eroago; haren ume zenbait zatekeen atxiki gero zenbait urtez, aita eriturik ihizia utzi arteo. Horiekin guziekin, aitatxiri, aitari, anaiari ihizia gustatzen zitzeen bezain guti egin zata eni, ezpaitut, dakitanez, tirorik egin, soldadogoan salbu, ez eta etxeo harmetarik bat aldi bakar batez baizik hartu ...

Bazkaltzean gauza horiek aipatu ditut etxeoekin, baina oro biziki gazteago dira hemen egun, eta nehorik eztezake urte hetako orhoitzapenik ukan.

6. Errebolbera

Haur-haurrean, arreba sortu zelarik 1936-an, ezarri ninduten “amatxiren gambaran” (“etxeo amatxi”, aitaren amaren ahizpa gaztena). Harresi lodien artean ttipia zen, etxe gorako barne gehienak bezala, athearen eta bide aldera bere harri gorrien artean idekitzen zen leihoa ezpada, mublez bete-betea: ohe gainean oraino hastapenean “zerua”, hartarik dilindan ohe inguratzen eta gauaz hesten zuten erridauekin (eztaikit bazenez ere bertze gambaretan: baina gerla aitzinttoan ekhendu ziren hirurzpalaurekin ikusi ditut berantago etxeo “ganer ttipi” zoko batean metatuak, han egon baitira luzaz), oheburukoa “ohazpi-koarekin” barnean, harmairu gora bat oihaleriaz bete, bi kadera, jargia handi bat, ikuzteko mahia bere miraila biribil ttipiarekin, guziak zur gorri-ilunez ezkoz dirdiran, gainean miraila handi bat murruan itzatua, bi aldetan San Josepe eta Andredona Marien marrazki handi batzu berinapean eta zur beltz aski lodiz inguratuak laur kantoineko luzean; azpian bi mahi ttipi elgarren ondoan oihal xuriz eta dentelaz lurrerano “jantziak”, aldare

moldean, eta gainean zituzten gauzetan, iratzar-oren handi biribil bat gainetik xapel moldeko bi ezquila burdin-horizkoekin, iratzar-tzeko “tirrintarekin” oren guziak eta erdiak joiten baitzituen (noizpait gero, gelditurik, ideki dut, mihasu, azkena hautsi ere, orenetan “afizione” handia baitut ttipi-ttipitik), ezko argia bere xare ihi margoztatuzkoan; ezkerreko izkina athe berinadun batek hesten duen erakustoki batek hartzen du, paper xurailez estalia den gaineko tronadurarano luze, tauletan ikusten zazko gurutze beltz bat punttak hexur xuriz eta hango beila zenbaitetik ekharri bizpahirur igelsuzko Lurdeko Amabirjina gerriko urdin luze bat beheiti oinetarano, bat aski handia, heien ondoan bi porzelana finezko untxi margoztatuak lili urreztatu falsuekin, bi zilharrezko kandelabre, untxi batean Ohorezko Legioko gurutze bat, 14-ko gerlan soldado eriturik hogeitun urtetan hil zen eta ezagutu ez tuta osaba batena uste dutanaz: murrutan diren argazkietan da osaba hura bera (“gure Beñat zena” zion amatxik hura erakutsiz) aphezgai sotana beltzean eta liburu bat eskuan; han ere amatxi bere senarrarekin (Jean Oyhenart, Amikuztarra, 1896-an ezkondu aitzin hura ere Argen-tinan egona) igandeko eta agian bere ezkontzeko jantzietan, dilindan zurezko bi edergailu ttipi orein adar luze batzu hetan zizelkatuak, gainean zerbait puxkilen ezartzeko eginak baina, uste dut, hutsak orduan, ohe aldeko paratan berina baten azpian zur beltzez inguratuak aitasaindu guzien itxurak, hirurzpalaurren lerrotan tinki-tinkia eta kolorezkoak, Jondoni-Petritik Leon XIII-garre-nerano.

Baina ohargarriena, “gaineko salatik” athea ideki orduko ikusten zena, ohe-zur gorraire landuaren gainean gora, azken gapirioan itzaturik dilindan, nor nahiren eskupetik aski urrun eta haurrenetarik bereziki, “kargatua” baitzen, nahiz orduan enakien batere zer zen, erhautsez bezala zuraildua, eta usu erramu aldaxka bat gainetik ezarria, “errebolbera” zen.

Gero, apur bat ni handitua orduko, handik ekhendu zelarik eta harmairu zenbaitetan “alxatu”, jakin dut zer zen gauza bitxi eta hits hura, bertze gauzen erdian eder baino itsusiago iduritzen zizatana. Amatxi etxean luzaz bakarrik egona zen, 1925-an ama eta senarra galdu zituenetik, aitamak hara ezkondu arteo 1932-an, gure aita bere iloba gaztena Iriberrigaraitik Irigoizbehereko ondoko eginik. Egunaz lanera jiten zizakon auzotik “Frantxix” (gutarik nehork eztu ezagutu,

usu aiphatzen entzun bakarrik), baina, egunaz Iriberrigaraitik eta batzuetan Baionako jendakiatik ikustera usu jinik ere, gauaz nehor etzen gehienetan etxean. Amatxi ezpazen batere emazte beldurtia, zer gerta ere, errebolbera hori, senarrak edo Argentinako jendakia zenbaitek ekharririk, ezarria zuen ohe gainean kargaturik, baliagarri baino gehiago, menturaz, bakartasuneko sokorri. Gerla jin zenean eta Alemanak, etxetako harmak debekatu zirenean, errebolbera hura gorde zen, bere ihiziko harma ere aitak norapait ereman zuen; urte zenbait berantago ikusi ginuen, Alemanak herritik joan orduko, harma eskuan aldaxka batzuez erdi gorderik etxera berriz ekhartzen.

Errebolbera zaharra berriz aurkitu dut gero, burdin zurizko untzi erdi-herdoildu batean hetsirik: egia erran baziren han biga, delako amatxiren gambarakoa, bere itxura hitsean aski higatua eta aski gotorra, eta bertze bat ttipiago eta berriagoa, eskupeko beltza oraino dirdiran, kanoia meharrago, eta ondoan berunezko bala batzu phizu-phizuak: orhoit niz noizpait biziki berantago garbitu nituela, baina bala zahar hek besagainka etxe behereko erre kara urrun bota (ohartu niz geroztik bizpahirur supizteko untxi batean gelditu direla), nehor etzadin heiekin jostatzer a bia. Eta azkenean enekin hunara ekharri ditut bi errebolbera debaldekoak, gambarako komodaren gainean ezarri, edergailu baino gehiago, ederrik ezpaitute eta bereziki ohe gaineko zahartu harek, ikusten dituenarendako gauza bitxiak; baina enetako urte urrundu iraganen lekuko ixil.

Eta artetan hartzen ditut, eskuztatzen, ez balinba lehenagoko Argentin ar hek bezala, edo amatxik bezala, biziaren zain, baina, bere hutsean, balaz ezpada ere, “beteak” baitzazta oraino,

iduri batzuen hatz arinaz,
iragan aroaz,
lehenagoko jenden izaite hunkigarriaz,
sendimenduz ere eta bihotz-min iduriko zerbaitez...

(1991-ko agorrilaren 19 huntan, gauerdi ’t’erditan)

7. Supazterrean

Ilun da jadanik, larrazken-neguetako eguna labur, oren “zahar” edo “iguzki-orena” diotenean baikira. Supazterrak du sukaldea gehienik argitzen, eta han gaude auhal-ondo suaren inguruan jarriak. Mahi izkinan burdin-horizko gandelabre bateko ezko xuria phiztu da, edo metale bereko “petrola” lampa bat garra khetan usaindua, noiz ere “moda” jin denean “garburako” argi lodi bat, burdin-horizko bi untzi biribil gain-behera elgarri lotuak, argi xuri-urdin bat xut-xuta (eletrika 1940-an ekharr-araziko du aitak etxerano). Aireak, athe beti zabaletik, khearen gatik ala etxearen berotzeko, itzal batzu jauzarazten ditu murrugisuz xuritueta, suko garrek, zartaka, aldizka phizten eta ezeztatzen dituztela.

Gizonak ere sartuak dira lanetik, eta auhal-orduan solasean ari, aita bere mahi buruko lekuan, langileak, bizpahirur, Menttaren-bordatik jautsiak behar bada, urrunxago, supazterrera erdi-itzuliak, hetan Laurentz (izena gogoan badut, gaizki dakusat orai zer gizon zen, hau salbu: etxean biziki pherestua eta langilea zadukatela, eta hortakotz estimatzen), nitaz mintzo zee aitamer, diola, eta nihaurez gogoan atxiki dutan hitz bakarra da: “haur hunek begi eztiak ditu” ... Khebide zabalaren ezkerreko izkinara jarria da, bizkarra harrizko xurruta zaharrari, eta han ama edo amatxi erdi ilunbean, ferreteta batetik *kaneta*z ur hartzen.

Eta han badakusat oraino ene burua bertze iluntxe berdinean batez, guretako jadanik auhal-ondo uste dut, argi horail ahuletan jendeak doi-doia ageri. Supazterreko *metale* izkinan jarria niz ttipian usu egiten ginen bezala, bizkarrak suari, eta beha gaude amatxiri, Baionatik burdin-bidez itzulirik (ala handik ekharria duten, hemen urte zenbait lehenagoko argazki zahar batean, etxe sahetsean gaina idekirik eta gidaria bere kaxketa buruan bidatzeko “bolanta” eskuetan, ikusten dutan beribilean?), etxean sartu berria baita, hiriko jantzietan, han Baionako bere gusien ikustetik: 1937-ko ephailaren hogeita-zortzian hila zizakon izaba, Jeanne Laharrague Villa Pia-ko anderea, Bazko egunaz “katedrale aitzinean meztatik atheratzean” erraiten zaukun, eta urtaburuko zeremonian izanik heldu dateke, 1938-an ala 39-an. Badabila sukaldean hara 'ta hunara hango berri

emaiten edo bidaiaz, alharguntsako jantzi beltzetan beti bezala, bizkarretik lepoko listun bat beltza ere (neguan ikusi daukogu bakarrik axeri larru handi gorri bat lepho-bizkarren inguruan, edo meharragoko ttipi bat, erhiaz hunkitzen baitauzkot berinazko begi ttipi hotz batzu), eskuan datxikala oraino larruzko zaku ttipia. Suak dirdirutzen dauzko uhal ttipi batez estekan diren oinetako beltzen puntak, aztal ttipiez “tank” eta “tank” egiten dutela sukalde zolako zuretan; aita eta ama hari beha eta artetan galdeka. Batzuetan gelditzen da, esku ezkerrean larruzko zakua, bertzea untzitegi-harmairu gainera emanez. “Baxerategi” handi hura noizpait han sartzeko neurrian egina zuketzen, sukaldeko murre osoa hartzen baitu gainerano athearen eta xurrutaren artean: “Ortzaizeko ederrena Gahardu Irigoinekoarekin” zion amatxik. Baditu laur tiradera eta laur athe, bi aldetan harmairuak mehe eta gora, guzia gerezi zur gorritz zizelkatua, orsto-adar, izar, iguzki eta lore, iguzki-saindu eta bertze, ja higatua alta azpitik, atheak gaizki hesten (gerla ondoan, antolatzalerik herrian ezin ukanez edo, ekhenduko da, zorigaitzez, eta berri ttipi itsusi batek ordainduko du zenbait urtez...). Athe gainean ezarriak dira, eskuko zur biribil motz leuna dirdiran eta burdinazko eztena taula baten xiloetan sartua, lerro-lerro xutik, liho pilota bat ondoan, lehenago iruteko erabiltzen ziren ardatzak, hek ere zur gorritzkoak, bi mahi-askak eta kaderak bezala. Eta guk galdeginik amatxik erakutsi dauku zenbait aldiz nola, behatzaren eta bi erhien artean indar emanik, airera igortzen ziren itzulikatuz hariaren biltzeko.

(Ez bakarrik baxerategia, baina hango bertze muble guziak, higaturik edo gauzak berritu nahiz, lekuz aldatu ziren, eta gehienak galdu: aska zaharra, aita laur izkina zorrotzak moztuak baitzauzkon buruaz joiten nituelakotz, ardatzak, khebide ondoan zen *furnero* beltza burdin-horiz eta gorritzko edergailuekin, eta zurezko kadera noizpaitekoak, nahiz azkarrak oraino: beharrian atxiki dut luzaz hetarik batek egiten zuen kurrinka, jostatzeko indar guziez itzulikatzen nauzkolarik, ni xutik bezain gora, bizkarraldeko ziri torneatu eskupean leun-leunak...)

Ohera joan aitzin, eta oraino urteak berantago, amatxik guzier kaderak itzul-aratzen dauzku su aldera, han khebideko taulan, gandelabre hori lerroaren artean gora diren “kurutzefika”-ra - bat bazen ere ur benedikatuarekin sukaldeko

athe ezkerrean, goizetan sartzean eta arratsetan jalgitzean amatxi beti zeinatzen baitzen elizan bezala - eta orai ahatzia dutan bertze erlisionekeo gauza zenbaitetara, porzellanazko Andredona-Maria zuri bat ustez: han erran behar ditugu euskaraz (zenbait ere latinez ote?) gora-gora “arratseko othoitzak”, gu hortaz ja doi bat enhoatuak alta eta begiak beheiti, iraungitzera doan suko itxindi gorrietan lotuak. Aita da bakarrik bere zurezko kaderan jarririk egoiten (amak erraiten dauku artetan Arrosara ezkondua zen aitaren arreba “Leonie”-ren etxean, “Kalonjarenean”, bestetako joanak ziren egun batez, “arratseko othoitzeko” han guziak buruhastu eta belhaurikatu zirelarik, aita bakarrik etzela egin, eta hango etxeko andere zahar biziki biphil eta “debotak”, etxearen izenak manatzen zuen bezala, erran zaukola amari: “Oizu, zure senarrak eztitu galtzak belhaunikatuz higatuko!”).

Gero bakotxa, guk “Jinkuatiziela gauhon” erranik erakatsia daukuten bezala, gandelabre bati ezko argia phiztu eta eskuan harturik, gambaretara igaiten da; itxindiak hautsaz estali dira, sua azpian bizi egon dadin gau guzian, biharamun goizean lehenik - bide haraindian den oilategitik entzunen den “oilarraren kukurrukuko” - jeiki denak berriz errex phiztuko baitu.

8. “Gainekeo salan” Italiako errege

Lehenagoko etxe gehienek badute “gainekeo sala”. Ezkaratzaren gaina hartzen du gure etxearen luzetasun osoan, lehen estaiako gambarak hara idekitzen dira, etxe aitzineko “galera” ere athe-leiho hertsia batetin ezkaratzekoa bezala bi zatietan: azpian taulazko athea eta gainean berina erridau xuri zilokatu batekin, neguan hetsiak “haize hotzaren” gatik. Lehen estaiara heldu orduko ezker athe batek hesten du ere, azpian gatu-zirrito bat salbu, bihitegietara eta bigarren eztaiko gambaretara deraman mailalde ilun bat, hau ere salara taulaz hetsia, athe ‘ta taula guziak thindu urdin hitsez orduan etxe gehienetan zen bezala. Etxe zahar gora eta hertsian gainekeo sala berdin zen, zabal baino biziki luzeago, erdi-ilun arratsaldetako, galeriara idekitzen zen athe-leihoa, erdi-aroko argamasen artetik, ezpaitzen goizeko iguzkitik baizik argitzen eta berotzen (“aitzine-

ko gambarako” khebidea paper lilikatuzko taula batez hetsia egoiten da eta nehoiz eztut phizturik ikusi).

Badu aspaldi han ziren gauza gehienak bota, erre, ala higaturik eta bipiaturik “ganer” zoko batera ereman eta erhaustu direla. Alta, han orduan bizi ziren jendeak gau batzuez ametsetara bezala, heldu zazta berriz, bere ilunbetik, gogora, bat-bedera han bere ohiko lekuan, betierekoan (orhoitaren betierekotasuna), galeriako 'ta gambaretako athen artean, gapirio luze horailez margolatuen azpian:

behereko mailetarik atheratzean gibelego harresi lodi itsuari goiti (ezta mendebalera idekia behereko eta bihitegiko zirrito batzuez baizik), ikusten da, sahets ezkerreko murruari gora airean lotua, etxea alde hartara luzatu baino lehen noizpait kampa emaiten zuena beraz, harrizko xurrutategi handi bat, lehengo bizitegi eta bizidun ahatzien lekuko (geroztik barreatu eta ekhendu zen); aitamengambarako athe ondoan eskunetik arteka hertsu batean bi khutxa zaharrak bat bertzearen ondoan; lehenbiziko khutxaren izkinan utzia zen paper bat harturik, doi-doia ordukotz irakurtzen hasia, orhoit niz ikusi nuela gogoan atxiki dutan lehenbiziko urtea: 1939 ...

berehala han bazen, aitamengambarako athearen eta urrunago amatxirenaren artean, erloi handia ziri batez gainean gapirio bati lotua, eta haren ondo-ondoan, amatxiren gambarako atheari hurbil, oihal denteladun zuri bat gainetik, manka: gako-sartzea gainaldean burdin-hori marteilatuzko xori batek egiten zaukon, hegalak labur eta zabal (Ortzaizeko harmetako arranoa agian), haren azpian bi lanho adar zurean zizelkatuak; behereko aldean berriz ageri zen iguzkia, bertze bi hedoi adar goiti bihurtuen erdian, guzia XVIII-garren mendeko lana gero ikasi nuen bezala, zura amatxik noiztenka ezkoztatzearen bortxaz ilhundua;

ezkerretik, bihitegirako mailen azpian, gaina burdinazko uztai batzuez inguratua, estalgiaren bizkarra goiti biribil, bidaietako mala bat, burdin-horizko itzeak inguruan oraino dirdiran, oihaleria arin batzuez betea eta hetaz bezainbat, Argentinara edo Parisera (amatxik baitzion han zela 1900-ko “esposisionetan”) eginak zituen bidaien orhoitzapenez; guti behatzen zizakon malaren ondoan irinaren garbitzeko jateko

egunen bezperan harrabots handitan eskuaz itzulika-arazten zen bi athekilako bahe-harmairu zur-zurizko handi, gora eta phizuari; gerezizko mahi luze bat leiho aitzinean, oihal gorri luzera marratu batez estalia, zangoetarik apur bat kilika ordukotz (zur batzu itzatuz azkartu behar izan zen); negu batez gainean ikusi ginakon azeri eder bat aitak ihizitik ekharria, ile gorraila harro-harro, punttetan zilhar-beltzez hunkia bezala, pherekatzean hain goxo! bertzaldetik bazen ere zur berezko mahi ttipi bat, eskolako lanak han egiten ziren, eginak ere lehenagokoek, zurean zituen ankre ubelezko tita ilun batzuek erakusten zutenaz; inguruan ihizko kadera apha batzu, ziriak eta bizkarreko zur mehe biribilki landuak gorraile arin histu batez, ziritako erhaztunak beltzez, ihia gatuen aztaparrek azpitik xehatzen hasia, jar-lekuan hingatua egonaren bortxaz.

Mahi gainera sahetseko gapiriotik dilindan zauden, nork daki nola eta nundik etxerano jinak, edergailu bezala: Veneziako lanterna bat paper ixurkatua urdin eta hori, bertze bat hori eta xurail, zahagi irin kolore bat laur-kantoin josia eta hampatua; ezkinakien orduan aitak hartan zituela ihiziko bolbora, berun xehe, kartuxa egiteko eta bertze, gero gehienak behereko salako untxi batera ekharri zirenak.

Murruetan ziren alta, begiekin gogoa, jakin-nahia, gehienik beregana biltzen zituzten gauzak: athe-leihoaren eskunean mirail ttipi bat (XVII-garren mendetik gelditua zela biziki berantago jakin zen), inguruko zur lodi zabal zizelkatuaren urreadura berina bezain histua, goregi itzatua guretako, adinekoen begitarte heinean, ezpaitzuen erakusten, beheragotik, haurren heinetik, lano batean bezala, gaineko gapirio horail eta tronadura zati zenbait baizik;

ondoan, hura hertsu eta ttipi bezain zabal, kadre beltz handi bat, berinapean amatxik ezarriak zituen bere jendakiako argazkiz betea, batzu bertzeak bano ttipiago, ja zahartuak, hetan Argentinako jende batzu, aiphamenez baizik ezagutzen ezkinituenak, uda hastean etxera ikustaldiz jiten zen bat edo bertze ezpada: amatxiren haurride, iloba, ahaide, gure Iriberriko osabak gaztean hara joan aitzin, nextato batzu komunione handiko arropetan belhauriko, zaia-mantalinen uhain xurietan urtuak bezala, haur ttipi batzu erdi buluzirik hartuak

buhurdiko handi batzuen gainean jarriak edo sabela beheiti etzanik, gizon bizar eta muztaztunak floka lephoan, andere zenbait aireztagilua eskuan, familia osoak (Leon Bereterbide amaxiren lehen gusia etxeko gizon zenbaitekin ihizitik zaldiz bere “La Helena” eztanziara heltzen ari, ihiztorrak inguruan, atharian emaztea haren aiduru jina: argazki hura etxean gelditua da).

Ezkerreko harresian mahi luzearen gainaldean bazen kadre beltz ttipiago bat bakarrik, goizeko iguzkiaren inharretan dirdiran, barneko jendeak zola horail ezkoztatu batean bezala urre-kolore, eta hortako zituzketen begiak eta soa nahitez bereganatzen, iduri baitzuten barne hartarik jalgitzera zoazela, laur jaun-andere, papoa eta burua baizik ez ageri, elgarren ondoan bilduak aphaindura bitxi batzuez estalirik, ikusleari beha bezala eta haren baitan ikusi-nahi beldurti bat phizten baitzuten: bi andere, bat gazte eta eder, perla lerroak lepho inguruan, hortzak xuri-xuria, erdi irriz, ileak goiti ixurkatuak perlak inguruan ere uste dut, bertzea adinekoa eta gutiago ageri; bi jaun, bat behean andere gaztearen ondoan, hura bezain gazte eta aphaïn, baina bertzea, ohargarriena, guzien gainetik, begi zuri harmatu batzu zabal, biphil, bere lardarian atheratzera bezala, muztatz hori luze batzu bi aldetara, punttak goiti bihurdukatuak, papoa medail eta xingoletan; irakurtzen hasi baino lehen baginakien amaxiri galdeginik *Italiako errege* zela familiarekin.

Irakurtzen hasirik behin baino gehiagotan nahi ukan dut jenden azpiko xingola batzuetan hizki larriz ezarriak ziren hitzek zer zioten jakin: andere adineko haren izena (erregina zen) eztut batere gogoan, baina bazen *Umberto*, gizon gazte hura uste dut, eta argienik gelditu zatana, andere eder haren izena bertzeak bezala xingolan *Principesa Margharita*; eta bitxi zizatan zer gatik zuen guk ez erdaran ez euskaran (baginuen “Margaita” izaba bat) ezagutzen ezkinuen *gh* hori, uste bainuen izkiriatzean norbaitek huts egina zukeela; eta berdin gaineko muztaztun begi harmatuaren azpiko xingolan *RE D’ITALIA*, izena ilunago bazauta ere orai (*Vittore-Emanuele III* ene ustez): hitz bitxiak eta molde bitxitan, erdi ezagunak bezala, baina arrotz hala ere... Eta horra zer moldez irakurtzen nuen, gaineko salan, bazela ere jakin gabe, hizkuntza aldi berean hurbil eta urrun bat, italianoa.

Ikasi ginuen amatxik erranik gaineko salara nundik jina zen Italiako erregeren familia. XIX-garren mende ondarrera Tipirena etxe hunen jabe bakarra (gaineko Tipirenborda 1847-ko bere lurrekin anai-arreben arteko berexkuntzetarik landa saldua zen), bere izenaz “Gracieuse Tipi”, bizi gehiena Hego-Amerikan eremanik, Uruguaiian uste dut, Italiako embaxadore edo konsul zenbaitekin entzutera emaiten zaukutenaz, Tipirenera erretiratu zen, berekin ekharriz, zion amatxik, sehi bat, pianoa (orai Harizmendian dena: 1850 inguruko Debain ttipi bat) eta perruketa: *Coco lindo*, *Coco feo* españolez erraiten ikasia zuen amatxik haurrean, hemengo mahastira jiten zirenean eta perruketa mintzarazi nahi zutenean. Anderea (Orzaiztar zenbaiti erraiten entzun dut “Kondesa” ziotela batzuek, den gutieneko arrazoinik gabe, amatxiri entzun daukot bakarrik "Madama Tipi"), amatxiren gusi ordukotz urrundua, hil zenean “supituki” zioten, “sorgin” edo bederen “karta thiratzale” baten aipamenarekin omen, haren mubleak saldu ziren (pianoa Harizmendira), eta etxera ereman zirenetan delako Italiako erregeren familia, behar bada ere amatxi-ren gambarako aitasaindu lerroa. Gero (1905) amatxik eta Jean Oyhénart haren senarrak etxe hau erosi zuten gelditzen zizazkon 7 hektara lurrekin, eta geroztik luzaz hemen etxetiar “ttipia” (handia Borddan zen) edo alokaria atxiki da 1970 urtetarano.

9. Oto gorria eta ahozko musika

Baserriko haurrek jostagailu guti ukaiten zuten gerla aitzinean; eta behar guti zuten ere, mutikoak hasteko, behin etxetik jalgirik eskolan abiatuz geroz, nahitara jostatzen baitziren auzoko lagunekin, eta baginituen hurbil horietan biziki trebeak, baitzakiten berek eskuz eta ganibet ttipi batez xixtu egiten ziri hezen azalak hustuz eta hek xilokatuz, gure ur-erreka ttipian berdin ziriekin eihera ttipi batzuen moldatzen, bi xarde lurrean sartuen gainean ur lasterrak itzulika-arazten baitzuen, edo behin trebatuz geroz zuhaztetara igaiten han xori kafiren mihatzeko...

Badakit alta etxean berean, hetara “afizione” handia bainuen, etxekoek zioten bezala, emaiten zizaztala muntra, iratzar-oren eta holako; ahal bezainbat ideki behar

nituen, mihatu, eta hausteko lanjer handitan zirelakotz, hobere-
renak, behin eskuan atxikiz geroz, guti uzten zizaztan. Hala
gertatu zen goiz iguzkitsu batez: lorian nindagon ezkaratzeko
mailalde beherean jarria, esku-etan nerabilala, bere untxi berde
arinean, amatxiren harmairuko sakeloren ederrena, sakelatik
dinlindan atxikitzeo gatina bezala zilharrezkoa, kadrana urrez
aphaindua, orai hemen berina-pean ikusten dutana begietara beti
bezain eder (alzeiru urdinezko orratz handia hautsi eta gero
berritu behar ukan baitut), baina orduan hainbertzetan gutiziatua
nuena behin ere eskuetan luzaz atxiki ahal ukan gabe (amatxiren
senar Jean Oyhenart harena omen). Jaun bat ethorri zen orduan,
Irisarriko Mendy medikua, zaldia atheo erhaztunean estekaturik
sartu, eta aitak eta biek gaineko salara ereman ninduten, amatxi
aitzinean etzela jeus izanen errranetz, “amidalak” ekhendtu behar
baitzizaztan, azki goiz ohartu nintzan bezala. Ama ikusi nuen
baratze aldera abiatzen, ene oihuen beldurrez gero jakin nuenaz
... eta mihise batez tinki-tinkia ingu-ratu ninduten, medikuak
bere burdinazko tresna bitxia eskuan eni ahoa idekirik atxikiz...
Berantxago, zintzurra oraino minbera, badakusat neure burua
aitamen gambarako ohe handiaren erdi-erdian ezarria, beti ene
muntra eskuan eta hari beha, medikua ere han eni mintzo zuen
ohiko molde aski idorrean (“sagar bat oso-osoa iretsiko duk
orai”), eta nik hari, uste dut, hortaz irri egiteko orde, ahal dutan
hitz txarrena (euskaraz ala erdaraz? eskolan abiatua nintzana
ordukotz? eztut alta uste...)

Bertze jostagailu guti ukan dut, orhoitean, eta
guti naute ere jostatu. Bat ikusten dut bizkitartean oraino:
Baionako amatxiren gusiek igorri zauzkuten, urthats bateko, eni
lehenbizikoetarik ikusi dutan oto ttipi bat, eta arreba gazteagoari
bera bezain handiko “pupe” bat (auzoko neska handiago batekin
laster andeatu zuten, amatxiren erasietan). Gure etxe ondorano,
bide zut eta oraino gaixtotik, beribil guti agertzen zen gerla
aitzinean, noiztenka Argentinako jendakia zenbaiten ikustaldietan
ezpada, Horzako plazara jausten ginen bakarretan biziki guti
ikusten zen ere: bizpahirur bazirena ere orotara herrian?

Ukana nuen oto gorri hura halako bitxikeria
bat zizatan beraz, eta ezpanuen ere mekanikeriara ixuririk batere,
ez geroztik ere gehiago, pollita zen: kattalin gorri handitu baten
molde biribilean, gako zilhar-kolore batez muntatzen zen sahe-

tseko xilho batetik, eta harrabots arin bat eginez bazoan zuzen zenbait urhatsetan, sukaldeko, salako ala ezkaratzeko zolan harresietan jo eta gelditu arteo, barneko uhal tinkiaren indarra galdurik. Jokoa beti berdina eta laster enhoagarri, lehenbiziko egunetarik hara guti erabili nuen azkenean, hartako baitzukeen ere luzaz iraun.

Ondoko urthats bateko, Baionako gusi berak etxera ethorri ziren ala gu hara joan ginen aldi batez, galdegin-arazi zautaten zer jostagailu nahi nuen. Badakit amak erran zauela orduan, musikan nuen gustu bizia ikusiz, eta etxean, gure kantuak salbu, musikako tresnarik ezpaitzen, “piano ttipi bat” nahiko nuela. Biziki berantago ukan dut etxean egiazko piano bat, Iriberrigaraiko aitatzik erosi zautana, eta nihaur ordukotz piano joiten aski aitzinatua. Paper pollitez estalia zen untzi ttipixko bat ethorri zen goiz batez Baionatik igorria “Beñat piatunak” ekharririk etxera, idekitzean erran baitzautaten hura zela ene “pianoa”, eta ene ametsa hartan erori zen. Gerla ordukotz hasia zen, Baionako gusiek, aberatsak izanik ere, baina ontasun gehienak Argentinan, igorri zautatena etzen ahozko musika bat baizik.

Erabili nuen alta berehala, zuen soinua ederra zizatan eta elizako harmonium haren idurikoa. Laster hasi nintzan aire emaiten, ordukotz ikasia ginuen euskarazko kantu andana bat, etxean aitari bereziki, zenbait ere elizakoetan, batzu jadanik erdarazkoak eskolatik ekharriak (Petain-en urtetako ikastetxe katolikoetan erakasten ari zirenak); emaiten nituen “bi bozetan”, kantatzean orduan beti egiten zen bezala, gauza errexat “tierzan” hatsaz aldian bi nota jo-araziz, gero mihiaren jokoaz baliatuz eta “harmonia” apur bat aberastuz. Pianoaren eta egiazko musikaren ordua jin zenean, gerla ondoan urte zenbait berantago, musikatik zerbait ikasia nuen, eta etxean ziren elizako liburu notadun batzuer behatzearen bortxaz, behin ere bertze moldez ikasi gabe, hasia nintzan, ahozko musikari eta kantuari esker, musikaren irakurtzen.

0. Aitzineko gambaran

Zergatik heldu ote zata gogora, jorraileko goiz huntan, lotik atheratzean, haurrean zenbait urthez ukan ginuen gambara? Ala amets zenbaiten hatza da, ezeztatu denean gogo argian gelditua? Zeri lotua den, ingurumen huntan, asma badezaket ere, erran-nahi berezi eta zuzenik ezin dezoket ikus; eztute ere han ereman gauek, ez gehiago han ziren gauza 'ta edergailuek, izen hau har badezakete, gogoan atxikiak izaiteko arrazoin berezi handirik. Atsegin dut, alta, jauziz bezala, gogoz hetara itzultzea, hitzetan berriz hemen ezarriz zerbait moldez berphizten baitira.

“Aitzineko gambara” erraiten zizakon, zuen leiho bakarrak, noizpait lehenagokotik argamasen artean ttipitua izanik gainean zureko zizeldurek erakusten zuten bezala, galeriara eta etxe aitzinera emaiten baitzuen, aldiz bertzek, harri gorritzko leiho batzuetarik, etxea luzatzen zuen bidearen gainetik hegoaldera. Ezkaratz gibelesko mailetarik goiti athera eta, gaineko sala guzia iragaiten zen hara heltzeko: barne luze bat aski hertsia eta iluna, azpian zuen sukaldea bezain handi, haurren gambara izan zena zenbait urtez.

Khebide bat bazuen, berriturik izana zen murre-etako gorri 'ta xuria baino ilunagoko paper lilikatu batez estali taula batek hetsirik atxikitzen zuena. Amatzik zion haren aitaxi-amatzia (Michel Laharrague 1797-ean Irigoizgaraiko "premu" sortua, eta Agnès Erramouspé Baigorriarra) azken urtetan, adin handitan, han etzaten zirela. Nahiz eztutan han surik egiten ikusi, bazituen bere su-burdinak eta saloinetako hausko landu bat pollita (noizpait erretzetik etxeko bertze leku batean salbaturik hemen dut oraino): bazterretako larru muskerrez thindatua ixurduetan ja higatua, ufatzeko puntta luze bat burdin-horian landua, inguruan itzeak berdin, gure etxean baino hobeki ikusiko baitzen aitzineko mendeko andere “krinolinadun” zenbaiten eskuetan.

Khebidearen ingurua hartzen zuen gaineko taulan gauza batzu ezarriak ziren, edergailu ala othoitzeko: opalina urdinezko lore untzi bat, bertze biga handiak, hek opalina zuriz eta lore batzu gainean margo beltzaranez (amatzik han ezartzen zituen larrazkenetan lili xuri idortu batzu, ilargi-loreak

eta erdara arrun-tean “monnaie du pape” diotenak, “physalis” izeneko - eta euskaraz "xauruzte" - landarearen pumpula gorri ala hori berdin idortuez artekatuak), berinazko bi ezko argi ixurkatuak eta barnetik zilhar-kolore, lore-untzi luze bat berina lodi urdinez inguruan bi gerezi gorri eder eta aldaxka batez aphaindua, gurutze handi beltz bat hirur punttetan hexurrezko botoin xuri batzuekin; eta, erdi-erdian, Argentinatik noizpait ekharria, delako amatxiren aitatzik hara joanik 1849-an Orzaiztar lehenbizikoetarik (hogei bat urte lehenago abiatuak ziren hara joaiten) han egina zuen egonaldiaren orhoitzapen, Lujan-go Andredona-Maria ttipitto bat, urre-korona gotor bat buruan, azpiko zaia xuriaren gainetik soineko urdin handi bat bazterretara hegalak zabal, urre-izpiz dirdiran, oinetan ilargi adarra zilhar kolore. Handik ekharria zatekeen ere argazki biltzeko liburu ttipi lodi bat, edergailu batzu ordukotz galduak, baina balusa ubelez estalia, burdin-horizko heskailu landuak, inguruak eta estalian lore moldeko itze batzu berdin.

Barnearen bi buruetan baziren bi ohe bakoitza oheburu gainean ur benedikatu untziarekin (amatxik ur hura noiztenka berritzen zuen), orduan ohi zen moldean, etzatean ala atzartzean zeinatzeko: bat barneko zokoan gerezizkoa aski aphil eta zabal, han etzana izanik ezpainiz batere orhoit, bertzea doi bat gorago eta hertsiago, zur horiz, artetan aphaindura beltz mehe batzuekin, leihoaren ondoan eta khebidearen aitzinean, han etzan bainiz zenbait urtez, gaineko gambarara joan artean. Neguan estalgien gainetik emaiten zen, erdi berogailu, erdi edergailu, hek ere Argentinatik ekharriak ziren “pontxo” hetarik, buruaren sartzeko zilhoa josirik, bat aski iluna ile tinkiz eta dena laur-kantoineko margo xehez titatua, bazterrak oihal beltzez josiak, bertze bat ile latzez, xuraila, luzara gorrailez marratua, bazterretan lits luze batzuekin. Bi ohen artean baziren alde batetik mahi ttipi bat, gerezizko manka bat, noizpait idekirik oihalen artean ikusi baiginaukon eta eskuztatu gizonen “lephoko falsu” andana bat hari batez estekan, batzu xuri bertzeak marratu, amidunaz gogor-gogorak eta dirdiran, lehenagoko jaunen aphaindurak, bidaia ala bestaburu 'ta zeremonietako; bertze aldetik harmairu handi itxuraz aski murriz bat, intzaurrezkoa, zangoak biribil landuak XIX-garren mende hastapeneko moldean, azpian tiradera batekin; hau ere ideki zen egun batez,

eta ikusi ziren, bertze gauza ahatzi zenbaitean artean, musikaz imprimatu paper batzu, saguek bazterretan janak, adinekoek erran arteo zer ziren ere jakin gabe ikusi dituzketan lehenbiziko “notak” han egon zen norbaitek utzirik ahatziak.

Murruetan dilindan bizpahirur kadre zur beltzez inguratuak, erlisioneakoak bertze gambara guzietan bezala: batek bazituen hirur nexkato matela biribil papoak eta buruak elgarren ondora bildurik, soineko gaina lepho inguruan xingola batez estekan, batek gorria, bigarrenak musker arina, herenak zeru kolorekoa, nexkato hek nor ziren galdeginik jakin baikinuen “hirur bertuteak” zirela; bertze batek gizon handi bat laneko zaia luzean, makila bat edo zerbait eskuan, “San Josepe” omen. Baziren ere, ordukotz ohe buru edo murruetan dilindan, gaitzeko arrosario batzu, gurutzea eta abantzu intzaurrak bezain lodiko pikorrak zurez eta doi bat landuak, Lurde-ko beila zenbaiten orhoitzapenetan etxera ekharriak...

Betidanik “etxe sahetsetik” zoan bidea (lehenago noizpait, Badarraikoa Errobi bazterretik ideki baino lehen, Orzaizera sartzeko bide nagusi bat), etzen bakarrik gorago ziren laurzpabortz etxetara joaitekoa, baina oraino Ahaiztarrek Irisarriko abel-merkatura joaiteko ebiakoitz guziez hartzen zutena, gehienek oinez, zenbaitek ere zaldiz, goizetan goizik, loaren artetik, entzuten baitzen batzuetan zaldi baten lauhazka, etxeko harresi lodia jo-arazten zuela eta inharrosten bezala...

(1992-ko jorrailaren 25-ean, ebiakoitzarekin, goizeko zazpiak hirian)

11. Burdin-bidez

“Arrosako gara”-ra (“Orzaizekoa” izana, Arrosa 1925-ean berexi zen arteo, orduan ukan zituen oraiko bi izenak “Ossès-St-Martin d’Arrossa”), nahiz etxetik ibarraren bertze bururan Errobia bi herrien arteko muga iraganik aski urrun, ezpada zaldi-karrosa zenbaitekin artetan, oinez joan gira luzaz, eta bereziki gerlako urtetan. Baionako andere ezagun bati erraiten entzuna dut, Iholdira eri zen gusi baten ikustera jin beharrez gerla demboran, eta beribilik orduan ez ibilki, burdinbidez jiten zirela Orzaizera, eta handik bide guzia oinez, hamar

bat kilometra Irisarrin gaindi Iholdirano, gero bide beretik itzultzeko.

Etxetik gararako bidea, hainbertzetan eginik bizpahirur kilometretan, edo Gahardun gaindi edo Hortzatic Murgialdeko zubira eta handik barneko bidez Bidegainean gaindi Arrosako bidera, guti dut gogoan, eta batere nola egin ginuen amarekin 1939-an aitaren ikustera joateko Itsasurano, gerla hastera zoanean gobernamentuak (aitari entzunik “Daladier” izena ordutik atxikia dut) soldadoak altxatu baitzituen. Bi haur ginen etxean, eta ondoko urtean hirugarrena sortu zenean, aita, hirur haurren aita guziak bezala, liberatua izan zen, ilabete zenbaitz Itsasun egonik mugako bide edo jakin ez-tutan bertze zerbaiten zain soldado multxo ttipi batekin.

Ikusten izan ginazkon beraz arratsalde batez treina Arrosan goizik harturik, zenbait orenen buruan itzultzeko gibelera. Treinaz eta bidaia laburraz gogoan ezpadut jeusik atxiki, badakit aita bere soldado jantzitan, etxean den margazki batean salbu behin ere ikusia enaukona, gure aitzinera jina zela, lekua hotza iduritu zizatala eta zerbait edan ginuela hirurek hango ostatu zenbaitetan, ezpada soldado zaintzalen etxola ondo batean, hara oinez joanik, aitamak etxeko gauzez solasean. Gero zenbait urhats egin ditugu bidean ur handiaren bazterrerano. Bazen han eta luzaz egon da, halako zare bat burdin-hari batzuetan lotua airean uraren iragaiteko, eskuaz errota bat itzuliz baitzoan alde batetik bertzera. Iduri zata aitak hura ekharr-arazirik eta guri erakutsirik uraz haraindian bertze bidexka bat, hari jarraikiz xuxen berriz geltokira helduko girela, burdin-harizko saski handi hartara igan girela aitak lagundurik, elgarri adioak eginez, ama nigarra begietan eta eskuan hartua zuen mokanesaz goraintzika. Aita etxera laster itzuli bazen anaia ttipi bat sortu zenean, Orpuztaneko osaba amaren anaia, hura bi haurren aita, soldado egonik Alemaniara eremana izan zen eta han bortz urte bete preso iragan behar ukan zituen.

...

Gerlako urteak dira, eta Alemanak oraino hemen, 1942 edo 1943-a, burdin-bidez egin nuen bertze bidaia batez, behar bada bigarrena, hura Baionarano. Eztakitan arrazoin zenbaiten gatik, amak ereman ninduen ikustaldi baten egitera Baionan “Villa Pia” izeneko jauregi ederrean bizi zen amatxiren

lehen gusiari. Bakarrik dakit gerlako urte hetan ikusten ditutala batzuetan ama eta amatxi, sukaldeko aska baten gainean kartoinezko untzi batzuetan arraultze ezartzen artha handirekin hea “tortak” eztirenez beharrira inharrosi eta mihatuz, oilasko zenbait ere (berantago hango norbaiti entzun dutanaz), eta ere aitzineko labe gorritzean bereziki hortako egina, artopil bat edo biga: mamia ogiak baino tinkiago eta ilunago du, azala gainean biribil, beltzaran eta gogor, erretzeko hetaz estaltzen den gaztena orstoan zainen marrak ageri. Amak eta amatxik artopila biziki maite dute bereziki goizeko hasieran, Villa Pian ere “Paula” hango andereak nihauri erranik “bixkotxa” bezainbat; gerlako urtetan hiritarrek, aberats ala ez, bazuten janari onaren ukaiteko baserritarren beharra. Amak bazeraman hasteko orduan ere zerbait eskuko zaku gotor batean.

Bidea treinan nola ete norekin egin ginuen, arratsalde ondarrean abiaturik gero Baionan etzateko, batere ezpadakit, orhoit niz alta Baionara heltzean iluntxea jadanik aitzinatua zela edo berdin iluna, zazpiak hiria eta “oren zahar” edo “iguzkiko orena”. Treinatik landa igan ginen garako aitzinean Biarritzera joaiteko “BLB” zioten tramuan, hura Villa Piako aitzin-aitzinean gelditzen baitzen; iduri zata eurixka zela, argirik ez edo biziki guti karriketari eta etxetako leihotari, Alemanek aireko angelesen gatik argiak hil-arazten baitzituzten, eremanak izan ginela burdineria eta xilintxa harrabots batzuen erdian. (Biziki berantago, Baionako lizean ikasle, izan niz batzuetan delako “ttantta Paula” - etxean hala erraiten zaukuten - hari ikustaldi zenbaiten egiten).

Hara heldu eta auhaldu ginitazkeen, baina orhoitzapenik ez tut. Etxe handi hura aski hotza iduritu zizatan; ohartu nintzan etxekandereak hotzez bere jargian oinak frantzesez “chancelière” dioten ile zaku batean zaduzkala. Oheratekoan jaun-anderek lagundu ginituzten harrizko mailalde beheherano, L. jaunak (ofizioz abokata izana zen ezkondu aitzin) erakutsi baitzautan orduan, zola harbizizkoan lerratuz, gogoan atxiki dutan urhats bat, geroztik behin ere nehorri ikusi gabe, aldizka oinen punttak eta aztalak elgarretara emanez bazterka alde batera eremaiten baitzuen. Gambara handi batean ginen, eta amari gambarariak erakutsi zaukon haren oheburu eskunean eta ezkerrean ziren bi madarittoetarik batek argia phizten zuela, eta

bertzeak gambararia askariarekin deitzen. Ama jeikitzean goiztiarra zen, eta biharamunean ere goizik atzarririk, bortz orenak ziren gehien-gehienik, argia phiztu nahi ukan zuen, eta etxean argiaren phizteko ohi zuen aldeko madarittoaren mokoia zapatu: etzen argia phiztu, amak berehala egin zuen “oi! ei!” eta aldi berean entzun zen urrunean xilintxa zenbaiten turrinta ahula. Dolu izanik ere, zer egin ordu hartan? Alabaina berantxago athean jo zen, eta hango sehietarik bat, emazte adin batekoa, agertu soineko beltxean eta aitzineko zaia xuri motz inguruan ixurkatu batekin, eskuetan ekhartzen zituela goizeko askariko gatulu eta behar zirenak: bazen han behin ere jastatua enuen etxeakoak ez bezalako erreximeta beltxaran bat berinazko untxi ñimiño batean ezarria.

Eztakit egun hartan berean, ala izaitekotz ondoko urtean edo bertzean (1944-a dateke, Alemanak joan berriak, larrazkeneko aro aski eder batez), etxe hartan berean gira bazkaltzen, Arrosako izaba Léonie aitaren arreba (orduak moldean “ttantta Leoni” diogu) eta haren alaba gehienarekin, ni baino zenbait ilabetez zaharrago. Badira han haur oraino ttipi batzu, etxeako alaba ezkonduetarik batenak, eta sehietan auzo herriko nexkato gazte bat (gero ezkonduarik Orzaizen bizi izan dena), eta lanak ditu haur hetarik bati erdaraz “épinard” dioten azuntzak ezin jan-araziz, haurren azkartzeko on zirelakotz omen. Etxearen beheko hegoalde osoa hartzen duten saloinetan bagabiltza; badakusat han, saloin handi musker eta urreztatuan, alta ustez guti hunkiz edo batere, moldea oraino gogoan dutan egiazko piano “buztandun” bat hetsia, eta etxekandereak erakusten deztee ama eta izabari athe-leiho handietako erridauak, gerla urtetan ezin aldaturik gai eskasez, bazterretan higatuak... Gero bagabiltza baratzetan: gainean baratzekariekilakoa, eta, bazterreko etxola batean, iranjategi barne epholean, egiazko iranja-ondoak, fruitu hori eder bakar zenbait dilindan; beherago harrizko mailalde handi bat jautsirik badira urtegi bat arrain gorriak han orstoen artean geldi-geldia, ezker aldera haratago jokoetako etxola, eta pilota-plaza eder bat dena arrosa-kolore.

...

(Amak zion Baionako eta Biarritzeko amatxiren gusi hek “aberatsak puxantak” zirela, eta, nihaurek entzuna eztaukotan gauza, arreba batek erran dauku hemen

berriki, jende hetaz ari ginen egun batez, aitamak ezkondu berriak etxe hartara gomituak izan zirela bazkariz, eta mahian aphairu hastean azietetan ezarri zirela “azperjak”. Iriberrigaraiko baratzean bazen orotan bezala aza eta phorruz nahikoa, baina azparragoak - edo “frantses phorrurik” hiztegiek hala baitiotel - ez. Aitak amari galdegin zaukola orduan ahapetik euskaraz beharrira: “Nundik hasten dira hok?” eta amak berdin ihardetsi: “Bertzek nola egiten duten ikusirik hasiko gira!”. Ezkondu ziren urtean 1932-an gertatua dateke.)

12. Iriberrigaraitik etxerakoan...

Aitatxi-amatxiak bizi izan direno usu izan gira ikustaldiz Iriberrigaraira, aitaren etxondora, herriko bestetako bigarrenen han ginen beti, eta nihaurek ere berantago, batzuetan Arrosako gusi batekin ala bakarrik, uda oroz lanartetan bizpahirur egun han ereman ditut. Eiherako inguruak, Lakan arraintzan edo onddo biltzen oihanetan, aitatzik artha handienarekin atxikitzen zuen Munagorriko mahastia, Baigurako aldapa behean iguzkira itzulia, behean Eluet-errekako thurrusta ur aska ttipi bat inguruan udako beroetan mainu leku, handik hurbil larrazkenetan urdeak gizentzera eremaiten ziren gaztandoiak, eta gero goiti Baigurako mendi osoa: hor ziren gure atheraldietako leku hautatuak, argazki bat edo bertze gelditua oraino ibilaldi horien lekuko.

Herriko besta eguna dateke, Iriberrigaraira etxetik bazkal-ondo - goizetik ezpada ? - guziak joanak, apur bat aphainduak ere, amatxi “etxekoa” (aitaren izaba zen egiazki, Iriberrikoaren ahizpa, eta haurrik ez ukanez aita ondoko egina), ama eta laur haur, orduan ttipiena amak besoetan. Aita “etxezain” gelditua zen aldi hartan, edo lehenago izanik sartua. Iriberrigaraira joatea ordukotz biziki laket dut. Etxean, elizako liburu gotor batzu salbu, latinez eta euskaraz, liburuak xuhur dira, denak ere salako murru batek duen zilo luze batean lerrokatuak, oihal xuri listun baten gibelean, gure eskuetarik urrun. Iriberrigarai aldiz, aitaren anaien eta bereziki Beñat aphezgai 1916-an gerlan hil zenaren ikastaldietako ondarkinak han geldituak dira, gehienak gaineko salako zoko batean gaitzeko saski luze baten

barnean metan. Aitatxik eztu, ikusi dutanaz, asti duenean bat baizik irakurtzen, beti bera, sukaldeko mahi buruan idekirik, burdinaz inguratu begitako batzu sudurrean: Napoleonen bizi bat, haren miresle handi baita zenbait aldiz erraiten daukun bezala, hark bere aipamen ezin handiagoa “berak egina” baitzuen, eta ez aitzinekoetarik ukana (etxekoek eztute batere erregetiar usainik; behin etxeko amatxiri aipaturik erretatea, ihardespén haur ukan nuen: “ba! ta gero hek beti berak!”).

Amatxirekin aldiz, salara joanik, hango muble handi ilunen artean, egiten zen “loto” jokaldi zenbait. Zurezko tantto biribilak eta karta berde zenbakiez estali batzu zaku luze batetik atherarik eta salako mahi biribilaren gainean hedaturik, ttanttoak zakutik itsuka hartu behar ziren, eta kartetako zenbakien berdina atherarik, hetaz bere karta lehenik bete zuzena zen irabazle. Batzuetan harmairutik harturik zabaltzen zaukun ere Argentinako karta handi bat, eta erhia itsas-bazterretik barnera lerratuz erakusten: “hemen Bahia-Blanca, General-Acha ...”, bere anaien familiak bezala (zaharrena “Miguel” Arдохain aitaren “aitatxi” bataiokoa, “Miel” gazteagoa bere hamalaur hurrekin, eta “Bernardo” aipatzen guti entzun duguna), bi seme aitaren anaia orduan zaharrenak han bizi baitziren, “gureak hemen dira” erranez, eta baginazkien goizik “*Bunosaise*” eta “*Pampa*” hango izenak.

Irakurtzeko liburu zenbait handik etxera ekharri baldin badut ere gero, haurzaroko urte hetan laketenik zizatana etzen ez ixtorio ez elhaberi (hetara berantago behatu dut), baina hango “liburu” gotorrena, eta enetako ederrena, doidoia bi eskuekin atxik bainezakeen: hizki handiz izenburuak zion bezala *MANUFACTURE DE SAINT-ETIENNE* delako landegi ezagunaren kataloga zen. Hainbertzetan gutiziatuak, egun hartan ukana nuen azkenean, gerlako urte hetan etzatekeelakotz gehiago baliagarri. Irakurgaia labur zuen: lerro bat edo bi prezioarekin erakusten ziren tresna eta gauzen azpian; bertze guzien artean, arraintzako haga, hari, amu, ihiziko harma eta tresneria ainitz (arraintzari baino gehiago, aita eta aitatxi ihiztari handi ziren, “errabiatuak” zioten artetan amak eta amatxiek, hek etxerat itzul beha, otorduetan bereziki, berantetsiak zaudenean). Eni baliosenak etzizaztan hek. Bizpahirur orrialdetan baziren musika joitekoak, tuta (Bestaberrietakoak bezalakoak), akordeon

(Orzaizeko bestetan ikusiak ziren gerla aitzinean, eta ere ezteietako argazki batzuetan), arrabit, ahozko musika, piano eta elizakoa bezalako “harmonium” bat bereziki.

Uda azkeneko arratsalde gozo bat da beraz, eguna oraino luze, aitatxi-amatxiri goraintziak erranik etxe aitzineko ezki handiaren azpian, bide laburrenetik “heinka” hartua dugu, ez Sabio aldera landaz edo errebidez joanik Iriberrigaraiko eiheran gaindi Laka luzatuz Prezinteneko ondora atheratzeko asti zenean bezala, ez eta ere errebidez Hartzara buruz abiatuak Xuriteneko ondoan itzuli eta Thano-eiheran gaindi (egiazki “taneria” izana zen lehenago eta kalastra zaharrea horrela izkiriatua da), urak azkar baziren eta lurra heze Uhaldeko zubira heltzeko, baina, aroa idor izanez eta urak aphalt, Iriberritik jautsi eta berehala Iriberrigaraiko landa handi eta oihanean hara bidexkatik xuxen Uhaldeko ibira jautsiz, hura harri zabal handi batzuetan jauzika iraganik etxera laster heltzekotan. Bide guzian nihaurek atxikitzeke phizuegiz, amatxik zeraman besapean delako liburu gotorra bere estali ilunarekin, ama aitzinean haurride ttipiena besoetan. Lakako ibira heldu baino lehen, Beirinesek han ile xuritzeak eginez geroz “Barraka” zioten eta lehenago “Harizmendiko eihera” barretua hurbil zuenaren ubide hertsia iragan behar zen, bi harresien artean lotua zen taula lodi labur baina hertsia baten gainean erori gabe alde batetik bertzer a bi urhats zalu eginez. Handiek ttipiener eskua emanik ordukotz iraganak ginen guziak, amatxi azkenik gelditua, liburu lodia berekin eta ni hari beha lorian. Oin bat delako taulara emaiten du hark ere, eta bigarrena ezarri zuenean, zaia beltz luze azpian zer bazegien ez ageri, taula huts egiten du, eta “oilei!horra!” eginez ur beharrik orduan meharrera erortzen da, ziliportetan zaia zola eta oinetakoak urean, ni izitua, liburuaz amatxiz bezenbat uste dut, baina hura bi erhi trebes baino gehiago etzukeen urean xutik, “jeus ezta!” ziola, liburua bustitzera utzi gabe alta beti eskuetan goititua beharrik, bizkarretik ezarria zuen harizko xala beltz dirdirantari tinki... amak eta biek eskua emanik atheratzen laguntzen baitugu.

Bazen zertaz solasta, Uhaldeko aitzinetik bidez-bide (gibleko phentzetarik itzulia apur bat luzeago zen), Kompasen Bizkarra ezker, Kompas-en-borda orduan xutik zenaren izkinan itzuli eta etxera jausteko, “bi urhatsez”,

Leizarraldeko bidexka eta gero Izpuaitzekoa harturik, eta etxean aitari zer erran.

13. “Phentze bizkarrean”

Etxe aitzineko korroilatik eskun jalgi eta sahetsetik harresien artean zoan bide aski hertsu eta arduraz iztiltsua bizpahirur urhatsez iragaiten zen, harresi zahar goran bi phikondo handien arteko hexila ttipia esku batez idekirik (handia, tresnen erabiltzekoa, urrunago zen, biak orduan beltzez thindatuak), “phentze bizkarrean” sartzeko. Burdin-sare batek gainerateko phentzetik eta errekarara zoan maldatik mugatzen zuen bizkar hortan etzen orduan eraikuntzarik, ezpada “labe zaharrari” lotuak ziren etxolak: bide aldera oilategia, phentze aldera “komoditatea”. Labe zaharra, sortaldera eta bidera idekia, auzo etxetako labe guziak bezala, etzen ordukotz artetan baizik gorritzen, korroila barneko labea aski ezpazen, besta zenbaiten aphairetako edo urde hiltzetan, eta gero urdategi bilakatu zen. Handik beheiti Irigoiz-garaiko hesirano phentzea burdin-sarez moztua zen, eta gaineko erdia Borddako etxetiarraren gomendio. Mendebal eta “lako” edo barroki eta selauru aldera, hexila handiaren ondoan, bazen lasto meta ttipitto bat, etxeko beharrendako, etxean egiten zen ogi joite ttipitik, edo phentze bizkarrari bekoz-beko “phentze zola” eta bizpahirur alhorren haraindian ageri zen Borddako ogi joite handitik ekhartzen zen lastoaz egina, neguko arratsetan murre-zorien tiutek bethetzen baitzuten.

Oilategitik harresia jauziz edo hexilatik hara jinik, oilo eta ahaten ibilunea zen egunaz, erhautsean “hazkoroka” lurtean ziloak eginez, ezpaziren hesolen gainetik hegaldaka edo burdin-sare azpitik lurra zilatuaz phentzera urrunago, berdin beheko errekarano joanak, bidetik lakoko barrokira edo belategira iganak kafira egitera eta errutera, berdin korroilako laberano, baratzerano, ezkaratzerano atea idekia hatzemaiten bazuten. Aitak zion, khexatua, etzela “oiloa bano gauza ausartagorik!” Ikusten zen noiztenka oilo koloka bat etxe aldera heldu, arraultzeak berro zenbaiten barnean gordeka errunik eta xitaturik, xito ñimiño andana hori-horia inguruan.

Udako gau ederretan, ausartener hegaletako lumak mozturik ere, zuhaztetara igan nahiago zuten, oilategi beroegira sartu baino, eta behar ziren ilunabarretan, basa-ihizi eta axerien beldurrez, haga batzuekin “huxu”-ka haizatuz barnera sarr-arazi. Ahateak aldiz, oilategi azpitik edo korroilako labe gibelean zen “patio”-tik athea ideki orduko mokoia luzatuz abiatu rik phentze bizkarreko ur-untzietara lehenik, gero hek utzirik, bazoazin laster, lerro-lerro eta zenbait hegaldaka, behereko errekarano. Ur-aste batek ereman zituen egun batez Lakako “ur handi”-rano, eta zenbait egunez galduak zirela uste izan zen, etxeakoak haien bila debaldetan ibilirik, berriz berak etxera itzuli ziren arteo.

Eguraldietan, igandetan, besta-egunetan, bazkaldurik edo etzanaldi ondoan, iguzkia saminegi ezipazen, kadera zenbait hara eremaiten zen, Bordda aldera, Ahizeko alhorretara, Ahaize-mendirako mazela zabaler beha egoiteko. Egun batez bazkari luze baten ondotik, herriko besta ala bertze, hara jalgiak ginen, eta Biarritzeko izaba amaren ahizpa galdez ari zizaukun, hea han mazelan urrun ikusten ziren “tita zuri hek” zer ziren, “harriak ala ardiak”; ohartu zen azkenean, beti berdin zaudela, eta etzirela, ardiak bezala, lekutik higitzen. Jakin nahi zuen ere, guhaurek bezala, zer landare mota ziren gain-gainean, Anzaramendiko hegian, Mugondo aldera zauden hirur zuhaztak (geroztik badakit han ibilirik hirur elhorri xuri zirela eta oraino berriki han).

Zuhaztak... Etxe-hegatziner (“pualleria” zizeen erraiten erdi-erdaran) bezain laket zizaztan eni phentze bizkarrekoak, oro fruitu-ondoak baitziren, nahiz gehienak ordukotz zahartuak eta guti emaille: “lili-flokan” amak zion bezala egonik ere primaderan, bekan gertatzen ziren guk nahi bezainbat “fruituz brokatuak” (etxekeen hitza zen ere), bederen guk maitenik ginituenak, gerezi, aran, mertxika. Bide sahetseko hexila handiaren ondoko gerezi gotor eder zabala, haize hego batek aurdiki zuen karraskatuz bidera; eta ikusi zen etxearen “bertzaldean” oraino bizi zen mahaxtura, “Manez tipia” zerra handi batekin haren mozten bidearen idekitzeko (uste dut bazela ordukotz etxeo untzitegi berri batzuen egiteko xedea, urteak berantago, etxeakoak berantetsiak, eraik-arazi zuen etxeberrira jautsirik egin baitzuen azkenean). Baziren oraino, errekarara jausten zen harri idorrezko harresi sahetsean gerezi gazte batzu, gorriak

eta xuriak, aidak zuela guti xertatuak, iraun baitzuten etxe inguru guzian ziren harresi zaharrak bidearen zabaltzeko berantago (Emile Sala auzaphez egon zenean) ekhendu ziren arteo.

Phentze bizkar hetsiak bazituen ere, bi aldetan, bi gerezi-ondo aski handiak eta bertze ondo bakar batzu: labe zaharreko izkinan bizpahirur arantze, mehar eta guti emankor, alta aran mazela hori-gorraxta on batzu; bertzaldean lastometari hurbil mertxika ondo, ezki usainondu baten sahetsean (“tilula” ginion, liliak biltzen zizazkon eta oihal batean hedaturik idorrazten “tisana” egiteko), uda hastetan erlez burrumban. Etzen hain gozoa han berean zen sabukak, zuhaxka baliagarria alta omen, emaiten zuen usain azkarra. Bertze fruitu ondo gutiak etxe aitzineko baratzean dira: madari ondo zenbait, baina etzuten Iriberrigaraian zirenen ekhartzea, aitatzik baitzuen, aidak bezala, xertatzen gustu handia, eta hango lurra menturaz hobea; aran ondo batzu ere, bati goiti “xazela” mahats-ondo hori bat. Handik haratago, “etxeke mahastiaren” (mahasti handia Tipirenekoa zen orduan ere) eta Izpuaitzeko landaren artean ziren gerezi ondo hoberenak: beltzak erreximeta egiteko, eta bat hirur adar gotorrek in bakoitza mota batez xertatua: gorri “bigarroa”, zuri, beltz. Sagarrak aldiz, mamola (ezin jan ahal ukaiterano geza, sagarno egitekoa, baina etzen etxean egiten), gordin-xuria, madari-sagarra, amuna (sagar biribil handi hori bat, hoberena), erneta beltza, erreka iraganik Ahaizera 'ta Barberaren-bordara buruz zen etxeke sagardian.

Phentze bizkarreko zuhatz handienak eta eman-korrenak, nahiz ez edo guti gure gostukoak, hexila ttipiaren bazterretako bi phiko-ondoak dira, adarrak gora, makur eta luze, haratago urrondo bat adarrak lurretik alde orotara zabalduak, eta haien artean bide aldera hirur intzaurrondo: bat azkar eta gora, zura argi 'ta leun oraino; zaharrena bideko harresiari hurbil eta adarrak bidera hedatuak, zura lodi, zakartua, goroldio ilun batez estalia; herena, azkenik iraun duena, ttipi-ttipia ikusten dut lehenik, aidak ni sortu nintzanean landatua omen. Badakit zenbait urtez bi eskuez hartu eta inharrosi ahal dutala, baina gero 'ta gutiago, 'ta azkenean, ni doi bat handitu orduko, azal zuraila-rekilako zur lerdan azkar ezin higitua bilakatua zen.

Arratsalde batez (1937 edo 1938a), urtea buruil-urrietara heldua ordukotz, oro phentze bizkarrean gira, etxeko 'ta Iriberrigaraiko amatxi bi ahizpak ardura elgarretaratuak baitira (aitatxi han da ere uste dut), ama 'ta ni, maldaren hegiari aski hurbil lastometaren ondoan estalgi bat hedaturik sorotxan jarriak, solasean, aitak mahastietan ezarri dituen xederetan hatzemaiten eta goizetan biltzen diren biligarro 'ta xoxo biphiltzen, ondoan haur-karrosa beltz handi batean arreba gazteagoa lo, aita ere phentze bizkarrean haratago zerbait tresnaren antolatzen edo zur lantzen ari, artetan guri edo guk hari hitz bat erranez, eta orduan irri karkaila zenbait amak edo amatxik.

Bapatez norbaitek hunkirik edo errotaren arrasta bera jauzirik, karrosa abiatzen da maldari behera, gero eta lasterrago, berehala ama gibeletik oihuka, amatxiak beha eskuak goitituz, aita gainetik erasian, hea nolaz eztugun *hoinbertzereen artean* hobeki zaindu... Artean karrosa badoa phentze zolara eta erre kara, malda laburra izanik ere, jaustean hartu indarrak baderama aitzina, hirur zur-zuri handiek mugatzen duten ur-errekako hesian zerbaitek galditu arteo, uzkaili gabe alta *mirakuluz* amak dion bezala, beti gibeletik lasterka eta ni ere ondotik... Barnera behatzen dugu eta han haur ttipia ikusten, ixil-ixila eta begiak harriduraz zabal-zabala; amak besoetara hartzen du eta aita jautsia da malda xutean berriz karrosaren goiti eremaiteko...

(1992-ko jorraileko bortzean, Tipireneko mertxiken azken loreak)

14. “Barnez” eta bidez

Etxetik beheiti abiatzean, elizara, eskolara, Hortzako plazara, Arrosara 'ta geltokira joaiteko, orgabidea ezpazen hartu nahi *kampoz* Barberaren-bordan gaindi inguruka Ahaize bidekurutzean ezker utzirik eta gero Aphanteko-maldan beheiti Zubialderano, lurra idor bazen eta ephea labur, *barnez* hartzen zen.

Atheka aphasal batetik jauzi Irigoizbehereko *lako-gibelera*, gaitzeko harri laur kantoineko eta abantzu gu bezain gorako baten ondotik (noizpait etxeko eraikuntzetako hara ekharria behar bada eta ez baliatua), etxeko munhotik jausteko

malda laburra hartuz zuraren erdia baizik etzuen haritz gotor, adar motz eta zabalerano, itzal goxo gibeleratekoan udako iguzkian izerturik hatsaren hartzeko 'ta maldari goiti berriz lotzeko (amatxik ziogun haren aitamek ikusi zutela egun batez aire gaixtoak jorik sutan eta hartarik zur-erdi gelditua, baina azkar oraino: biziki berantago ekhendu zuten), eta handik, *Halzu*-ko oihana ezkertera utziz (geroztik labakitu eta alhor egin dena, haren erditik baitzoan etxeko erreka), bidexkak bazeraman alhorren erditik xuxen *Zubialde*-ko zubi 'ta etxetara.

Zubialdera heltzean, gure erreka ttipia iragan behar zen lehenik; ur astetan gainerano betetzen zuen han uharteko lur lohitsuana barna 'ta hertsi zilatu zuen erreka, batzuetan gainditzen ere. Orduan itzulia *kampoꝝ* egiten zen; baina barnez joateko aro bazen, erreka hirurzpala urhatsez iragaiten zen *xaldain*-etik: bi haga lurrean ezarririk hegi batetik bertzera, 'ta hetan behar zen bezainbat taula motz itzatuak, bazter batean hango zuhaxken (leizar eta haltz) adarrak elgarretara makurturik eta bilhurrez josirik eskuaren emaitako. Eskolatik edo elizatik gibelerakoan gelditzen ginen batzuetan handik beheiti ur garbira xipa eta xarboer beha. Urak gainditzen zirenean xaldaina eremaiten zuten batzuetan edo andeatzen; etxera berria ekhartzen zen eta aitak edo auzoek behar zuten orduan berritu. Hura iraganik eta azken hesiko atheka (batzuetan han oinetakoz aldatzen zen garbiak jantziz), orgabidea zen, eta han ziren ordu bereko hara ethorriak edo etxera itzultzen Ahaiztar eta Menditarr zenbait, astelegun goizetan (eguerdiko bazkaria Hartzako etxe zenbaitetara ekhartzen zauten: Medikuarenera, Lamaxoenera, Kallabarenera...) gu bezala eskolara joanki, Murgi aldekoak hek ere “barnez” eta laburrenera jautsiak bere hexiletarik jalgitzen; edo igandetean, bestaburuetan, merkatu egunetan, gizon bat edo bertze zaldiz heldu 'ta emazte batzu mandoz edo astoz, zenbaitek “bi orenen bidea” eginik mendiko etxetarik horrarano.

Lurrak hezegi baldin baziren edo barneak etxetik ikusten urez hartuak, itzulia bidez egin behar zen, biziki luzeagoa, etxeko malda behean erreka zubi ttipia iraganik, larre-oihanak eta etxeko sagardia luzatuz itzulika Barberaren-bordara berriz atheratzeko, ezker utzirik Ahaizera xuxen zoan bidexka hertsia (eta orduan oraino idekia baitzen usu baliatzen ginuen Bixintxoko kaperaren ondotik Ahaizeko plazarano), gero

Ahaizeko bide-kurutzetik *Oihanartetan* gaindi *Aphatteko malda-ri* beheiti berriz Zubialdera heltzeko. Edo gibelera berdin, ez bakarrik ur-astetan, baina Ahaizeko hurrekin batean eta bidea luzatuz itzultzeko, bidean oraino jostatu nahiz, etxean berantegi sartuz aitamek erasiatuko ginituztela biziki axolatu gabe.

Egunargiz edo multzoan kampoz etxera itzultzea gozagarri bazen, urrietarik hara eguna labur zelarik iluntzetan eta barnez uren gatik ezin itzul, eta handik joateko lagunak batzuetan ez, oihanartetako itzalak jadanik ilun, eta oraino biderdi ba handik etxerano, lehenbiziko urtetan bederen beldurra jauzten zizakun. Etxera laster bil-arazi nahiz “bidean ausatu gabe”, errana zaukuten oihanetan bazabilala gizotsoa, oihaner hurbil bide bazter-bazterrean zen Barberaren-bordan sorginak: leiho beltz bat bazen bide aldera huntzek egin zilho biribil batekin, lotsa zenbaitekin behatzen baitzizakon aitzinetik zer gerta ere, eta han bizi izan zen zenbait urtez gizon erdi erromes bat *Tipula zuria* izen goitikoa (eskolan artetan egiten zen zinemako “Popeye” haren iduri handia hatzeman daukot gero). Arratsalde batez, gu eskola edo elizatik athera orduko edo bidean jostaturik eguna erortzen hasia, euria egina baitzuen, ezkinen “barnez” menturatu alta Zubialden dudan egonik, baina etxeok oinetakoen bustitzea debekatua... Menturatu ginen azkenean “kampoz”, Ahaiztar lagu-nik batere gabe, baina ezagun norbait izanen zatekeela bidean. Ezpaitzen ordea arimarik agertu, 'ta oihanartetara heldu orduko iluna aitzinatzen ari. Urhatsa ttipitu zizakun gurutzera heldu gabe, itzal zenbait han edo hemen harizpetan ibilki bezala iduritu (amets badagit artetan oihanpe hetan, nahiz gehienak orai ekhenduak, onddo biltzen ibilki) ... eta hartan itzulirik berriz Zubialdera jautsi ginen, atheka-xaldainak lasterrez iragan eta barnez, tipis-tapas iztil eta phutzu-etan jauzika, oinetakoak baltsan, lako-gibelesko athekara azkenean heldu, orduko ilun beltza. Uste dut edo aita edo ama han zagola xutik gure beha, berantetsirik edo urrundik ikusirik. Etxera sartzean oihi eta erasia merke izan zela erran gabe doa.

Eskolan abiatua nintzan lehenbiziko aldiatarik bat zen, eta ni baino urte zenbaitez zaharragoa zen auzoko nexkato batek laguntzen ninduen oraino arratsaldetan etxerano; eremana ninduen ere noizpait, “Hegigorriko leze zilhoa” ikusi nahi nuela galdeginik, haren ikustera bidetik urrunxago zen oihan

batera, burdin-sarez inguratua zen zilho bat: harriak barnera botatzen ziren eta han jaustean halako burrumba bat egiten zuten, eta gu haurrak apur bat izitzen. Egun hartan, Barberaren-borda 'ta sagardi ondotik iraganik, ja etxe beheko zubi ttipi konkorrera heltzen ari ginen; han ziren oraino ezkerretik, uraren eta zubiaren haraindian, *eiberazarreko* ubide iluna buruan etxeo eihera izana zenaren harresiak, hegaztegirik gabe, zuhatzez inguratuak, malda orduan hertsia ganean etxea jadanik orstailen artetik agertzen hasia ere, 'ta eskunetik haritz handi batzuen orstail-itzalak, ordukotz ilun gaua erortzera baitzoan. Ene laguntzaleak utzi ninduen bidean bakarrik, zerbait lasterrez egiteko bazuela erranez eta berehala itzuliko, han egon nindadin hura jin arteo; enintzan jeusetaz jelostu, nahiz beldurtzen bezala hasi. Ephe labur baten buruan, ni beti han gelditua, hasi zen eskunetik barnaxago den gaitzeko haritz zabalaren ondo iluntxera zurailaren gibeletik: *bu-bu, bu-bu*, ingurune orduan ixil hartako azantz bakarra, laztagarri zerbait bazuena 'ta azkena izitu ninduen. Aitzinago joaiteko beldurrez, etxera buruz oihuka hasi nintzan. Egia da berehala ama maldari behera jausten abiatu zela, ene aiduru baitzatezkeen etxean ordukotz. Ene laguntzaleak ukan zituen han berean “perrexilaldi” bat eta bi erasia gorriak. Gaitzitu zatekeen edo haren etxeoak, ezpainiz orhoit geroztik hark behin ere eskolatik etxera lagundu ninduela, edo bederen horrelako bertze gertakaririk gabe izan zen.

“Barnez” ibiltzeaz orhoit niz bereziki udako aro ederretan, igandetan edo bestaburuetan meza nagusira, eta asti gehiagoz arratsaldetan bezperetara, aitamak “goizeko mezan” ibiliak baitziren, etxeo 'ta auzoko amatxi batzu (edo adinekoen artean zioten bezala “etxekandere zaharrak”), gu haur zenbait haiekin batean bidean jostatu nahiak eta hek batzuetan erasiaka bidexkako errautsean oinetakoak zikin beldurrez (etzen ohian gizonik edo bekan, hek, ostatu, tratu estakuru ala bertze, baitzizutzen bere tenoreak). Lakogibeleko athekan batzu bertzen aiduru egonik abiatzen zen, etxeo amatxi, Irigoizgaraiko edo Irigoizartekoa (biak “Mariak”), Urruzpurukoa urrunagotik heldu neskatoa lagun, denak jantzi beltzetan, iguzkiak saminki joiten bazuen “ombrelak” eskuetan bere gider luxetan zabalduak, usu ere oihalezko esku-larru beltz batzu, igandetako “broxa”,

lephoko eta erhaztun urre, aphaindurik joaiten baitzen orduan elizara, bereziki bestaburuetan, Bazkoz (soineko eta zaia berrien “estreinatzeko” eguna), Bestaberriz eta Otabaz, Andredona-Mariz, herriko besta igandean (buruil azkenean zen). Bidexka utzirik eta batzuetan oinetakoz aldatuz (sasi zilo batean uzten ziren bidekoak), orgabidez laster elizara heldua zen.

Bezperetarik landa, etxeko amatxi 'ta Iriberrigaraikoa, Pattarreneko eta Bilenabeneko anderekin eta bertze ezagun edo jendakia batzuekin hil-herrietan solastaturik, batzuetan, ohi ez bezala, “gainez” abiatzen ziren astiz elgarrekin solastatzeko, beti etxeko gauzez eta herriko gertakariez, errepidetik Xuriteneko bide gurutzerano. Han, bi amatxi ahizpak ezin berexiz bezala, oraino luzaz egonik, abiatu behar zen azkenean, Iriberritarrak aitzina jadanik hurbilduak ziren bere etxetara, gu beheti, etxea errepidetik han bere munhoan ageri, Thanoeiherako ondotik Uhaldeko zubira, eta Kompassen-borda hutsa bazterrean utziz (amatxik erraiten zaukun nola han azkenik egonak ziren langile adineko batzu Espainiatik jinak, eta goiz batez gizona etxeko athean joitera jin zizeela erranez hango euskara moldean: *Mikela erre-erre il*, emazte xaharra supazterrean sura erori baitzen eta erre), *Leizarralde*-ko phentze ‘ta *Izpuaitz*eko artekatik etxean sartzeko.

(Amets egiten dut oraino batzuetan etxera buruz oinez, itzulian “gainez eta errepedez” heldu, haurzaro 'ta gaztaroko urte horietaz geroz biziki bekan egin dutan bidea, orai aldiz etxetik abiatzean ehoiz, beribilez etxe huntarik bide laburrena hartzen baita...)

15. Alemanak Orzaizen (1940-1944)

Bertze orhoitzapen urrundu horiek bezala, Alemanen hemen egoiteak utzi dauztanak eztira gehienak elgarri lotuak, ez aroan ez gaian, edo gaizki eta behar bada hutsez.

Eskolan ginabiltzanean baginakien etxean entzunik eta lagunak erranik Nagithurrian zadukatela *komandanturra* erraiten zizakon bulegoa, eta jakinik egun batez elektrikan ari zen herriko gizon bat Alemanen tiroz zauriturik izana zela,

huts eginik nahigabeen omen eta harendako bertze ondoriorik gabe, ezkinen hango harresien ondotik barnera behako bat emanik beldur zenbait gabe iragaiten eskolara edo handik gibelera. Alta amak erran zaukun igande edo bestaburu batez goizeko meza nagusi batean buruzagi alemanak Frantziako armadako buruzagi batzuekin batean “mahi saindian biziki deboki” komuniatu zirela, eta Chorhy erretorak bakeaz eta gizon haien elgarrekin ikusteaz pherediku eder bat egina zuela.

...

Igande izoztun bat da, gu “kampoz” mezara joanki, ikusi dugularik Ahaizeko bide gurutzetik elizara buruz abiatzean, Ahatteko maldan goiti bide hormatuan, gizon andana bat bere soineko berdaratsetan, gerlako kanoi edo bertze tresna batzuer eskuz thiraka, “manubretan” mendietara joanki. Gero etxera itzulirik eta sukaldeko berogian (edo berdin bertze egun zenbaitez, aldi bat baino gehiagotan), Ahaizeko mendi 'ta mazeletan entzuten dira halako beldur batekin, “*mitrailleuse*” izena dutela erraiten daukutenen tirokatzeak, *tarratatata...* Sukaldeko leiho azpiko haustegiaren gainera besoak emanik, etxaitzinerara atheratzeko lotsaz ala hotzegiz, erridauak baztertuz bagaude mazela hetara beha, begiez mihaka nun ote diren, baina, goizeko lanhoen artean eta urrun, harmen azantz bitxi hura baizik, ezta jeusik ageri.

...

Bertze igande bat, uda 'ta bero, Alemanak hemen egon diren azken urtea (1943-44? geroztik badakit Errusiako gerla ari zela orduan), eguerdi hirian meztatik landa etxera abiatuak Zubialdeko auzoalde ttipira heltzen ari gira (laur etxeak han ziren oraino, bidea Puttikoenearen eta Etxeberriaren artean alde batetik, eta Ttipiarenearen bertzetik, barnaxago Xidrorenea), gurekin Ahaizeko ala auzoko emazte batzu besapean ogi edo bertze jateko zenbaitekin. Ttipiarene erdi hutsean ezpaita ordukotz “Mañex” gizon zahartu bat baizik lehenago han berean harakin izana, etxea hartua dute Alemanek eta etxe aitzineko korroila harresi gaintetik burdin-hariz hetsian bildua dute, zaintzale aleman batzu inguruan harmak eskuan, presoner andana bat: jende tipito begitarte hori batzu iduritzen zaitanaz, hek ere jantzi berdarats biziago batzuekin, lephoak idekiak, buru has, harresitik guti ikusten diren oinetako zahar batzu herrestan,

Errusiako gerlatik omen preso hunarano ekharriak (orai apur bat bitxi bazata ere, hala entzun ginuen orduan). Gose amikatuak datezke, ezen gu ikusi orduko 'ta bereziki emazteak besapean ogiekin, burdin-harietara hurbiltzen dira 'ta artetarik bidera eskuen luzatzera entseatzen entzuten eztugun hitz zenbait erranez ahapetik. Emazte batek ogi mutur bat mozturik eskaintzen daue. Berehala bertze norbaitek hala egitea lanjeros dela Alemanek ikus balezate, 'ta emaileak iduriz gehiagoko beldurrik gabe: “Jendeak horiek ere, zer nahuzu!”.

...

Arratsalde batez etxe sahetsetik, usu gertatzen den bezala, badoaz bi soldado aleman. Etxeko korroilara sarturik, batek atxean joiten du, bertzeak haratago den labera itzuli bat egiten duen artean: atheratzen gira, aita eta ni hasteko, amatxi ere, eta gero ama gibeletik, berinatik doi bat beha egonik, erasian, eta gora-gora diola, frantzesez aleman hitzik ezpaitakigu, labera joana zen soldadoa ikusia duela, han zare batzuetan oiloek arraultze zenbait erruten baitute, hetarik baten ebasten (“voler”): soldadoak sakelak hutsak erakusten ditu eza buruaz eginez (gordinik “klikatu” duke). Aitak erdaraz hitz bat erraiten dauko bidera berriz joana denari eta amari, euskaraz, arraultze baten gatik hobe dela, gaixtoagorik gerta eztadin, aphalxago mintzatzea. (Amak eta haren Biarritzeko ahizpak bereziki hastio dituzte Alemanak, anaia Alemanian preso baitute).

...

Iriberrigaraian aitatxi-amatxien etxean bizpahirur egunez egoiten bainiz lanartetan, han ere baziren Alemanak: etxe handia, erdia baino gehiago hutsa, bertze molde bereko batzu bezala “errekizizionez” hartua omen aitatzik erraiten daukunaz. Bi aitzindari etzaten dira etxe aitzineko bi gambaretan, etzaten bakarrik, ezpaititut ikusi ez sukaldean, ez bertze barnetan (behereko salan egoiten datezke alta batzuetan, baina han ikusirik eniz orhoit), biziki gizon “plantakoak” omen etxean diotenaz. Doi-doia ditut ikusi bere jantzietan ilunabarrez etxaitzinerako motoetan jiten eta sartzen, kasketa ilun batzu buruan, botak oinetan, eta urhatsa neurtuz, xuxen-xuxena, gu han gauden sukaldera jin gabe gambaretara igaiten. Eta goizetan, gu oraino ohean baina iratzarriak, etxeko 'ta auzoko oilarrak argitu orduko hasten baitira etxe batetik bertzera kukurukuz zein gehiagoka

(Iriberrikoak beti, eta orai ere, etxe huntarano entzun dira, zintzur kukurruku lodi ozen baten igortzen airera urrun...), boten urhats phizuak joiten du lehenik gaineko salako zola inharrosiz, eta gero mailez mail ezkaratzera jausten “*pump, pump, pump*”... Jeikitzean aitatzik erraiten dauku, goiz guzietz bezala, joanak direla egun guziko.

...

Uda aitzinatua da, larrazkena hurbil, 1943-koa agian, Alemanak hemen egon diren azken urtea. Besta handi bat egiten dute etxetik Horzako plazara “barnez” joiteko hartzen dugun “Beirinesen phentze handian”. Eremu zabal osoa aitzinetik antolaturik ezarria da indar joko guzien erakustaldi bateko: nun goiti igaiteko sokak bere zuretan lotuak urrundik ageri, hemen jauzi egiteko lekuak, zein lurrean landatuak diren haga batzuen gainetik goiti, zein laur kantoineko zilo luze batzu lurrean zilaturik ondartzez beteak jauzi luzetako, haratago marra batzu erhauts zuriz belhar motzean eginak phizu botatzeko, balon jokoetako ..., ingurunetako Aleman gehienak hara bilduak “joko olimpiko” ttipi batzuetara bezala, hemen ikusi diren lehenbizikoak, azkenak ere segurki. Arratsaldean etxetik jautsiak gira, batzu bezperetarik landa hara jinak, bada jende auzo guzietarik, Gahardutik eta Arrosatik ere, lerroka bazterretan beha, igandeko jantzieta uste dut; eta Alemanak ari dira, ohiko “uniformak” utzirik inguruko zaintzalek eta buruzagiek salbu, hemen lehen aldiz ikusi datezkeen espor-tuetako jantzi laburretan, manuen eta esku-zarten artean, nor bere indar jokoetan; bazterretan soinu 'ta oiho, gurraso 'ta haurzain zenbait erasian nehor gal edo zauri beldurrez. Alta guziak ordenu handi batean egina iduri du. Bitxi zatana, geroztik Alemanen besta ohigabeko handi hori nehork aipatu ere eztuela da, ez eta behar bada orhoitean atxiki ere.

...

Orzaizetik Alemanek eztituzkete lekuak oraino hustuak orduan, 1944-ko ephailaren 27-a gero jakin dutanaz, ilabete hortan hemen usu gertatzen den bezala, eguraldi ederra, zerua urdin argi, gu Iriartegaray bikari-errientarekin eskolan. Aitzineko urtetan erakatsiak dauzku kantuan eta musikan ohartua den H. Andereak, hitzak taulan izkiriatur, frantzeseko kantu batzu: ez bakarrik delako “*Maréchal nous voilà, devant toi, le sauveur*”

de la France...”, bixkotxa lodi bezain geza batzu untzi batetik bederazka emanaz, “bitaminadunak” omen (egia da nahiago dutala, bikariaren amak goiti jostaldietan ereman-arazirik han, etxeko arno hoberenetik azukraturik eta bixkotxa egiazko batekin emaiten dautan artekoa, medikuak erranik omen “indar hartzeko”..., jale aski ttipia bainiz), baina ere hau: “*Pour faire une France plus belle, il faudrait cesser toutes les querelles...*” eta errepika, mendiko joan-jinetarik etxerakoan arrebarekin batean xaramelatuz “bi bozetan” kantatzen duguna: “*Soyons unis, unis, unis...*”

Arratsaldea dateke aireko burrumba azkar batek jar-lekuetarik jeik-arazten gituelarik, gure errieta, bere sotana beltz dirdiratuan, leihoen idekitzera lasterrez: Baigura aldetik atheratzen hasia da ordukotz behin ere hemen ikusi den aireko “aeroplan” andana handiena, eta ohartzeko artean ibar gain guzia iraganik lehenbizikoak Garazi aldera jadanik itzaltzen ari, gu zer gertatzen ote den elgarri galdeka. Biharamunean jakin da Angelesek Biarritz eta itsas-aldea bombardatu dituztela, Alemanak han zirelakotz oraino hiriko gune batzuetan (gero luzaz iraun dute, eta batzuek oraino, itsas-bazterrean han hemenka utzi dituzten “blockhaus” delakoen betunezko harresi lodi-lodi ondartzan sartuek), jende andana bat hila ere izan dela. Horrelako zerbaiten beldurrez badira hiriko haur batzu barneko herrietara jinak eta gurekin eskolan, Jacques C. Biarritzeko gusia ere gure etxean egon da zenbait egunez, baina hemen ez laketurik eztakit eztenez ordukotz etxera itzulia.

...

Zenbait ilabete berantago, uda mina da, agorrileko 25-a, elizako ezkila handia hasi delarik jo eta jo, gelditu gabe: “gerla fini da” erran du etxean norbaitek, eta ama berehala loriatua Beñat anaia, Orpuztaneko nagusi gaztea, Alemaniatik “azkenean” liberatua izanen delakotz (urte oso bat hurbil beharko da bederen presunerrak itzuli baino lehen); bagoaz etxe aitzineko mahastira, eta handik Ugartzango aldera beha gaude, nahiz etxetik auzoalde hura Iriberriko etxek gordetzen daukuten, gure osabaren etxea han baita, ezkila handiak beti ibar osoan “*bampaka*” joiten duen bitartean. Geroxago da jakin eztela ez oraino “gerla fini”, baina egun hartan Paris liberatua izan dela, Alemanak handik haizatuak (nehork eztu hemen “naziak” edo horrelako bertze hitzik erraiten, beti eta bakarrik “Alemanak”).

Jakin ere telefonaz berria ukanik, “Monsieur A.” izeneko gizon bat, emaztea Orzaiztarra ukanez Horzan bizi dena, Chorhy erretorari nahi ala ez ezkila-dorrea idek-arazirik hara igan dela 'ta ezkila handia luzaz jo-arazi; bere familia guziarekin “kominixta” dela diote, nahiz hori zer ote den batere eztakigun guk, gizon biphil bat iduriz baina jendekina eta ontsa ezagutzen dugu, etxean ezpadituzte ere “kominixtak” eta “ezkertiarak”, Orzaizeko etxe gehienetan bezala, batere buruan (“alderdi ona” aitaxik dion bezala eskunekoa dute), izana baitzaiku, aitak 1939-an eletrika etxera ekharr-arazi duenean, eta hura ofizio hortan jakina, hari eta argiaren phizteko behar diren guzien ezartzen; eta gu elizako kantuetan hasiak, amatxiri edo norbaiti ontsa egiteko ala bertze, orhoit niz “Loria patri...” kantatzen zaukula, mailu ttipiarekin harien ezartzeko taula mehe batzu itzatzen ari zituen artetik.

(1939-1944)

16. Borddako aldean

Aspaldidanik “Bordda” (1699 *borya*) erraiten zizakon egiazki “Irigoizbehereko borda” zen etxetiarraren etxera, “phentze bizkarrerik” heinka “barnez”, berehala oinez heldua zen: hesietan bi atheka jauzi erreka luzatuz (lehenik entzuten zen Irigoizgaraiko “belierra” gure phentze zolako ithurri zaharra bere aldetik bilduz etxera buruz goiti ukhaldika uraren igortzen), itzulia ezpazen egin behar betiko orgabide zaharretik Irigoizgaraiko larrainean gaindi jautsiz, eta hexilatik edo athekatik “Xomborro”-ko landan sartuz, Borddako alhorretan lehena. Urruzpuruko zolan sortzen den *Kaxin-erreka* taulazko zubi ttipi batean iraganik, uda idor bazen urik guti edo batere ikusten ezpazizakon ere hara orduko, baina usu suge zenbait harrietan biribilkatua, *etxondoko landa*-tik goiti atheratzen da oihanaren beheko muño ttipi baten hegian eraikia den etxera, ezker utziz etxe aitzineko baratzea. Guzia gure etxetik eta phentze bizkarretik xuxen-xuxena ageri baitzen, handik behatzea aski zen zer lanetan ari ziren eta nor nun zabilan jakiteko; behin baino gehiagotan entzun da ama edo amatxi etxean sartzen erranez “Borddako anderea baratzean ari da”, “Borddan ardiak kizkura athera dituzte” edo holako zerbait. “Etxondoko landa” edo

haratago den “Iribarneko” (Ahaizeko etxe hartakoa izanik lehenago) “landa handia” gariz ereiten dira aldizka, “biziki emankorrek” omen etxetiarrak ontsa landuak dituelarik eta aroa alde. Urrunago, Hegigorriko oihan bazterreko “mina-zilho-etan” hara (noiz eta nola erabili diren nehork eztaki), Ahaizeko lurretan sartzen da, eta, oihanen beheko bideari jarraikiz etxetik ageri ezten *Borddegia* izeneko azken etxerano heltzen. Hitz joko bat bazuten lehenago erdaraz etxeok ikuslari arrotz edo jendakia hiritar zenbaiti entzuna edo haiekin moldatua, eta amatxik artetan errepikatzen zaukuna: “*ici borda* (hori etxe gibelego lakoa izana zen barroki eta belartegiari zioten), *là Bordda et là-bas Borddegia*”. Uste dut baginuela han mendi mazelan alhor hertsu bat noizpait mahasti erabilia, ordukotz sasiak hartzen ari, eta aitak egun batez harano eremanik erakutsi zautala.

“Zan” erraiten ginaukon ezagutu dutan lehenbiziko etxetiarrari (aitzinean “Sempé” izeneko egona zen hemen dutan euskarazko kontratu ttipi bat eginik amatxirekin eta biek izenpeturik), “gaitzeko langilea” omen ziotenaz, sortzez ahaiztarra, gizon larri mintzo gora eta azkar bat, emaztea, Kattalin, ixila eta xumea bezainbat; han zuen ere ama, atxo ttipi biphil bat, burua motto beltz handi batez inguratua. Hemendik Alemanak joan aitzineko urtean, 1943-koan aitari igorr-arazi zaukon hitz batek dionaz, etxeokekin samurturik ala Ahaizeko etxe batean leku hobea ukanik, utzi zuen Bordda. Ikusten dut buruil azkeneko arratsalde batez “Tipireneko mahastia” ginonean, gainaldekoa hark baitzerabilan eta alhor guzietan bezala (baratzetan salbu) mozkinak nagusiarekin erdizka (guhaurek ginituen beheko alde 'ta etxondoko mahastia), aitari urrundik ohi ez bezala “Monsieur O.” erranez oiher egiten, mahasti erdiko bidexkan lerrokatuak zauden saski handi mahatsez betetarik erdiaren hautatzera joateko. Berdin egin zen aberekin (urdetan salbu hauk etxetiarrari gelditzen baitzizazkon), nagusiak lehenik abelaldeko erdia hautatuz - agian hoberena -, gero etxetiarrak gelditzen zena eremanez, “Zan” bere familiarekin ondoko Dona-Martetan joan aitzin.

Egun berean “alda” Borddara egin zuen etxetiarrari berria, han bizi izan den azkena gero alokari batzu egon baitira, Irisarriko mugan den Tipiren-bordan egonik heldu zen; hartakotz ezagutzen ginuen ere apur bat, eta etxeok hobeki,

Menttaren-bordako gure alhorren auzo izanez. “Exkerra” izen goitiarekin ezaguna zen, enakien batere esku ezkeraz baliatzen zelakotz ala politikan, gero jakin nuen bezala auzo baten ganik, “ezkertiarra” zelakotz: gizon ttipi begi urdin erne bat, haur andana batekin ordukotz, eta han oraino handitu zizakona, zaharrenak gure adinekoak zorionez, eskolako bideko ala auzoan jostatzeko lagu-nak heldu baitzizazkun azkenean. Gerla bururatu 'ta gobernu berriarekin, nagusi-etxetiarren arteko legeak aldatu ziren, mozkinak etziren gehiago erdizka, baina aitak erraiten zukun bezala “sei eta laur”, erran nahi baita nagusiarendako “hiruretarik bat”. Etxetiar berria lege berrien alde zen, nolaz ez, are gehiago nun orduan gobernuan ziren “kominixtek” laguntzen zutela uste baitzuen (nahiz haurrak beti gurekin “behereko eskolan” ibili diren). Etxetiarraren emaitzak laburtu ziren bapatez, eta etxeakoak khexu ikusi ditut etxetiarra etxera “urteko khonduen emaitera” jina zen egun batez, eta amatxi bereziki, gauzak ezpaitzoazen haren aroan bezala, eskuan supazterreko gerren bat harturik sukaldean hara 'ta hunara erasian, eta etxetiarra bere aldetik mahi-aska buruan jarria paper bat eskuan zadukala, *Xtalin*-en laudorioetan, hark izkiritua zukola ustez, alderdi berekoa zen auzo herriko errientak hala erranik. Exkerrak bere familia handituarekin urteak eman zituen Borddan, eta azkenean, auzi aski luze baten ondotik Baionan, joan zen eta Borddako etxea zenbait urtez hutsa gelditu.

Gerlako azken urtean Baionatik jinak ziren Irigoizgarai auzo etxera hirur haur, hiriko bombardatze 'ta jangabeziatik urrunduak, Espainiako gerlan Frankok garhaitu berriak zituen errepublikarren aldeko buruzagi batenak omen: burrumba ilun zenbait urrundik aldika etxerano heldu, ezpazen orduan haizea alde zenean artetan entzuten zen “itsas-orroa” (harra-botsen handitzeak osoki ezeztatua du geroztik), entzuna nuen zenbait urte lehenago erraiten “Espainiako gerla” ari zela. Jakin dut ere geroztik Arrosako osabaren ganik herriko bi gizon, aiphatu-enetarik, “frankixtak” izanak zirela 'ta izen goitiz *Franco eta Mola* deitu zituztela. Hirur “Baionesetan” zaharrena ja mutiko gaztetua guti ikusten ginuen. Arreba 'ta anaia ttipienak aldiz gure adinekoak gurekin behereko eskolan ibili dira zenbait urtez: handiena A. nekato mehar eta zalu bat, urte bat ni baino zaharrago uste dut, eta bizpahirur urte gazteago ene arrebaren

adineko anaia ttipia, haur ezti pherestu bat. Eskolara, Borddakoak batzuetan Barberareneko bidekurutzean harturik, elgarrekin joan gira ainitzetan eta berdin itzuli; oharturik bidean bertze lagunak errex uzten nituela haiekin erdaraz (euskararik ezpaitzaiten) mintzatzeko, gertatu zen lagun zenbaitek, jelsia apur batekin agian, izen goitiz “A.” erran zautala (nahiz gehienetan Orzaizeko eskolan, behin ere jakin ahal eztutan arrazoin zenbaitez, ala etxean aitzineko norbaiti lehenago hala erranik, ala aitatzik bereziki laudo zuela jakinez, ohiko izen goitia “Napoleon” ukana dutan!).

Asti ginuenean, ortzegun, igande arratsalde, edo eskolatik landa iluna ezpazen, jausten ginen “barnez” Borddako aldera, phentze zolan hesiko athekara heltzeko, ezker utziz ithurri zaharra: bazuen bere leienda, amatxiri entzunik noizpait ur bila zabiltzala etxeokak, eta Ahaizeko hegian etxetik doi-doia ageri den Bixintxoko kaperatik ur aste edo haizete batek teilak eremanik, bat horrara jautsia aurkitu zela, norbaitek erran zuela han miha zezaten, eta ithurria berehala lur axalean agertu! Aspaldidanik ezpaitzen etxeok baliatzen, ikusten ginuen apho mantarrez betea, barnean arrobio zenbait eta aitasamaso batzu igerika. Laur haltz handiek gure aldetik mugatzen zuten hesia iraganik, Borddatik biderditan, gure phentzetik eta Xomberro-deraman auzoko alhorrean, jostatzen ginen, solastatzen eskolako gauzez edo ere, uste dut ordukotz, elizan entzuten ziren kantu 'ta musikaz, delako Baionesak hara jautsiak eta Borddako haur zenbait ere.

Ilunabarra zen jadanik, eta gu han josteta laurzpabortz haur, gure gerrien izartzen, hea nork meharrago (meharrena A.-rena zen...), oihalezko gerriko bat ahal bezain tinki atxikiz, irriz eta mintzoa gora. Bapatez ikusten da Xomberroko athekatik jauzian zalu-zalua heldu itzal beltz bat, gutara hurbiltzean “*Sapristi!*” eginez. Ohartu ginindakon orduko gure irriak, jostetak eta gerri neurtzeak gelditu ziren, Chorhy herriko errerora baitzen, aphez tipi zaintsu begitartez gorra hura bere sotanaren hegalak airean, urhatsa zalu ohi zuen bezala, haur ttipiak, xaharrak eta erriak ziren etxetako itzulia eginik, eta orduan Borddatik heldu etxera buruz. Usu ikusia ginuen etxaitzineko korroilan amatxirekin edo aitamekin buru batetik bertzera ibilki geldirik ezin egonean bezala, batzuetan bikari bat lagun,

“behereko” eskolako ala elizako gauzez (amatxi elizari emaile jarraikia baitzen), urhatsa bizi, beti halako khexu batean, noizten *sapristi!* eginez (hitza erdaraz elizako “sankristiaren” izenaren aldamen bat zela enakien orduan, hark ba ote?). Iluna hurbildua 'ta zer ari ginen tenore hartan galdegin zaukun, haurrek etxetara itzultzeko ordu zutela erranez, erasiatu gabe 'ta eztiki alta uste dut, eta bigarren atheka jauziz gure aitzinean abiatu zen. Urte bat edo bi berantago, gerla hemen bururatua, “Baionesak” auzora itzuli ziren, baina ez gurekin jostatzeraz: A. ikusten zen leihotik etxe barnean hango emaztekin josten ari, burua aphaltu eta serio, “andderetua” ordukotz.

Gure jostetak jarraiki ziren beharrik Borddako haurrekin. Udako beroetan, etxeok “etzanaldiaren” egitera igorriko ginituztela jakinik ere, hitz-hartuak ginen “barnez” bi lasterrez han izanen ginela. Lokhartu gabe baginauden ixil-ixila etxeok harrabots guziak gelditu arte; etxean lo zirela iduritzen zizakularik, gambarako athe phizua ahal bezain emeki idekirik, oinetakoak eskuan onthuts, “gaineke sala” osoa 'ta mailaldeak iragan behar baitziren etxeok ohartu gabe, bi minuta berantago hitz-hartu lekuan ginen, jostatzen, batzuetan erreka bazterrean arraintzan guhaurek moldatu haga labur batzuekin (etxean beldur handia zuten “ur handira” joan giniten), Borddako, Hegigorriko edo Iriartegaraiko oihan hurbiletan onddo biltzen. Gero orhoitu behar zen, oren bat edo bien buruan, itzultzeko ordu zela, etxeok udan, goizik jeikiak, etzanaldia luze bazuten ere, hek iratzarri baino lehen berriz ixil-ixila sarturik gambaran izan behar ginuela, alegia etzanaldia eginik. Baina gure jokoari ohartuak ziren, eta bazen gero, amatxi gure alde izanik ere, erasia merke, are gehiago guk jostetak luzaturik eta ohartu gabe ordua huts eginik han norbait jeikia baldin bazen, ikusten ginituztenean lasterka maldari goiti gorrituak izerditan etxera sartzen.

(1943-1945)

17. Labe gorritzen

Bezperatik, ortziralea gehienetan, batzuetan ortzeguna, korroilako labetegia betea da orre (“*jinabre*” erraiten zizakon gure eskualdetan), xirimindu 'ta eiharrez; ikusia da ama

edo amatxi, batzuetan Ahaizetik boketa egunetan, latsako edo bertzela lanera ekharr-arazten den “Maia luxea”, emazte luze mehar aurpegi hits bat egiazki, irina 'ta ura nahasirik, gatza gainetik artetan barreatuz, orhe phizua bi eskuez askan itzul eta itzul, indarka bidarra izerditan, laneko zaiak irinduak; eta gau guzian altxagarriarekin askan utzia da 'ta neguko goizetan mihise batera bildurik saski handi batean supaztarraren aitzinera eremana, edo ere, jendea jeiki orduko ohe bero bateko estalgien azpira, “beroaren atxikitze”.

“Jatekoen” egiteko goiza, etxeko athea idekia, ama edo amatxi ari da, zenbait aldiz biak, etxe aitzineko labetegia idekirik (bidez haraindiko “labe zaharra” ezta artetan baizik gorritzen, jateko gehiago behar denean, errekiak edo “konserbak” egin, baratzekiz edo urdakiz), athea zabal, barnea sutan, abarrak garretan joaiten diren arau labe aho gorrira eman eta eman, hastapenean suaren hasteko “jinabrea” zirrintzan, zapartaka, oro khetan eta hek nigarra begietan zaia hegalaz edo mokanesaz xahutuz. Jateko onak nahi badira, ez “tortak” (guti baina erraiteko doia gertatu dena, 'ta orduan berriz hasi behar biharamunean, irinik gelditzen bada) altxagarria ona ez izanez, orhea hozturik, labea ez aski gorriturik edo berriz hoztera utzirik, labeak behar du aski “gorritua” gopoila gainetik egiten daukoten adarailuetan eta azpian, ez alta jatekoen erretzeko heinean. Artean orhea, gehiena gariz eta ere meta ttipi bat berex arto irinez, bere saskitik hartu da, mihisea baztertuz berriz askan ezarririk han ogi gai gotorrak, ttipi-ttipi batzu moldatuz ere ogien orhe soberakinaz opilen egiteko, ganibet “marraza” handiaz moztu, eskuaz zaflaka biribildu, gainetik irinez inguruan ihaurtu, eta berriz saskian ezarririk, saskia bi aldetarik labera eremaiten da. Hori guzia halako “prisa” batean eta erdi lasterka, artean labea hotz beldurrez.

Han badira bi haga buruan taula biribil batekin: batek taula goiti du eta hartaz berehala hautsak eta itxindiak zokoetara igortzen dira, jatekoen lekua labe erdian garbirik uzten eta han, bertze haga tauladun zabalean ogi gai bakotxa ezarriz eta eskuaz berriz biribilduz, barnera emaiten eta batzu bertzen ondoan lerrokatzen, aitzinean athe ondoan ttipienak lastererrerik handik errexago atheratzeko, batzuetan ere azpian paper urindu

bat ezarririk erdi-erdaraz “mazapena” dioten bixkotxa eder bat edo bertze, igande 'ta bestaburuetako bazkariko.

Orai batere muga eztezaketan ephe baten buruan, erloiari behatzen da, 'ta labera berriz joaiten: burdin-atheko leihoxka biribiletik, airearen sartzeko artetan idekirik labea sobera bero iduritzen bada, barnera so egiten jatekoak zertan diren ikusteko. Bada beti orduan halako beldur bat, jatekoak huts eginak balire etxean balizateke khexu 'ta erasia, nola diren ageri da berehela amaren edo amatxiren begitartetik: abantzu beti ontsa, zorionez.

Hamekak hiria, eguerdi hurbiltzen ari, labetik jalgitzen den usain on gozoak gosetuak bezala gu ere, han gira inguruan hurbilduak opilen beha, lehenik errerik esku ukaldi batez ahurrera hartzen baitira, hoxteko gainera ufatuz, eta, bero-beroak marrazaz erditik idekitzen, etxeko gasna xuriz betetzen eta berehala berriz tinkatuz hesten: haurrendako *marrukukiak* (nahiz adinekoek ere aski maite dituzten bazkariaren igurikatze), eskura emaiten baitauzkute. Hoztera utzi gabe, barnean urtzen hasia den gasnak ahogozoa jauzten daukula, apur bat epheldu orduko, bi “klikaz” iretsiak dira.

Ogi handiek azala, goiti biribildua, gorritzen hasia dutela ohartu denean, labeko athea zabaltzen da airearen sarr-arazteko 'ta erretzearen gelditzeko, aire bero usain on hura neguan hain gozagarri baita, jatekoak, harrotuak eta azala gainetik gorrail, zenbaiti adar batzu itxindien bero biziak beltz-beltza ikhaztuak (“*Laberakoan da ogia adardun ala motz egiten*”), azpia hauts kolore, haga beraz saskira eror-arazten dira, eskuarekin ezin hunki beroegiz, oraino badantzutan azantz motel idor gozo bat badagitela elgar joitean: borzpasei ogi eder handi, barnez zuri-zuriak, gerlako urtetan ere, batzuetan batek barnea ilunago, “herresa” diotena (eztut batere maite) irina berex zahia osoki ekhendu gabe egina, eskuz zaretik banazka hartuz eta azpi zabalean lotuak dituzten hauts eta itxindi phorroxxkak marrazaren ahoaz kharrakaturik, sukaldera eremanik, askaren barnean lerro-lerro etzaten direnak, artopil bat edo bertze gaztena orsto batzu azpian lotuak, gaina baltzaran, leun eta biribil, haien ondoan: asteko ogi 'ta jateko.

(1992-ko urtarrilaren 20-an)

18. Eiherazainak

(Irigoizbehereko eihera zaharra edo hobeki, zioten bezala, “eiherazarra”, mende bat baino gehiagotik utzia, etxeko erreka bazterrean, azken haritz handi zaharren beherean, etzen, hegaztegia galdurik, laur kantoineko harresiaz inguratu zilo bat baizik, lehenago uraren sartzeko landurik izanak ziren harri gorri pikatu handi batzuen azpiko zilotik etxeko 'ta auzoetako ixurkindegi bilakatua, oraino aldi batez ttipi-ttipian aitak eta auzoak gorritzen ikusia nuen gisu-labearen ondoan: guziak orai ekhenduak)

Hamabortzean behin uste dut, ezpazen ilabetean, edo berdin usuago etxean irinik etzenean gelditzen edo labearen gorritzeko ez aski (orduaz bezperako auharia, supazterrean “neskatoa” zioten suko burdinaran talo egiteko gerrena atxikiz “taloak” xigorturik egina zen), gehienetan eguerdi aitzintto-an, ikusten ziren sukaldeko leihotik baratze izkinaren eta labe zaharraren artean etxera buruz bidean heldu, arsto edo mandoen urhats ez-tian: arsto zurail bat, edo mando beharri luze gotor bat, batzuetan biak, bizkarra bizpahirur irin zorro phizuez goiti, eurixka edo lanho zenean gaintetik estalgi batekin, eiherazaina aitzinean eskutik sokari thiraka edo gibeletik makila txar batekin eztiki joz “ii!”-ka, batzuetan, karga ezpazen handiegi, berdin gainean jarria. Etxean gertakariak xuhur eta ikuslariak ere, bereziki neguko egunetan, han ginauden ukhondoak haustegiaren gainean emanak, leihotik eiharazainer beha, edo, ezkaratzeko athea udan aitzinetik haiendako idekia utzirik (neguan gaintetik berina batez hetsia egoiten zen jendea hara hurbildu arteo), korroilara joanak hexila beltz handiaren idekitzera.

Eiherazainari ongi-ethorria egiten zizakon eta hark, etxekoer agurrak emanik (“Zer berri zien etxean, Gaxine, Maiteexa?...”), bazeraman bere arstoa edo mandoa edo biak athe bazterrean hartako lotua zen burdinazko erhaztunean sokatik estekan ezartzera (zaldizkoek etxera heldu zirenean ere berdin egiten zuten zenbait aldiz, zaldia bideko hexiletan ez utzi nahiz, orduan korroila zaldi ongarriz usaindua gelditzen baitzen norbaitek xahaturik ere). Berehala irin zorroak, bat beti ogi irinez, bertzea bekanago uste dut arto irinez, norbaitek lagunduz ala ez,

bizkarrera hartzen zuen, eta ezkaratzera sartzen, gero etxekeok askara ixuriko baitzuten jatekoen aldiko behar zena. Ordainez, bihi zorro bat edo biga (gari eta arto behar baziren), bizkarrez bigarren estaiako bihitegik indarka jautsirik, errexago eiherazaina gizona zenean, ezartzen zen berriz aberearen bizkarrean, phizua bi aldetara ahal bezain berdin izartuz, berriz ehaitera eremaiteko.

Ogi irina luzaz, eiherazain onak izan zireno, Iriberrigaraiko aitaxiren eiheran eho zen, harri biribil gotorrak, bat ogi irinaren eta bertzea arto irinarendako (duela zenbait urte oraino han zauden, eihera aurdikiaren barnean), noizten behin aitaxi etxetiarrekin eta eiherazainarekin hitz-harturik artha handiz ontsa “pikatu” behar baitziren. Han garbiagoa ehaiten omen zen Ugarzangoan baino, eta etxetik bidez hiruretarik bietan hurbilago: Uhaltetik Prezintenekoa arteka harturik Laka luzatuz bi lasterrez han zen alabaina.

Doi-doia ditut gogoan hango eiherazainak, bereziki gizona, Domingo U., gu oraino ttipi ginelarik eriturik hil baitzen: gizon tipito azkar gozo bat ikusten dut, ile beltzaran kuxkulatu 'ta harro nasai bat irin erhautsaz erdi zuritua. Senarra lanean edo ohaturik gelditua, usuago 'ta berantago ibili zela uste dut emaztea, Paxkalin, emazte soinaraz arteko bat, bizkarra irin zorroak erabiliaren bortxaz apur bat ukurtua, ileak oihal batez estaliak, begitartea hits. Gutti egoiten zen elheka etxekeokin, behin irinak utzirik bihiak hartuz geroz, bere itzuliaren egitera leihan eta halako mintzo doludun batekin “ai-ei”-ka, edo lanaren nekeaz edo biziaren latzaz eta etxekeo nahigabez (entzuna ginuen haien aitzinekoek ukana zutela haur ttipi bat etxetik galdurik nazan ithoa hatzeman zena). Hartzen zuena zenbait aldiz etxekeok aldi oro eskaintzen zaukoten “azieta salda *bero-beroa* bidearen egiteko”? (Gizoner aldiz: “Baso bat arno hartuko duzu, etxekotik!” erran eta, gutik zuten uzten, etxekeo arnoa herriko aiphamen hoberenekoa baitzen.) Goizik zendu zen ere Paxkalin, gurekin eskolan zabiltsan bi haurrak umezurtz utziz, auzoan zituzten jendakia batzuen etxean; Iriberriko eiherazaina ere aldatu, ez hobetu, eta ogi irinaren ehaiten urrunago, gaineko bidez Abartiगतik Irisarriko Eihera-zabal ondoko eiheran abiatu ginen.

Arto irina aldiz, Ugarzango eiheratik ekhartzen zen, hau Iriberrikoa baino bizpahiruretan urrunago izana gatik,

Orpuztanearen azpiko errekan, amaren etxondoko auzo. Hango eiherazainak phizkor eta azkar ziren oraino 'ta luzaz ibili dira, Benat “beso-motza” (“*Beñat eihaaḡina*” ginion, baitzen ere Horzan bertze “beso-motza”, 14-ko gerlaren ondorioz), gizon larri handi pherestu bat, gogo onekoa, lanean etzenean “Mirueta” aldetan Lakako thurrustetan arraintzan, ardura pipatzen; baso arnoa bi erhien artean harturik irinaz ez zikintzeko, hatzak utziz hala ere, bazeraman gostuz zinka bakar, hatsik hartu gabe, bigarrena berdin, mintzoa beti berdin ezti, elhea 'ta omorea gozo.

Emaztea, Mariena, berdin gogo onekoa, jiten zen Benat lanean bazen edo hura zendu 'ta ere zenbait urtez, etxera arto irin ekhartzen, bera ahuldu 'ta aldixarturik noizpait, gelditu arteo ohatu aitzin, anartean, haurrik ez eta, “bizi ederra” eremanik, ziotenaz, Ugarzango eiheran. Mariena, emazte tipito azkar bat, begitartea 'ta begiak beltzaranak zabal eta gozo, gizon mintzo lodi baina ezti batekin, etxetik atheraiak baginen, inguruneko ixilean baratze izkinan ikusi baino urrunagotik entzuten zen, kantuz heldu, “*na-na-na-na...*” eginez ezti-eztiki hortzen artean, gehienetan astoan jarririk. Astoa erhaztunean estekaturik irin zorroa barnera sartu, bihia hartu 'ta joaitera utzi gabe, “Azieta salda bat hartuko dun bero-beroa Mariena” zion amatxik no-ka haurrean ezagaturik, senar-emazteak Orzaiztarrak baitziren, edo berdin amak, Ugarzanen auzo egonak zirelako. “Ba berdin, gogotik” zuen betiko ihardespena. Sukaldeko mahi izkinan jarriko zen, athe ondoan, eta azieta salda khetan ordu berean amak zaliaz eltzetik atheraia janen hurrupatuz, senarrak baso arnoa bezain gostuz. Bazuen astia beharrik Marienak, amak Ugarzango eta etxekoen berriak jakin behar baitzituen, eta baitzuten zer erran eta zer jakin bertzela ere, eiherazainak herrian etxez etxe ibilki eta. Ephe zenbaiten buruan, orena aitzina zoala ohartuz, jeikitzen zen (“Aizina dun Mariena gaizoa” zion amak), goraintziak emanik etxe aitzinean arstora berriz igaiten (norbaitek lagunduz ala korroilako harri zenbaiti bermatuz) artetik bi elherekin oraino, eta berriz abiatzen aberearen urhats eztian “*na-na-na-na...*”, Ahaize aldera edo bide beretik, Thanoeiheran gaindi Sabioko zubirano han ezker Ugarzan aldera hartzeko.

19. Ganerrean

“Ganerra” zioten gure eskualdeko hizkuntzan, etxe-gainetan, eta gure etxe hertsu 'ta goran bigarren estaian den bihitegiari; han, mailalde zut batetik “gainekeo gambaren” gainera iganik bazen oraino hirugarren tauladan, etxe aitzinera zirrito batetik idekia zen “ganer ttipia”. Argi gutisko sartzen zen, uda betean ezpada, ganerreko hirur zirrito laur kantoinekoetarik, “ganer ttipiko”-arekin; laugarren batek, etxeaitzin izkinara, gambaren sahetsean, gerla dembora guzian taula batzuez hetsirik egoiten zen arteka hertsu batera emaiten baitzuen bakarrik, han zerbait gorde behar zeneko uste dut (zenbait etxetan baziren urzoak, baina gurean ez tute behin ere ikusi). Bi zutabe elgarri gapirioz lotuek zadukaten hegaztegia, gora, jendearen heinera ezpaitzen jausten sahetseko murrura heltzean baizik. Ipharraldera bazen gaitzeko harresi bat, etxe bizkarra hartan ezarria, harri guziak agerian, laur kantoineko zilo bateko taulen artekatik ikustera uzten baitzuen “bertzaldea” ginion etxe zatiko selaurua, etxea hara noizpait zabaldua izanik: mendebaldeko zirritoaren gainean, ageri zen lehenagoko etxe zaharreko “piñon” edo murtxilaren lekua, gure bizitegiaren heinean mugatua, eta horrek gogoratzen zuen, ipharreko murruan mailaldearen gainean oraino lotua zagon harrizko xurruta handiak bezala, noizpaiteko bizi modutik zerbait.

Bihi uztak, lusagarrak, ilharrak, babak han zauden airera idortzen. Ogi joitetan, nagusiaren bihi zatia Borddatik orgetan ekharririk, egun hartan edo bezperan etxean berean egin zen joite ttipikoa ere, zakuetan gizon batzuek bizkarrean goiti bazeramaten, hek elgarren ondoan zutik lerrokatuz; berantago gainekeo bilhurra mozturik, zorroetako bihia meta handi batera hustuko zen, taula batzuen artean, behar baitzen artetan idorr-arazteko meta hura phala batzuez nahasi, etxe beheerano entzun zaitekeen gurrunga ezti batean.

Arto bihitzea aldiz ganerrean berean egiten zen. Larrazkeneko arrastirietan, aroa gaitzegi baldin bada arto buruak saskietan hara ekharririk ezkaratzean, bertzela arto buru meta han ezarria den barroki gainekeo belartegi zoko batean, etxe gibelean urrunxago, “arto xuritzeak” dira, bakotxak ziri labur zorroztu bat eskuan hari batez ukharaiari loturik. Noizten

kurrinka luze batek burua hazaroko zero ilunetara goitiazten du: lertsunak hedoi-pean lerro-lerro neguaren ihesi Espainiako aldetara joanki. Handik arto buru xurituak saskitaraka, norbaitek bizkarrean edo eskuz bi aldetarik, ganerrera eremaiten dira; eta gero, behar den arau, han berean bihitzen.

Bihitzeko mekanika, gorriz tindatua, argiaren ukaiteko zirrito baten ondoan ezarria da, eta esku batez errota aitak edo handi batek itzulikatuz, bertze batek, doi bat handituz geroz batzuetan eskolan ezpainen guhaurek, saskitik arto buruak hartuz eta gaineko burdin-aho batera emanaz, bihia saski batera erortzen da, etxe guzia abantzu inharrosten duen gaitzeko burrumban. Artetan, hatsaren hartzeko ala beharriari atsedean emaitako, gelditzen ginen, eta zirritora joanez, ezpazen jadanik hotzegi, handik ageri ziren Horzako plazara eta elizako dorreari, Arrosako edo Baigura aldeko etxe eta mendietara beha urrunera ephe bat egoiten. Aski bihi bazenean, etxeke beharrendako eta ehaitera igortzeko, jausten zen behereko barne beroagoetara, supazterrera, eskuak gaineko hotzaz gorrituak eta beharriak bihitzekoaren burrumba idorraz “tutatuak”. Amatzik ikasia zaukun orduan etxean (eta auzoetan agian) oraino erraiten zen hitz bat, noizpaiteko erran zaharra, neguan ortzantza Garazi eta Jarako aldetik (gehienetan ekaitza hango mendietan biltzen baita) entzuten zenean: “*Ori, Otxagabiako atxuak arto nabasten*”.

Uzta batetik bertzerano ganerraren erdia hartzen zuten bihi zaku edo metetarik, mahats biltzetako saski eta zaretarik, arto bihitzekotik eta zorro (eta berdin jende) phizatzeotik hara (ogi joitetako norbaitek bizkarrean jausten zuen eta behar zen lekura orgetan eremaiten), baziren ere bertze gauza batzu, ohargarririk edo baliokorik batere, gehienak hara higaturik edo ez gehiago erabiltzez utziak, erhautsak eta amiamarro sarek estaliak gehienetan, ezpaitzen han garbitze osoa bihiak hustu eta abantzu urtean behin baizik egiten. Ganer handira, azpian gatu zilho bat egin zizakon athea idekirik sartu eta ezker, haurrer debekatzen zen mailalde zut bati goiti joan behar zen, “gaineko gambaren” gaina hartzen zuen “ganer ttipira” heltzeko.

Bazen gauza bitxi andana bat noizpait ganerretara eremanik han debaldez utzi eta ahatziak bezala:

burdinazko zaldi orraze handi bat, ez erabilia-
ren bortxaz herdoildua, harresi izkina batean utzia, Arrosako

osabak zaltoki, uhal, krabaxtu 'ta bertze zaldi tresnak ereman zituelarik, aita ezpaitzuen zaldietako gosturik, ezagutua ezkinuen Jean Oyhenart amatxiren senar amikuztarrenak izanak 1925-ean hura hil aitzinean (*);

zutabe batetik dilindan olio girisailu mokodun burdinazko bat, argia oraino petrolaz eta garburaz egiten etzelarik erabilia (amatxi orhoit zen oraino haurrean ikusirik, edo bere amari entzunik, sukaldeko argia arrixinaz ere egin zela, hura khebidean “zirrintzan” errez);

etxeko zuzulu zaharra, bizkarreko taula zenbait hautsirik edo sukaldean leku egiteko hara eremana eta utzia, behin ere berriz jautsi eta berritu etzena;

kadera batzu higaturik hara baztertuak, lastoak azpitik dilindan gatuek aztaparkatuaren bortxaz (badute zer egin gatuek behitegietan, eta gau batzuez jauzika sagu hatzemaiten gambaretarano entzuten dira);

ganer ttipiak ere bazituen bere ondarkinak, erdian ilhar eta baba idortzeko hedatzen zen mihisearen inguruan, erdi-ilunbean, etxe aitzinera zeraman zirritoa haize hotzaren gatik edo bertzela xorier sartzearen debekatzeko taula batez erdi hestia baitzagon (eta hain gora iduritzen zizaikun nun ezpaiginen handik beheiti so egitera biziki menturatzen):

etxetan aspaldi lehenago, “etxe oiha” eta soineko egiteko iruten ziren ilezko ala lihozko harien biltzeko tresna aski pollit bat, zur gorritz, ziri meheak errota batzuer inguruan lotuak;

gambaretan ohen gainetik ekhenduak ziren “zeruak”, ohe inguruan gauaz erridauen atxikitzeke (amatxiren gambaran ikusia zen azkena, eta ere Arrosako izabaren etxean oraino berantago ene iduriz), han izkina batean metan ezarriak, laur kantoineko zur batzu landuak, gainean burdinazko krako batekin dilindan atxikitzeke;

hara eremana zen ere erdal-hitzez “turne-broxa” ginion haragi erretzekoa bere gerrenekin: ttipi-ttipian ikusia nuen alta oraino supazter aitzinean, igande edo besta zenbaitz, emeki-emeki itzulika oilaskoa gerrenean urre kolore jartzen, artetan amatxik gainetik berriz kulleraz urintzen zuela; xilintxa batek joiten zuenean, behar zen berriz, gaineko salako erloia bezala, gako batez “muntatu”;

eta zoko-zokora emanak, botoila zahar meta bat, gehienak edarienak, husturik, untxiaren pollitaren gatik iduriz han atxikiak, molde ‘ta kolore ezperdinetakoak, lehenago “Amerika-noek” etxeko itzulietan ekharriak agian: baziren uizki, borbon, koñak eta bertze; ganer ttipia hustu zelarik, berantago, eta botoileria guzia saski batzuetan ereman, egon nintzan berina beltzaranezko botoila tipito zabal bati beha, irakurriz *Tequila*, Mexikako edari ezagun haren izena gero jakin nuen bezala, urrundik harano jina. Orhoit-arazten zauztaten amatxik erraiten zauzkun ixtorio batzu: 1849-an haren aitatxi Michel Laharrague jadanik han zuen arreba baten ondora joana zen Argentinara (erraiten zaukun hemengo zor batzuen ordaintzeko joan behar ukana zuela), urteak berantago alaba zaharrenari (Dominica L. amatxiren ama) ohi zen bezala ondorioz egin zaukon etxera berriz itzultzeko, bertze hirur haurrak han utzirik bere ontasun eta *eztanziatan*. Hara joan baitziren ere gero amatxiren laur anaiak (berantago aitaren biak bezala) eta han jarri, ilabete bat untxi behar omen zuten batzuetan berriz hunara egiten zituzten bidaietan, itsasoko ekaitzen erdian etxerano heltzeaz etsituak, guziak aski debotak baitziren, othoitzean eta “*kontrizioezko akta eginez ustez eta azken orena jina*” ziozunaz:

iragan aroetako gauzen, bizi-molden, jenden hatzak,

han, ganerretan oraino geldituak,
gogoetagarri.

(*) 1924-an Jean Oyhénart, ereman zuen eztularen sendatzeko, uretan zen, eta hara lagundua zuen ilobak (Léonie izaba, gure aitaren arreba bakarra, orduan hogeitun urtetan) etxera amatxi eta amatxiren amari euskaraz igorri zauen karta ttipian, Eaux-Bonnes-ko hiriaren argazki baten gibelean, hau irakur daiteke, orduko ortografia zati handiz erdal-moldekoan:

“*Eaux Bonnes le 17 août 1924*

Amatchi maiteac.

Errecebitu dugu zuen letra mila placerekin zointan ikusten baitugu untxa ziestela. gu ere arras untxa guira, ottoc estula hor bezala du bainan medikiak erran dako helduden neguan biziki ezagutuko duela hunen efetia, ni biziki ontza niz segur niz bizpahiru kilo idabasiko dituela (sic). medikiak ere erran data untxatu nizala hunaz gueroz. Egun

izan guira laugarren aldian eta askena phartisean kondiac eguin. Orzegun arratsean arribatu (sic) guira; oraiko ustez osebaren etcherano yuanen guira; huna beraez hemengo mementoco berriac...”

20. Ogi joiten Orpuztanean

Guhauren ogi joitetako, Borddako etxe sahetsera eta etxetiarra joanez geroz zenbait urtez etxeko lako aitzinera (ikusit dutan azkena 1963-an), lan bera egin den auzoko etxe zenbaitetarik ekhartzen dira, errekako maldan goiti bide hertsian behiak batzuetan bi paretan uztartutik oihuka 'ta thiraka, *bapurra*, mekanika beltz gotor bitxi bat dena xixtu 'ta khe, eta joitekoa urdinez thindatua, goizetik hasi behar badute bezperan, arrats-aldean egiten bada eguerdi hiriko, langileak orduan bazkaldurik jiten baitira. Mekanikak bere lekuan antolaturik,

batetik bertzera uhal zabalen neurria xuxen hartu ondoan “bapurra” phizturik entsegu labur bat egin ondoan, tresnen jabea (Hortza Baratzarteko nagusia, etxekoek aski elhaide dute) bazkaltzeko lagun zenbaitekin etxean gelditzen da, baina gero ez beti, lana bururaturik langile guziekin egiten den aphauruan.

Borddan etxetiarra egon zeno ogi-joite handia han egin zen, gari landa handiak han etxearen inguruan izanez, uzta guzia etxe gibelesko atherbera (“hangarrera” ginion) biltzen baitzen, eta mekanikak ondo-ondoan ezarriz, azau garraiatzen bide guti baitzen eta lana errextua: alde batetik azauen zama atherbean, arteko bidean ogi joitekoa uhalez bapurri lotua, bertze aldetik han berean bidea mugatzen zuen harresitik beheiti, lastometa egileak lurrean sartuak diren haga handien inguruan. Hasteko xixtuak bapurretik jo duen orduko, langilen ekharrarazteko urrundak baldin badira, ikusten dira, agorrileko arratsalde bero batez gehienetan, ethengabeko burumban, hegaztegirano azau tinkatu horiz betea den atherbetik, bizpahirur gizon xixpaz zamak har eta goiti, mekanikaren sahetsean gora xutik bertze bizpahirur, azauen bilhurak hauts eta ahurtaraka mekanikaren ahora eman eta eman; gibeletik bertze bi gizon athera arau xixpaz lastoaren biltzen, eta metetan haren “plegatzen” ari diren bertze bier besagainka bota, edo, meta gora

bada jadanik, zurubietan goiti hetarano ereman; bertze aldetik, zakuak goiti mekanikako aho batzuer estekan, bihiz betetzen ari dira, han ere bertze bizpahirur gizon, hetan beti aita etxetiarrarekin, zaku khondatzen, eta bete arau bazterrera ereman, gero han berean sabaira edo orgetan etxera ekhartzeko; guziak boneta buruan eta lephoan mokanes gorri bat estekan, izerdian lotzen zezteen agotz eta erhautsez estaliak, harrabotsean elgarri oihuka ezin entzunez... Egun batez azau meta ttipitzen hasi zenean, usain gaixto bat jeiki zen, gero 'ta bortitzago. Zer ote zen dudan egon ondoan, azpira igorri zen gelditzen ziren azauen bazterretik hango gizon baten zakur labrit hetarik bat: ehausiarekin batean kurrinka bat entzun zen eta zakurra gibelera laster jalgi zango bat odoletan, berehala zimizta beltz bat bezala *brixt!* jauzian harresi izkinatik landa bazterreko hesian hara ihizi bat itzaltzen doi-doi ikusten zela: “*gatu pitotxa!*” egin zuen auzoko ihiztari batek.

Bordda ala etxea berdintsu zizaikun. Baina atheraldia bertzerik Orpuztaneko ogi joitetara joaiten ginenean, uste dut denak (amatxi salbu, menturaz hura ere batzuetan) “Uharzaneko zokora” artetan erraiten zen bezala, arratsaldetan egiten zenean. Goizean goiz bazen, etxetik egoiten ginen, hea entzunen ginuenez, haizea alde bazen, joitearen burrumba, eta azkenik bapurrak hastapenean bezala bururatzean eginen zuen xixtu bizi luzea: xixtuaren aiduru luzaz egoiten bazen, ogi ainitz (batzuetan alta bihi baino gehiago lasto!) bazela erran nahi zuen, eta aita etxera itzuli arteo, aldi oroz han baitzen, igurikatu behar ginuen, amak bereziki etxondoa zuelakotz, zenbat bihi zaku egina zuten jakiteko.

Agorrileko beroan, gu hara orduko joitea ari da, landa 'ta Mirueta aldeko etxe sahetsean, etxe aitzina baino gorago, selauruko atheak zubixka labur batera zabal, alde batetik ekhartzen dituztela metan dauden gari azauak mekanikara, eta gero berriz hara berera eremaiten hirurzpala urhatsetan bihi zorroak bizkarrean edo bi eskuez atxikiz airean. Gerlako urtetan, “otto Beñat” gure osaba preso izanez, aitatxi da nagusi, gizon pizkor gozo omore oneko bat, sortzez Heletarra, 14-ko gerlan kolpaturik izana 'ta geroztik, dioten bezala, “arranda” ttipi zenbaitekin (han dira sukaldean khebideko taulan, orhoitzapenez soldadoer emanik ala bertzela ekharriak, obusen untzi handi

letoinezko batzu, dirdiran eta zizelkaturik lili-untzi bilakatuak, etxeko gandelabren artean edergailu; eta bi ttipi ere molde berean etxera ekharriak, gainean hizki handiz *VERDUN* izenarekin). Bere mokanes gorria lephoan, badabila langilen artean hara 'ta hunara, arno botoila 'ta basoa eskuan, nahi duenak ere sagarnoa, etxegibelean eihera aldera den sagardiko “mamolak” oraino han biltzen baitira eta ezkaratz zabaleko brentsan, mahatsen ondotik, lehertzen (ustez hori aldi bat dut ikusi bakarrik: artetan etxera botoila zenbait ekhartzen da ere, amak sagarnoa biziki maite baitu), edo etxe aitzineko ithurritik “pompa” besoaz erabiliz nekez atheratzen den ur hotx-hotxaz bete duten pitxer handi bat, edaria eskainiz bakotxari elhe airos batekin. Guziak ari dira “izerdi lapetan” urinduak hemen ere, mekanikaren haizeak botatzen dituen erhauts, ilhaun eta agotzak begitartean lotuak, begiak doi-doia ageri, lephoko oihal gorriaz begitarte gorribelztua artetan xahutuz. Aita han da zakuetan bertze gizon batekin (uste dut ere aitaxi Iriberrigaraikoa noizpait han ikusi dutala, hura baino gazteago den Orpuztanekoari “hi”-ka “Batita” erranez, eta hau hari “zu”-ka guziek bezala “Jan-Pierre” diola).

Haurrak ere, etxekoak diren gure adineko bi gusiak aitzinean eta auzoko bat edo bertze hara hurbildua, etxetik atheratzen gira, emazten artetik erdi ihes - izaba etxeko anderea, amatxi amaren ama (emazte luze begitarte hits bat ordukotz supazterretik guti baztertzen dena), ama bera eta auzoko norbait laguntzera jina -, hek lanjerrera joan gaiten beldur alde batetik, baina ere sukaldeko lanetan eta ezkaratzean ezarria den mahi handiaren antolatzen ezpaikituzte “*zangopetan*” erasiatu gabe jasaiten, eta langilen artera menturatzen; harrabots izigarriak eta erhautsak ezpada, erasia bizi zenbaitez gizonek mekanika ondoretarik berehala haizatzen gituzte. Etxondoetan itzuli zenbait eginik, urrunegi joan gabe (bada oraino han berean bidez haraindian baratzearekin den Orpuztaneko labearen gibelean, “Garziarena” izeneko etxe tipi bat, geroztik barreatua, hango alokariak, eskale beltzaran batzu, ezpaitute aiphamen hoberena), etxera berriz sartzen girenean, mahia ezarria da, zur zurizko alki luze batzu bi aldetarik, azietak, basoak, ogia ekharriak. Gero, bapurrak azken xixtua eman dueneko, uhalak emeki gelditu dira, burrumba eztitu 'ta ixildu. Langileak berehala, oihal batzu eskuetan, bi lasterrez Lakako urera beheiti jausten dira, eiheraren gainaldean,

eta han ikuzten, batzu urean buluz gorri, irriz ur bazterreko hesien artetik gordeka ikusten ditugunak nahiz handik haurreria haizatzen duten. Eta, jendea etxera sartzen ari delarik ogi joite guzien ondotik langiler (guziak auzoko ezagunak) emaiten zaien aphairuko, etxekoek bakotxa sartzean agurtuz eta jartzera gomitatuz, mahi buruan etxeko nagusia 'ta mekanikaren jabea elgarren ondoan, lehenik zerbitzatuak, emaztek janari 'ta edariak sukaldetik ekhartzen hasiak baitituzte. Haurrek aitzinetik egina dugu “atsalde-askaria”, ogi zerra zenbait erreximetarekin, bada beraz oraino jostaldi zenbaiten egiteko asti, lasto meta berri-berrien inguruan lasterka, bideko harresiaren eta landaren artean, taula azkar batzu gainetik utzia den ziloaren buru batetik bertze gordeka, orai lastoak gainetik estaltzen baitu, edo korroilako bertze aldean, arditegiaren aitzinean eginak diren iratze meten gibelean.

Iguzkia behehitzen hasia da, jende gehiena oraino barnean, eta aphairu ondarrera, etxera sartzeko jalgitzen ari eztirenak kantuz hasten, “beranta bildu gabe” dioguten bezala etxera abiatu behar dugularik, guzier goraintziak eginik. Ugarzango plazan amaren ezagun zenbait agurturik, bereziki “Etxoinekoak”, edo Etxeparekoak, hauk aitamek bereziki elhaide baitituzte, abiatzen gira alhorren arteko bidera Ospitale aitzinean bihurturik, Sabioko zubira buruz, berantegiz Iriberriko aitatxi-amatxien ikus-tera baztertu gabe, etxea bere auzoan han gaineko aldean eskun ikusten dugularik alta, handik eiherako bidetik eta oraino zutik eta baliatzen zen zubi goratik Lakaren eta nazaren arteko bidexkari jarraikiz, ttipian halako beldur batekin beheiti behatuz ur geldi, barna 'ta ilunari. Errana daukute eztela hurbildu behar, osinak jendea bereganatzen duela; arrainak udako ilunabarrera uraren gainean jauzika dabilta, airean jantzan orratxak (hainbertze gustatzen zaitanak nun, berantago, eskualde hautako mota guziak ikhertu eta lerrokaturik, hetan abantzu “jakintsun” bilakatzer bainiz...). Oro han utzirik sartu behar da, Prezintenekoa maldari goiti bide hertsian hats-hantuak, Uhalde aitzinetik etxe aldera ordokian hatsa berriz hartuz, eguneko gertakariez eta ikusi diren jendez adinekoak solasean, orok begiak, beharriak, gogo hango gauzez beteak... bertze urterano.

21. Baratzean

Etxe aitzinean, korroilako hexilatik zenbait urhatsetan, orduan harresi handi batzuek (gero bertze gehienak bezala bide berritzeko 'ta zabaltzeko aurdiki ziren) bidera 'ta Izpuaitzeko arteka aldera hesten zuten baratzeera sartu eta, basarrosazko arku batek, amatxiren lana, gainetik inguru eginez koronatzan zuen hexilatik, gordea bezala aurkitzen da, bidetik eta han dabiltzan jendetarik. Ezkituzte alta usu hara eremaiten, beldurrez eta gure josteta jauzietan hango taloinak eta hetan diren landare 'ta baratzeakiak “*tapika*” 'ta andea. Han zer den hobeki ohartzen hasi nizaneko, baratzea aldatzen hasia zen, amatxik bere gostura molda-arazia ukanik eta berak arthatua, hura adinetara helduz geroz batzuetan “gizonak” (zion amatxik) han berak lanean uzten baitziren, bereziki lur itzultzeko, hesi mozteko, eta axola guti baitzuten taloin bazterretan uzten ziren lore, landare 'ta negua lur-pean iragaiten duten erro eta tipulez.

Baratzean, etxera buruz Izpuaitzeko aldeko harresitik eta goizaldera etxeko mahastitik berexten duen hesirano, badira, orai badiduritanaz, hirurzpalaurre taloin bertze hoinbertze lerrotan, bazterretakoak apur bat hertsia, orotara bederatzia edo hamabi taloin. Ur-astetan idorrean atxikitzeke 'ta ere lanaren erreteke, bidexka batzuek berexten dituzte, ibiliaren bortxaz barna zilatuak; artetan ongarria emaiten da, lurraren ontzke, eskorgataraka barrokitik edo haren aitzinean egiten den samats metatik hartuz, hautsa sukaldeke haustegitik edo labetik, eta ere noiztenka, bekanago, lurreke mamutxen “kasatzeko” omen hurbil-hurbila bidez haraindian den oilategitik, usain bizi bortitz batekin. Bada betiko lan baratzean (are gehiago “behereke baratzea” erreke haraindian edo phentzeko ithurri ondoan atxikitzen delarik, bereziki uda idorrenetan), lur ontzen, itzultzen, ereiten, garbitzen, “zikin erretzen”, mozten. Etxeko emazteak usu baratzean ari dira ere, egun oroz han hartzen baitira salda egiteke 'ta bertze janarietako baratzeakiak (“berdulak” edo “legumak” zioten), urtaro denean fruitu zenbait, primaderatik urrietarano liliak elizara 'ta ilharrietara eremaiteko (amatxik berak ditu goizeke hotxean biltzen, on izan deno, igande guziez meza nagusirakoan ura berriturik etxeko hilobike untzian ezartzeko).

Hain da baratzea etxeari lotua, nun haurren ohiko galdez aspertuak direnean (“*Zer da?*”) edo dakiten zerbait haier ez erran nahiz, etxekoek ihardesten baitute “*Baratzean zerba!*”, eta galdea errepikatzen bada berriz: “*Haren ondoan pberrexila, egoiteko ixil-ixila!*” Zerbak badira egiazki beti baratzean, taloin bazterretan jitera uzten direnak, baina eztut etxean jaten behin ere ikusi (uste dut han berean hurbil zen urdetegira edo oiloer eremaiten zirela), eta berdin ere bide harindian goiti luzatzen den mehula (“*fenouilla*” deritzote erdara hutsez) bere orstatze xehe-xehe eta usain bizkorrarekin. (Biziki berantago eta etxetik urrunago dut, Niza aldean, zerba ala mehula baratzekari han estimatuen jaten ikasi). Gozagarriago da primaderako egun ederretan ilhar eta bereziki baba ondoen sortzen eta loratzen ikustea, erleak inguruan burumban ibilki.

Taloin bazter eta zokoek badituzte alta gauza goxagarriago batzu, berehala jateko on direnak orstaro-ekhaitan, bi motetako marrubiak, orstapean gorriturik ebaska bezala eskuaz biltzen baitira, eta, aroa eder eta lurra idor denean han berean iresten: bat gorri eta biribil, bertzea luxe 'ta arrosa-kolore, gostuz eta usainez hain aberats eta gustagarria, gutiago emaiten duena, baina uda osoan, geroztik ehoiz aurkitu ez ikusi eztutana, agian oraikotz galdua. (Bertzerik da Tipireneko 'ta mendiko bide sahetsetan jiten den basa-marrubi ttipi-ttipia, hain gustu onekoa, nun gelditzen baigira sasietan mihatzeke, etxean emana daukuten sugen beldurra ahatzirik). Eztitut berdin maite ez “*grozella*” dioten (eta ez hiztegi batzuetan berantago irakurri dutan izen bitxia: “*andere mahats gorria!*”) zuhaxka adar meharraren pikor gorriak, beti apur bat saminak hortzetan lotzen diren hazi ttipiekin, ez landare gotorrago zur ilhun xitrodunarekilakoak emaiten duen “*pimpino zuri*” biribil inguruan marratua, gostuz amak dion bezala “*hila*” aurkitzen delakotz; nahiago dut mota beretik baina axal arrosa-kolorean zain gorra batzuekin, gostuz ere bixiago, Iriberrigaraiko baratzean jiten dena; baina batere ez etxekoan han gaineko zokoan azken taloin baten izkinan bakarrik gelditua den “*kaziza*” izeneko zuhaxkaren pikor beltz apur bat kharatsa: menturaz etxean noizpait erabilia dukete erreximeta egiteko, baina orai utzia da 'ta eihartzen hasia.

Badira ere taloin sahetsean bizpahirur madari ondo ttipi, guti emankorrak (Iriberrigaraiko baratzean dira ikus

daitezkeen madari ederrenak, aitatzik berak motak hautatuz xertaturik, eta batzuetan amatxik, etxera usu egiten dituen ikustaldietan, jastatzera ekhartzen baitauzku eskuko zare beltz handian); motaren berezitasunez ala lurraren ahulez, ondurik ere, badatzikate zur mehe 'ta idor bat, zahartua, goroldio ilun batez lastua, eihartzera emana iduri. Mahastiko hesian iguzkialdera aran gorri ondo bat badago bakarrik (bertze batzu haraindian mahasti bazterrean, aran zuria matela bat arrosa-kolorez arinki titatua alde batera), eta adarretan goiti badoako bihurtatuz mahats xuri "xazela": eztu gustuz batere balio Tipireneko mahasti lerro betean ezarria den mahiko mahats gorraxta aitak "gaillard" deritzona, are gutiago Iriberriko Munagorrikoan aitatzik landatua duen "Antoi-neta" - bere izenaz moskata - deritzogun pikor azal beltz luzea, landareak izen bereko Beirines auzaphezaren izabaren ganik ukanak baitzituen noizpait.

Baratzeko loreak amatxiren hautukoak dira, noizpait auzoenganik eta batzu Baionako Villa Pia-ko bere gusiaren baratzte ederretarik ekharriak, eta aski goiz gehienak galtzen hasiak, zahartzez edo langilen lanaz, azkenik harresiak aurdi direnean bide berritzeko. Ohargarrienak zazta orai Izpuaitzeko harresi gora osoan hartzen zuten basarrosak, lore lerro bakunekoak, zangarra zahartuaz loditua gaitzeko sistro batzuekin eta hexila gainetik arkuka, lilia batzuek gorri argi barne horail batekin, bertzek gorri ilun (itxura berekorik ez tut geroztik ikusi), Besta-Berrietako lili flokan, hetarik betetzen baitauzkute ttipian elizara lephotik dilindan eremaiten diren xare gorri xingola gorritz aphainduak, han elizako 'ta prosesionean Nagithurriko, Berinense-neko edo Etxebertze serorategiko aldaretan iguzki sainduari buruz airera botatzeko... Etxekoak eta bereziki amatxi biziki elizatiarrak baitira ezta holako bestabururik huts egiten (amatxik erraiten dauku han Bihotz-Sakratuaren aldarean ikusten den urre-koloreko korona bat hark eta etxeoek eskainia zutela lehenago). Han-hemenka taloin bazterrek badituzte bertze arroso do bakar batzu: lore gorri bildu guti idekitzen den bat phizuaz beheiti makurtua, bertze bat xuri-xuria, mulko gorraxta arin bat nasaiki emaiten duen bat hirurzpala ur lekutan sasi biribil ttipi batzu eginez, eta mahasti bazterreko hesian ipharraldera lore tinki bat barnea arrosa kolore eta bazterrak argi, "mila orstokoa" diotena. Hexilatik sartu orduko bi aldetarik aurkitzen dira

amatxik “San-Josepe lilia” diona, lurraren heinean aphil orsto leuna lodi, biribil eta zabal, gora xutik berriz bere lore mulko luze ubelekin "akonita", euskaraz irabelarra edo bitxiki "zorribelarra" (ezagutzen ezkinituen euskal-izenak, ez eta landare phozoindatua zela ere), “phlox” ere lili mulko biribil batzu goiti itzuliak; taloin bazterretan urrunago, berrikiago ekharriak “dahlia” eta “pivoina” zenbait, lore margo bizidunak ziritetan gora. Nun nahi sortzen da loratu ondoan pumpula koronadun bitxiek ixurtzen duten hazi xeheetik “arsto arrosa” deritzotena, berdin landu eztiren taloinen erdian zut-zuta, eta orduan esku batez athera behar da; ziriaren inguruko orsto handi guriek usaina ezpadute gozagarri, baditu idekiz geroz egun bat baizik irauten eztuten lili zabal margo ederrekilakoak, zeta bezain mehe ‘ta leun, dirdiran, moztu orduko erortzen eta zimeltzen baitira, eta hortakotz eztira biltzen.

Bi landare aphil ezarriak dira tisana egiteko: eztularendako omen amatxik “morroina” diona (erdaraz alta izena “bourrache” du eta ez “mouron”!), bi motetan, lore xuri 'ta lore urdin arin, asunen iduriko orsto latz batzuekin baina xurail eta minik egin gabe; taloin bazterretan bera jiten da, eta artetan oraino amatxik biltzen du; uste dut batzuetan eman daukutela, xixa-riendako zioten, lore mulko hori eta orsto berde ilun artekatu batekilako landarearekin egiten den tisana kharatsa, ondoak etxetiarraren etxetik ekharririk ustez, “axentxia” zeri-tzotena, baratze zoko batean sasi tinki bat egiten baitu 'ta eskuetan hartzean usain azkar bat uzten. Gotorrago dira han, erdiko taloin baten bazterrean, “Japoniako sagarra” otsaileko lore flokan jarria, gero artetan halako sagar iduriko tipi gogor bat emanez, eta harresi ondoko zoko batean Argentinatik ekharria omen “yuka” bere orsto luze idor punttan sistrodunetan, ezkaiten hartara hurbilegi erraiten baitaukute, beldurrez eta “*begiak irez*”! eta noiztenka udan lore beso luze bat goiti igortzen du, inguruan beheiti xilintxa moldeko lili xuri biribil andana batekin, usain gozo azkar aberatsegi bat urrunera hedatuz.

Erdi itzalean, hexilatik sartu orduko eskun, bada bertze zuhaxka bat, izenaz itxuraz baino ohargarriagoa, “iranja” baitio amatxik: ziri mehar batzuetan orsto biribil batzu musker ilun, eta lili ttipi ezteus baten ondotik halako pimpino zuri-zuri biribil bat agertzen zako; eztu alta Eguberrri inguruetan, etxera paper zetaz inguraturik ekhartzen dauzkuten egiazko

iranja, sagardoiko sagar “amuna” bezain gotor eta urre-kolore ederren iduri izpirik, ez eta landareak berak noizpait amatxiren gusiaren etxera Baionako bidaia batez han zurezko untzi handi batzuetan ikusi ginituen egiazko iranja ondoenik. Geroztik egin dut amatxik handik ekharri zukeela iranja aldaxka edo landare zenbait eta lurrean ezarri, etzukeela hartu edo lehenbiziko horman eihartu zela, eta haren lekuan jin zen bertze landare zenbaitek zukeela izena atxiki...

(1992-ko uztailearen 24-ko gauan, oren bat eta erditan)

22. Mahats biltze

Gaztena biltzeak ziren urteko azken athermaldiak etxetik, haurrak adinekoekin eta bide luze hainbat aldiz oinez eginetik Arrabit-lephoan gaindi Menttaren-bordarano, han baitziren jateko hoberenak eta ederrenak zaduzkaten gaztenak (batzu berriki saldurik izanak diren lurretan, Irisarriko muga-mugan), han ere aldi berean edo lehenxago biltzera hainbertze aldiz izana nizan hauteko onjo lekuak. Lerroan joaiten ginen bide harritsuari goiti, adinekoak eta haurrak aitzinean, bakotxak eskuan zurezko xardeka ttipi bat sistatuak izan gabe gormotsen biltzeko, gibeletik behi pare bat orga tombora bazterdunekin, gero gaztenaz beterik itzuliko zena, gaztenak bere gormotsekin ekharririk sabai zoko batera metan hustuko baitziren, meta hura gero zizpekin zabalduz. Handik egunetik egunera, gormotsak oinetako azpian idekirik, etxera saski batean ekharririk dira, phadera gider luzetik kurrinkan itzulikatuz sukaldeko supazter zabalean erreko, azala aski beroturik tiroka hasteak hainbat jostatzen baikinituen, gero aitak sototik ekharririk duen “minetarekin” batean jateak bezainbat, su-pazterrean berean zurezko mailuka zabal batekin ukhaldi batez leherturik azal guneka suak belztuaren berexteko: ondolik gatulu bat esnerekin, edo berdin gabe, negu hasteko arrats zenbaitetako auharia zen.

Ordukotz ezkaratza mahats biltzetarik landa han lerrokaturik egonak ziren dupha 'ta barrikez hustua zen, arnoak satora bilduak: gaztenakia 'ta berezi gaztena azala arnoek phozoina zutela zioten etxekeok, hanbat artha hartzen baitzuten,

etxean aitak eta Iriberrigaraian aitatzik, mahatsez eta arnoaz. Mahats biltzen hasteko eguna, buruil azkenera abantzu beti, iguzkia oraino bero 'ta batzuetan hegoa ufaka, aitak hautatua zuen mulkoak aski onduak idurituak zizazkon bezain laster (laster diot, ezen aitzineko arnoak gehienetan ordukotz husturik, edatekoa etxean behar baitzen). Ezkaratz zokora barnetik eta bide sahetsera athe batetik idekitzen zen sototik, barrikak, urtean zehar husturik, kampa atheraiak ziren, ura gainetik barnera zilotik ixuriz “dekalitra” arno izartzeko burdinazko untzi pintaz pinta ozkatuaz, besoez itzul eta itzul lurrean ezarri bi zuren gainean ikuziak, berriz ziloaz beheiti itzulirik ura, lehenik lodi eta gorri-ubel, gero 'ta garbiago jalgitzen baitzen, eta azkenean garbi-garbia: hori omen zen arnoen atxi-kitzeko “usteldu” gabe egin behar zen lan baitezpadakoa. Gero barrikak, mahats aldiaren arau iduriz behar zen bezainbat, handi ala ttipi, borzpasei orotara gehien gehienik, airera idortzen utzirik, sofre mitxa phiztua — sudurra hartzen zuen usain azkar batekin — barnean burdin-hari baten puntan zenbait aldiz itzulika ibilirik azken usain zaharren garbitzeko, berriz sotora sartuak ziren, dupa zabal tipito bat (baziren handiangoak auzoko etxetan, urte guzian ezkaratz zoko batean gelditzen baitziren) han mahats biltzetarik landa hutsik egoiten zena ere jatsaz eta oihalaz barnean berean idorrean garbitua. Barrika garbi idortu batzu 'ta dupa, zenbait egun aitzinera edo bezperan, ezkaratz bazterrean lerrokatuak dira, athe ondoko izkinara ere brentsa ekharria, mahatsek han behar baitzuten irekitu, argira, ez soto ilunean; arnoaren atxikitze beteko direnak aldiz sotoan bi taula lerroen gainean lurretik aski gora bi aldetan ezarriak.

Bi mahasti baldin baziren Iriberrigaraian, bat Munagorri izenekoa Baigura aldeko malda beroetan, bertzea aldiz gure etxera biziki hurbilago, eiherako oihanaren gainaldean, baziren ere biga etxean: “etxondokoa” giniona, etxe aitzinean baratzetik landa zenbait urhatsetan, eta “Tipirenekoa” handiangoa, arte bide batez zati bitan berezia: azpian etxeko berekoa etxekoek arthatzen zuten, gainaldeko zatia aldiz, ttipiangoa, Borddako etxetiarrek ibiltzen, nahiz, bertze emaitzak bezala, mahatsa erdizka nagusiari uzten zen gerla ondoko lege berrirano. Etxondoko mahastia orhoit nizanaz “irigoizbeheretarra” zioten mahats pikor lodi biribil ilun batez zen (geroztik osoki ahazti

baita ene ustez, izena, eta nolakoa zen ere...), guzia ezpazen, bederen gehiena, han hemenka mahats zuri ondo edo lerro batez artekaturik. Tipirenekoa aldiz, eta bereziki etxeko zen zati handiena, aitak berlanda-arazia zuen etxera ezkondu zenean omen, “bordelesa” eta “axeria” (erdaraz “cabernet” eta “cabernet sauvignon”) zioten mahats motez lerro gehienetan, arnoko hoberenak baitzaduzkaten, pikorra “irigoizbeheretarrak” baino xeheago bereziki axeriak, mulkoa ere eta ezperdinago. Han ere bazen mahats zuri ondo zenbait, “bako zuria” behereko aldeko erreka ondoan, “bordeles xuri” ondo zenbait ere; gainaldean sartzetik berehala aldiz, jateko mahats gorra eta arin bat “gaillarda” ziotena: goizago ondua baitzen etxera ekhartzen ziren mahats biltze aitzineko egunetan hartarik zaretara bat edo bertze. Mahastia lerro tinki-tinki batzuetan zen orduan bertzetan bezala, guzia eskuz lantzen baitzen, mahasti-aitzurtzetan, behar zenean maldak eta urak jautsi lurra langilekin goiti eremanez, eta eskuz biltzen ere.

Orgak arte bide buruan ezarririk, biltzaleak, etxekoak eta auzo zenbait lagun, ari dira hetan ezarriak diren barriketara zare ‘ta saskiak bete arau ekhar, eta han gizon batek bizkarrean zaku batekin har, goiti 'ta huts. Eztakit egun bakar egiten zirenez etxondoko mahats biltzeak eta Tipirenekoak (nahiz bidea “heinka” labur zen orduan, eta orga ala jendendako errex, Irigoizartetik berehala aitak Urruzpururi lur zerra bat erosirik Mentaberriko mahasti zolatik egin-arazia zuen Tipirenerako bide aspaldidanik utzia denetik), baina etzata iduritzen.

Etxera orduko, orgak gibelka etxaitzineko korroilara hexila handitik sarturik, gizonak husten dituzte, lehenik lurrean ezarria den zurezko untzi bat edo bertzera; bizpahirur gizonak orduan zangoak buluzirik eta galtzak belhaunetarano goititurik, han, jantzan bezala, mahatsak lehertzen dituzte, zangoak mahatsen jusaz eta azalez gorri-belztuak, emazteak eta haurrak inguruan josteta haieri beha irriz, lezafinak eta leizorrek ere usain hartara bilduak burumban, eskuaz edo aldaxka batzuek ezpaziren haizatzen xixtako bat edo bertzearen ukaiteko ordua... Untzietako arno gaia ixuri behar da gero bere graspa guziarekin ezkaratzeko dupa 'ta barriketara, eta han ere berriz zangoz zapatu hobeki lehertzeko, jendea barnean bi eskuez bazterrari loturik burua baizik ez agerian, bere jantza moldean hupaka... Gero

zenbait egunez mahats lehertua irekitzen ariko da, etxe guzia mahats lehertu 'ta arno usainak gainerano hartua (gure Arrosako nexkato gusi batek, berak erranik geroztik ere, etxe arnoa ezpaitzuen maite, badakit usain hori bereziki hastio zuela). Goizetan jeiki eta ezkaratz zoko-zokoan zen mailaldetik jaustean, ezkaratz guzia entzuten zen halako ortzantz arin eta urrun batean bezala, “bur-bur-bur”: mahatsak irekituz arnoa egiten ari.

Gero azpiko dutzulutik dekalitraka ekhenduko zen eta sotoko barriketara sartuko, graspak berriz brentsan ezarriko, eta gaineko burdina ardatzean beheiti bi gizonen indarka itzulikatuz berriz lehertuko azken mahats-odolaren jalgi-arazteko. Eta hura orduan uraz gainetik bustitzen bazen, egiten zen barrika ttipi batera eremanen zen “mineta”, edari arroxakolore arin eta garratx hura, larrazkeneko arrats goizik errietan, supazterrerari beha egonik han “phaderaren” tiroak gelditu eta, gaztena errekin batean edaten baitzen, denak mahi ingurura bilduak, zurezko mailuaz gaztenak jo, zapa 'ta jan, guziek irri-solasetan: negu hurbilduaren aitzin mezua jadanik.

Athearen hestean

Hunarano eni jarraikirik izkina zenbaitek han edo hemen, orotako hondamenetik salbu, atxiki ahal dituen iraganeko hatz gutiek, eskuthitz, liburu, argazki, gauza, etzuketan, berez, orhoitaren phizteko indar aski, are gutiago begien azpian ikusirik ere, zirenetik hainbertze aldatu diren lekuek. 1991-ko uda zen ustegabeko gertakari batek eta haren ondorioek, bapatez, orhoitaren atheak ideki zituztelarik, ustez ahatziak ziren hainbertze gauza berriz gogoratuz, zatika, phorroskan bezala, bat bertzeari batere lotu gabe iduriz, eta batek bertzea ekharriz eta ager-araziz hala ere; hainbat ohargarriago alta berriz gogo argiratzean, nun, gauza, bizi-molde ala jende, gehien-gehienak behin betikotz joanak baitira ororen itzuli geldi ezinean.

Ikusi, entzun eta senditu diren gauza xume horien, ez beti nahi den segurrean, luma-pean (ohiko moldean hala erraiteko), edo bederen eskupean zatika berphizteak eztuke, bereaz, nor beraren gozoko eta gogoaren balakatzeko ezpada, ohargarri den gauzarik batere, edo hain guti! Direnak diren,

doazila bederen izkirioaren indarraz moldaturik eta lagundurik,
eta, noizpaiteko ala nunbaiteko gauza ahatzien lekukotasun xoil
batzu baizik ez izanik ere, badirautea, badiroketen bezainbat!
Orhoitaren atheak berriz idekiko direnean, erakutsiko dutena,
ezpaitaude aroan eta gogoan hain urrun, hain barna, oraiko
mendeari - erran nahi da lehen-lehenik bizi-moldeari - lotua da,
gerla ondoko lehenbiziko urtetan beretan hasi zen aro berriari:
oraia, geroa... Etzen hemen iragan urrundu baten hatz erdi
ezabatu zenbait baizik,

orhoitaren atheak hesten ari direla,
berridekitzekotan hurbilago,
etxetik gero 'ta urrunago,
oraino badirauen mundu 'ta mende berri

batera...

(2005-ko jorrailean)



**Paris. Ile Saint-Louis,
hôtel de Lauzun dit Pimodan.**

II. IKASPIDE

(Uztariztik, Parisen gaindi, itsas-bazter urdinera)

1. Uztaritzen

Herriko eskolatik atheratzean bazen orduan “Zertifika ttipia”, hura ukanik Baigorri hameka urtetan (berriz ikusi nuen han Iriartegarai bikariarekin “behereko eskolan” izana zizakun “inspektor” publiko handi biphila bere xapel hautsarana buruan), urri hastapeneko Uztarizko “semenario ttipi” delakoan “barneko” bezala sartu bainintzan. Etxean noiz eta nola deliberratu zuten ikastetxe hartan ezarriko nindutela, joan nahi nuen ez galdegin zautatenez ere, nahiz ez erran banu enindutela bortxatuko iduritzen zatan, etxean orduan ginen laur haurretako zaharrena izanez gainera, etzata batere gogoan gelditu. Eskolako gaietan “hartzea” banuelakotz zena, ala aitzinekoek (aitaren eta amaxiren anaia guziek) bezala egiteko, ezpaitut behin ere erakutsi ez erran, orduan etxeko guziak bezala hain “debota” izanik ere, aphez izaiteko xederik batere badutala? Badakit bakarrik, bat Baionako Lizean salbu, bertze ikasle orzaiztar guziak Uztaritzen zirela, ni baino zaharragoko borzpastei, bat edo biga hetan aphezgai (nahiz bat ezten azkenean aphez egin), gehienak alta ez, “semenario ttipia” izanik eta izendaturik ere, baitzen han, seigarrenetik “filosofia”-rano, aphezgai bezainbat edo gehiago hala etzenik, Euskal-Herri barnean, urrunagoko Maule salbu, bigarren maileko ikastegi bakarra zelakotz orduan. Bat ezpaita herritik enekin batean sartu, seigarrenean herritar bakarra gertatzen niz, bertze guziak arrotz. Seigarrenetik hirugarrenerano “ttipietan” izaiten da, baditugu gure jostagune, ikasgune, etzangune bereziak. Berehala jakin dut bigarrenetik (“humanités” zioten erdaraz, eta lehenari “rhétorique”) goiti, “handien” urtetan ziren aphezgaier erdaraz “aspirant” deritzez-tela: kaperan aldare aitzinean bi aldetan bertzetarik berex jartzen dira, batzu ordukotz aphez sotanarekin uste dut, aphezgai ekharriak eztiren handiek hartzen dutela, ttipi guziekin, hauen gibelean, gainerateko lekua.

Aitzinekotan amatxiren anaiak eta aitarenak ere (Iriberrigaraiko aitatzik aldiz Baionan “Saint-Bernard” ikastegian egona zela zenbait urtez erraiten zaukun), ikastetxe berean egonak ziren (baditut hemen oraino XIX-garren mendeko eta XX-garren hastapeneko liburu zenbait barneko aldean haien izenekin), Errepublikaren eta Elizaren arteko gertakarietan lekuz aldatu zen arau, noiz Larresoron, noiz Belloc-en, Uztarizko etxe handi berria egin zen baino lehen. Aitaren anaia gehiena, Bernard O. Belloc-en zen ikaske aphezgai 20-garren urtean 1916-an gerlan zauriturik Bordeleko ospitale militarrean egonik hil zenean; hainbat aldiz ikusia zen etxean haren argazkia, aphez jantzietan liburu bat eskupean, amatxiren gambaran, eta izena irakur zaitekeen Uztarizko orhoit-harrian, gerla hortan galdu ziren semenarioko bertze erakasle ‘ta ikaslekin. Gainera etxeakoak hain elizatiarrak eta, aitatzik zion bezala, “alderdi onekoek”, bertzalde ikastetxea treinez etxetik oren erdi baten bidetan hurbilena, etzaitkeen bertze ikastetxe batean, “laikoan” bereziki, ezarri behar nindutelako gogoetarik batere izan. Hala gertatuko zen bizkitartean bi urteren buruko, laurgarrenera sartzeko orduan.

*

Etxetik hara joatean, 1946-ko buruil azkeneko egun batez burdinbidetik, nork lagundu ninduen (amak agian bertze lagunak bederen ttipienak bezala, edo aitamek,), han nork hartu ginituen (ala aitaren gusia 'ta han aphez eta erakasle den E. azkaratiarrak?) eta sartzean norekin solastatu ginen, ahazia dut. Badakusatana oraino, gauzarik bitxiena behin ere etxeke ez jendakien etxetako gambaretan berdinek ez ikusirik ordu arteo, etzandegi handia da, athea mailaldera idekirik, hainbertze ohe lerro-lerro, guziak berdin. Eneak harresia hunkitzen du alde batetik, sartzeari 'ta izkina batean den zaintzalearen etzanlekuari hurbil. Han “pijama” gauazko jantzi berri-berriak ohe gainean hedatuak ditut (badakusat oraino, lore gorra eta horiz aphaindua, lephokoa beheiti iguruan zabal), ordukotz etxeakoak joanak dira, eta heldu zata ondora gizon ttipi adineko bat, ene heineko bi mutiko ttipi eskutik: Larresoroko auzapheza, D. jauna bere H. eta M. bi semekin, izena zer dutan jakina du, eta erraiten dauta lehenago ene osabak ezagutu dituela, galdegiten ere, uste

dut, adin bereko haren semeak baino handixago bainiz, haier laguntza ekhar dezeetan..., neure buruaren zain aski lan ukanen dutalarik alta, ezpainiz batere jokaria eta han elgarren artekako aharrak usu (herriko handiago batek errana dauta norbaitek asaldatu orduko ukomiloak bildu behar direla 'ta erran, goratik, erdaraz, han ere euskara debekatua baita ere 'ta ikasle gehienak edo ainitz ez euskaldunak: “*Je vais te casser la gueule!*”). Etzandegiak eztaut alta bertze orhoitzapen handirik utzi: neguan doi-doia berotua, gu eguneko lanaz eta goizik jeikirik hara orduko akhituak, burua usu ikuzi behar da, baitira ere ... zorriak, eta ikuzirik, argiak hil dituzteneko, guziak etzan eta ixil; argi handiak hil eta gau guzian gelditzen da athe gaineko argi gorraxta ahul bat, “*veilleuse*” diotena, eta hura begietan lokhartzen da, gogoan nunbait, biharamuneko xilintxa jo arteo, argitu baino lehen: orduan laster jeik, ikuz, jantz, eta lerroan jauts... kaperara, guziak mezara, egun oroz, arratsaldetan “kumplietara” bezala; gero bakarrik askaria 'ta ikastaldiak.

*

Jandegiko orhoitzapenak eztitut hobeak. Gerlako urtetan, etxean, izana baldin bazen beti ogi xuria etxeko janari ohikoekin nahi bezainbat, hirialdean, gerla bururaturik ere, lehenbiziko urteak etziren errexenak. Goizetan “xokolet esnea” dugu, jandegira orduko, zerbitzuko serora 'ta mutil batzuek pitxer handi batzu hustuz gatiluak bete-beterik ezarriak, eta gu, mezan igurikaturik, gose amikatuak. Zerk, ogi ala bertze, laguntzen zuen ezpadut gogoan, badakit ainitzek etxetik ekharr-arazten dugula janari osagailu 'ta hobetik zerbait, bakoitzak bere harmairu ttipietan hesten duena, etxetik ekhartzen direla ere mahikoak, “kullera-phurtxetak” (zilharreztatu aski pollit batzu emanak zauztaten, gertatu baitzen egun batez norbaitek bat ebatsi zautala...), basoa ere uste dut. Etxean ere jale aski ttipi 'ta zioten bezala “difizila” izanez (“gatua bezain gormanta” zion amatxik), eztaut ikastetxean urte hetako janariez orhoitzapen gozagarririk batere atxiki: bereziki hastio dut erdaraz “*purée verte*” dioguna, ilhar biribil idorrek phorroskatuz egiten den hura. Oraino gohainditzen niz orhoituz goiz batez, askarira heltzean, ikusi zela

mahiko lagun baten gatilu gainera agertua har zuri bat, xokolet zahartuen metan hazia!

Astean behin ortzegun “elhategi” edo “parloir” eguna, etxeokak ikaslen ikustera jiten dira, enetako gehienetan ama, aita bakarrik aldi bat edo bertze, zerbait eginbehar baduenean Baionan edo Uztaritzen, bertze ikasle orzaiztarrenekin batean treina. Jostagunetik agertzen diren gaineko galerietara beha gaude, eta han etxeokak ikusiko dituguneko (zaia gorri ilun bati urrundik ohartzen bainiz), zaintzaleari baimena galdeginik guziek hara laster. “Arratsaldeko askari” ttipi bat ekharria dute, mahi biribil baten iguruan bildurik solasean egiten baita: badakit atsegin handi dutala amak etxean eginik untxi batean ekhartzen duen “xokolet-moka” beti hain maite ukan dutana janez, hobeki erran milikatuz.

Uste dut hala ere igandetan jatekoa apur bat hobetzen dela, baina gehienik besta zenbaiten ariara, hala nola “Saint Charlemagne” ikastetxeren besta, negu minean (berinetarik ikusten da batzuetan elhurra lodi-lodia jausten ari, arte-bide luzetan hara lerroan gozalarik, gehienak gure “kapa” beltzak bizkarrean, edo jandegira, edo kaperara, edo ikastegietara), apezpikuaren ikustaldian, urtean behin ere, eta horrelako gertakari bekan batzuez. Orduan badira bereziki “lusagar frituak”, menturaz beti hain maite ukan dutan oilaskotik, bixkotxa zenbait azkeneko; orduan ere jandegiak itxura berezi bat hartua du: elhekatzea libro uzten da, ohian ixilik jan behar delarik, jargune berezi batera iganik ikasle batek irakurtzen duen bitartean, doinu erori, berdin, asper-garri batekin, “ixtorio sailduko” edo elizako bertze horrelako irakurgai zenbait. Buru-buruan abantzu jandegia bezain luzeko tauladan gora den mahi handiaren erdian ezarria da egun hartako gomita, apezpiku ala bertze, ikastetxeko “superioraren” eskunean, bertze aphez ikasleak haren bi aldetan, guziak bere sotana beltzetan, goren eta zaharrenetarik gaztenetarano, hauk bazterre-tan ezarriak. Astean behin, astezken eguerditan uste dut, ikusten da gizon bakar bat hiriko jantzetan mahi izkina batean: Lagache “gymnastique” erakaslea (luzaz ikusi da gero Biarritzeko ondartzeko handian bere indar-tresnak eta ikasleak inguruan, igerika erakasten).

*

Hain usu, egunean bietan den gutienik, guziak kaperara biltzen gira (diru eskasez edo bertzela, eraikuntza etzen oraino bururatua, eta sala luze bat zuten kapera moldetan ezarria, egiazko kapera urteak berantago egin baitute azkenean, P. Lafitte apheza unibersitateko thesia zenbaitetik landa hara ereman dutanean ikusi baitut bere organo ttipi berriarekin). Alta elizako urhatser eta debozioner bezainbat edo gehiago, musikari dago ordukotz ene gogo. Kantua arthatzen da kaperan, Iratchet bidarraitarra, seigarreneko erakasle nagusi baitugu ere frantzes-latinetan, guzien buru, liburua esku batean, bertze besoa erhi bat xut airearen neurkadan itzulika, aldizka latinezko “ordenarioan”, erdarazko edo, batzuetan, euskarazko kantiketan, koralarren moldatzale, laur bozetan, handi 'ta ttipietan kantarienak bildurik elgarrekin.

Orhoitean dutan argiena, “Notre-Dame de Boulogne”-ren gizaiduri zuriak herriz-herri Frantzia osoan egin zuen itzulia da, gerla ondoko bigarren urteko (1947?), erresumako “katolikotasuna”-ren berphizteko xedetan agian, gobernamendu berriak bazituelarik aphezzeria gehienak hain hastio zituen minixtro “kominixtak eta zozialixtak” (“biak elgarren anaiak” zioten gure herriko 'ta etxeko eskun aldera amorratuek); alta errana daukute badela gutartean eskualdeko “kominixta” aipatu baten semea, nor den erran edo nik behin ere jakin gabe bizkitartean. Delako gizaiduri hura - orduan halako bestak eginik, ezpaita geroztik behin ez nehon aipatu! - Uztaritzera heldua den egunean, aphezgai batzu joanak dira laur aldetarik oinez garraiatzera, iduria bere mantalina xuri-pean haien urhatsen arau ezker eta eskun apur bat zalantzatzuz doalarik, gu guziak bilduak, gainetik, ikastetxeko jostagorte hegian hari so, bidean emeki baderamatela; eztakit alta xuxen goiti semenariorano ekharri zenez, edo egin bazen joan-jin laburra. Aldi hartako (ala bertze bestaburu zenbaitez den, Bestaberri igandean zeremoniara hara joaiten baita...) jautsi gira guziak, korala osoan, Uztarizko elizara, eta han kantatu dugu, aldare inguruan denak zutik, laur bozetan, bertze buruan hango organoaren soinuak lagunduz - lehen aldikotz orduan entzun baituket -, zeremoniako bereziki ikasia daukuten erdal-kantu bat.

Kaperak eztu harmoniuma baizik, eta eztaukot batere Orzaizen Charlotte-ek igandetan joiten duenaren soinu eder eta barna aurkitzen. Ohiko joileak, Etchemendy aphezak, beti, bestaburuetako zeremonietan ere, kantua halako burrumba aski ilun eta doi bat aspergarria zatan batean laguntzen du, artetan burua kantarien aldera itzuliz, eta begitako handi batzuen azpian sudurra bitxiki zimurtuz. Azken urtean bakarrik, ikasle bat, jadanik aphez jantzitan, Decha gaztea (Baionako kathedraleko organixtaren semea omen), jartzen da Etchemendy aphezaren orde, eta orduan soinu beretik entzuten da musika bizi airosago bat, organoaren itxura hartzen duena, eta kantu arteko ixiletan (eskain-tza ala komunione) joiten duen musika ohargarri da: gure artean musikan zerbait dakigunetan erran da noizpait “airekoaren” burrumba eginen duela, eta halako zerbait entzun zen egun batez. Aldi bakar uste dut ezen, menturaz egiten zuen musika ospe handiegikoa 'ta biziagia iduriturik agian hango aphez zenbaiti, behar bada hain itxura behar bezalakoa 'ta biphila hartzen duen G. “superiorari”, geroztik Etchemendy-ren soinu ilunetik guti baztertu zen.

Nik ere musikaren ikastea galdegina dut (nahiz badakitan zerbait, irakurtzen ala joiten, hara orduko). Bada “musikako sala”, egiazki enetako miragarria: piano zut beltz batzu eta harmonium ttipi zenbait ere inguruan barne erdi-hetsi ttipi batzuetan, ikasleak hetan ari batzu bertzen harrabotsa beharrietan, tauladan piano beltz handi bat, gu ttipiendako debekatua uste dut; hartan jadanik aitzinatua den handi zenbait, ardura Decha hura, entzuten da biziki arrotz zazkitan musika batzuen joiten. Erakaslea Uztarizko organo joilea dugu, A. anderea, ordukotz xahartua. Baina musika guti daut egiazki ikasi Uztaritzen eman ditutan bi urtetan; eztugu, alabaina, gehien-gehienik bi oren erdi musika baizik asteen (eta ezta musikaririk ez ixtorioan ez theorian ikastaldietako ordutegian sartzen, Baionako lizera orduko atsephine-kin ikusiko dutan bezala), beti bazkal-ondo edo arratsaldetan: bat A. andearekin (biziki guti gustatzen zatan “Méthode rose” delakoa emaiten dauku), bertzea guhaurek. Delako liburua berehala bazterrerat utziz, nahiago dut dazkitan airetan jo, harmoniak emanez, eta batzuetan han berean den harmonium ttipia hautetsiz, hartan delako harmonia pianoan baino hobeki entzuten baita. Bertze moldez eta asteen zenbait

oren betez bederen musikan ari izan banintz, bizpahirur urte berantago, baina berantegi, Baionan F. anderearekin eginen dutan bezala, badut zinez uste musikalaria eginen nizala. Hortan dut, egiazki, Uztaritzen egona nizan bi urtetako dembora galdua dutalako iduripen ageriena.

Ikastaldietako orenetan, seigarrenean Iratchetekin nola ikasten ginituen behar zirenak, latinean ala frantzesean, ezpadakit batere, orhoit niz alta gurekin jende gozoa zela gehienetan (bazioten alta, egia ala ez, erorteko minaz joa izaiten zela, gu behin ere ohartu gabe, ikusten zelarik alta jostaldietan Biarritzeko P. auzaphezaren seme bat, gu baino handiagoa, gaitz beretik hartua batzuetan, orduan besoetarik hartuz atxiki behar baitzen), apur bat khexatzen bazen ere artetan. Uste dut ere gatximako 'ta erlisionekeo gauzetan bertzetan baino biziki gehiago ari zizazkula Uztaritzen, matematikan hasteko biziki guti, nahiz gaia ez tuta behin ere gostukoa ukan. Orduan hobekienik ikasi duketana, ez ahaztekotan, latineko deklinabidea da. Zenbat ikasle ginen, edo seigarrenean edo gero borzkarrenean, ikus dezaket oraino, ez batere orhoitzapenez, baina urte bakoitz erakaslearekin (delako Iratchet ala bertze), ala "ttipi" guziak elgarrekin ikas-tetxeko buruzagi 'ta erakasle nagusiekin (Greciet "superiora", Lassale izen goitiz "Bixkor", errubilari amorratua omen eta zaintzalen buruzagi biphila, Serval hirurgarrenekoa beti kapatto bat bizkarrean, Lafitte bigarrenekoa aurpegia bonetak eta begitako bazter beltz mehe batzuez jana...) egiten ziren argazkietan, hetan diren ikasle ainitzen izenak baitazkit oraino, geroztik behin ez ikusirik ere.

Borzkarreneko B. aphez erakaslea frantzesean, latinean, moralean eta erlisionean, etzen aitzinekoa bezain gogo onekoa 'ta gozoa: begitarte mehar eta ilun, zaintsu, usu khexu, oihuz ikasle zenbaiten gibeletik, ikusi da batzuetan mahien gainera jauzirik, makila bat eskuan, gibelean jarriak eta josteta ari datezkeenetara joaiten, sotanaren hegalak airean: ikaslen artean erraiten da irri solasez aphezen galtzak ikusten direnean "induljenziak" irabazten direla! Harekin egiten zen ikaskuntzatik gogoan etzata hau baizik gelditu: den estakuru meherenak zigorrera eremaiten duela, eta orduan emaiten dauzkula gogoz ikasteko neurthitzak, eta hek batzu bertzer jarraikiz, badirela usu ez hoge, baina berrogei-ta-hamar, ehun edo gehiago, delako B.-

ren aitzinera joanik, xutik besoak gurutzaturik erran behar direnak. Eniz batere ikasle gaixtoa, bat da (izenez ez euskalduna) bakarrik batzuetan nota hobeak ukaiten dituen (geroztik zer bilakatu den eztut behin ere jakin); hala ere ordutik dut atxiki La Fontaine-ren alegietan luzenaren hastapena, *Discours à Mme de la Sablière*, gaineratekoa ere orduan jakinik, eta gero ahatzirik...: “*Iris, je vous louerai, il n’est que trop aisé...*” Bertzela ere, ainitz “gogoz ikaste” egiten da, eta eztitut, frantzeseko lanetan, hetarik zenbait baizik gogoan atxiki, hala nola, Lamartine 'ta bertze idazle “gixtino” batzu baitira han gehienik ikasten, hunen *Le crucifix* izenekoaren hastapenetik:

*Toi que j’ai recueilli sur sa bouche expirante
Avec son dernier souffle et son dernier adieu...*

Eztut uste banakiela orduan eta baginakiela, gehienek, Lamartine-ek hor aipatzen duen maitasun zorigaitzeko erroitik “erromantikaren” berri. Ikasten zizakuna etzen baitezpada edo guti gure begien idekitzeko maitasunera ez erromantismara, biziki gehiago erlisionekeo sendimendu 'ta gauzetara, baina ere aldi berean nahitez estilo poetikaren musikara. Etxean “Ixtorio saindu”-ko liburua ikusirik eta apur bat irakurririk, gauza handirik entzun gabe alta gutarik hain urrun zen Juduen ixtorio noiz-paitekoan, edo Iriberrigaraian aitaxi hain usu Napoleon-en biziaren irakurtzen ikusirik, badut ordukotz ixtoriorako halako ixuri bat, Baionan baizik, egiazko ixtorio erakasleak ukan nituenean, zinez ideki 'ta argitu ezpaitzizatan. Ezen Uztaritzen D. apheza (eztu gu bezalako ttipien artean aiphamen hoberenatarik, handien artekoaren jakiteko Uztariztik laster joan nintzalakotz) zaiku jiten ixtorioari eman behar den ikastaldiaren egitera (bazena ere oren bat osoa?): bere alkian jarririk, liburua aitzinean idekia, eztu hartako orstalde zenbaiten irakurtzea baizik egiten, artetan ohar zenbaitekin behar bada, baina nik hasteko hetaz ez eta aiphatzen zituen ixtorioko gaiez den gutieneko orhoitzapenik atxiki gabe.

*

Arratsalde ondarrera, auhal-aitzin eta apur bat ere ondotik uste dut, “*étude*” delakoan gira, ttipi guziak sala handi batean gora ikastetxe guzia den bezala, gurea hego aldeko

hegalean. Iluna jausten ari edo neguan ordukotz egina, entzuten da, han beherean, Baionatik Garazi aldera 'ta beraz etxe aldera doan treinaren burrumba luzea haizearen araura, eta, lehenbiziko egunetan, badema bihotzean, etxea 'ta etxeakoak nahigabean gogoratuz, halako herstura bat. Laster jartzen da alta, eta zaintzalearen aitzinean ixilik, hura aphezgai gazte bat jadanik sotanan, gure izkirio lanetan ari gira, elgarri artetan ahapetik hitz zenbait erran nahiz, edo xehetasun bat eman edo galdegin. Bada halako joko bitxi bat: ikaslek paper ttipi batzu izkiriartzen dituzte, hango aphezetarik baten izena gainean ezarririk, “konzienziako bidari” bat hautatzen baitute zenbaitek, ikustaldi bat galdeginez edo gogoan eztutan zerbait galde. Ikasle bat hautatua da aitzineik, hek guziak biltzen dituen, eta delako aphezen bizitegietara eremaiten. Are hobeki dut “étude” delakoa mozten zuen joko hori gogoan, nun bigarren urteko, borzkarrenean, ala ikasle aski on eta serio bezala, ala aitaren gusi jadanik urrundu den E. aphezaren gatik, ni bainiz hautatua. Oren berezi (seiak menturaz?) edo seinale batean, paper hek guziak biltzen dira, salatik jalgitzen da, eta lehenbiziko estaiara iganik, joaiten mezuak dituzten aphezen bizitegietako athez-athe, joiten, eta ihardesterik ezpada, paperrak athe azpitik barnera igortzen. Batzu beti han dira, hala nola S. apheza, bereziki “gixakoaren” aiphamena duena (zer duen erakas-ten eztakit batere), eta han haien gostura, zenbait aldiz aski luzaz solastatzen da, ikasketez, ezagutzen direnez ala bertze; erlisioneke gauzez egiten zenez ere eniz batere orhoit eta eztut uste. Eguna apur bat horrela laburturik, berriz lanera itzultzen da.

Jostaldietan, ala, aroa gaixtoegi ezpada ortzegun oroz egiten diren ibilaldietan, urtean behin joaiten baita ere egun osoko Itsasuko “gerezi bestarano”, aski urrun beraz (entzun dut alta amatxiri erraiten, haren ama, batzuetan, eta treinarik oraino ez izanez, 1890 aitzinean, bazoala batzuetan semen ikustera Orzaize-tik oinez Larresoroko ikastetxerano), ikasleak lagun multzo ttipi batzuetan banakatzen dira, bere gostuen eta ixurien araura: badakigu batzuek, gu baino handiegoetan, “jauregietako” multzo bat egiten dutela, bertze batzuek, handietan, indar jokoetako errubian dutela bere “afizionea”; bagira ere zenbait musikaz mintzatzea gustatzen zaukunak, edo ere, hiruzpalaur elgarretara bildurik, jostatzeke orde ikastaldi-

etako gai zenbaitez solastatzea: laurgarrenean den mutiko batek (bitxi dena, aitzineko urte batez, abantzu hiruretan hogeitun urteren buruan, geroztik elgar behin ere ikusi gabe, xehetasun zenbaiten galdez, telefonaz etxera deitua nau!) erakutsi dauku, “latinezko neurthitzetan” ukan duten lanean, oren bat edo biez egitera heldu dena: orotara neurtitz bat eta erdi, baina neurrian zuzen omen! Ortzegunetako ibilaldi laburrena, ikastetxetik hurbil Uztarizko eliza gibelean den “Fraidin eskolara” egiten da, eta guti jostagarria zaiku egiazki. Orhoit niz alta han egun batez, alki batean jarria zen aphez handi adineko batekin mintzatu ginela: ene osabak ezagutuak zituen hark ere, eta jakin ginuen Léon Léon zela, Uztarizko erretor edo hala izana, hain ezaguna geroztik ikasi nuenaz, euskal literaturan utzi dituen ipuin eta alegia polliten gatik.

*

2. “*Au lycée Cabillon*”

Laurgarrenera iragaiteko orduan, Uztariztik joan gira Baionako lizera: A. bi anaia azkaratiarrak hasteko, ttipiena ene adinekoa, zaharrena bi urtez gorago, Indoxinatik gerlaren hasteak haizaturik aitamekin herrira itzuliak, eta bertze zenbait ere (S. D.-H. lakartarra, gero armadan sarturik Aljeriako gerlan hil zena). Batere eztaikit hea guzien aitamak elgarrekin hitzartu direnez, nahiz itxura baduen, ez eta ere nola akomeatu ziren Uztarizko semenarioko buruzagi 'ta ikaslekin. Uste dut, hala ere, hek abiatu lehenerik, nik ere jarraiki nahi ukan nuela 'ta hori etxean erran. Orzaiztar bakar bat zen orduan uste dutanaz Baionako lizean, J.-N. L. Urdoxko semea. Badakit hark erranik amatxi izana zizeela etxean lizeko xehetaxun galdegiten. Nihaur ere izan niz aitarekin 1947-ko udan Donibane-Garazin, Eiheramendi Izpuraiko erriaren ohiaren eta aitaxi Iriberrigaraikoaren gusia denaren ikusten, Garako karrikan zuen etxean, uste baitut hark, eskola publikokoa izanez (beti Izpura berean egona, erran zautan berantago ezagun eta elhaide ukana zuen norbaitek), bazituela harremanak lizeko buruzagi “provisur” Léon Cabillon bai-gorriarrarekin. Eztut geroztik Eiheramendi erriaren behin ere ikusi. Gizon luze mehar biphil bat iduritu

zizatan, ja adinean aitzinatua, eta eni galde batzu eginik, gogoan atxiki dutan gauza bakarra hau da: aholku berezi bat eman nahi ukan zautan etxetik abiatzeko berriz karrikara heltzean, etzela lagun eta adixkide ainitz ukan behar, baina guti eta hek segurrak. Aholkua baliagarri baino apur bat bitxi 'ta debaldekoago iduritu zizatan, beti danik ausart eta multzokina baino herabe 'ta bakartiagoa sendi ninzalakotz, are gehiago baserriko bizi baztertutik (hala baitzen ere neurri on batean Uztarizkoa) guti jalgia izanez, bederen hiriko bizi moldeari 'ta jendetzeari jarri baino lehen; eta ordukotz irakurtzean eta musikan indarreko joko 'ta jostetetan baino ixuriagoa.

Baionan izan ginena, urri hastapenean sartzea egin baino lehen? Norbait, aita behar bada (ama bi arreba gazte biritxien beharretan etzen ordukotz etxetik biziki jalgitzen), izana zaitekeen behar ziren gauzen eremaiten eta Léon Cabillon-ekin solastatzen. Urte hartan hartua zuen, Madrilgo “lycée français” delakoan buruzagi egonik, Baionakoaren buruzagigoa (bazen oraino han aitzinekoaren aipamena, “Taillefer” izena zuela ikasi bainuen); eta ni han egon nizan urte guzietan, laurgarrenetik filosofiarano, han egon da: gizon tipito azkar soingainez zabal bat, beti aphaindua “papillun floka” bat lephoan, Baigorriko molde euskaldun zaharrean, etxean guziek egiten zuten bezala, “rr” mihi punttan ahozkaturuz - guk jadanik eskolan ikasirik zintzurretik egiten ginuelarik! - , aitarekin euskaraz mintzo, gogo onekoa; han berean sartzeko athe nagusiaren gainean zuen bizitegian egoiten zen bere familiarekin. Laster ikasi nuen bazela kantu irrigarri ezagun bat erdaraz errepika hau zuena: “*Au lycée papa-Au lycée papa-Au lycée Papillon!*”, eta “Cabillon” izenarekin egiten baitzen han, irria bikuntzen zuen. Nehor guti zen alta, kantu hortan ezpada, Léon Cabillon-ez trufatzen, baitzuen ere, bere gozatasunean, behar zen larderia, nahiz eztutan nihaurek batere haren ganik, eta haren azpian ziren ordarien ez zaintzalen ganik ere biziki guti, jasan behar ukana izaiteko aldirik ukan. Lehenbiziko jartzea eginik, Uztariztik enekin batean hara jinak ziren lagunekin, erakasle gehienekin aski laster trebaturik, atsegin eta aire hartze handi bat iduritu zizatan berehala Baionako lizea, eta bazen egiazki hortako arrazoin on bat baino gehiago. Baxoko urte azkenean lizetik jalgi nintzanetik laster utzi zuen ere Cabillon-ek Baiona, eta gero ikasia dut, Parisen egon nizan

urtetan, orduan batere jakin gabe, hura ere han zela, “Charlemagne” eta “Condorcet” lizetako buruzagigoan egona zela, berriz erretretan Baionara itzuli baino lehen.

“Uztarizkoak” erraiten bazaukuten batzuek has-tapenean, ikastetxe laiko batean aphez-ikastegi batekoen aldera izan zaitekeen trufa zerbaitekin, guti iraun zuen, laster jarri ginen han sendi zen eta aitzinean ezaguna ezkinuen libertateari. Erlisionedunetan nahi zutenendako baziren “omonierrak”, kapera handi bat “ohorezko gordea” zioten ikastetxearen erdigunea laur kantoin hartzen zuenera idekia, ikasteko salak inguruan bezala, igande oroz mezarekin eta urte ondarretan adina zutenendako, zazpigarren maila egiten baitzen ere ttipienekin, komunionea; hiritik Cadier “minixtroa” jiten zen protestantendako, hetarik guti bazen ere gure aldetan, baina Uztaritzen batere ez. Erlisione horren aiphatzen entzuna nuen aldi bakarra Orzaizen izana zen gerlako azken urtean, “Loewy d’Abartiague”, etxean “Lebi zaharra” ziotena hil zelarik (han baita aitamen ezteietako argazkian: badut hemen orduan auzo bezala gomitaturik amari eskaini zaukon oheburuko argi bat burdin-horiz eta berina margotuzko begi batzu inguruan). Chorhy erretorak etzuen onhartu gorputza elizaren barnera sar zezaten, eta zeremonia ilharrian egin zen, “minixtro protestantak” pherediku bat eman zuen han gorputza hobian sartu zenean: ama han baitzen aiphatu zaukun etxera itzuli ondoan, “zinez hitz ederrak eta erlisioneakoak” erranak zituela, erretora etzela hobeki mintzatuko...

Igande oroz “internes” edo “barnekoak” ginen-endako, arratsaldea libro zen, gaztigua (“retenue”) lizean egonez egin behar ezpazen, aldi bat egon nizanez ere ezpainiz orhoit. Hirira jausten ginen gehienetan oinez, edo nor bere “correspondant”-en etxetara (Villa Pia-ko andere amatxiren lehen gusiaren izena emana nuen, eta hara joan niz ikustaldiz lehenbiziko igandetarik batez, eta gero ere batzuetan bekan), edo usuago zinemara ala bertze ikusgarri batzuetara, zenbait aldiz “tramway”-az Biarritzerano. Jakinez kantua 'ta musika gostukoak nituela, J. Laxague Villa Pia-ko nagusiak erranik eta diruz lekua eta joan-jina ordaindurik, urte hartan dut ikusi, Biarritzko kazino handiko zineman, orduan arrakasta handitan zen “La Cage aux rossignols” Noël-Noël komedialariarekin.

Gehienetan Baionan ziren bizpahirur zinemako saletara joaiten gira, hetarik bat orduan, bertze ikusgarririk etzenean, antzokiko sala eder jargia balusa gorritz oihaleztatuan baitzen. Atheraldi horietako, guziak aphainduak, athorra xuri 'ta lephoko - gauza hain bitxia oraiko bizi moldetan! - , auzoka biltzen gira, gehienetan R. bi anaiak, orduan Arrosan bizi eta zenbait urte berantago Orzaizen eginen duten etxe berrian, Irisarritik postako jaunaren semea (arriba ere neskatoen lizean du), Th. Kamboarra: hor gira guziak irriz ondoko urtean, hirurgarrenean, “pont Mayou” zubian hartua daukuten argazki zahartu batean. Oro har, biziki gozagarri izan zizaikun guzier, eta eni bereziki, “lycée Cabillon”-eko bizi modu berria, eta erran behar dut geroztik ere hango gauzez amets egitea gertatu zautalarik, beti halako zorion batekin izan dela.

*

Ikaskuntza berrietan jartzea, etzen osoki errexia izan alta, aitzinean ukana ginuen heina baino gorago ziren ikaskekhei batzuetan bereziki. Leteretako gauzetan, frantzes, latin (jarraiki nahi ukan baitut, etxean zergatik egiten dutan ezpadute ikusten ere, orduan “klasiko” dioten mailean eta ez “moderne” edo latinik gabekoak direnetan egonez; aldiz eztut greka hautatu, nahiz irakurtzen hasiak ginen jadanik Uztaritzen...), español, ixtorio, laster jarria niz; matematikan aldiz, T. jaunaren ikastaldiak (bada hemen “agrégés” lerroko erakasle andana, eta hura hetan) joaiten zazku zenbaiter “buruaren gainetik”. Egun batez A. “ttipia” eta biak elgar hitzarturik T. jaunari mintzatu nahi ukan dugu, eta erran daukot, ezkirela haren ikastaldien heinera helduak ikusiz, gauzak ezituenez xehekiago emaiten ahal: galde hortaz ustegabetua iduriturik eztauku ihardespenik eman ere, ez eta bere erakasmolde hotz, urrun eta beti doinu berekoa den gutienik aldatu (eztakit hea “kurso berezi” zenbaiten galdeari beha zagonez, bazela ere ezpainakien); egia da laurgarrenean bagirela ainitz, berrogei bat hurbil bederen uste dut, eta bakotxari behatzea ezina dela.

Urteak berantago, Biarritzko lizean zaintzale egonik bi urtez, T. jauna berriz ikusi dut, eta gure laurgarreneko 'ta hirurgarreneko urteak eta harekin matematikan nituen

nekeak berriz aipatu dauzkot, baina etzuen hetaz orhoitzapen ez axolarik bazuela iduri. Hasteko A. “ttipia” matematikan hoberenatarik gertatuko da laster eta, ni ez bezala, zientzietako mailetan sartuko bigarrenetik goiti. Bigarrena zen ere, edo programaren berezitasunez, edo Nau, bertzela “orotako zaintzale” zenak (ileak ordukotz zurituxeak nasai, lausoen begitako handi batzuekin, usu ikusten da hirian, “Farnié” orduan Baionan aiphamen handia zuen ostatuan edari bat aitzinean karrika aldera jarria...), ikasketak errexten baitzituen, gai hortan notak 10-etik goiti ukan ditutan urte bakarra! Egia da zientzietako bertze gaietan ere guti sartuko nizala: lehen urte hartan M. gizon handi bortitz aho handi bat zientzia naturaletan (“kominixta” diote), gero B. fisika-ximian, eztira batere gogoa bere gaietara biziki ereman dautatenak izan, nahiz “A” eta “B” mail “klasikoetakoak” zientzialariek guti dituzten ikusten eta handien urtetan gero 'ta gutiago.

Bertze erakasleak, ixtorio-geografian, espainolean (ginuen erakasle-ordain bati “Vamos-a-ver” izengoitia emaiten zizakon), “B” mailean girenek atzerriko bigarren hizkuntzetako hasten dugun angelesean (Parpaillon jauna erakasle itxuraz biphila bezain egiazki gixakoa, bapatez hil zena bizpahirur urte berantago eritasun laburrez: protestanta zela zioten, eta izan ginen guziak Baionako ilharrietan, Cabillon-ek hitzaldi labur eta eder bat egin baitzaukon han erdaraz, bururapena hitz hauetarik hasiz: “*Adieu, cher Parpaillon, que les dieux te soient favorables...*”), lehen urte horietan, laurgarrenean, hirurgarrenean, jende hurbil errexak dira, urte gaixto horietako ikasle multzoaren erdian ezpadute ere beti guziek larderia behar bezain bizia.

Bi ikaskuntza zazta bereziki gozagarri, eta hetaz dut zerbait atxiki. Lehenik frantzes eta latinean B. jaun “agrégé” gazte-gaztea dugu, ikastaldia doinu ezti baratz batekin egiten duena khexatu gabe edo guti. “Uztarizkoek” abantaila latinean aski azkar izaita baldin badugu, hemen gustu hartzen da ere, erakasle horri esker, literaturako lanetan. Laurgarreneko langaia XVI-garren mendea baita literaturan (erran gabe doa frantzeskoan, euskarazkoan, etxean ikasi diren kantuez hara “literatura” badenez ere ezpaitakigu, eta euskarazko ikaskuntzaren aurkitzea, lehen aldikotz, Bordeleko unibersitatean eginen, urteak berantago), hamalaurkun baten moldatzeko lana eman dauku egun batez.

Zuzen ala makur nork zer egin duen eztut gogoan, baina ba ustegabetu nauela, eta beharriak gorritzerano ahalgetu, enea eskuan harturik irakurtzen hasi denean. Etzata alta osoki zuzena zela iduritzen, baina izenburua badakit oraino: “Le vieux pont”. Zubi zahar horren bila enintzan urrun izana, etxetik jaustean Horzako plazara, elizara, eskolara, hainbertzetan iragana nuen “Zubialdekoa” baitzen, bere harresi luze ilunarekin eta hirur arkuekin; badakit ere etxe azpian zen erreka ttipiko orhoitzapen zenbaitez nahasia nuela harekin. Bertze bi urtetan, hirurgarrenean eta bigarrenean latin eta literaturako erakasleak eztitut biziki gostukoak aurkitu, eta “lehenbiziko baxoko” urtea igurikatu behar izan zen literaturako ala latineko laner lotzeko behar zen moldean eta ondorio hobearrekin, G. erakaskuntza hortan latinarekin (eta egiten zuten bakarrendako grekarekin) hain aiphamen ona zuenari esker. Gero dut ikasi, berak horrelakorik ezpaitzuen batere asmatzera uzten, gure G.-en aita euskaran jakintsun ezagunenatarik bat izana zela mende hastapenean.

Hemen egiten diren bertze gai berrietan, ala Uztaritzen ezpaitzen egiten edo hain guti nun ahazia dutan, ala bakarrik laurgarrenean hasten baitziren, bada lehenik marrazkia. M. jaunak egiten du, gizon azkar bizar handi bat, ikasleak lanean ezartzen ditu, ixilean larderia baitu, gai bat aitzinean emanik (lehenbizikoetarik arrabit zahar bat izan zen, marrazkitzeko bereziki zaila iduritu zizatana, alta aski ontsa egin nahiz behar zen artha eman naukon ene marrazkiari, eta “nota” ere, aldi bakar hortan uste dut, ona ukan), bera eztelarik bere mahitik batere edo guti baizik higitzen, eta egiazki badu “auherraren” aipamena 'ta gehienek guti maite dute.

*

Ikasgai osoki berria baina zeinbatez ohar-garriago 'ta gozagarriagoa enetako, musika da, laurgarreneko (eta gero hirurgarreneko) ikaslealde osoarendako astean oren bete bat, E. Gorges andere gazteak egiten duena, neska luze bat, erakaskuntzan hasi berria, urte hartan berean menturaz, pianixta ona gero jakinen dutan bezala, Biarrizko lizean zaintzale izanzen nizalarik borzpasei urte berantago, orduan han erakasle aurkituko baitut eta hobeki ezagutuko. Lehen aldikotz zerbait ikasten dut

hor musikaren ixtorioaz, musikagile handiez, dizketan orkeztrak, kantariak entzuten dira; taulan noten irakurtze hastapen bat egiten da ere (nahiz bagiren zenbait hortan trebatzen hasiak), hark kantu gidari ttipi bat esku batez joz kantatzen. Beha “bi beharriez” egoiten naukon bakarretarik niz, baitu aski lan, bertzela, larderia ukanik ere 'ta nehoren beldurrik ez, urte hetako ikasleria ezin egonaren atxikitzen neurri batean.

Batzuetan entzuten da, edo jostaldietan edo musikako ikastaldiak emaiten diren sala hortan girenean, piano bat joiten aski hurbil. Laster jakin dut, bertze ikasle batzuetarik, pianoko ikastaldiak emaiten direla ere, sala ttipi ttipi batean, sartzea hor berean, hirurzpala mailen gainaldean idekirik ikusten baita batzuetan, barnean bi pianorekin. Alabaina bi piano erakasle hiritik jiten dira, gizon bat, eta Forsans Anderea. Norbaitek haren aitzinera ekharr-arazirik, uste dut zerbait irakur eta jo-arazi dautala, ezen hirurgarrenean sartzean, etxeok onhartua baitute harekin piano ikastaldi bereziak ukanen ditutala. Hala izanen da Baionako lizean egonen nizano, laur urte osoz: oren bat harekin aste oroz, eta pianoaren joiten eta ikasten arte dutan guziez. F. Anderearen pianoan eremaiten ditut, batzuetan lagun multxo bat hara bildurik, lehenik jostaldietako arte 'ta oren guziak, gero berehala “gym-naztikako” guziak ere, behin betikotz horietara joaitea utzirik. Erakasleak, Castaignet eta Brisson jaunak, lehenik khexatu dira, gaztigu zenbait ukan dut, nahi binaute ere lasterkan ibil-arazi hortan aski zalu nizala ikusirik. Azkenean alta etsitu dute, eta bigarrenetik hara hasteko, oren horiek guziak musikan eremanak ditut.

Uztaritzen ikusia nuen “méthode rose” delakoa utzirik, Forsans Andreak ezartzen nau “Classiques favoris” delako bildumetan, laster Mozart-en zonatetan, gero Beethoven-enetan. Azken urtetan jin-arazi ditut hauk “Universal Edition” Viena-kotik, moldizkitzaren zuzentasunean aiphamen hoberena zutela orduan jakinik, Romain Rolland-en liburuetan irakurtzen hasi nizan bezain laster. Musika liburu horiek oro hemen ditut oraino, akhituak ezin gehiago egia da, F. Anderearen eskuzko ohar batzuekin: Baionako lizeko urtetarik gelditu zantan orhoitzapen bakarretarik. Baionan pianoko jokoaren lantzea errex bada, lanartetan etxean ezta pianorik (musika “handia” eztaiteke entzun aitak berrien jakiteko erosi duen “radio” batean

baizik): joan behar da auzo batera edo bertzera, Harizmendira, han baita lehenago Tipireneko azken jabea hil zenean saldu zen haren pianoa; edo ere beti hutsa den Abartiagako jauregira, athea etxezainek idekirik, Pleyel handi beltz eder bat baita han, aspaldidanik utzia, errauts-pean; batzuetan ere elizako harmoniumara, nahiz ezin gutiago baliagarria den piano joiteko. Azkenean, aitamak F. Anderearen etxean izanik eta hunek hortara sustaturik, hirurgarrenaren bururatzean, piano bat erosiko zatala deliberatu da, eta Iriberrigaraiko aitatzik dauta ordaindu. Luzaz etxean egon da, piano zut eder bat, Dorrabehere F. Anderearen anaiari erositia, etxerano, orduan bideak oraino gaixtoak izanez eta ez mun-drunatuak, maldari gora ahal den bezala igan baitzuten kamiunez eta azkena orgetan!

Baionak bazuen musikako aiphamen bat, nahiz “Musikako eskola” xoil batekin bakarrik: bazen oraino Ermend Bonal gerla aitzinean eskola horren buru izana zenaren orhoitzapena (San Andres-ko organixta, musika egile aiphatua soinu hortako ala bertzela: izenburu ezagun bat “Behorlegiko ibarrean anjelusa”), Ravel hurbil sortua, musikari andana bat han bizi, kantari ala soinulari. F. Anderearen etxea ere musikakoa da: Dorrabehere aita ordukotz xahartua xirulan, ama xeloan (“ene berrogei-ta-hamarra” zion hartaz senarrak), anaia arrabitan (eta piano antolatzen eta saltzen), ahizpa Laiguillon Anderea xeloan ere 'ta Musikako eskolan solfeia erakasle. Ikasle gazte andana bat badute ere inguruan: hetan P. bi ahizpak, F. Anderearen beraren alaba (semeak eztitu musikariak, senarra ere ez). Urte buruan bere ikasle hoberenekin F. Andereak egiten du entzunaldi bat Euskal-Erakustokian ikaslen aitamen eta bertzen aitzinean: badakit azken urtean ikas-arazi zautala Rachmaninoff-en “prélude” lehena, eta han jo-arazi, jende aitzinean pianoa jo dutan aldi bakarra edo bederen azkena.

Leku berean edo hiriko antzokian, batzuetan La Feria zinemako salan, baziren orduan bereziki ikaslendako, Frantzia guzian inguruka “Les Amis de la Musique” batzordeak eman-arazten zituen entzunaldiak, eta urte oroz batzu Baionan: pianolari, arrabitalari, bakarrik ala multzotan, musikaren ezagutzeko bide baliagarria zen. Lizean nintzalarik eman zen entzun eta ikusi dutan lehenbiziko opera: *Faust*, orduan aski ustegabetu nin-duena (nahiz berantago musika mota hortarik biziki urrundu

nizan); begiez ikusi dutan lehenbiziko orkestra handia ere (jo ziren Beethoven-en *Coriolan* eta Tchaikowsky-ren 5-garren sinfonia), eta han izan ginen lizeko ikasle batzu, nahiz orduan gehienek - baina nik biziki guti edo batere - maite zuten modako musika jazz-a zen.

Bigarrenetik goiti, lizeko kaperan, aitzineko joilea joana 'ta orduan omonier zen Laguian aphez pheresturarekin hitz-harturik (nahiz egiten dituen erlisioneko ikastaldi gehienak huts egiten ditutan, eta erlisionean sinestea ahultzen ari, zenbait urteren buruko osoki utziko baitut), mezako musikaren joiten hasi niz eta lizetik joan arteo eginen dut igande oroz (eta orduan, udan edo bertzela, Orzaizeko zeremonietan ere, hartan ari zen serora bat ordaintzen nuela, Charlotte familia aski handi baten hazten ari, ezpaitzen berriz musikan hasia). Urte beretan abiatu niz ere Laiguillon Andereak emaiten dituen solfeiaiko ikastaldietan. Etienne Cabillon Jaunak onhartu du, musikako erakasle horiek galdeginik, lizetik atherako nizala aste oroz bi arratsalde, ikastaldien ondotik “étude”-an egon gabe, eta jausten niz orduan katedraleko ondoan (orai hiriko Liburutegia) zen Musikako eskolara. Zinezko libertatea, urte hetan, ikastaldien ondotik igan-detan eta lanartetan salbu egun osoa lizetik jalgi gabe egon behar zuten barneko ikasletan, gutik dutena han nik bezainbat baliatu. Baionako lizeko urtetarik atxiki dutan orhoitzapena hain goza-garria baldin bazata gauza gehienetan, ezta enetako musikaren arrazoina hortan ttipiena izan.

*

Erakas-gaiak eta erakasleak, bigarrenetik goiti eta bereziki baxoko azken bi urtetan, alde ditut, nahiz ez hainbat zientzietakoak, gaiak gure “B” maileko guti baliagarri izanez (baxoko ahozkoan lehen aldian eman dautaten nota hain aphala izana da matematikan - “0,5” aithortu behar badut! - nun beharko baita berriz buruilekoa egin!) eta oren gutiz ikusten diren erakasleak ere gehienak aski urrun (etsai eta aiher izan gabe alta, orhoit nizanaz). Ixtorioan gustu hartu dut berehala. Hirurgarreneko urtean eta bigarrenean, berriki jina den erakasle gazte batek - Gr. baionesa edo angeluarra, Jeanine R. Baionan bizi den ene lehen gusiaren senarrak eskolako lagun ukana du - egiten

duen erakaskuntzak beha atxikitzen nau, Napoleonen “Alemaniako” eta “Frantziako kampaña” deritzeeten azken gudualdian bereziki, gauza guziak xeheki erranak, barnetik bizi ukan balitu bezala. Eztaiteke alta hark duen larderia baino ahulagorik ukan, izpirik ezpaitu, 'ta hortaz ikasleak beti bezala berehala baliatzea ez tute huts egiten: baderamate gaitzeko harramantza, hura den gutieneko menperatzera heldu ahal izan gabe. Bere ixtorioan aitzina doan bitartean, egiten den joko bat hau da: ikasleak, bakoitza errex higitzen den bere mahi ttipian, noiz guziak haren inguruan tinki-tinki bilduak dira, noiz emeki emeki bere mahi-kaderekin baztertuz, salako zola-zolara joanak (hiruzpalaur “seriosagoak” hari beha inguruan geldituak bakarrik), edo, neguan, bere tuta luzearekin erdi-erdian den berotzekoaren inguruan metatuak...

Oraino ohargarriago da azken bi urtetan ukan dugun Cuzacq aiphatua, Baionako lizeak ukan duen jende bitxi 'ta bere gaian jakintsunenatarik bat: gizon bierarteko bat, beti gaizki 'ta batzuetan ez hain garbiki jantzia (baina gu ere ez: ikaslen arteko “moda” da, ikasketetako taulier ahal bezain zahar eta urratuaren atxikitzea, nun nahi izkirio edo tintazko marrazki batzuekin, eta nihaurena egiazki zintzilikatua!), “kaba” zahar bat eskuan sartzen da, ohorezko gortean hara, oinetako zapaldu batzuekin urhatsa bi bazterretara emanaz aitzinatzen, azken urtetako ikasle handiak (bada ere nexka bat edo bertze, matematikako azken urterik ezpaita oraino nexkatoen lizean) salaren aitzinean lerroan, “fla-fla-fla” egiten dutela mintzo batez, hori baitu denek emaiten daukoten izen goitia “Fla-Fla”. Bere zarean badu, ikastaldiko derabiltzan paper zikindu batzuen artean, goitikoan aldiak baliatzeko merkatuan eresia duen jateko gauza bat edo bertze, eta bere gostuko dituen ikasler erakusten ditu: noiz urtzo edo epher bat, arno botoila bat usu, erostaldiko xehetasun bat ere emanaz batzuetan (“Bazela goiz huntan Printafix saldegian hauteko arno xuri bat hunenbertzeko prezioan” eta horrelako...).

Badu nahi duenean larderia, khexatzen da, gorritzen, ahotik ziliporta zenbait dariola, gaztigu bortitzak emaiten, bereziki buruan eztituen ikasler, eta baditu batzu, bereaz alta mutiko beharbezalakoak batzuetan, azkarki hastio dituenak, edozein estakurutan gaztigatuak, aitzin-aitzinean jartzen

bazauzko ere aierurik ez emaiteko. Ezen hitz-joko 'ta athermaldi batzuen erraitea maite du (ikaslen artean diote erranaldi hau emaiten duela noiztenka, nahiz eztutan nik behin ere entzun: “badirela han, Afrikan, gizonaren eskuak behin ere han oina ezarria eztuen lekuak!”), eta orduan jalgitzen da, bapatez, sala guzia inharrosten duen “HUUUU” gaitzeko bat, ikastetxe osoan urrundik entzuten dena. Baditu ere bere gostuko ikasleak, usu izendatzen dituenak bakarrik haiendako ari izan baliz bezala (“*C'est ainsi Monsieur X. que...*”) eta bi urte horietan lehen edo bigarren saria ereman baldin badut ixtorioan, eztut uste, nahiz ixtorioko gaia beti gostukoa dutan, bakarrik ene lanari esker izan dela. Horren ondoan ixtorioan egiazki jakintsun eta hortan guziez aiphatua: baditu atzerrietako jendez edo ekonomiaz xehetasun berri-berriak irakurgaietan biltzen dituenak (URSS zeritzon Errusiaz “*les pétroles de Bacon...*” ala bertze). Euskal-Herriko 'ta ingurunetako ixtorio zaharrea badu jakitate. Baina bera “gaskoina” da (Amou bere sor-herria usu aiphatzen du 'ta han egiten dituen egonaldiak) eta zerbait moldez, goraki Gaskoin aithortu nahi duten batzu bezala, Euskaldunen eta euskaldun-goaren etsai (Orzaizez mintzatu zaiku egun batez, eni behatuz, erdi trufa erdi irri-solas, hitz hauekin: “*des montagnes pelées avec des vipères et des serpents!*”). Baionaz, Erdi-Aroaz, artikulu ainitz argiratu du, liburuak ere: egun batez liburutegi batean hogei-ta laurzpabortz liburu ikusi ditut haren izenarekin.

Españoleko bazen irakurlea, hizkuntza guzietan bezala (eta bigarren hizkuntza nuen angeleseko Iphar-Amerikano bat egon zizakun, ezin gehiago pherestua eta musikan ere zerbait bazakiena), gizon ttipi maingu bat, begitako gotor batzuekin, C. izenekoa: haurrek urrikirik ezpaitute, berak semea haiekin ikasle ukanik ere, “5 et 3 font huit” izengoitia emana zaukoten. Espai-niako gerlatik errepublikar bezala ihes egin zuen, “kominixta” zela zioten, nahiz ez bakarra Baionan, ordukotz politikako gauzetara ni baino ixuriagoek ziotenaz. Baginakien Espainitik iheslariendako Frantzian egin ziren bil-leku gaixto batzuetan egona zela, hetaz liburu bat egin baitzuen gazteleraz *Alhambradas* izenburuarekin. Liburu hori batzuer eman zaukun, eta bertze bat lehenago egin, literatura espāñoleko liburu ezagun baten izenburua *Otro Platero*-ra bermoldatuz. Eztakit zer bilakatu zen C. Jauna, oraino urteak eta urteak iraun

zuen Franco-ren gobernu demboran (errana dut Arrosako osabaren ganik Orzaizeko bi etxeko-jaun aiphatuek, Espainiako gerlan alderdi hortara bere burua ezagun-arazirik, ukanak zituztela “Franco 'ta Mola” izen goitiak). Hego-Amerikara joan zela zioten. Baina dolu dut bi liburuxka horiek (estali gorri batekin, ereman errexak eta arinak) ene ibilaldietan nunbait galdurik.

Azken urtean espāñoleko erakaslea, L. gizon aski idor bat, etzizaikun gehiener, espāñolean gustu ukanik ere, biziki gozagarri iduritu, aitzinekoetan ukana ginuen Cl. Jaunaren ondotik. Hau, sortzez Donapaleutarra zen, begitarte luze hits batekin, etxeko dolu zenbaiten edo bertze arrazoinez, beti beltzez jantzirik ikusten dutana: haren familiaren berri banakien, Orzaizeko H. anderea ere herri hartakoa baitzen, eta erraiten baitzaukun erakasle hori zein “amakoia” eta etxekoek begiratu izana zen gaztean. Harekin egiten zen lan gehiena olerki ikastea zen, taulan bere izkirio larri 'ta argiaz ezartzen zituenak (“*Vos que vivis de alcazarez señores...*”). Egun batez itzulpen bat egin-arazi zaukun neurthitzetan eta ikastetxeak egiten zuen egunkari batean agerr-arazi zituen hoberenak. Bitxi zizatana zen, guk guziek espāñoleko dardarariak mihitik ahozkatu behar eta, ezpaginuen ere hortan Euskaldunek lan handirik, are gutiago nun Baionako lizean baitziren beti, Afrikako kolonietako beltz batzu bezala (lehen aldikotz ikusi nituenak han), Espainiako hirietako ikasle batzu, Zaragozatik edo Donostiatik hasteko orhoitzen nizanaz, hark zintzurretik egiten zituela; eta zioten, nahiz ikasle ona izana omen, eta gero erakasle estimatua, agregazione ahozkoa bietan hutsegirik, etzela osoki lerro hortara heldu ahal izana, baina “bi-admissible” arteko lerroan gelditua.

*

Urte hortako ikasgai nagusia, “letretako” mailekoendako bereziki, filosofia da, eta, erakasletan gogokoenik izana zaikuna gehiener, Lahargue Jauna. Baginen haren ikastaldietan hemeretzi edo hogeit bat ikasle, borz-pasei orenez bederen astean. Gizon handi itxura ederreko hark, beti ontsa jantzia, lephoko xixterrean gorropilo ttipi bat tinki athorra xurixuri baten gainetik, ohorezko gortea iragaiten zuen urhats berdin

neurtu batean, azken zigarreta errez, salan sartzean esku batean zadukan larruzko zakua sala guziek zuten kadera goran uzten, paper batzu han idekirik, eta oren osoak emaiten mahien aitzinean eta arteko bidexkan eztiki urhatsean, noiztenka geldituz, elhea urhatsa bezala neurtuz, bere paperretara 'ta kaderara abantzu behin ere itzuli gabe, filosofiako gaiak guri xeheki zabalduz; eta gu han, bakoitza bere kaierretan hark erran arau izkiria 'ta izkiria. Sineste gabekoa zela zioten batzuek, bertze batzuek protestanta, baina eztu behin ere erlisioneko ez politikako alderdikatzerik erakutsi. Aiphatu zena orduan egunkarietako berri nagusieterik bat izan zen Finaly haurren ixtorioa (haur judu horiek Alemaniara eremaitetik zaindurik nahitez katoliko egin baitzituzten eta, galdegiten zituzten ahaide juduen eskura 'ta erlisionera ez uzteko gorderik Baionatik Espaniara ereman)? Uste dut baietz, hori gogoan guti badut ere atxiki.

Eztut ere filosofiako gai hetaz, orduan hartu nituen oharrak oraino hemen eskupean ukanik ere, orhoitzapen berezi handirik; bai aldiz L. Jaunak artetik aiphatzen zauzkun gauza batzuek, hunekin edo harekin laburzki eztabatuz. Musikan ezagulea zen, eta ikusten zen hirian emaiten ziren entzunaldietara bere emaztearekin jautsia. Lehenbiziko dizka “microsillon”-ak abiatzen ari ziren, eta gertatu zen, molde hortan lehen aldikotz, Beethoven-en 9-garren sinfonia agertu zela, Toscanini orduan omen handikoa buru. Entzuten izan ginen zenbait egun berantago, bizpahirur ikasle handi, Charles zaintzaleak bere bizitegira gomiturik. Ondoko urte batez Toscanini hark berak agerr-arazi zuen *Missa solemnis*-a, eta orhoit niz, ni beti gehiago “Bethoveen-”lari amorratua, “Villa Pia” orduan amatxiren gusiaren etxeko saloin handian entzun dutala aldi bat baino gehiagotan, haren suhi G. A-ekin. Lahargue jaunak erran zaukun beraz 9-garrenaren dizka eresia zuela, biziki ederra zela, nahiz bazen, zionaz, “huts ttipi bat hirugarren zatiko timbaletan” ... Huts horren entzutera entseatu niz geroztik, debaldetan uste dut...

Bertze gertakari gotorrago bat, mundua azkarki inharrosi zuena, gertatu zen 1953-an ephaileko egun batez: Staline izigarria (gure etxetiarrari, nor zen biziki jakin gabe, aiphatzen entzuna naukon “Xtalin” hura bera) hil zen. Ohargarri

izan zen nola, orduan Erromako alkian zen aitasainduak (Pie XII hain eztabadaturia izana den hura bera: etxean, nahiz osoki elizatiarrak, etzuten biziki maite “jende handi 'ta urguludun batzuetarik zela” baitzion amatxik) othoitzak galdegin zituela harendako. Bihara-munean L. jauna salan sartu 'ta gu jarri orduko, nahiz ohian guti zen politikako gertakariez mintzatzen edo batere, ustegabeko heriotze hortaz hasi zen, ikasle zenbaitek galdeginik menturaz, eta erran zaukun nola, aita sainduak othoitz egin nahi bazuen Staline-ren arimarendako, hari zagokola, berari zoakonaz othoitz galdegite hori zuzen baino gazkiago zizakola, berak etzuela beraz ez othoitz ez ezer horrelakorik egiteko ez galdegiteko xederik; hoin gobernu molde bortitzeko buruzagi horrek bizia bururatua baldin bazuen azkenean, etzela ordu izan behar, haren ustez, bozkariatze 'ta besta egiteko baizik. Urte buruan ukan nuen filosofiako bigarren saria: sari banakatzea hirian egiten zen, La Feriako salan, hau erakaslez, nor bere gaien eta lerroen arabera xingola margodun batzuekilako zaia 'ta buruko beltzetan, ikuslez eta ikaslez betea; hitzaldia erakasle batek egiten zuen, gero sariak eta aiphamenak zituzten guziak izendatzen ziren.

1953-ko urtea Baionako lizean bururatu zen biziki ederki: laugarrenean lizean sartzean ukana nuen frantzes-latinetako B. erakasle hark berak antolatu nahi ukan zuen ikasle handiekin, urte oroz egiten zen bezala, antzerti handi bat. Hortako antolatzen eta jokatzan ari nahi ukan zuten guziak bildu ginituen, behar baitzen hautatu orduan Frantzian omen gorena zuen bi antzertilari handien artean: Anouilh ala Giraudoux. Azkenean hark erranik haren ustez Giraudoux hizkuntzaz eta gaiaren handita-sunaz gozagarriago zela, 1935-an Alemania naziarekin gerla abiatuko zela ikusi zenean eginik Parisen eman-arazia zuen *La Guerre de Troie n'aura pas lieu* hautatu zen. Nihaurez hitz bat erran behar bada, guti komedianta izanez orduan, lehenago ala gero bezala, jokagai aski ttipi irrigarri bat eman nahi ukan zautaten lehenik ("le géomètre"). Hortako ni baino hobeak bazirela ikusi zen berehala 'ta Akizeko lagun batek egin zuen, behar zen bezain jostagarriki. Jokagai nagusietan oro ezin hobeak izan ziren. Hiriko bi anderek (uste dut ordukotz lizetik jalgiak zirela 'ta bazutela hogeitaz guti) eman zituzten hain

ohargarriki “Andromaque” eta “Hélène”: hau, Menelaz erregearen ezkontide Pariz-ek senarrari ebatsirik Troiako gerlaren iphizta emailea, Baionan eta inguruan hainbat ezaguna izana zen G. familiako alaba batek jokatu zuen ezin polikiago, jokagaiak nahi zuen arintasun eta bixitasun guziarekin. Lizean barneko zaintzale ginuen Ch. jaunak, gizon gazte larri bat orduan, egin zuen Hector, bertze zaintzale batek, hain seriooki, errege Priam haren aita. Bertze guziak azken urtetako ikasleak ziren, hetan Ulysse zuhur eta maltzurra eman zuena, hitzak eztiki neurtuz erdi-irri bat ezpainetan, batzu nexkatoen lizetik (Hécube erregina, sehiak...). Enuen ukan hitzik erran gage Priam-en gorte osoarekin guzien erdian agertzen zen “Anchise” aitasoaren itxuratzekoa baizik, ile orduan hain nasai nituenak zuriz thindaturik! Baina Greziatar gerlara amorratuek eta hartara sustatzeko kantatu behar zuten herriko “himno nazionala”, eta hartako galdegin zautaten, musikan ikasle bezala, aire berri bat, oraino gogoan baitut, nahiz etzen hastapena baizik, ikuskarri hortan zinez egiteko ukan nuen gauza bakarra! Giraudoux-ek irrigarriki asmatuak zituen hitz hautan kantatzen zen: “*C’est nous qui fauchons les moissons, Qui pressons le sang de la vigne...*”. Geroztik Parisen tragedia hori ikusi dut “Comédie Française” antzoki hain ezagunean, komedialari aiphatuenekin: etzata bizkitartean, urrundik ere, Baionako ikaslek hiriko antzokian emana zutenen hunkigarritasunera heltzen eta hurbiltzen zirela ere iduritu, ezin ahatziak baitzazta oraino, gaztetasunez, hitzen erraiteko zuzenaz eta zintzoaz, ala Hector eta Ulysse gerlaren baztertzeo egiten duten azken elgarrizketan, eta ustez ondorio onera eremaiten, gerlari ero batek bere burua zaurituz phindarra azken minutan phizten duen arteo (“*Elle aura lieu!*”), ala lehenago bi emaztek, Andromaque Hector-en emazteak, seriotasun hunkigarri batekin, eta Hélène atsegingarriki arinak egina zutena. Bazen esku-zarta, ikaslez ala adinekoez betea zen Baionako hiriko antzokian, eta gero berriz lizera iganik, guk guziek Cabillon eta haren familiarekin, bertze erakasle 'ta zaintzalekin auhari on eta luze bat ukan ginuen, janaria hastapenetik hain gustukoa ukana nuen Baionako lizean egin dutan azken aphairua. Eta lizeko azken egonaldia, ezpainiz hara gehiago behin ere itzuli.

Orai ere baderraket, eta gauza bera diote geroztik han edo hemen aurkitu ditutan hango ikasle ohiek:

“Zinez zor dauzkogu, urte zorizko hetan Baionako “*lycée Cabillon*” ezagutu dugunek, goresmenak eta eskerrak!”

*

3. Biarriztik Parisera

Musika 'ta piano ikasteari bakarrik jarraikitzeke xede argirik behin ere ukan badut, bederen gero 'ta gutiago izan zen, eta zinezko ofizio bat izan zaitekeela hor enetako guti dut gogoan ukan. Baxoa ukanik zerbaiti lotu behar da alta, eta, Bordelen zen unibersitate orduko hurbilenera joaiteko bizipiderik ez ukanez, zaintzale izaitea galdegin dut; anartean musika erakaskuntzako ikasketan abiatua niz hala ere, etxetik beretik, ikastaldiak hartuz orduan hain ezaguna 'ta hedatua zen korrespondanziazko “Ecole universelle” izeneko ikastetxean: aste oroz igortzen dira hara lan batzu, eta handik zuzendurik itzultzen. Cabillon gure Baionako buruzagi ohiak hatzemanik zaintzale leku bat oraino bere menean zuen Biarrizko lizean, han sartzen niz 1954-ko ephailean. Bordeleko unibersitatean letretako ikasketetan izena emana badut, biziki guti izan niz ikastaldietara, doi-doi ohartzeko badirela han zenbait urte lehenago Baionako lizean ikusiak nituen frantzeseko bi erakasle: bat Villanueva hastapenean egiten den “propédeutique” delakoan (Victor Hugo karrikako unibersitate zaharrean “amphi” dioten sala, handia izanik ere, ikaslez mukurru betea du, jendea elgarri tinkan, letretako ikasle guziek urte hori elgarrekin egiten baitute); bertzea Flottes 1956-an lizenziako literaturan ukanen dutana. Hau, gizon luze lerden eta zalu bat, aiphamen bitxikoa: Alemanen aroko Pétain-en goberna-menduaren alde izana zelakotz erretore kargua ukanik, badiote gerla ondoan Baionara bazterturik izana zela zenbait urtez, gero berriz unibersitateko erakaskuntzara sartzeko.

Zenbait itzuli treinaz Bordelera egina gatik unibersitateko urte hori guti baliagarri izan bazata, 'ta ezpaniz urteburuko etsaminara izan ere, eztut musika utzia. Biarritzen alokatzen dutan gambarara piano bat ekharr-arazi dut “Gardelle” izeneko etxetik, eta, delako korrespondanziazko lanak urte bururano jarraikiz, ikastaldiak hartu ditut, piano 'ta organoan apur bat, gehiago harmonian, Donibane-Lohizungo organoa jaiten

duen Charles Lebout musikari ezagunarekin. Ohartzen niz geroztik atxiki ditutala, ez bakarrik harr-arazi zautan Dubois-en *Traité d'harmonie* delakoa, orduko zahartua zadukatena musikalari berriek, baina oraino, hari ere gehienak eskuthitzez igorritz, ala Biarriztik ala Parisera joan eta ere, zuzentzen zauzta harmoniako lanak bere eskuz ezartzen zituen oharrekin. 1958-ko egun batez, Paristik hurbil den Sceaux-ko Lakanal lizean zaintzale nintzalarik - atxiki dutan haren azken eskutitzak erraiten zautan bera musikan erakasle han izana zela - Donibane Lohizunera igorria nuen azken lana haren arrebak itzuli zautan, zuzendu gabe. Charles Lebout bapatez hil zela jakin-arazten zautan, eta uste dut ere ordaintzeko ilabete oroz igortzen nuen xeka itzultzen. Musikari handi ezaguna izanik, bulharrak 14-ko gerlan erreka omen zituen, eta hartako osagarri arrazoinez Euskal-Herrira, iphar aldetan zen baino aro eztiagora baztertua.

Biarrizko ondartze 'ta mainuen artean, usu etxera itzuli bat eginez lanarte guzietan, unibersitateko etsaminer serio kiago lotu behar zen alta, frantzeseko lizenziako bi lehen "certificat" ziotenetan ari nintzan beraz, Bordelera noiztenka ikastaldietara joanez, bidaia treinez aski luzea orduan. Han hotel batean etzaten zen astean gau bat edo bertze. Iriberrigaraiko aitaxi (aitaren aita) galdua ginuen 1955-ko hazaro azkenean. Arratsaldean joana zen, ohi zuen bezala, hainbat arthatzen zuen bere Munagorriko mahastira, edo ibilaldiz eta astira, ezpaita orduan mahastiko lanik, edo behar bada ihiziz, xederetan hatzemaiten ziren biligarro 'ta zozo biltzen. Mahasti hori etxetik aski urrun zen, hartan udan mainatzera joaiten ginen, eta gu bezala Orzaiztar ainitz, Eluet-Errekako turrustaren gainaldean, Baigurako azken malda iguzkituetan, lehenago hainbertze mahasti ziren bezala. Ordukotz adin handiratua izanik ere, 'ta etxeko lan gehienak Iriberrigarai-tipian zauden etxetiarrek egiten, etzuen mahasti hori utzi nahi. Hango arnoaz espantu handia egiten zuen, eta ikusi dut noizpait Iriberrigaraiko sukaldean Ricossa "zaharra" giniona etxera jina zizakon batez, harekin solasean. Ricossa ethorkiz Italiarra zen, Abartiaga hegian eraikia zuten gisu-zimetetako harrobi 'ta landegi-etako, gai horietan jakina izanez, eta bere familiarekin jarria aitaxik berak landegi horren egiteko salduak zituen lurren beheko aldean, Lakako erreka ondo-ondoan eraikia zaukoten etxean, Iriberrigaraiko

eiherari hurbil. Etxera nornahi jin zakidion, eta gu haurrak edo bederen gazteak berdin, aitatxi arno bila jausten zen sotoko barriketara, eta botoila beltz bat eta bi baso zahar lodi eskuan, bere betiereko eskaintza hori zuen. Ricossa “zaharrak” (“zaharra”, izen italiarra atxikia zuen “Pompeo” haren seme ‘ta gurekin Baionako lizean ikasketetan ziren H. eta R. hunen bi seme “gazten” gatik) euskara ezpaitzakien, frantzesez ari ziren, batek “Ça c’est du vin, Monsieur Ricossa!” eta bertzeak baietz laudoriotan, arno beltz ilun lodi batez betea zuen basoa goiti leiho aldera argiratzuz eta hurrupaka klikatzuz.

Etxerako bidean eroririk eta zauri bat oinean eginik, berantegi arthaturik behar bada (herrian etzen orduan medikurik, Irisarritik jin-arazi behar, edo urrunagotik), gaizkundu zizakon, eta oinaze handietan eman omen zituen azken egunak eta hatsa. Haren azken bihotzmina, saminena agian, bi seme zaharrenak Argentinara joanak eta han jarraiak aspaldidank, herrian gelditzen zizazkon bi haurren artean, Arrosako Léonie izaba 'ta aita, notariaren aitzinean etxearen erdizkatzea izan zen. Bazakikeen ondokoen eskuan oso ezin utziz, gure herrietako etxalde gehienetan, eta artekoetan ere (Iriberrigaraia Orzaizeko ainitz bezala 18 hektara etxe lurrekin zen, etxeari lotuak ziren herrerekuak bertzalde, eihera ordukotz emaitza gutiratua), lurrak zatitzen badira, Iriberrigarai zaharra 'ta herrian aiphu aski onekoa izana galduko zela, leihorrez ezpada, bederen etxaldez, laster gertatu den bezala. Ehorzketara jin nintzanean, erizaina egiten zuen serorak, andere bizi langile bat sortzez Bankarra, bere oharra egin zautan orduan, erlisioneke gogoa phiztu nahiz behar bada, erdaraz: “Horra hoin gizon azkarra, zertaratu den hori ere!”. Ahokia etxetik khutxarekin Horzako elizara buruz abiatu zenean, familiako 'ta auzoko emazteak mantaleta beltz handien azpian gordeak, gizonak oihal beltz izurkatu bat soingainean loturik besoan atxikiz, amatxi, adin handian ere, eta oraino Arrosako alabaren etxean 89 urteak bete arteo bizi izan dena, athean zagon hari beha, alabak besotik atxikiz, nigar hipaka.

Biarritzen zaintzale ‘ta erakasle zenbait usu elgarretaratuak gira, aro delarik itsas-bazterrean, edo inguruneke ostatu zenbaitetan, edo adixkideak nork bere bizitegira bilduz. Batzuetan enera jiten dira ere musika entzutera, La Rochefoucauld jauregiko (lizeko jateko sala, ikaslen etzangia, eritegia 'ta bertze

hartan ziren oraino) gainaldean eta Angelura sartzen den bidearen bazterreko etxe berri batean: musika aldi bat baino gehiago egin da han, edo alokatzen nuen pianoan (Beethoven-en zonata bat biziki maite dute zenbaitek, eta hamar aldiz jo behar ukan dut!) edo dizka entzuten. Artetan bidaia zenbait ere egiten da, asti denean edo aste ondar, inguruneko herrietara, ostatu ezagun zenbaitera orduan beribila dutenek eremanez bazkariz edo auhariz, batzuetan ere treinaz: gertatu da Donibane-Lohizunen ginen egun batez, gaua jinik eta azken treina huts eginik, Biarritzerano oinez sartu behar izan dugula, zinez ezinduak, alde batetik jostagarri izan bazen ere, nehoiz egin dutan oinezko bidaia luzerenean...

Politikako eztabada ere bizi da gutartean, batzu ezkerrera ixuriagoak, eskun hutsera guti, bien artean aldiz andana bat. Aljeriako gerla bizkortzen ari, ezkerrekoa izan behar zuen gobernamendu zozialixtak, 1956-ko bozkatzen ondotik, hitza laster jana du 'ta zerbitzua jadanik egina zutenak armadara berriz deituak. Urte bereko urrietan, Biarritzen eman ditutan azken ilabeteak, gertatu da Hungariako jazarraldia. Arratsalde batez espāñoleko erakasle den andere baten etxera bilduak gira, hortaz eztabadan. Bada han M. andere mutxurdir jadanik adin batekoa gu gazteagoen ondoan, jende ezin hobea 'ta langilea, baina komunixta amorratua. Egun hartan, katolikoek eta elizatiar guziek jazarlen alderdia harturik "kominixten kontra" etxean zioten bezala, zeremonia bat emaiten da jazartuen laguntzako Baionako kate-dralean (Mindsenty kardinala presondegitik jalgia zuten eta harekin gerla urtetako buruzagi faxizta zenbait, Horty bera uste dut, Nagy-ren gobernamendu berriarekin guzia harekin Errusoan armada komunixtak lehertu baino lehen). Norbaitek hara joiteko xedea aitzinatzen du, elizan gutarik guti badabila ere, gehienak batere ez. M. anderea zinez haserretzen da orduan, eta ixtorioko erakasle baita, orhoit-arazten ditu, mintzoa azkar eta besoak goitituz, gutarik gutik ezagutzen ditugun hango ixtoriak, gerla aitzinean eta nazien aldeko nor izanak ziren, Horty amirala gobernamenduaren buru, haren alde Mindsenty (gero Erromara gerizatu zen)... Eta han girenatarik nehorik ezpaldin badu den gutienik Errusoan alde dela erakusten, are gutiago faxizten, atheraldi horrek Baionako zeremoniara joiteko gogoa osoki hozten du, eta eztut uste, guziak edo gehienak, ez buruzagi

eskundar amorratu zahar horien, baina Nagy gobernamentuko buruzagi berriaren (komunista da bera) eta jazartu den jendearen alde baldin bagira ere zinez eta bihotzez, nehor han izan dela. Hungariako jazarraldia tank errusoen azpian odoletan gelditu zen, urteak berantago, 1978-ko udan Nizan nintzalarik Pragakoa eginen zen bezala, eta Europako goberna-menduek eta bertze gehienek laster iretsi zuten, eta ahatzi. Egia da ere urte berean eginga zuela Mozkun delako Kroutxef-ek Stalin-en diktaturaren eta komunismo bortitzaren salatzea, eta horrek berak zituela gerla ondoaz geroz Errusiaren azpiko zirenak jazartzera 'ta liberatzera sustatzen.

*

Unibersitateko lanetara hurbilagotik lotzeko 'ta letretako lizenzian aitzinatzekotz, Bordelera hurbildu behar zen lehenik, zaintzalegoko ilabetesari aski xume baina bizipideko baitezpadakoak utzi gabe alta. 1957-ko urtarril leheneko Arcachon-go “lycée climatique” ziotenera deitua nintzan. Munho-xka batean herritik gora, leherdoien usain onaz eta oihanez inguratua, eraikuntzak oraino berri berriak (Biarrizkoak lehenago-ko jende aberatsen “villak” izanik etxe jadanik zahartu batzu zirelarik orduan), jateko salak bereziki handiak zeramiketan itsasoko gaiez inguruan aphainduak, orduan Frantziako ikastetxe gozagarrienetarik zen. Biarrizko lagunak eta itsas-jostetak utzi behar izan ziren eta eztut geroztik hango nehor ikusi - alta etxera ukana dut berriki ustegabeen, berrogei-ta hamar urteren buruan, han angelesko irakurle zen eta geroztik *The guardian* egunkarian lan egin duen Fr. Jaunaren telefonaldi bat! -, etxerako itzuliak ere bekandu. Leku 'ta jende berri ikusteko gura bizian niz bizkitartean, nahiz Bordeletik urrunagokoa dutan alha gogoan, eta orai berean erraiteko, Pariserakoa. Akademia batetik bertzera jalgitzea gauza nekea dute alta zaintzalek, eta eniz orainokoan jauzi handi horren egiteko ametsetan baizik.

Bordeleko unibersitatea Victor Hugo karrika handiko eraikuntza ederrean zen oraino, eta hogeit bat urtez han geldituko, hiriaren erdian, eta hiriko errextasunak oro eskupean. Lana izanen da berantago Pessac-eko “campus”-era eremanen dutelarik, hamar bat kilometretan, ibiltzea autobusetan zenbait

aldiz hain luze, orenak eta orenak galduak joan-jinetan, ikasle gehienek, eta erakasle ainitzek ere. Orduan, bazen ere Bordelen "tramway" zaharra, garatik unibersitatera baitzeraman hark bide 'ta ephe laburrez, bere zilintza joz jendearen eta beribilen bazterrarazteko. Bi egunetako ikastaldien jarraikitzeko, Arcachon-dik treinazko bidea Baionakoa baino hiruretan bederen laburrago bada ere, hotel bat hartzen da, Biarritzetik jitean bezala, gau bat edo biendako, hurbil-hurbila den karrika ixil batean. Unibersitateko mailak igan eta sartzean ohargarriena, Montaigne XVIgarren mendeko idazle handi, aroan Bordeleko auzaphez izana zenaren zaldun harrizko gizaiduri etzan bat zen, burdina itxuran harmadurekin kaska buruan, hil zenean haren emazteak egin-arazia, eta gu oraino letretako lehenbiziko urhatsetan ginenendako apur bat herabegarri.

Erakasletan, literaturan ari zen oraino Barrière zaharra. Maingu, makila motz bati bermatuz sartzen da, tauladako mahi luzerano nekez heltzen, goiti doazen mailetako mahixka mehar luzetan ordukotz jarriak diren ikasle andanaren aitzinean, eta jartzen. Gaia Frantziako literaturaren ixtorio osoa du, gogoz aspaldidanik ikasia, jendeari beha, paperretara so bat ere gabe erraiten duena, dardarariak mihi puntatik lehenagoko baserritarrek bereziki Frantziako hego-aldean eta Espainian bezala emanaz. Jendea bada beti haren kursoan eta ikasle gazten artean, hiriko gizon ala andere adineko edo berdin zahartu andana. Badiote literatura erromantiko iluna eztuela maite, bereziki Baudelaire, aldiz Flottes lehenago Baionako lizean oraino 1947-8-etan ikusia nuenak idazle hautatuenetan dadukalarik; hortakotz ere, omen, etsai dira 'ta noizten aharra zenbait entzuna dela bien artean diote. Ikaslek badakite etsaminetan nori zer erran ala ez erran: Barrière-rekin etzata etsaminarik gertatu baina Flottes-ekin ba ahozkoan bederen. Gramatikalariak, filologiakoak (Bruguière), frantzes ala gaskoin zaharretakoak (ikusten dut Lefèbvre, "amphithéâtre" handia dioten sala berean, Gilen IXgarren Akitaniako dukearen bersu okzitanoen erraiten, gaizki ene ustez, eta aztertzen, hobeki, baina guzia frantsesez), gustagarriago zauku, nihauri 'ta Arcachon-en zaintzale lagunetan den Robert Balion-i: 1957-ko etsaminetan lizenziaren erdia egina dugu biek. R. Balion berriz ikusiko dut berantago Parisen, eta margolaria zuen emaztearekin aldi bat edo bertze etxera auhariz gomiatu

naute, Montparnasse-ko auzo-aldean margolari 'ta bertze edergilek dituzten bizitegi luze berinez argitu hetarik batean. Gero ikusi dut noiz edo noiz telebixtan agertzen, pedagogiaz edo haurren erakaskuntzaz egin zituen liburu batzuek gai hortan omen bat emana baitzaukoten.

Etzen hain aspaldi Bordelen bazirela ere euskarazko ikasketak, 1947-an hasirik, orduan egin baitzen Bordelen lehenbiziko euskarako “kathedra” - eztu hain ontsa emaiten gure gaskoinki ohiko eta arruntean “kadera” hitzak! - eta luzaz (1982-erano) Frantziako unibersitatek ukan duten bakarra. René Lafon ordukotz gai hortan ezaguna zenarendako egina zen. Bera moldakuntzaz filosofoa, euskarari lotu omen zen Xuberon Santa-Garazian eremaiten zituen lanartetan. Jakina zen ordukotz hizkuntzazko bertze lan batzuen artean, euskararen eta Kaukasiako hizkuntzen eta bereziki georgiarraren erkidatzean ari zela, lan horiek ezpadute ere, ziren zorrotzak izanik aro hartan, ondorio handirik eman eta guti ezagunak gelditu baldin badira. Omen handia emana zaukon aldiz, eta laster Euskazaindian alki bat, XVI-garren mendeko euskal aditzaz egina zuen thesisa ohargarriak. Bordelen emaiten zituen ikastaldiak, astean bizpahirur oren, etzaitzkeen etsaminetako balia. Beraz horietako ari zirenetarik guti zen haren ikastaldier jarraitzen, euskara bazakitenak guti ziren ere letretan, eta gehienak bertze unibersitatetako (medikuntza, zuzenbide, zientzia) Euskaldun batzu zoazkon entzutera. Aithortzen dut nihaur ere, Arcachon eta Bordeleren artean bidaian alde batetik, erraiten zituenak ez biziki baliagarri bertzetik, guti 'ta bekan izan nizakola. Alta aski usu ikusten nuen, solastatzen ere: Arcachon-en bizi zen, gure lizetik hirira jausteko lehenbiziko karrikan, aski gora, zuen etxean. Mintzatzeko gizon gozoa bezain errexa zen, eta abiatzean beti emaiten zuen esku guri ezti bat etzen ahaztekoa.

Arcachon-go lizeko zaintzalek egiten dugu multzo ttipi bat, omere onekoa gehienetan: bakoitza bere ikaskuntzetan, ala literatura, ala medikuntza, ala zuzenbide, eta hetarik bat etxera behin ikustera jin zizaten, F. Nabarkoxeko uxerraren semea, gero Parisen zenbait aldiz ikusi 'ta elhekatu dutana, han *L'Express* astekarlan lanean, Aljeriako gerlaren etsai zirenen berrikarietan biziena orduan. R. Balionekin aste oroz laster egiten dugu nork bere aldian *Le Canard Enchaîné* berriaren

erostera (hamaseigarren urtean hasia niz, Baionan, astekari jostagarri bezain kitzikalari horren irakurtzen, beti edo gehienetan atsegin berarekin, behin ere, geroztik, utzi gabe!); eta biak ari baigira ere españolean, eta oraino Franco hastiagarria Espainian buru 'ta azkar, eztugu astekari hura “El pato encadenado” izenarekin baizik aiphatzen. Bertzela, udako mainaldiak jin arteo, jostagailu guti zen Arcachon-en: hirian itsasora zuzen zoan karrikan ostatu bat, noiztenka, batzuetan egon oroz, elgarrekin garagarrarno edo koñaka bat artetik edanez, billartean jokaldi luze batzuen egiteko (gerozik osoki utzirik ahatzi ere dutan jokoa); eta bazen oraino “Casino mauresque” zioten josta-lekua, eraikuntza bitxi bat aski pollita, gerla aitzinean edo lehenago Arcachon-go aro eztiak udan jende aberatsendako ukan zuen arrakastaren hatzetarik bat, “villa” eder batzuekin. Dantzaldi batzu egiten ziren han, goizalderano, zaintzeko lanik etzen aste ondarreko arrats batzuez. Hala ereman ginuen gehienek, lizea ikasle bakar zenbaitekin gelditu baitzen uda hartan, 1957-ko uztail osoa.

Etxera itzuli bat egin behar ukan nuen alta, etxeko amatxi – aitaren izaba, emazte bizi begi urdin-urdin bat, etxean bigarren haurra sortu zenean haren eskuetara emana izan bainintzan, eta hastapeneko erakaskuntza gehiena hark egina -, zenbait ilebate hetan ahuldua baitzen ekhain azkenean ikusia nuen bezala, jadanik ohatua, galdu baiginuen, 85 urtetan; “errepublikaz sortua” zela zion, 1872-ko uztail hamalauran, eta aski ohargarri da azken hatsa hala eman zuela ere, 1957-an il bereko hamalauran zuzen. Amatrixiri hain atxikia izanik lehenago 'ta etxeari, doluaren arintzeko ala, berriz ehortze biharamuneko Arcachon-era itzulia niz, urruntzen hasia, bizilekuz bezala apur bat ere gogoz. Udako azken bi ilabeteak berriz etxean eremanik - eta oraino luzaz gero uda gehienak -, arreba han buruil azkeneko egunetan ezkondu baitzen, urri leheneko Bordeleko Montaigne lizera izendatu nin-duten, handik zenbait urhatsetan zen unibersitatera hurbiltzea baitzen zinez aldi huntan.

Eztut han urri oso hura baizik ereman, hala nola nun hango gauza, lagun eta doi-doia egiten hasia nintzan adixkideak oro gogotik joanak baitzazta, hau ezpada: Napoleonen aroko lize handiek bezala bazuen kapera, eta han organo gotor bat. Ene lankidetan baitzen musikari atxikia zen norbait, zuzenbideko doktoragoan ari uste dut (aurpegiz oraino ikusten

badut, izena enezoke batere eman), hark erakutsirik eta bidea idekirik, izan nizala han joiteko entsegu zenbaiten egiten, erosi berriak nituen (eta geroztik galduak...) C. Franck-en hirur koralak eskuan; baina tresna makur zen eta egin ahal nuen guziarekin ondorio on guti eman zuen han behin ere biziki maite ukan ez tuta Franck-en musikak.

Aspaldidanik Parisera joatea gogoan, musikari ere hurbilagoetik berriz lotu nahiz, orduan Orzaizeko auzaphez zen Emile Sala-ri laguntza galdeginik, etxean eta bereziki aitak aski elhaide baitzuten, eta berak zenatur bat ontsa ezagutzen (orhoit niz bakarrik izenez Cassagne zela, alderdiz radikala), hari esker jauzia egin-arazi zautan beraz. Hazaroaren biko Parisko akade-miara izendaturik, ipharreko hiri “Jeanne d’Arc”-en ixtorioan salbu guti aiphatzen zen Compiègne-ko “Pierre d’Ailly” lizera sartua nintzan. Enuen alta han ere, jadanik lizenzian aitzinatua, hazaroko ilabete labur hori baizik ereman. Zaintzalegoko egiten ziren galdetan, unibersitateko etsaminak ukan arau aitzinatzen zen. Banuen aski ordukotz, bertze zaintzale lagun artean, gehienak lehenbiziko urtetan ari oraino, edo behin nahi zuten lekura helduz geroz ez aldatu nahi, Paris aldera hurbilago jausteko. Eta urte bereko negilaren leheneko Compiègne-ko lanho hotza utzia nuen hiri nagusiaren inguruan ziren ikastetxe handi omendunenetarik batean sartzeko, Sceaux-ko “Lakanal” lizean, lizenziaren burura-tzeko izena Sorbonan emanik eta paper ofizial guziak Bordeletik hara aldatu. Urte berean hirur ikastetxetan, Arcachon eta Compiègne-koetarik Sceaux-ra, oraino Zekuanako departamendu-ko suprefetura zenera, banadukan ordukotz nahi nuenera helduxea ninzala, edo hurbil.

*

4. 1958-a hiri nagusian

Compiègne-ko hirixka ezta segurki Paris, ez ere Bordele balio duena, ez gehiago, nahiz jendez gotorrigo, Arcachon. Hango aro ezti argitik landa, hazaroa Compiègne-en ilabete hezea da, Oise ibaiaren inguruan lanhoa ezin jeiki, jadanik hotz, bizkarreko lodiak egun oroz ezarri behar. Han giren barneko zaintzale gutiek, hetan bi Aljeriar gehienetan ixil – han

gerla gero 'ta bizkorrago doa – baina lagun onak, eta astia den ber, eguneko edo berdin egun erdiko treinaz Parisera jauzi egiten dugu, oren erdi batez nunbait han, hiribazter industrialeko landegiak bere khebide luzekin inguruan metan eta khetan. Ingurumen guti gustagarri horri biziki behatu gabe, agertzen ikusten deneko urrundik hedoi-hertzean “Sacré-Cœur” delako eliza bere gopoila gorra tekkin - gehienek, politikan ezkertera emanak, bereziki hastio dugu 1870-eko jazarraldiaren “penitenziaz” eskundiarrek eraiki nahi ukana zuten bitxikeria hura – , harekin Montmartre-ko mendixka etxez hartua hurbiltzen, halako atsegin bat sortzen dela sendi da bidaiarietan. Ahazten da orduan Compiègne-en asti dugularik hara jausten giren ostatua, “Thiztariena” (“Bar des Chasseurs”), ondoan bixkotxeria bat arratsalde askariko, hauteko “polonaise” zioten bixkotxak egiten baititu. Orduan “Platers” amerikar kantarien moda gorenean zen, eta hara sartu orduko entutzen zen, gogo lokarri egia erran eta beharrira gozo, “*pretender, ho-ho, ho-ho, ho-ho*” errepika, halako bihotz ilundura erromantika zerbait emaiten baitzuen.

Itzuli bat egin dut ere artetan Compiègne-ek duen oihan handiaren bazterrera, han ihiztariak eta ihiztorrak ibilki, oihu, tiro, erausietan. Ondoan du jauregia, ordu hartan guti aiphatzen baitzen eta ez itxura hoberenean iduriz, bere zutabe handiekin aitzinean, Napoleon III-garrenaren gorte leku hautatuena omen. Hiria gerletan aiphatua izana zen, Ertaro ondarrera Angelesekilako gerlan, “ehun urtetakoan”, eta Jeanne d’Arc-en izena betikotz bereziki lotua gelditu zako. Han egin zuen berantago Luis XIV-garrenak bere gorte guzia Versailles-tik eremanik, andereak ere hetan lehen-lehena Maintenon-go Andere bere ezkontide gorde bigarrena barne, erreinu azkenera ukan zituen zorigaitz handiaren bezperan, San-Simun orhoitzapen-lariak hain luzaz eta ederki emaiten duen armadako erakustaldi ospeduna. Baina etzen orduan Compiègne-n osperik ez gauza ohargarri handirik; ur bazterretako lanho hotzetik egiazko atseginekin urrundu nintzan, Lakanal-en sartzeko. Han baginen hamabi-hamabortz bat edo gehiago barneko zaintzale, eta “Sceaux-ko liña” dioten metroa han berean gelditzen baitzen, “Bourg-la-Reine”-ko garan, Parisera noiz nahi joaiten da egunean aldi bat baino gehiagotan berdin, Pantheon-go karrikaren eta San Miguel karrika handiaren izkinan atheratzeko, Sorbonatik bi

urhatsetan. Urte berean, 1958-an, aski errex bururatu zen beraz, erdia Bordelen eginik, letretako lizenzia.

Aljeriako gerla bere bortitzenera heldua bazen, “gerla” hitza berrikarietan debekatua zuten, “ordenuaren atxikitzea” zen... Zozialixtek bere ezkerreko lagunekin 1956-ko bozkak bakea hitzemanaz irabazi ondoan, hitza laster jana zuten. IV-garren Errepublikako gobernua, hastapenean Mollet zozialixta buru, eskunekoan eta kolonialixten politikara itzulia zen osoki Aljerian, aldi berean ahulduz, konseiluko buruzagiak bat bertzearen ondotik ilabete zenbaiten buruan aldatuz, Mollet-en ondotik, Gaillard radikala (F. Mauriac-ek zion, Aljeriako gerlaren kontra *L'Express* astekarian bazegien *Bloc notes* labur bezain bizian, begitakoen gibelean sorik gabeko gizona zela...), gero Pflimlin erdiko “demokrata-girixtinoa” (hitz lotura hori ezin bitxiago iduritu baitzata beti), gambara sutan.

Gauzak samintzera jin zirenean, Aljerian armada 'ta Frantziatarak, gehienak XIX-garren mendean kolon hara eremanen ondokoak, alderdiz elgarretaturik, ageri-agerian, jazartzera baitzoazen, De Gaulle-ri galdez ari ziren eskunaldeko jende guziak, erdiko ainitz, ezkerreko zenbait ere. Nahiz enizan behin ere den gutienik “gaullixta” izan, banakusan horrek, armadakoa 'ta jenerala, Frantziaren liberatzean gobernua jadanik atxikia ezkertiar guziekin, komunixtak barne, 'ta erdiko “demokrata-girixtinoekin” – orduan MRP zen, eta arrakasta pollita ukana zuen gure eskualdetan, hemen ezkerrekoak bekan izanez ere -, gauzak lezetik athera zezazkeela, enekin egia erran hango zaintzaletan andana batek ere. Gobernu berria moldatu zuenean zenbait ilabete berantago, eta gero konstituzione berria 1959-an, biziki elhaide nuen lagun bati erran daukot erresumaren buruzagi zela hamalaur urterendako. Gutiz nuen huts egin, azken erreferenduman baia ez ukanik, hamabi baizik ezpaitu iraun; baina mintzo nuena komunixta zen eta etzuen holakorik ez uste ez eta nahi ere.

Lakanal-go zaintzalen etzandegian, gambarak bi artebide luzetan lerroan, telebixtak jartzen hasi ziren. Parisen ezkirenean, han biltzen gira gehienak Cl. lagunaren gambaran, handiena baitzen eta jenden biltzeko errexena; eta han jarraiki gira orduan, egunez egun eta batzuetan orenez oren, gobernamenduan, deputatuen gambaran, Aljer-en gertatu ziren

gauza guzier. Zenbait ari dira, berrikari, irrati, telebixtetan, batere gorde gabe, De Gaulle-ri helez gobernamentu berri baten moldatzeko, ohigabeko molde osoan, bozkatze berririk eta hetarik landa gambaran deputatuen gehiena bere alde ukan gabe, De Gaulle bera ere ez deputatu, berak hamar urte lehenago gobernamentua utzirik gehientasun hori bazuelarik. Baina hortako behar da legea hautsi. Oro edo gehienak berrikari irakurle 'ta ezkerreko aldierrak hurbil, zuzenbidearen errespetuz ala batzuek bere abantailetan "Estatu ukhaldia" dela diotenek arrazoin osoa dutela iduritzen zaiku ainitzer, eta nihauri ere. Orduan ukhaldi horren baztertzeko 'ta zuzenbidearen alde, Mendès-France, Mitterrand (bazuen urte bat edo bi gobernutik azkenean atheraia zela Aljeriako bortizkerien arrazoinez) eta bertze ainitzek, politikako gizon ala ez, jendeari hel egin zuten Parisen egin den karrikako ihardokitze 'ta oihukatze handienetarik batera bil zadin, "Nation"-dik Bastillara errepublikatar ezkerrekoen betiko bide 'ta moldean.

Bada manifestaldi hartaz argazki ainitz; han ginen ere Lakanal-go erakasle 'ta zaintzale andana handia, egiazko jende itsasoa elgarri besoz-beso; debaldeko atheraldia zela, gauzak aitzinatzen ari ziren moldean, gehienek bazakusaten alta laster hala gertatu zen bezala. Aljer-ko armadaren eta kolonen jazartzearen alde, han "De Gaulle" nahi zutela oihuz, Frantziaren berean bazen hortara azpiz ari ziren ainitz, gero Errepublikako politika berrian lehenbiziko karguak hartuko zituztenak, eta luzaz atxikiko, Chaban, Debré eta bertze. Hots, Pflimlin gobernuaren buruzagi zuzenak, gambarako gehienak egun hetan beretan boza alde emanik alta, harekin batean gobernu osoak kargua utzi zuten, eta Coty Errepublikako president eskundarrak De Gaulle-ri hel egin.

Estatu ukhaldi horrek bere oiharzuna ukan zuen Sorbona-ko ikastaldietan. Alde batetik Sorbona letretako uniber-sitatea, bere ikasle gehienean ezker aldekoekin, eta han berean Jondoni Jakoke karrikako bertze aldean, goraxago Pantheon-era hurbil, zuzenbidekoa eskunera 'ta ere eskun muturrera ixuriagoa (Le Pen-en aro handiena hastera zolan), bietako ikaslen arteko aharrak, batzuetan ere borroka usu ziren, eta orduan ehoiz baino usuago. Erakasleak berak etziren, gogoaz zer zuten erakutsia zuten ber, mehatxuez gerizan. Hala ikusi zen

René Etiemble, urte hartan lizenzian literatura gomparatuko hautatua zuen gaia “Oriente filosofikoa XVIII-garren mendean” bururatzen ari zuelarik, osta-roko 22-an eman zuen urteko azken ikastaldiko bere mahian jartzen (hemen ditut egunez egun hartu nituen oharrak). Bazuten beti jende ‘ta entzule Etiemble-ren ikastaldiek, Sorbonan gai hortan egiten ziren hoberenak eta jakitatez aberatsenak. Ikasler, guziak apur bat baldituak, hunela mintzatzen hasi zizakun berehala: haren erran zuzenak dira, ikastaldi hori Sorbonako zerbitzuek, betiko moldean, laster liburuz agerr-arazi baitzuten erran den izenbururarekin. Oraino hartan irakur daiteke hemen hitzez-hitz itzulirik emaiten den hau:

“Erran behar dautzuet bada, goiz huntan mintzo banitzazue, egun hautarik batez gauerdi hirian etxera ikastaldi hauk burura enitzan eta D.S.T.-ren (erresumaren zaintzeko polizia da) meneko egon nindadin jakin-arazia izan zizatan manuaren beha egoiteaz eskandalekin axolatu enizalakotz dela! Jazartzalek uste ukan zezaketen oraino egun hartan Errepublikak 1940-ko jokia berriz eginen zuela. Zuetarik batek ukan zuen beraz ene etxera gauaren erdian telefonatzeko zirtzilkeria eta D.S.T.-ren izenaren hartzeko xoxokeria, hunek ezpaitu, erran gabe doa, etxe hau gobernatzen. Uste ukan zezakeena jendeki bere erakasletarik batek ukanen zuela manamendu alde orotarik hoin behargabeari obeditzeko beldurkeria? Jostagai bat baizik etzelako baldinetan, egitera ausartzen zen orenak biziki ikustate gabekoa egiten zuen; eta mazo erabiltzale batzuek ni bezalako jender burua laster hauts zezauketelako esperanzan, zuetarik batek uste ukan badu gizon libroer kormio olio izari gotor bat edan-araz ahalko zaueten ordua harendako ethorria zela azkenean, ezen badakigu hori zela kultura faxiztera sartzeko urhatsa, haren telefonako deia goiztiarregia zen bederen. Buru-hausleak izanik ere, basakeria horren gatik, Uniber-sitateak abantzu oso-osoan badio *ez* kaporalixmari 'ta jeneralixmari ere. *Cedant arma togae*: behazuna gramatikari doakonean politikan bezain betegina da...”

“Eta Erromako erran zahar hori Xinatarren zuhurtziari lotuz, *Cedant arma togae*, politika erromatarraren lege hori, politika xinatarraren oinarria izan zen, eta Europatarrer leiendako Xina baten aurkitzeko miresmena eman ahal zauena. Orhoit zaitzete nola La Mothe le Vayer-ek miresten duen

erresuma hortan “ofizio guziak” hain direla filosofoarenaren azpikoak, “nun armaden buruzagigoan ere, ezpaita /konfuziano-en/ alderdikorik baizik manuak emaiten dituztenik eta Milizia osoak haiek erraner jarrikitzea ohore baitu...”

Europako gogoak XVIII-garren mendean argituak zituen eta urtean zabaldua zaukun “Oriente filosofiko” horren erakaspenetan, hitz hauekin bururatu zaukun Etiemble-k:

“Horrela *li* eta *k’hi*-ren, *T’ien* eta *Chang-ti*-ren arteko eztabadek Europa bazeramaten beti erraiteko on diren egia batzuetara: jeneralek behar dute botere zibilarri obeditu; botere hau dutenak behar dira hoberenen artean hautatuak, eta gizarteko lerro aphalenetan jaiok balire ere. Atherabide bakar bat, ondorioz: etsaminak eta konkursoak. Zorion beraz zuen zertifikako, zuetarik ainitz eginen baitu, segur niz, kaporaler, jeneraler eta marexaler ere *ez* erranen ahal daueten gizonak, marexalak eta etzandegietako marexalak ari direnean *ez* erran behar zauen moldean.”

*

Nahasmen horien guzien erdian, eta Lakanal-dik Sorbonako bidaia labur bezain usuetan, urtean bi azken zertifikat delakoekin, literatura gomparatua 'ta atzerriko literatura (hizkuntza espanyola nuen), Bordelen hasi lizenzia bururatua zen, eta izena emana orduan “Maîtrise” zioten unibersitateko heren maileko etsaminaren egiteko ondoko urtean. Greka doi-doi Uztarizko aphezekin hasirik, baina Baionako lizean jarraiki gabe, beha nindagon bertze ainitzekin noiz idekiko zen gobernua zenbait urtez geroz hitzemaiten zuen “Lettres-modernes”-etako agrega-zionea, hau latinarekin nahi bada – eta huntan apur bat ari izana nintzan beti - eta atzerriko hizkuntza batekin egiten baita. Urtean bi atheraldi egin nituen, lehenbizikoa Lakanal-go zaintzale lagun batekin deliberaturik Viena-ra, musika 'ta musikalarien aberrira joatea aspaldidanik gogoan bainuen eta musikaz bi urte hetan axola gutiegi ukanik, eta bigarrena udan Espainiara.

Bazkoko lanartetako billetak harturik, han bertze lagun batek adixkide austriarrak ukanez haien ikustekotan ere, jorraila jadanik aitzinatzen ari urte hartan (etxean amari

entzuna nuen erran zahar hau: “Bazko goiz baliz, martxo ezpaliz!”), negua Europako erdigune hartan ordukotz ezitzen hasia zelakoan Parisen egina zen bezala, “Arlberg-Orient-Express” izeneko treina hartu ginuen beraz. Paristik-Vienara etzen hogeita-bortz oren baino gutiago emaiten, iluntzera arratsaldean abiatu, gau osoa etzangietan ere luze, Suiza oso osoa gauaz iraganik, iratzartzean treina mendietan gora zoan, elhurren artetik, jadanik Austrian sartua. Vienara heldurik, orhoit niz lehenik han berean garari hurbil den Mariahilf karrika hartan izen bereko “Hotel Mariahilf”-ean jautsi ginela. Baina hura gure molsa ahulendako kharioegia zela ikusirik, bizpahirur egunen buruko han hitzartuak ginituen jende berte ttipiagoko batera ereman ginituzten, hiri zaharrean, kathe-draletik ez urrun. Aroa Vienan etzen Parisko primaderan bezain ezti, haize mehe hotz batek jendea berehala hartzen baitzuen, eta gu jantzi arinegiekin joanak: bi egunen buruko gaitzeko zintzur-reko mina bildua nuen, sukarra, ohean egon behar egun bat edo bi, erremedioak galdeginik ondoko farmazian, errex izan zena zorionez frantzesak baitzakiten eta guk alemanetik bizpahirur hitz baizik ez.

Viena orduan gerlako armadek berriki utzia zuten, azkenik Errusiarrek aitzineko urtean uste dut, gure itzulietan hek zadukaten hiri alderdirano izan baiginen: abantzu hutsa zen oraino, eta berritzeko lanak hasten ari. Bazen ikusteko gauza ohargarriagorik, entzuteko ere. Bazko goiz osoan elizaz eliza ibili ginen, orotan mezak kantatuak, koralak, orkestrak: hiri zaharreko eliza gothiko ttipi batean kantatzen zuten Mozart-en “Murru-xorien meza” delakoa, musikari ala kantari gutirekin hor; Jondoni Extebe-ko kathedralean bazen aldiz organoaren galerian orkestra handia kantariekin, baina hango musika, edo berriegiz edo bertzela, ezpaitzizakun nahi bezain gustagarri iduritu, bi itzuli eginik jalgi ginen; berdin egin zen Karlskirch, aitzinean bi zutabe handi zizelkatu urrundik agerian dituen elizan.

Ohargarri 'ta apur bat bitxi ere iduritu zizakuna haren izena ahatzia dutan eliza bat izan zen: karrikarano entzun zaitekeen jende kantatu bizkor batek beharria jorik, atheari behatu ginuen eta irakurri, ginakien aleman gutiarekin, “katholiko zaharren” eliza zela, zer ziren eta bazirela ere jakin gabean. Izkina batera sarturik, hemengo elizetan bezalatsuko zeremonia bat iduritu zizatan bururatzen ari, jendea kantuz, adin batekoa

gehinean, gizon baino emazte gehiago, kantuen azkar batzuen laguntzeko organoaz bertze musikarik gabe, Europa-Erdi hortan gelditua zatekeen noizpaiteko erlisione bat.

Ortzirale sainduz delako Parisko adixkideak hitzartuak zauzkun lagunek etxean bazkaltzera gomitatu gintuzten, bi gazte anai-arrebak eta ama, barne hotz eta trixtea, iduritu baitzizatan ere bazela oraino han aitzineko gerlaren ondorio zenbait. Bazkaria etzen biziki airosagoa izan, nahi ukan baitzaukuten eman Viena-n, hiri aiphamenez biziki katolikoa izana lehenago, ortzirale sainduz Vienatar sinestedunek, penitenti-az, egiten duten bazkari berezia: arraultze egosiak ziazerbekin. Gero arratsaldea airoskiago joan zen. Nexkato gaztea kantari ona zen menturaz bere ofizioz: bazuten, nolaz ez Vienan, pianoa, hartan nik lagunduz eman baitzituen ederki Schubert-en “Margarita bilginean” (“Marguerite au rouet”) eta bertze aire zenbait.

Hitzhartu ginen ere biharamun arratseko Stastsoper delakoan emaiten zuten Beethoven-en *Fidelio*-ra (ikusia ginuen, baina sartu gabe, lehen aldikotz Mozart-en *Zauberflaute* eta gero *Fidelio* emanak izan ziren “An der Wien” antzokia). Parisko egunkarietan irakurria zen operako sala aitzineko urtean idekia zutela osoki berriturik. Egia da sartzan berean balkonen inguruak argitan, urre ‘ta xuriz phindarretan, begia joiten zuela 'ta xoratzen. Gure Vienatarrek leku merkeak hartuak zauzkuten, ikasle bezala agian (antzokia ezpazen bederen jadanik betea), baina tauladaren ikusteko 'ta kantarien entzuteko ezin hobeak: athe handitik sartu orduko han berean, jende multzo bat, lekua badeno, sarr-arazten da, jarlekurik gabe, bizpahirur mail zabaletan zutik egoiteko. Ene zintzurreko mina ez oraino joana, behar ukan nuen aldi bat baino gehiagotan lurrean jarri, nahiz batzu hala zauden; alta ikus ala entzungarria ezin hobearen zen, eta enetako, hain “beethovenixta”, bereziki, kantari lehena Elizabeth Schwartzkopf, orkeztraren buru Karl Boëhm.

Bigarren asteko aroa osoki aldatua zen, haize ephel bat, hemen hegoa bezalatsu, gure ikustaldiak iguzkitara bururatu ginituen beraz, gure adixkide berri vienatarrek bidatuz. Prater ibilgune hain aiphatuan bere errota handiarekin bazen jende, haurren jostatzeko zirka ttipi batek emaiten zuen “Radetzky -ren urhatsa”, Vienatarren herkantua bezalako zerbait

baita delako “Danubio eder urdina” balzarekin. Hiritik urrunxago abiatuz, alde batetik behako bat eman Danubio ibai guti urdinari, itzuli bat egin Grinzing-eko ostatutetara “Viena-ko Oihana” dioten aldean, han ere dena soinu, kantu eta jantza, garagarno, edo, guk bezala, Hungariako “tokay” arno xuri hautekotik. Tokay-a hiriko ostatu batean jastatua ginuen jadanik, bazkariz edo auhariz eztatit, bai eta Hungariako gasna guri berezi bat, bixkotxa bezain hantua, horia, xarpoil usainez gozo bezain aberats.

Hiriaren bertze aldetik, tramway batekin heltzen da Austriako emperadoren Schönbrun-go (“Ithurreder” lizate euskaraz) jauregi ezagun hartara, ikuspegia, urrunxago parkean “lorieta”-rano iganik, hain atsegingarria baita. Begi-beharriak nahi bezala asebiteak ginituen, baina, erran behar dena, molsak hustuxeak, Frantziako berriak ere ez hoberenak, Aljeriako gauzak gaizkiago joanki, gobernukoak haiekin, eta abiatzean uste baino egun bat edo bi lehenago itzuli ginen. Alta bidaia luzeagoa izan zen oraino: Arlberg-eko burdin-bidea elhur erauntsiek edo bertze zerbaitek mozturik, treinak itzuli luze bat egin behar ukan zuen Alemanian gaindi, han mugan berriz bidaiari guziek pasaportak erakutsiz, joaiten iragana ginuen Bâle-ko hirira heltzeko bertze bidez, eta handik, azkenean noizpait, burdinbidea atseginekin utziz, Parisera.

*

Atzerriko literaturan, espāñoleko ikasketak etziren Sorbonan berean egiten, baina urrunxago haren menean den “Institut hispanique” delakoan. Han gertatu zen urte oroz bezala, hasi zela espāñoleko ikaslendado, uztail-agorritan Leon-go hirian egiten ziren udako ikastaldietako, izen emaiten. Frantziako aldetik buruzagi nagusia Pierre Fouché Sorbonan filologia frantzes eta erromaneko erakaslea zen, haren ondoan bazen Montpellier-eko unibersitateko Flekniakowska espāñolekoa. Enintzan Fouché-ren ikastaldietan behin ere gertatua, filologia frantzesak jadanik Bordelen eginak nuelakotz; bakarrik nakiena hau zen: omere bereziki gaixtoko gizona izan zaitekeela, eta, uniber-sitateko mailetan gora erakasle oso izanik ere, agregazionerik ez ukanik omen, bazioten bertze erakasle batzuek apur

bat gutietsia zela, nahiz bere gaian jakintsun handi 'ta orotan ezaguna. Ikasle-kide andana batek, gehienak espāñolekoak, ni bezala letra hutseta-ko bakar batzu ere, abantzu guziak hizkuntzan ari, neskato 'ta mutiko, Leon-go uda ikastaldira joaitea deliberatu ginuen beraz (argazki batzuetan ikus gaitezke oraino han, eta begitartez nor eta nungoak ziren atxiki badut, guti da izena zer zuten erran dezaketenik, eta zer bilakatu ziren gero badakitanik ez bat ere).

Ekhaineko etsaminak bururatu zireneko, Parisen eta Frantzian De Gaulle-ren gobernua jarria, bazen gutartean bat baino gehiago hats hartzera norapait, Espainian Franco azkar izanik ere, ihes egin nahi zuenik. Etxera itzuli bat egin eta, ezpaitzizaztan han gauzak hoberenean iduritu, ez orduan ez gero Espainiatik goiti Parisera berriz itzultzeko gelditu nintzanean, Louis-le-Grand, Sorbonaren sahetsean Jondoni Jakobe karrika arte duen Parisko lizera zaintzale izendatua jakinik urriaren leheneko, Baionan batu nituen treinan Paristik jausten zirenak, Montpellier-koak bere aldetik eta bertze bidez Leon-en aurkitu baitziren. Espainiako treinek etzuten orduan Frantziako koen zalutasunik, eta gureak egiten zituen geldi-aldi luze batzu, Palenziako hirian bereziki: Irunen hartu ginuelarik, gaua jautsia orduko, betea zen jadanik, eta andereak ahalaz bagonetako berexkune hetsietan utzi ondoan, batzu egon ginen lo kuluxka zenbaiten egiten artebideko zolan ahal bezala etzanik.

Leon-go ikastaldiak baliagarri bezain gustagarri izan ziren, apur bat jostagarri ere, hemen ditutan argazki zenbaitek erakusten duten bezala. Bakoitzak aitzinetik ordainduak zituen egonaldiko gastu guziak. Etzangiak, eta eguneko atheraldi batzu-etan ezpada jana ere, jendearen etxetan ziren, gu hetan hiruzpalaurka banakatuak, gizonak eta emazteak berex ezkondu bakar zenbait salbu, baina batzuek bertzer ikustaldiak errex. Hirur mutiko, ni eta bertze bi Montpellier-koak, gertatu ginen bi adineko emazten bizitegian, biak alhargun, jende gozoak eta aski ixilak, jantzi beltzetan, horrek gogoari eman baitzautan bazela etxe hartan ere, Viena-n bezala, gerlaren, hemen Espainiako gerla zibil, hogeit bat urte bururatua zela orduan, Franco-ren “gurutzada” izigarri haren hatz edo ondorio zerbait. Behar den moldean arthatu ginituzten.

Ikastaldiak goizetan ziren gehienik, atheraldiak arratsaldetan eta igandetan: horrela erakutsi zauzkuten Leonen berean diren ikustekoak, kathedrale gothika Frantziakoen moldean eraikia omen, ohargarriago Santo Domingoko eliza bere gopoil erroman XI edo XII-garren mendean margoztatuekin, Nabarrako 'ta bertze errege zenbait han ehortziak baitira, hetan Zantzo Handia Nabarrako errege 'ta Espainia girixtino guziko “emperadore” izan zena. Xehetasun horiek han aphez batek erran bazauzkun ere (argazki batek erakusten du erhi bat margazkietara goiti guri mintzo, gu guziak inguruan haren erraner beha), gogoan enituen, erran behar da, batere atxiki, orduan gure herrialdetako ixteriorik ezpaitzen ikastegietan aiphatzen, eta Sorbonan letretako lizenzian are gutiago...

Egun bat osoa hartu zen Gijon-go hiri, portu 'ta itsas-bazterrera itzuli baten egiteko, trein ttipi bitxi batean, alkiak orhoit nizanaz zurez, hertsu bezain gogor, burdin bide mehe-mehe batean hara (Espainian ohikoak Frantzian baino zabalago zirelarik) aski emeki, oren andana batez, han doi-doia ahamen baten jateko astia, eta berriz gure treinarra. Uda minean iguzkitara egona, barnea sutan zuen, eta gure bagonean emazte bat ari zen españolez gora-gora erasian, zinez ahalgegarri zela, jendearen eritzeko eta khexatzeko “espes” egiten “zutela”: etzen ageri jende horiek nor zatezkeen, ala Renfe Espainiako burdin-bide kompainia ezpaitzuen aiphamen hoberena (ondoko urte batez, aldi hortan Barzelonatik Parisera abian, treinak ezin gehiago luzatu zuen, eta bazen han Italiar bat osoki khexu ere, “dizgraziato!” ziola bere erdaran treinetako gizon kaxketadun bati), ala Franco-ren gobernu, hura baitzen azkenean oren buru.

Leon-go ikastaldien hesteko besta handi bat egiten zen. Arratsaldean guziak bildu ginituzten unibersitateko sala zabal batera, mahiburuan Oviedo-ko unibersitateko “erretorea” (Espainian hala izendatzen baitira unibersitatetako buruzagiak), haren inguruan erakasle guziak, salan aitzineko jarlekuak oro hiriko jende andana batek tinki-tinkia hartuak, aphez eta serora andana pollita (guziak orduan bere sotana, zaia luze 'ta “kornet”-ez jantziak) elgarren ondoan guneka, gu ikasle guziak gibelean, nihaur azken lerro batean udako jantzi arin batzu soinean, ospe ofizial hori guzia izanen zela buruari batere ez

emanik. Ikasletan lan hoberen egilek ukan zituzten erretorearen eskutik diploma batzu, eta egia erran nihaurek ere idatzaldi espāñoleko bat, izena eman orduko haren hartzera joaiten baitzen sala guzia iraganez erretorea 'ta erakasleak zauden tauladarano.

Fouché-k eman zuen orduan, jende guziaren aitzinean, hitzaldi bat ikastaldi moldean. Gaia Erdi-Aroko literatura zaharreko “jestu kantuak” deritzotenen bersuak, oro, neurthizetan ala ez, luzetasunez hain ezberdin baina guziak aire berean nola kanta zuen, aspaldidanik eta gero ere ainitz eztabadatu dena. Gai hori nola zabaldu 'ta argitu zuen ezpadut orai xeheki gogoan, hau atxiki dut alta, ohargarri, doi bat irrigarri ere, iduritu baitzizaikun batzuer, jakinez, egia ala ez, Fouché sinestegabea zela, ez erlisionearen aldekoa: erran zuen bazirela elizan oraino kantatzen ziren molde bereko bersu luzetasunez ezperdinak, salmoak deritzeetenak bereziki, baina guziak aire berean kantatzen. Eta horren erakusteko, han ziren aphez eta serora guzien aitzinean, hauk apur bat ustegabetuak uste dut, mintzo erlastu batekin kantuz hasten da apheza aldarean iduri: “Magnificat, magnificat...”, eta aitzina, labur horren ondotik bigarren bersu luze hura (“Quia respexit humilitatem ancillæ suæ...”) eta oraino bizpahirur. Eniz orhoit ere *Errolanen kantu* ala Espainiako *Romancero*-tik bersu zenbait eman zuenez, baina itxura baluke.

Arratseko hango ikaslek bere jantzi beltz xingoladun bitxietan eta gitarrekin ikusgarri ederra antolatua zuten, eta guk ere ahal ginuena. Alta Leondarrek egina zaukuten ongi-ethorriaren eta bizi molde onaren eskerrez egin zuen hitzaldian, gure buruzagi-orde Flekniakowska Montepellier-ekoa behar baino gehiago desenkusatu zela iduritzen zata, “pobre de nosotros!” ziola. Ezen egun batez deliberatu zen zer ikusgarri emanen ginuen gure aldetik: nextato gazte batek pianoan zerbait joren zuen, aski polliki egin baitzuen, eta espāñoleko lizenzia bururatua zuen batek eta nihaurek Fouché-rekin zer egin deliberaturik, biziki elhaide errexa aurkitu baiginuen, besoz-beso hartzen ginituela elgarrekin mintzatzeko 'ta gauzen antolatzeko, bere emaztea (bigarrena zuela zioten, bera baino hogeitaz urtez bederen gazteagoa) gibeletik nextato batzuekin, egin ginuen Frantziako probinzietako kantu xoil batzu emanen ginituela. Hor

izan zen ene lana: kantuak elgarrekin hautaturik, baziren Ipharreko erdaran “Mon p’tit Quinquin!”, Probenzakoa “Farandola”, euskarazko bat ere, “Adios ene maitea” uste dut, eta bertze, orotara borzpastei. Eni izan zizatan hor, ikasle batek edo bertzeak bersu batzu gogoz baitzazkien, musikaren antolatzea bizpahirur bozetan, nexkatoek bat edo bi, mutikoez bat azpikoa, errepikapen guzien egitea 'ta guziaren buru izaitea: argazkietan hor gira denak, eremanak ginituen igandeko jantzi aphañenetan, ahal den gogo hoberenean ari...

Handik hara Leonen ziren ikasle lagunetarik guti edo batere ez tut aurkitu. “Maîtrise”-ko urtean etzen espagnolik egiten, Letretako agregazionearen lantzean gero hetarik nexkato bakar bat dut artetan ikusi eta elhekatu. Fouché-rekin aldi bakar gertatu niz ere geroztik Sorbonako estaietara igaiteko baten barnean, elgar agurtzean gelditu baiginen Leongo egonaldiaz doi-doia hitz batekin. Alta errana zautan euskaraz xehetasun batzu geldeginen zauztala: aldi bat izanik haren ikastaldian, ikusi nuen anfiteatro handi bat ikaslez mukurru betea, enintzan berriz itzuli, bertze egitekorik baitzen ere.

*

5. “Louis-le-Grand” 1958-tik 1961-era

1958-ko urriko sartzean zaintzale izendatua izanik Louis-le-Grand-en, Parisko Auzo Latinaren erdi-erdian aurkitu niz, Frantzia osoan aiphamen hoberenekoan artean lehenbizikoa duen ikastetxean. Sorbonara atletik athera bi urkatsez joaiten da, Jondoki Jakobe karrika aldean bertze zuzen iragan eta. Ondo-ondoan ditu, azpi aldean “Eskolen karrika” diotenera idekia, XVI-garren mendean theologiako fakultateari ihardesteko egin zen “Collège de France” aiphatua; gainaldean, karrika ttipi bat artean, zuzenbideko fakultatea. Beherago, Sorbonako athe handien aitzinean, plaza ttipi bat hartzen duen baratze baten izkinan aurkitzen da karrika bazterrean Bordeleko unibersitate (orai erakustoki bilakatua) zaharreko sartzean bezala, Montaigne-ren gizaiduri bat; han gerlako jantzietan etzana zelarik, hemen jarririk dago gogoetan, hiriko jantzietan; azpiko

oinarrrian irakurtzen da hizki handitan zizelkatua *Entsegu*-etan Paris hiri nagusiaz egiten duen laudorioa.

Louis-le-Grand-en zaintzale egonik 1961-ko udarano, gero han berean erakasle-ordain izendatu ninduten. Leku hori atxiki dut, armadako zerbitzua artean eginik, agregazionera ari ziren “sursis”-dunak bezala berant, Tarben lehenik eta gero Tunizian, urte bereko hazarotik 1963-ko ostarorano, bi urteko hauste oso luze horren ondotik, ororen buruan, agregazionera, hirugarren entseguan, 1964-an heldu arteo.

1958-ko urritik hasiz 1959-ko ikasturtea hartu zuen “Maîtrise” agregazionera sartzeko beharrezkoa zen etsaminak. Hortan “mémoire” dioten idazkiko nahi nuen literatura musikarekin batzen zuen gai bat. Lan horren buru izaitea onhartua zuen R. Moreau Sorbonako erakaslearen aholkuz hautatu nuen “Musika Proust-en *Aro galduaren bila* elhaberrian”. Jakina den bezala hain du literaturako lan gotor hortan musikak leku handia hartzen, nun gaia errex berexia baitzen eta aldi berean osoki ene gostura hautatua.

Lan aski luze hori bururatu zenean Moreau jaunak ikhertu zuen eta gostura solastatzeko hitzartu ginen, Sorbonari hurbil-hurbila, “Eskoletako karrika” deitzen deneko ostatu batera. Uste dut ene idazkia etzizakola hain gaizki iduritu, apur bat arin behar bada (eta gaiaren zabaltasunari behatuz hala zen dudarik gabe), baina estiloaren aldetik hatzeman zaukon “un joli brin de plume” (euskaraz itzuliz “luma izpi pollit bat”...), eta gustatu. Lan horrek galdegiten zuen musikako teoriari 'ta ixtorio-ari hurbilagotik behatzea. Luxembourg-eko baratze ederraren haraindian zen “Edergin-tzetako Institut” delakoan egiten zen orduan “Musikaren ixtorioko zertificat” Sorbonakoa.

Nahiz etzizatan lizenzako etsamina osagailu hori batere baliagarri ez urte hartako ez ondoko agregazioneko, ikastaldi osoa egin nuen han, urte batzu lehenago Ch. Lebout Donibane-Lohizungo organixtarekin harmonian hasia nuenaren jarraikitze eta barnatzeko gogoan. Bi erakasle ziren: buru Jacques Chaillet (urteak ondoan Parisera itzuli batez urrundik ikusi dut San Migel plazako ondoan den jandegi alzaziar ezagun batera sartzen), eta haren lagun Weber anderea; ikasle gehienak edo ni salbu guziak bigarren maileko musikako erakaskuntzara

ari, zenbait jadanik musika egile (nihaurek, artetik erran behar bada, zati bat edo bertzeren moldatzen hasia banintzan harmoniako lanetan ari nintzalarik, abiadura hori eginik musika egiteko xedea utzixea nuen ordukotz).

Delako “Maîtrise” hura ukan orduko, egiten zen “stage d’agrégation” zeritzona: erakasle bat emaiten du erretoreak eta haren ikastaldietan egon behar da ilabete oso batez, haren laguntzarekin eta gerizan lan egin, erakaskuntzako entsegu batzuetan bigarren maileko ikaslekin (Louis-le-Grand-en ikasle gehienak baxo ondoan eskola handi ta “normal”-etara ari baziren, bazen ere “lize tipia” bigarren maileko hirur urte handienekin, bigarrena, lehena 'ta filosofia), hauen lanen zuzentze batzuetan ere. Hautatu zautaten erakaslea Lecarme zen, gizon serio gozo bat, eta, enekin han ziren bertze bi lagunekin (batek, Ulm karrikako Eskola Normalean sartua, agregazionea lehen aldian berean errex ukan zuen), gauzak ezin hobeki joan ziren harekin.

Zaintzale ala erakasle-ordain, guziak han ikaskuntzako hein beretara helduak dira, andana bat ni bezala agregazioneari buruz ari, halako lagundia gogo oneko bat moldatzen baita ororen artean, jin berriak berehala barne. Usu gertatzen gira elgarrekin kafe edo bertze edari zenbaiten hartzen, batzuetan harekin gose denean ahamen bat, huntaz eta hortaz solasean (politikako gertakarietan usu), erakaslen salara bilduak, ikastaldietako orenen artetik, eta gurekin batean erakaskuntzako kargu osoak dituztenetarik andana bat ere (bada hetan izen ezagunik, filosofian, letretan, ixtorioan, ala berdin matematikan eta zienzietan, agregazionedunak guziak, batzu doktoreak). Barne-ko zaintzaleak - hala egon niz 1958 ondarretik 1961-ean erakasle-ordaingoa ukan arteo - gaua ikaslen etzandegien zain iraganez hirurzpalaure gauez astein, bizi dira lize guzietan “pionville” deitzen den bizitegian, gambara lerroa barnebidetaren bi aldetarik, eraikuntzaren gain-gainean, batzuen leihotarik Parisko hegaztegi guziak urrunera agerian, bertzenetarik hurbilago hango berekoak, XVI-garren mendeko ezkilategi ttipi batzuekin. XVII-garren mendean, “collège Louis-le-Grand” izenarekin, jesuisten ikastetxe omen handikoa izana zen eta bi mende berantago ikastetxe publiko bilakaturik aiphamen hori atxiki du. Barnean hesten dituen bi gortek ukanak zituzten

lehenago han ikasle ibiliak ziren idazle handi batzuen izenak: baxodun handienak, zabalenak, erdi-erdian, ikastaldietako salak inguruan bi estaietan, hirur eta laugarrenetan etzandegiak, “Victor Hugo”-rena, baxora ari direnen ttipienak “Molière”-rena.

*

Nor ginen eta zertan ari? Guziak hemen izen osoan aipatu gabe, zaintzaletan batzu elhaideago ukan ditut. Abantzu oro Parisera ni bezala probinziatik jinak dira: Ba. “ttipia” giniona erdaraz, mathematekalaria, anaiari Ba. “zaharra” baiginion berdin, hau letretan erakasle ordukotz bertze ikastegi batean eta ni bezala “Lettres modernes”-etako agregazionearen beha (Norman-diako unibersitate batean eremanak ditu kargua 'ta bizia), Limoges hiriko inguruetarik Parisera iganak; Del. espāñoleko lizenziaduna, aita hurbil-hurbila Saint-Louis lizeko zaintzale nagusi: hau gizon bizi bat, ixtripuz ala gerlan okhertua, Alemaner ihardokitzale izanik Gers Gaskoiniako departamentutik Parisera aldatua; komunixta aithortua baitzen eta erlisioneke sinestegabea, irriz usu erran dauku nola, Auch-ko hiria Alemanek husturik, liberatzeko zeremonia ofizial zenbaitera joaiteko hango arxapezpikuarekin, biek besoz-beso jautsi zuten jendearen erdian karrika handia; Dub. edergintzetako “Beaux-Arts”-etan marrazki 'ta margazki ikasten, Montauban hiriari hurbil den herrixka batekoa (ondoko urtean lanarte batez beribil “laur-zaldizkoa”, 4 CV, bazuen M. J.-ekin bere etxera ereman ginituen bizpahirur egunendako), motozikleta gorri handi batean itzuli bat baino gehiago egiten baitzuen; Dug. “zaharra” ixtorioan, ordukotz ezkondua, anaia gazte bat bazuen ere zineman, berantago filma batzuek ezagun-arazia dutena: familia judio batekoak izanez aitamak Alemanian hilak zituzten eta berak umezurtz geldituak; R. P. filosofiako doktoragora ari zen, mutiko luze hits bat ethorkiz katalana: Françoise Sagan-en *Bonjour tristesse* agertu zelarik, *Les temps modernes* agerkariak emana zuen, eta urgulu zenbaitekin erakusten zuen berak, arrazoinekin zuen adinean, haren artikulu bat laudorior hantua; ikasketak bururaturik Sueda-ra joan nahi ukan zuen.

Baziren erakasle-ordain batzu adinean jadanik aitzinatuak, eta uste dut gehienak han berean gelditu direla laneko

dembora guzian, ezpaitzen Louis-le-Grand errex uzten, ez eta Paris ere bizipidea aski ona zen ber, eta hango lanetik kampo nahi zen bezainbat ikastaldi berezi ukanki, edo hango bereko ikasler, edo hiriko hainbertze ikastegi “pribatu”-etan (nihauri ere 1963-64-etan gertatu zatan bezala). Bo. Gers-koa hura ere, adineko gizona botoin xiloan ohorezko xingola gorriarekin, Alemaner ihardo-kitzalen buru izanik, ephe labor batez Gers-ko prefet izendaturik izana, gero bere emaztearekin erakaskuntzako karguetan sartzeko. Mi. zen zaharrena, jadanik erretretara hurbildua; sortzez eta izenez Iugozlabiarra zen, begitakoekilako gizon ezti bat, behin baino gehiagotan erran baitauta, Frantziara herriz aldaturik ezkondua baitzen, emaztea Euskalduna zuela, behin ere berekin hara ekharri gabe alta. Lehenbizian han zen oraino Mex. Geografia edo lur-jakintzan ari, sortzez Frantzia-Iphartarra; gerla aitzineko beribil zahar “Torpedo trèfle” batean zabilan, eta emaztegeia, Errepu-blikako ofizioetako familia handi batekoa, han egin zuen. Batzuetan biak gurekin jiten ziren, Ba., De., eta bertze zenbait, Dub. bere moto gorrian (eta gehienetan hark eremaiten ninduen), zaldiz ibiltzera Saint-Rémy-lès-Chevreuse-erano. Agregazionan eginik laster joan zen eta berantago deputatu 'ta minixtro egona da.

M. J. ethorkiz Sedan hirikoa, filosofiako agregazioneari ari zen J. B. bezala, ukaitera heldu ahal izan gabe alta, hortako entsegu jarraikirik egin ere gabe, behin Parisko bertze lize bateko zaintzale-nagusigoa ukanez geroz. Han bururatu du, gazte oraino, bizi laburregia, egia da zigarreta pipatzale azkarra zela. Uda hartan, Espainiaren ikusteko guraz, bere “laur zaldikoan” Ozaizerano jautsi zen, eta hemendik itzuli bat egin ginuen Espainiako aldera, Iruñen gaindi Mediterrane bazterrera jautsiz Barzelonarano (bi izar bazituen hotel batean gelditurik gau bateko, zimitzak ohetan lotu zizazkun, eta goizeko oren batean berean utzi behar ukan ginuen bertze norapait abiatzeko), eta handik Balenziarano.

Louis-le-Grand-en bazen, ikastetxe 'ta bertze landegi gehienetan bezala, alderdi komunixteko “karta” zutenen “zelula” zioten bilkura. Han edo berantago Nizan bere “zelule-tako” bilkura horietara usu gomitatu naute lankide komunixtek. Baina ezpaitut behin ere sinetsi “ontasun guzien zozializatzeak”, erran nahi da Estatuaren menean eta jabego oso bakarrean

ezartzeak, orori zoriona ekhar zezokeela, hori baita oro har komunixma politikaren oinarri bakarra, ezpaitut uste ukan gomitari erantzun behar nuela eztut ehoiz egin, lagun komunixtetan adixkide egiazkoak ukanik ere. Eztabada “gorria” zen orduan, berrikari 'ta agerkari ezkertiarretan, hea ideologia zozialixta arrazoinez argitu 'ta berritu edo zuzendu behar zenez, Stalin eta haren ondokoak behar zen bezala salatu, ala ez. Hala zen ere iduriz gure ikastetxeko zelulan. Egun batez ene gambaran M. J.-ekin solasean ari nintzan, athean jo zelarik: gure zaintzale lagun aitzinean aiphatuetarik hirur ziren, “zelularen” orde, ene aitzinean batere gorde gabe (hain zen elgarrekin ginuen laguntasuna egiazkoa, holakorik guti gertatu baita uste dutanaz), M. J.-ri galdez, ezpaitzen agian hango bilzarretara zenbait dembora hetan hurbiltzen, eta PCF Frantziako alderdi komunixtaren gogamen eta politikaren khitzikan agerian ari baitzen komunixta “intelektual” ainitzen moldean, alderdi komunixtaren sailean egon nahi zuenez, hunen politikako erakaspena edo “ideologia” osoa onhartuz eta hari jarraikiz, bere khitzikak ukhatuz, ala alderditik berexi. M. J.-ek ihardetsi zuen, batere khexatu gabe, filosofo bezala, politikaren, politikarien edo nahi den gauzaren aztertze, komunixta guziak barne, gogoia libertatean arrazoinkatzea oso atxiki nahi zuela. Horra nun eta nola M. J. haizatua izan zen alderdi komunixtetik. M. J. etzen hortakotz ezkerreko alderditik batere urrundu, eta bi urte berantago gertatuko gira J.-B. eta bertze lagun batzuekin “Zozialixten alderdi batua” egin zenean horren lehenbiziko bilkuran. Aiphamen bat ukana du zenbait urte berantago (ordukotz Paristik urrundua nintzan), W. Reich-en liburu batzuen itzulpena alemanetik frantzesera eginik eta lehen aldikotz argiraturik.

Auzoko ikastetxetako lagun batzuekin, edo Henri-IV edo Saint-Louis edo bertzetarik, usu biltzen gira Sorbona inguruko edandegi bat edo bertzera: “Café de la Sorbonne” delakoa izen bereko plazan dugu egun orotako bilgune ohituena, bekanago asti denean urrunxago joanez, emazte adineko batek, "Mme B." sortzez Auberñakoa uste dut, Saint-Etienne-du-Mont elizaren behereko aldean, “Montagne Sainte Geneviève”-ko karrikaren izkinan atxikitzen duena. Huntara hurbilagoz Henri IV-etik jiten direnetan zen “VdB” giniona,

izenaren laburpenez. Geografian ari zen, eta berantago Paris utzirik, J.-B.-ez bertzalde, aurkitu ahal ukan dutan hango lagunetarik bakarra izan da. Nizako unibersitatara joana zen bere emazte (marrazki erakaslea) eta bi haurrekin, han bizitegiz luzaz auzo izan baigira Cimiez-ko mendixkan, hura, ezkontza hautsirik, Lyon-era aldatu baino lehen. Br. aldiz, agregazionera heldu gabe oraino, Paristarra, han berean gelditu zen, eta liburu argiratzeko etxe bat ukan baitu geroztik, aiphatua izan da, batzuetan ikusi da ere telebixtan mintzatzen. Z. ethorkiz Errusoa, filosofiako ikasketetan ari zen ere, mutiko ttipi mehar bat beti zerbait mirazko egintza gogoan eta mihian, ala ezagutzen zituen nexkatoez berak nahigabetan maitatua ziola, ala bizipide berri bati lotzeko nahikarian, ezpaitzuen diplomaduna izanik ere erakaskuntzako sail ofizialean sartu nahi; azkenik Sceaux-ko hirian “villa” eder huts bat alokatuz, ikastetxe pribatu baten moldatzera zoan nik Paris utzi nuenean. Gutartean zuzen-bidean ari ziren bakarretan, X., zenbait urte berantago 1964-an Edgar Faure politikari “radikal” eta ordukotz adinekoarekin batean dretxoko agregazionea ukanik, hark gazterik, Genebako unibersitatean hautatu zuten, gero handik mintzatzen noizpait gero ikusi baita telebixtan.

Orduko lagun guzien artean gehienik eta luzaz ikusi eta elhekatu dutana, Parisen izan nizano 'ta gero hogeit bat urtez hurbil, Avignon-go ondoan Villes-sur-Auzon-en etxe berri bat egin zutelarik, Nizatik etxera biderdi egiteko han usu gelditu bainiz egun bat edo biendako, hanbat aldiz ikusi dutan J. B. filosofoa izana da. M. J.-ekin adixkide handi zen, biak komunixtetan apur bat egonik, urte hetan hainbertze “intelektual” bezala, ordukotz alderditik baztertuak. Urte zenbaitetako lagungoa “ofizialdua” zuen urte hetan, J., sortzez Meaux ondoko herrixka batean laboretzeko alaba (Berry-ko gasna hoberenetik egiten zuten), “Hôtel-Dieu”-an erizain zenarekin ezkonduz. Ezkonte-gunean borzkarren arrondizamenduko herriko-etxean lekukoak gutarik biga zituen J. B.-ek, eta J.ek bere bi ahizpak. Handik landa, Saint-Germain-des-Près-ko ostatu “Le Flore” hain ezagunean zerbaiten edateko, egiten dugun lagun multzo ttipia hek gomiturik, eztei orde, hara jautsi gira guziak oinez: Soufflot karrikatik abiatuz zeharka Luxembourg-eko baratze ‘ta Odeon-go antzoki bazterretik beheiti, ezta hain urrun.

1964-ko udan, nik armadako zerbitzua eginik eta agregazionea uztailean ukanik, Orzaizera gomitatu nituen eta agorrila gure etxean ereman zuten (nahiz etxea orduan lanetan eta antolatzen ari) bere S. alabarekin. J.-B.-ek, izpiritu handikoa 'ta bere gaien zinezko jakintsun izanik ere (zientzetako filosofiaren ixtorioa zuen), etzuen ukan ahala filosofiako agregazione osoa. Idazkian beti errex onhartua izan eta, ahozko etsamina bietan huts egina zuen. Jitez apur bat herabea 'ta hetsia, osagarritz aski ahula izanez betidanik, etsaminatzalez betea izaiten zen konkursoko mahiaren aitzinean luzaz behar bezala mintzatzeko (zenbait aldiz hamar bat estaminalari bazen epaimahian, eta filosofiako "jury" hura, Bachelard anderea buru, delako Gaston B. omen handiko-aren alaba, ideologiako alderditasunez, eta politikakoaz ere, berezi-ki garratza zela zioten), ahalak joaiten zizazkon. Horta-kotz, agregazionean hartzen direnen multzoa zenbakiz hetsia baita, zaluagoek, ez beti hoberenek, aitzinatzen zuten. Horrela "bi-admissible" lerro bereziarekin gelditurik, baina Estatuko dotoragoa eginik, zenbait urteren buruko CNRS-ean sartua zen eta ukana zuen ikhertzetako buruzagitza bat, zientzetako filosofian (thesia Hobbes filosofo alemanaz egina zuen, agertu dituen bertze lanen artean). Bizia Paris eta Villes-sur-Auzon-en, Probenzako mahastien erdian egina zuten etxearen artean treinan bidaiatuz eremana du geroztik (beribila bereziki hastio zuen, eta etzuen berak erabiltzen), erretretaz azkenean guti gozaturik zorigaitzez.

*

Parisen bizia beti gertakariz ala ikusgarritz abera-tsa baldin bada, hala zen ere urte hetan. Ikusgarria politikarekin aski bitxiki lotu zuen Kruxtxef, Stalin gaitzaren salatzailea, ainitzen ustez sortaldeko erresumetako komunixmaren berritzalea – nahiz Hungarian eta gero bertze erresuma batzuetan gertatu ziren jazarraldiak bortizki gaztigatu dituen - Parisera ikustaldi ofizialez ethorri zen. De Gaulle-ek eta biek beribil handi ideki batean Champs-Élysées-etako ethorbide miragarria Triunfako Arkura buruz igan zutelarik, eguraldi ederren batez, bandera gorriak (Errusia komunixtakoak) eta hirur koloretakoak aldizka hagen puntan haizera jantzan, jendea hoin ikusgarri bereziko bi

aldetan tinki metatua, gehienak (Parisen eta ondoan ziren komunista ainitzak bereziki) esku zartaka, ikusteak zinez balio zuen.

Gertakari horren inguruan Paris eta Mozkuren artean egin ziren harremanetan, Parisera ethorri zen Bolxoi antzokiko eta orduan gai hortan munduan den omen handiena zuen dantzaritaldea. Operan eman zuten Txaikofzkiren *Beltxargen aintzira* (“Lac des cygnes”) osoa. Antzoki hortan aski usu bainindabilan orduan (Mozart, Beethoven-en *Fidelio*, Berlioz-en eta R. Strauss-en operak, Gluck-enak emaiten zirenean ezpaldin banituen huts egiten, operako musika gehiena guti laket izana zata beti), harat eremanak nituen J. B. senar-emazteak, M. F. eta bertze batzu. Ezpaginen ere jantzako ikusgarrian batere ezagunak ala hain guti, aho batez miretsi ziren jantzari multzo handiaren urhats, piko, jestu ala jauzietako batasun hain berdin eta betegina, Parisen Operako orkestra hoberenatarik zenarekin orduan orai bezala. Urte hetan, -58 edo -59-an, eman zen Strauss-en *Salomé*, biziki ohargarri iduritu zizatana: Jeanne Rhodes andere eder mintzo lodi azkar batekoa zen kantari lehena, “Salomé” errege Herodesen emaztearen alaba, “zazpi oihaletako” jantza hura zinez miresgarriki emaiten zuen. Parisera arteo, opera guti nuen ikusia, Baionan 1952-an edo 53-an Gounod-en *Faust* biziki balditurik utzi ninduen, lehentasunaz musika 'ta ikusgarri molde hortarako ukan dutan ixuriaz baino gehiago, eta Bordeleko antzoki miragarrian Wagner-en *Parsifal*, E. Ludwig orkestraren buru, bi orenetan hasirik zazpietarano arratsalde oso bat musika 'ta kantu, Parisen ere atseginekin ikusi dutan Wagner-en opera bakarra. Baina musika sinfonikora biziki ixuriago nintzan eta hala gelditu. Usu joaiten zen “Concerts du Conservatoire” izeneko orkestraren entzutera, orduan Parisko hoberena, edo entzunkizun handira igande arratsaldetan, edo, gozagarriago zizatan (eta merkeago ere!) ebiakoitz goizetan igandeko horren azken errepikapenera.

De Gaulle-ek gorbenura heldu eta, eskundarren ustez, “Aljeria frantzesak” hitzemana zuen, eta hartako zuten ere hautatua, Errepublikaren hausteko irriskutan. 1958-ko “Je vous ai compris” hura gogoan atxikia zuten. Nahi zuenak berehala entzuna zuen bizkitartean bakera buruz ari zela, azpiz bada azpiz lehenik, gero ageri-agerian “autodétermination”

hitzaz baliatuz. Ondorioz Aljerren gauzak etzoazen hobeki, azkenean Salan paraxutizten jenerala bertze aitzindarikide handi batzuekin jazar-raldira bapatez abiatu zen 1961-ean: Korzika jazarr-arazirik, erresuman sartzera zoazen omen, airekoekin Parisko aireportuez jabeturik gobernuaren aurdikitzeke. Gaua eroria, entzun zen Debré lehen minixtroa telebixta-irratietan jendeari – etzen orduan eskunik ez ezkerrik aiphu - hel egiten, apur bat irriegangarriki minixtro eskundar horren ahoan (kargua utzi zuen zenbait ilabete berantago bakeko antolamenduak zinez hasi zirenean, De Gaulle-ren ganik urrundu gabe alta), ezpaitugu geroztik argiki jakin zinez ala alegiaz (zer egin zaitekeen harmarik gabe harmadunen aitzinean?), aireportu horietako bidera abia zadin jazartuen geldi-araztera “zaldiz, oinez ala beribilez” (“à pied, à cheval, en voiture...”).

Hamekak inguruan, Louis-le-Grand-en ikasle guziak lokhartuak, eta nihaur handienen etzandegiaren zain, etzatera abian nintzan, berri horrekin lagun bat jin zizatarik ikasletan adituenetarik zenbait, oro hogeitaz goitikoak eta “Eskola handietako” konkursotakoak baitziren, iratzarri behar zela zer gerta ere. Hala eginik, bertze lagun batek hartu zuen ene lekua, eta “scooter” batekin izan ginen goizeko oren batean Parisen itzuli baten egiten: iduriz guzia lo zagon eta ixil, karriketan nehor ez, minixtrotegien eta gambaren aitzinean hala ere armadako tank batzu bere kanoi luzekin ixil-ixila geldituak... Ondoriorik etzuen ukan, De Gaulle-ek, bera jeneral izanki 'ta ezin gehiago gaitzitua, “jeneralen laurnazko bat” (“un quarteron de généraux”), gobernuaz jabetzera lagunduak zuten hek berak, bortizki salatu behar ukan zuen. Aljerian zen “contingent”-eko soldado aldeari hel egin zen irratietarik, eta jazarraldiak berehala ophor egin. OAS izenaz ezagutua izan den multzoak legeari ukho egin zuen alta, hetan armadako aitzindari andana bat eta eskun muturrekoak, De Gaulle bera ondoko urtean lehergailu bat bidean ezarririk hil nahi ukan baitzuten. Ukhaldiak huts egin zuen hor ere, 1962-ko hastapenean (De Gaulle-ren erreferendum bati baia eman daukotan aldi bakarra, orduan nihaur ere armadan, gero erranen dutan bezala), Aljeria, gerla hilgarri bezain luze ‘ta debaldekoa bururaturik, bere gain jarriko da azkenean. Ezkinen alta oraino hortara helduak.

Arratsetan usu aupal ondo ala aitzin, asti den ber eta Parisen eman ditutan urte horietan, hirurzpala lagun jausten gira Saint-Séverin karrigarano, orduan ezpaitzen orai den bezala “turixten” biltzeko edozein moldetako saldegi 'ta oxtatukaz betea, baina hango antzoki ttipiez eta zinemako salez bertzalde, arratsean berant idekirik egoiten baitzen *La Joie de lire* izeneko liburu saldegia. Izen hori gerla demboran jadanik ezaguna zen saldegitik atxikia zuen hortan urte guti lehenago jarria zen jabeak, lehenik Monsieur-le-Prince karrigan ezarria zuenetik horrara aldaturik: gehienetan jabe horren izenetik erraiten ginakon “Librairie Maspero” edo xoilki “chez Maspero”. Bazabilan han ainitz ezker-tiar eta komunixta, jabea bera epe guti batez alderdi hortan egonik alde batetik, baina gehiago Aljeriako gerlari kontra egiten zuten guzien bilgune bat bezala baitzen, gerla hori gerla zela aithortu nahi etzuen gobernuarekin ardura aharran eta auzitan, hortaz egiten ziren liburu 'ta agerkari guzien errex irakurtzeko ala erosteko leku hoberena Parisen, nahiz gai orotako liburuetarik eta bereziki filosofian edo literaturan agertzen zirenetarik bazen nahikoa.

Louis-le-Grand-eko jandegian bazkari auhariak, han egiten ditugunean, eztabada bizian joiten dira. Gehienak “l'appel des 121” delakoari jarraikiak ginazkon. Debré minixtroak sortuak zituen *harki* delako soldado aljeriar Frantziaren aldekoak ainitzek bezala biziki gaizki ikusten ginituen orduan eta gero, ezin gaizkiago gertatu baitira bakea egin zenean eta ondotik ere berrogei urtez goiti oraino. Bada hala ere gutartean aski gogamen ezperdin, Aljeriaz, gerlaz, gobernuaz ala politikako bertze gaiez luzaz arrazoinkatzeko. Egun batez ethorri zaiku, bere armadako egonaldia bururaturik (ala “permisonez”?), hara deitua izan aitzin gutarik batzuen lankide izana zen D. nizatarra, ordukotz geografiako agregazionea ukanik, armadan aitzindarietako “lotenent-orde” lerrora heldua (*Lieutenant en Algérie* J.-J. Servan-Shreiber-en liburuak harrabots handia egina zuen gerla hori salatuz). Joan aitzin ezkerrekoa izana baldin bazen, hango propagandak osoki bildua zuen. Hasten zaiku sinets-arazi nahiz zinez armada zela Aljerian nagusi, “fellagha” erahiltzaleak garhaituak, laster Frantzia-ko legearen azpiratuak izanen direla, eta hala behar dutela ere. Orhoit niz aitzinatzen zauzkun arrazoin guziak aski bortizki aurdiki ginazkola, eztabada horietan trebatuak baiginen,

hala nola nun, bazkaria bururatu orduko, armadak orduan eta berantago ere 1962-eko bakerano aitzinatzen zituen gogoetetan apur bat durduzatua gertatu baitzen, eta azkenean osoki aldatua gero jakin zen bezala (hura ere Nizako unibersitatean zen urte zenbait berantago hiri hartara izendatua izan ninzalarik, baina gazterik hil erretretara hurbildu ere gabe).

*

Aste ondarretan, berdin noiztenka erditan, joaiten da bazkariz, Sorbonako 'ta ondoko ikastegietago erakasle ainitz bezala, auzoko ostatu batzuetara. Egueditan jende ainitz bada Monsieur-le-Prince karrikako "Polidor" izenekoan, jateko sala handi batean jateko ona aski merke emaiten baita (orai ere omen), etxekanderea, emazte azkar arteko bat, begitako gotor batzuekin paperra eskuan mahiz mahi inguruka jangaien hartzen. Usuago goaz gu auhariz, ikastaldi ala bertze lanez hartuak ezpagira, orduak duen errextasunaren gatik. Jateko onaren maitale giren batzuek baditugu, karioegira jo gabe, han hurbil, auhaltzeko gure mahi hautetsiak. Hetara joaiten da astean behin bederen beti, batzuetan bizpahirur aldiz gure molsa ahulxkoek iharduk dezateno: Saint-Germain-go merkatu sahetsean "Zurginen" izena duenera ("Les charpentiers"), estai-azpiko jandegira jausten da mailetan itzulikatuz haragi 'ta bereziki azpizun hoberenetik jateko - adin bateko janariak; batzuetan Saint-Etienne-du-Mont elizaren behe-reko aldean "Baratzea" ("Le Jardin") izenakora, kozinan eta zerbitzuan bizpahirur emazte, jende ezti ixil, baina bizi, gozagarri batzu amalabak iduri, mahietan usu zinema ala antzokietako jokari ezagun zenbait...

Laketenik zizakuna, hartara laurzpabortz edo gehiago joaiten baiginen, mahi bat aitzinetik begiraturik, "Chez Berthe" zen, hau ere Monsieur-le-Prince karrikan. Hor lehen estaian jaten zen, mahi guziak oihal xuri ederrez estaliak, jatekoa beti hautekoa. Bazuten bigarren estaiako sala bat bilkura 'ta aphairu handiago batzuek. Beheretik entzuten zen ebiakoitz arrats batzuez hango gomitek zadukaten harrabots handiaren oiharzun bat, aski azkarra, mintzo, oihu, eskuzarta: norbaitek igaiten ikusirik ala ostalariek erranik, jakin zen Le Pen zela hara jiten bere inguruko "Aljeria frantzesaz" buru berotuekin. Eztu

balio hemen errepikatzea guziek bereziki hastio ginituela haren alderdia 'ta politika, eta berezikiago hura bera: orduan begi bat beltzez estalirik zabilan, Aljerian paraxutixtetan torturatzen ari izana zelako 'ta beti jarraikia zakon aiphamenarekin. Noiztenka baginoazen ere Saint-Germain auzoan “Komedia zaharreko karrikan” den Procope ostatura, ez baitezpada janari hoberenaren eske (nahiz etzen batere gaizki), baina, XVIII-garren mendeko “filosofo” batzuen bildoki hautatua izanik, han baitzabilan halako literaturako usain bat bezala airean, murruetako margazkietan, potretetan, larru gorrizko jarlekuetan eta mublerian, ikus baitaiteke, bereziki, egia ala ez, “Voltaire-ren mahia” diotena.

Ortzirale 'ta gehiago ebiakoitz arratsetan Paristar ainitzen atheraldi ohikoa hiriak dituen hainbertze gauazko “bar” eta jostalekuetara egiten da, hetan ari diren mota orotako kantari, musikari, komedialarier beha gauaren erdia errex iragaiten baita. Gure aldetik guti da atzerritarrendako beti ikusgarrienak direnetara (“Eihera Gorri” omen handikoa ala bertze...) zangorik ere sartzen duenik. Behin ginuen, Lakanal-en nintzan urtean, gutarik nor-baiten bestaz, urte-betetz edo halako, auhari aphaindu bat jantz-aldiarekin egina “Gau-inhara” (*La Chauve-souris*) zeritzon gauazko ostatuan, tzigano arrabitalari andana bat tauladan edo gure beharrietara ere batzuetan bat edo bertze jausten, esku zalu batez diru paper baten biltzeko. Bizpahirur urte berantago, bertze aldi bakar batez lagun batzuek ereman naute ere Santa-Genofeva-Mendiko karrikan zen dantzoki bitxira, mukurru betea bereziki emaztez, jendetan andana bat aurpegia masketan gorderik, oro taulada gora batean dilindan bezala zagon orkeztraren soinuan jantzan, elgarri tinki, uhain baten harat-hunatean eztiki higitzen.

Bertze batzu gogokoago zizazkun. Noiz nahi joaiten zen, bat edo bertzera aste ondar oroz gehienetan, edateko bat hartuz musika' ta kantuak, batzuetan ere komedia moldeko jostagailu labur batzu emaiten ziren hirurzpala lur lekuetara, denak Auzo Latinean edo hurbil, urrunenak Saint-Germain-go aldean: eliza horren sahetseko Jacob karrikan, *Le Bar Vert*, gure erakasle-lagun L.-ren amak atxikitzen zuen, sortzez Bellocq hirixka biar-nesekoa 'ta izenez ezin gaskoinagoa, azken edari bat hartzen baitzen han, “barraren” inguruan gehinetan zutik, ikusgarritako kantari ezagun bat mahien aitzinean gitarra eskuan. Handik hurbil

Zequanako karrikan, *Galerie 57*, zenbaki hortako etxe behean baitzen (1961-ko urrietan, ordukotz zaintzalegoa utzirik Louis-le-Grand-eko erakasle-lagun izendatua, armadara deitu aitzin, bizitegia han berean 55-ean nuen: XVIII-garren mendeko etxe-aitzin harrizko eder batekin oraino "Hôtel Louis XV" izena zadukan, eta Wagner Parisen zelarik han egona omen zen). Baziren han ikusteko bezain entzuteko bereziki jostagarri zirenak orduan, eta hortako sala beti mukuru bete-betea: Darras eta Noiret bi komedialariek, berantago aiphatuenaterik izan baldin badira orduan oraino gazte 'ta antzokietan ez hainbat ezagunek emaiten zuten elgarrizketa bat urragarria, "Racine et Louis XIV": orok entzuten zuten De Gaulle eta Malraux haren kulturako minixtroaren trufa gozagarri bezain arina zela. *Le Canard enchaîné* astekariak San-Simun orhoitzapenlariaren estiloan emaiten zuen "La Cour" artikulu luzaz jarraiki denaren antzeko ikusgarri horrek, De Gaulle-ren inguruan Frantziako gobernu berriak hartua zuen (eta geroztik behin ere galdu ez tuen) ospe 'ta handieria hein on batean irriegangarria arinki bezain biziki salatzen zuen. Pierre Doris-ek emaiten zituen, harmonium tipi bat eskuaz joiten zuela alegia elizako kantuetan, athermaldi batzu gordin-biziak, jendea esku-zartaka loriatua.

Monsieur-le-Prince karrikan da *L'escale*, sala ttipi hertsu bat hau ere beti mukuru, jendea tinkan doi-doia jarria, ikusgarria Hego-Amerikako Guarani-etako kantariak eta musikari-ak; ari dira españolez, harpa indiarra (hain lakat zizatana orduan), xirula, gitarrak joz airoski, guziak, hiruzpalaur, "ponxo" margo bizidun batzu bizkarrean eta lastozko xapel zabalak buruan. Kuban Castro-ren jazarraldia berri-berria zen, orok orduan handizki laudatzen baitzuten Batista tiranoaren gobernu usteldua aurdikirik; beharrietan atxiki dut nola aldi batez bersu errepika guziak hetarik batek hitz hautan bururatzen zituen: "Este Batista de m...!"

Sorbonaren eta Louis-le-Grand-en bertze aldean, Descartes karrikako gainean, bada berriz Urrezko Zaldia (*Le Cheval d'Or*), lehenagoko harakindegi bat, etxaitzinean zaldi buru urreztatu batek urrundik erakusten. Idekia den arrats oroz orduan kantu frantzesean hoberenendako ginaduzkan batzu entzuten dira: emaztetan A. G. lehenagoko karrika kantu paristarretan ari (A. Bruant eta bertze) mintzo gotor azkar batekin, geroztik leku

hartarik kampo guti ezagutu dena alta; arrakasta handiena ukana dute aldiz, eta oraino ere batzuetan entzun daitezke: Ricet Barrié, mintzo mehar batekin mandolina eskuan (“*J’suis la servant’ du chatiau...*”), izena ahatzia daukotan bertze bat beti beltzez jantzia, itxuraz ilun, kantatzen zuena biziz eta azpi entzunaz urragarri zuelarik (“*...j’aim’ pas les rhododendrons..., la cantharide insecticide...*”); eta ororen gainetik hain gai bitxi ustegabekoetan, hitz eta hizki jokoz (“*...avanie et framboises..., angevine de poitrine...*”) moldatzen zituen kantuetan, itxuraz edergilea baino gehiago karrika zoko batetik jalgia zen erromesa iduri, Boby Lapointe.

Zineman eta antzoki egiazkoetan, Auzo Latinean berean Saint-Séverin inguruan ziren sala ttipietan, edo Ulm karriko zinemathekan, bada ere zer ikus. Ezkinabiltzan batere orduan egiten ziren filma berrien ondotik, gehienak molde amerikarrean, aitzineko zinemalari zaharrak berraurkitzen ari ziren ordua baitzen: Buñuel, Bardem, Eisenstein, Renoir. Antzokietan, lehenik auzo hartan berean “Noctambules” antzoki ttipi-ttipian, ikusten ziren, orduan oraino aski berri, Ionesco-ren *Kaderak* eta *Kantarisa garsoildua*, urteak eta urteak leku berean iraunik oraino berriki bederen irauten. Odeon-go antzokian eman zen lehen aldikotz egile beraren *Les Rbinocéros* komedia: tauladako oihalen artetik agertzen dira basa-ihizi izigarri horien buruak higitzen, bere beharri handi, mutur luze ‘ta sudurreko adarrarekin, “ideologia totalixtaren” itxura laztagarri izan nahi dutenak, nahiz apur bat irrigarri. Eztakit orai zeren ikustera nindoan “Sarah Bernhardt Antzoki”-ra sartzean (orai “Hiriko antzokia”), Orzaiztar bat aspaldian ez ikusia, zerbitzuan airekoetan zen J. E. aurkitu ‘ta mintzatu nuen igande arratsalde batez.

Ospe gehiago bazen Trocadero-ko palazio azpian jarria zen TNP (“Théâtre National Populaire”) delakoan, J. Vilar buru. Sartzeko xilintxak jorik, jendea mailaldeari beheti abiatzen da, trompeten soinuak gogo-beharriak hartzen dituela halako zeremonia handi batera sartzean bezala, ikuslea mailetan emeki antzokira jausten ari den batean. Izan da han hainbat ikusgarri handi, berri (Brecht-en *Kledaꝛko inguru kaukasiarra*, Pirandello-ren *Henri IV* – Alemaniako emperadore baten izena, ezpaitzakien bera zenez erotua ala bertzeak -, *Ubu roi* ...) ala

zahar: Marivaux, Corneille. Hor ikusi zen azken aldikotz agertzen Gérard Philippe komedialari jendeaz hain maitatua, Musset-en *Marianaren burutaldi*-etan, komedia erromantika aldi berean alai eta garratza, zenbait ilabete berantago gazterik bapatez hil baitzen. Mediterrane aldera jautsi nintzalarik bizpahirur urte berantago, izan ginen adixkide batzu, halako “beila” batean, Saint-Tropez-ko ondoan Ramatuelle-en ehortzia den haren hil-harriaren ikusten... Aljeriako gerlak zuen sortu orduan, hainbat harrabots egin baitzuen, eta geroztik gertakariaren araura osoki ahatzi baita ere, J.-P. Sartre-ren *Les séquestrés d'Altona* tragedia: lehenbiziko ikustaldiko lekuak hartuak ginituen bizpahirurek, sala bete-betea, jokari lehena Serge Reggiani, usu *L'Escale*-ean ikusten zena gu bezala Guaranien entzuten, eta Sartre bera han begitako lodi batzuekin, lehenbiziko lerroan.

*

Ainitzek igurikatzen zuten “Lettres Modernes” delakoetako agregazionea egin zen azkenean 1960-ko ostaroan lehen aldikotz. Idazkiko etsaminetako idekia zuten sala mukuru betean, ikus zaitekeen abantzu gazte bezainbat buru erdi-zuritu, eta berdin gehiago, “Capes”-arekin, agregazione horren aidurutan, aspaldidanik erakasle zirenak. Aithor dut Auzo Latineko bizian gustaturik edo bertzela, behin ere enizala konkurso hortara agertua, enuela izena emana ere, kolegioetan frantzeseko erakasle eskasez urte zenbaitez izena eman zuten hoberenak, denak lizenziadunak alabaina, etsaminarik batere gabe hartu baitzituzten omen. Agregazionea ukan zutenetan (Ba. gure zaintzale lagunaren anaia zaharrena hetan), hastapenean eta konkursora lehen aldiko girenetarik biziki guti sartu zen urte hartan, eta aski guti oraino ondokoan ere. Eta heinera heltzeko uste nuen urte hastapenean, azkenean Aljeriako gauzak bururatzera zoazelarik zorionez, eta zerbitzua, hogeita-laur ilabete-tarano luzatua izanik laburtzen hasia beharrik, armadara deitu ninduten. Arte hortan izana zen oraino gertakari, Aljeriako gerlan, eta ondorioz Frantziako politikan.

Ezkerreko alderdira zinez emanak ziren multzo bakar eta banakatu batzu, alde batetik ainitz Aljeriako gerlari ihardokitzeko, aldi berean ere gu gehienak bezala De Gaulle-ren

gobernu moldeari, alderdi berezi batean sartuak izan gabe ginaudelarik lagun batzuekin, bertzetik edo alderdi komunixtetik ihes eginak edo haizatuak (gorago M. J. lagunarekin ikusi den aran), Frantzia aski argiki “neo-stalinixta” aithortzen zen alderdi horri ez gehiago jarraiki nahiz, ez eta, ondorioz, politikako gauzen eta theorien argitzeko ezinari ezpada debekuari, azkenik ere Guy Mollet-en SFIO alderdi zozialixta zaharreko andana bat horren politika ezin jasana zutenak Aljeriako gerla, bururatzeko orde azkartua zuenaz geroz eta De Gaulle-ren gobernuan barne (nahiz baginakien ainitzek bakerako bidea, mila sinoen eta estakuruen erdian, hartua zela), horiek oro, hastapenean moldakuntza politi-kaz eta gogoz hain ezperdinak, azkenean elgarretara hurbildu ziren, bildu 'ta ororen buruan batu. Horrela sortu zen egun batez “Zozialixten alderdi batua” (“Parti socialiste unifié”, laburpenez PSU).

Egun batez, diot, ezen 1961-eko neguaren ondotik bilkura bat egin zen Ulm karrikako Eskola Normalean. Tauladako mahian ziren Edourd Depreux zozialixta, Sceaux-ko auzaphez eta deputatua, Poperen komunixta izana, han ere bertze izen batekin (orduan zergetako ikhertzale gazte zen oraino) Michel Rocard, laster PSU horren burua hartuko zuena, bizpahirur oraino, sala ez hain handia bete-betea. Argitu zuten alderdi berriaren politikak zer izan behar zuen, ala gobernuan zen SFIO-ari ala alderdi komunixtari buruz, ala De Gaulle-ren gobernu moldeari (ezkertiarrek eta demokrata errepublikatar ainitzek ere guti onhartua zuten V-garren Errepublika, are gutiago presidentaren indarrak azkartu nahi ukan zituelarik, bi gambarak kongresoan bilduz egin orde, hautatzea jende osoaren eskuan ezarriz, gamba-raren boterea ttipituz, hortako ala bertzela erreferendumaz baliatuz, laster 1962-an egin zuen bezala, azkenean ezker aldeko ala bertze egiazko demokratekin osoki hautsiz), Aljeriako egite-koetan eta zabalkiako kolonietan, ala doidoia batasunera abiatua zen Europari buruz, Errusia komunixtari 'ta bortxaz menean zaduzkan erresumeri. Entzuler hel egin zen bere gogoetak eman zitzaten, eta ene sahetsean J. B. xutitu zen, erranez, samintasun batekin beti egiten zuen bezala, alderdi berriak beharko zuela, beraz hartan sartuko zen jende bakoitzak, oroz gainetik eta lehen lehenik politika hunkitzen zuen edozein gauzetako, eztabatzeko, behar zen oroz agerian kritikatzeko

gogoia libre atxiki. Erran gabe doa han ziren guziak, bereziki komunista ala bertze alderdi zaharretarik hartako bereko jalgiak edo baztertuak, galde horrekin bat zirela. PSU alderdi berria sortua zen. Berehala han berean hasi zen izen emaita, eta, lagunak oldeak eremanik ala, ni ere han ziren lagunekin alderdi berrian sartu nintzan, bizian egin dutan aldi bakarra. Ilabete zenbaiten buruko, agertu zen ezkerreko alderdi berriak, zituen xede argi hoberenak aitzinaturik ere, jende guti bilduko zuela. 1961-ko hazaro hastapenean armadako zerbitzura nahitez abiatu behar ukan nuenean, sakelan nuen PSU-ko karta. Derradan berehala ondoko urtean berean, Parisko bilkuretarik urrun han Tuniziako harroka mutur batera eremana, ikusiz alde batetik Aljeriako bakea zinez egiten ari, bertzetik alderdi berriak arrakasta tipia zuela, etzela erdaraz “groupuscule” dioten alderdixka baten neurritik goitituko, enuen ene karta berri. Nekoiz geroztik ez tute politikako alderdi batean sartzeko gutiziarik ukan, gogoz batere aldatu gabe alta, bereziki De Gaulle-ren politika gero 'ta gehiago eskundarrari ihardokizetik gelditu gabe.

1961-ko urria zen, eta Louis-le-Grand-eko erakasle-lagun ordaingoa ukana nuen, Zekuana-ko karrrikako 55-ean alokatzen nuen bizitegi hartan egonki, Aljeriarrek Parisen egin zuten manifestaldia gertatu zenean. Arratsalde hastapena burura-tzera zoan eta banindoa goiza lizean emanik ene kargu bera zuen lagun batekin San-Migello plazarano, handik zeharka Saint-André-des-Arts (idazkera zaharrea “Arcs” zen, eta euskaraz eman behar baliz “San-Andres-Arkuetakoa” lizateke) karrikan gainti etxera sartzeko, bapatean laurzpabortz polizariak harmak eskuan inguratu ginitutezlarik: paperrak erakutsirik utzi ginituzten, eta gutarik bakoitza bere aldera jarraiki zen. Bertzerik jeusi enintzan orduan ohartu. Biharamunean zen bakarrik jakin arrastirian eta gauaz bortizkeria handiak egin zirela, berrikari batzuek salatu baitzituz-ten, aski ahulki uste dut, ezpaitira orai berriki baizik bere hedadura osoan ezagutu: berrehun bat Aljeriar diote hilak, gorputzak urera egotziak, Papon Parisko prefetaren manu-pean. Ene lagunkide (luzaz deputatu egona den hura bera) baten emaztegaia familiaz harekin adixkide handi zen, ez oro alderdi berekoak izanik ere Errepublikako kargu gotor batzuetan elgar ezaguturik. Behin ere ezpadut Papon hori hurbildik ikusi, derradan andere haren bidez ukaiten ginituela artetan kittorik,

antzokietan beti Parisko prefetari begiratzeko zazkon egongia hetarik bat edo bertze, beretarik nehork joan nahi etzuenean gure lagunari uzten baitzauzkoten, eta hunek batzuetan guri emaiten. Hori bera gertatua zen halabeharrez zenbait egun lehenago, hirurzpalaurre elgarrekin izan baiginen Champs-Élysées-ko Antzokian emaiten zen musikaldi sinfoniko baten entzuten, Parisko prefetaren egongian.

Etzen alta gehiago ez agregazione ez musikaz mintzatzeko aldi. Hazaroaren leheneko Tarbeko paraxutizten erreximendu batera joaiteko manua ethorri zen. Ene liburuak eta gauzak bildu nituen beraz, utzi Zekuana-ko karrika, Auzo Latina, eta Louis-le-Grand: hango buruzagiari, gizon aski ixil eta itxuraz mokor bat, joan nindakon kargua utzi behar nuela erraitera, eta jakinez galdea “1er Hussards” erreximendura nuela, mintzatu zizatan zenbait minutaz atseginekin irakurria zuen Giono-ren “Le hussard bleu” elhaberriaz. Hari goraintzien egitean, banakien eta hark ere, zerbitzura joaiten ziren ikastetxe publikoetako erakasle guziak bezala, soldadogotik landa leku berera itzuliko nintzala, hala gertatu baitzen, bi urte abantzu berantago, 1963-ko ostaroan.

*

6. Tarben eta Tunizian gaindi

Etxera itzuli bat liburuen eta gauzen han uzteko eginik, Tarbeko treina hartu nuen. Baionatik alde hortara burdinbidezko bidaia luze zen orduan (ezta geroztik biziki laburtu), eta deituak ziren soldado gehienak jadanik lekuruak. Bertze batzuekin azkenetarik gertatu nintzan han gure beha gara aitzinean zagon kamiun moldeko beribil oihalkiz ezta 'ta gibelera ideki batera igaiten, azpi-aitzindari bat gure izenak paper batean marratuz oihuka. “Quartier Larrey” (Napoleonon aroan armade-tako mediku handi baten izena) kaserna handian zen gure erreximendua, hiri barnetik ez urrun. Banakien han hurbil zaldizkoen kaserna ttipian nuela ere anaia gazteagoa, hark ezpaitzuen “sursis” delakorik, zerbitzuan jadanik aitzinatua. Eta zenbait aldiz elgar ikusi dugu, etxeko berriak emaiten zauztan (aita orduan biziki gaizki ginuen), hura bizpahirur ilabeteren buruko Aljeriara igorria izan baino lehen.

Leku hotz hartan egoiteak, “klasak” dioten lehenbiziko sei ilabetetan, negu osoa eta gehixago 1962-ko jorraile-rano, gozagarririk jeus etzuen, aroaren aldetik baizik ezpaliz ere, beti hozpila izana bainiz, han gehienetan mugimendutan izana gatik. Tarbeko hiria Bigorra-ko mendi hegi gora haren oinean da, zeru-izarren ikerlari jakintsunak han aspaldidanik jarriak, mendia elhurpean luzaz egoiten: hala dut ikusi abantzu han egon nizan guzian, noiz gure etzandegiko leiho goretarik, noiz, argia baino biziki lehenago jeikitzen baitzen igandetan salbu, ingurunetan egiten ginituen urhatsaldi 'ta indar-jokoetan. Baionan egina nuen “préparation militaire” dioten delako ikastaldi laburrean salbu, soldadoko gauzez gehiago batere axolatua izan gabe, paraxutizten erreximendu aiphamenez bortitza zioten hortara, utzia nuen lekutik eta nituen aburuekin, “antimilitarixta” hutsa bilakatua sartu nintzan. Errex asma daiteke soldado eman ditutan abantzu bi urtek enindutela den gutienik armadetan orduan zuten gogora hurbildu.

Gainera han biziki jende estimagarri guti dut aurkitu oro har, ala aitzindarietan, ala ene solado lagunetan: ni bezalako “sursis”-dun bakar batzu ezpada, abantzu guziak doidoia hogeitertara heltzen, gehienak aitzindarien eta haien azpiko “brigadier” (“zaldizko”-en erreximenduetan horrela deitzen dira bertzetan “kaporal” direnak, ezpaitute hortako espantu guti) eta bertzen larderia-pean hez eta molda errexak bezain, bonet gorri motz xingola belztun batek buru sahetsean utzia bezala emaiten dauen urgulu bitxira 'ta orduan norbait izaitera helduak zirela uste ukaitera ereman eta bil errexak. “Zaldizko” erreximenduetan baldin bazen, izenak dion bezala, “Uzardetako Erreximendu lehena”, eta hortakotz erran den izen bereziekin (kaporalak “brigadier” bezala axudantak “lotenent” dira...), aitzindarien soingaineko edo papoko lerro seinaleak zilhar kolorekoak ziren, eta ez oinezkoetan bezala hori. Goizetan korroilan egiten den bandera goititzean, erreximendu osoa lerrokatua, kapitain edo koronel bat edo bertze ikusten da bere zaldi galtza harro 'ta bota beltz luzetan, zaharoa eskuan, ezpaiginakien zaldi lasterraldi bat eginik edo egitekotan, ala espantu xoilez zen jantzi mota hortan jarria.

Lehenbiziko egintza, jantzitegian soinekoak ukan orduko, ile moztea da: ahal bezain labur eta gaizki egiten

dute, eta gero berehala argazki bat, hartan ile apur bat nasaia dutenek (eta oraino banuen aski) bere burua osoki bertzelakaturia aurkitzen baitute, galeriano baten itxurari hurbil batzuetan... Gero etzandegietara eremaiten da: hango zola zurezkoa aitzineko soldado multzoek utzia zuten abantzu xehakaturik, higatuaren eta erhaustuaren bortxaz taulak litsetan; hura behar zen leundu, ziratu, ahal zen bezain dirdira ederrenean ezarri. Egun erdia edo osoa lan hortan emaiten dute denek, belhauriko, izertuak, gibelean aitzin-dari azpiko bat brigadierekin oihuka; ezpada haien gostuko berriz has bizpahirur aldiz. Hori zen, bertze ainitz gaixtakeria ttipien artean, egiazko “hezkuntza” bat, hitzak euskaraz, ohian zaldien eta aberendako, duen erran nahi zuzenean. Norbait zerbaiten erraitera menturatzen bazen, edo bertze arrazoin beharrezkorik batere gabe berdin, behar ziren “pompes” zioten indarrezko ariketak egin lurrera beso-zangoen gainean luzaturik, hamar, hoge, hoge-ta-hamar. Goizetan eta arratsetan brigadierek egiten dute harmairuen ikherraldia: han den gutieneko estakurua hatzemaña edo berdin berek asmatua duteneko, esku batez oihuka guzia lurrera aurdikitzen dute, gero behar dira gauzak, soineko, garbitzeko, batzuetan zerbait jateko, ahal den hobeki berriz plegatu, brigadier txarpila (etxean erraiten zen bezala) delakoen oihu-marraketan. “Peloton” zeritzoten soldadotalde bakoitzetako azpi-aitzindari batzu ofizioz armada-koak baldin baziren, delako “kaporal” edo “brigadier” hek, bere “galon” ttipiak ukanik, jin berriak edo “urdinak” bezala zerbitzura deitu soldadoetarik zirela ezin sinetsia iduritzen zizakon ainitzi, soldadoko aldiaren bururatzera helduak izanik ere, bere zozoan eta aitzindarier gustatzeko, ezin ausartago eta gaixtoago bilakatuak.

Lehenik moldatu ziren “peloton”-ak zeritzoten soldado multzoak. Lehenbizikoa erresalbuko aitzindari (EOR) izan nahi zuten eta hortako onhartuak zirenekin eгина zen, guziak ikaskuntzako ala batzu unibersitateko diplomadunak. Bazan hetan goizik, hoge-ta-laur urte zituen erran zenaz, agregazionea ukana zuen matematikalari bat, mutiko lerdin itxuraz biphil bezain seriosa. Zenbait egunen buruan beheragoko “peloton” batera jautsia ikusi zenean, batzuek erran zuten “komunixta” zelakotz omen; baina gero berehala aste baten buruko berriz lehenbiziko lerroan ezarria zen, erreximendu hartako buruzagiak

baino gorago norbaiten manuz agian. Koronel aitzindariak eta komandant aitzindari ordeak (gero komandant hura bera aurkituko nuen Tunizian Bizerte-en, hango gerla laburraren ondotik ezarria zuten harma orotako erreximenduaren buru) bere bulegora deitu gin tuzten egun batez bederazka. Hek han zauden bere mahien gibelean jarririk, eta gu aitzinean, molde militarrean agurra aldizka sartzean eginik, zutik. Nik dakita zer galderen artean, ene ethorkiaz, diplomez, ukanak nituen erakaskuntzako lanez, galdegin zautaten hea “armadak zer baliagarri ekharriko zatan nuen uste”. Aljeriako gerlaren kontrako deliberatua izanik ordu arteo, hortakotz ala jitez (bien gatik badidurit), agregazionera lan egitetik moztua izateaz aski khexu bertzalde, jakinez hor bi urte bederen osoki galduko zirela (gero Aljeriako bakearekin apur bat laburtu bazen ere), badakit erran nauela hitzez-hitz “enuela uste armadako egonalditik ezer baliagarriren irabazteko heinean eta izanaran nintzala.” Aitzindari ikasletan sartzeari eza gogo berean emana nuen.

Bi urte galduko baziren ene ikasketetako, etziren ororen buruan osoki debaldekoak izan. Aztal-beharri ondoko zauri batek debekatzen zautan orduan soldado egintzetako 'ta bereziki paraxutetan jauzi egiteko behar ziren oinetako goitiko lodien ezartzea. Tolosako eritegi batera joan arazi ninduten hango armadako mediku batek ikhertzera, baina eninduten bortxaz han atxiki nahi ukan eta joan bezala itzuli nintzan Tarbera. Alta aithortuko dut ukaiten ginuen “soldata” ezin ttipiagoarekin, eta diruz biziki xuhur, dolutu zatala zenbait aldiz jauzi egilek ukaiten zuten sari pollit hartarik gabe egoitea. Dena den, ezarri ginituzten, enekin bertze andana bat, segeretari bilakatzeko moldatua zen bigarren pelotonean. Eta hala dut doi bat ikasi izkiriatzeko mekanikaren erabiltzen, nehork ezpaitzuen oraino orduan ordenadorerik aiphu, eta hori gero 'ta gehiago baliatu ahal ukan baitut, gaitzetik ere on bat athera daitekeela, lehenagoko moralixten errana phorogatur.

Tarbeko paraxutizten gogoia osoki Aljeriako gerlari emana zen, hartan lehenbiziko egitekoa eskuan baitzuten. Ordukotz Aljeriarren bere gain jartzeko De Gaulle-ek nahi ukana zuen “erreferendum”-a egina edo egitekotan (1962-ko hastapenetan gertatu baitzen, eta berriz ere erranen dut De Gaulle-ri baia emana daukotan aldi bakarra), erreximenduko aitzindari

bulegora zerbaitetara joana nintzan batez, ikusi nuen paper luze bat hitz larriz izkiriaturia, haren mahi gibleko leiho bazterrean itzaturik, erdaraz zer zion sartzean berean errex ikusten eta irakurtzen baitzen: “Frantziak Aljeriaren ez uzteko dituen 10 (edo 12?) arrazoinak”. Gure etzandegi edo pelotoneko soldado lagun-etan badira Aljeriarrak: ez Arabak edo Kabilak, hek peloton berezi batera bilduak baitituzte, nahiz batzu badiren ere kasernako zerbitzuetan, sukalde ‘ta bertze, baina “Oin beltzak” izendatzen ziren ethorkiz Europatarrak. Hek bere nagusigoa Aljeria “frantze-sa” ziotenean atxiki nahi zuten, eta paraxutixtak zaintzale hober-enak zituztela jakinez, bazen hetarik andana bat Tarbeko kasernan. Ezta han politikaz eztabadatzen, aburu bereko edo hurbileko direla segur den bakar batzuekin ezpada. Aski zen batzuetan De Gaulle-ren Aljeriako politikari jarraikitzen zela batek edo bertzeak erraitea – nik hasteko egiten enuena – erasion ixil-arazteko bakoitzak berea atxikitzen bazuen ere. Baina astezken oroz, Baionan hamasei urtetan hasirik errana dutan bezala, banindoaan jalgitzeko uzten zaukuten “kartier libre”-tan ene betiko “Ahate gatinaturia” edo bertze moldez *Le Canard enchaîné* astekariaren eroatera. Arrats batez ohe gainean utzia nuen beharrezko zerbaiten egitera joaiteko, eta itzuli nintzanean urratua aurkitzen dut. Berehala oihuz hasten niz, nork egina duen galdez: Aljeriako Europatar hetarik bat zen, jadanik adin batekoa hura ere, desenkusa labur bat egin baitzautan erranez ustez eta “kaseta zahar bat zen” hartua zuela. Erran nuen aski goraki, bertze lagun batzuen atseginetan, berrikari hori etzela Frantzian ehon debeka-tua (egiaz nehor eta De Gaulle bera etzen egitera menturatu), batere enuela sinesten, baina aldi hortako desenkusa onhartzen nuela. Gezur hutsa zuen, baina etzen holakorik berriz gertatu, eta armadan egon nizan guzian ene “Ahatea” erosi dut eta ororen jakinean irakurri. Enintzan ere hortako bakarria ez orduan ez gero Tunizian.

Asti zenean, enuen agregazionea osoki ahazten: urteko egitarauko liburuak hartuak nituen Paristik abiatzean, baina artetan irakurraldi bat edo bertzeren egitera heldurik ere, izkiriozko lanik nekez egin zaitekeen. Gure batalluneko lotenanta hortan ari ninzala ohartu zen, eta oraino asma eztezaketan arrazoin batez, eskaini zautan, etxetik emaztearekin zerbait ikusgarrietara joan behar zuen arratsalde ‘ta

gau hastetan, berak haren etxera eremanik, “baby-sitter” moldean han zenbait orenendako egoitea oraino ohakoan zuten haur ttipiaren zain: han ene liburuetan kasernan baino errexago lan egin nezakeen, banuen edateko nahikoa eskupean, eta baia gogotik eman nuen. Hek etxetik abiatu baino lehen bazen eztabadatzeko astia, eta ari ginen batzuetan politikaz, Aljeriakoaz bereziki, eta ere Kruxtxef-en Errusiakoaz, armadan Aljeriako gerla, zinez ala estakuruz, komunixmaren kontrakoa baitzadukaten batzuek. PSU alderdiko karta enuen, gorago erran den bezala, 1962-an berritu, ikusiz alderdi horren indarra etzela “alderdixka” batenetik goitituko. Halere enituen batere ene gogoetak gordetzen, edo lotenent harekin mintzatzean edo haren emaztearekin (hura baino zenbait urtez gazteagoa zen, andere pollita bezain gixakoa), argi-argiki erakusten nuen ene politikazko aburuak ezkerrekoak zirela. Uste dut oro har, ez-paitziren armadan politikako gauzak hain xeheki ikusten, komunixtarendako nadukatela. Eta laster erakutsi zuten.

“Klasetako” sei ilabeteak bururatzera joanki, gutartean ari ginen hea nora igorriko gintuzten Tarbeko kasernatik landa, eta bakoitzak nora joitea hautatuko zuen ahal ukan balu. Aljeriara joaiterik etzutenetan arrazoin baten edo bertzeko, edo nik bezala anaia bat jadanik han ukanez edo bertzela, ofizioa erakaskuntza zuten batzuek nahiko zuten zerbitzua armadako ikastetxe zenbaitetan jarraiki, batzuek ukaiten baitzuten ordu hartan zinez estimagarri zen abantail hori. Bertze lagun batzuekin galdea emana nuen Les Andelys-ko hirian zen ikastetxera joaiteko hautatua izaiteko. Erran behar dut, ustez bederen, abantzu hortako baia ukana nuela ene lotenent haren ganik (behin biziki berantago treinan ikusi dut: enau ezagutu, ez nik ere hura). Baina soldadoen galde horiek armadako lerro goragoetan erabakitzen baitira, etzen batere hala gertatu. 1962-ko jorrailera heltzean, sei ilabeteak eginik etxera igorri ginituztenean aste batendako, ikasi nuen, kaserna hartako 'ta bertze batzuetako lagun zenbaitekin, Tolosako kaserna batera abiatu behar ginuela, eta handik Tuniziako Bizerte-ra.

Tunizia Frantziak bere gain utzirik, Bourguiba Frantzian preso egon ondoan buruzagi jarri zenean eta “bey” izeneko hango errege aurdikirik nagusi bakar, Frantziako armadak Bizerte-ko hiria atxikia zuen, han zen portuaren gatik,

“gerla hotza” azkar, Aljeriako gerla ez oraino bururatua. Aitzineko urtean izana zen alta Bizerteko gerla labur bat, Bourguibaren armadak hiriaz eta portuaz nagusitu nahiz Frantziako soldadoak jaukitu zituenean. Frantzesek jazarleak laster eta errex garhaitu zituzten, baina hilak izanak ziren eta zenbait ilabetez gauzak bortitzean gelditu. Frantziako erreximendu harma orotako batek bazaduzkan beraz geroztik hiria 'ta portua.

*

Hiruzpalaur egun eman ziren Tolosako kaser-natik, han gurekin joan behar zuten lagun berriak ezagutu bainituen eta zenbaitekin berehala adixkidantzak egin, Marzellara heltzeko, untzia han behar baitzen hartu. Untzi hori armadek itsasoaren iragaiteko zerabiltzaten “zola zabal” hetarik bat zen (Frantziako ibai batzuen izenak emanak zizezteen, hari “Argence”), erran nahi da gillarik etzutela 'ta beraz itsasoko ekaitzen menean, eta Mediterraneoak, itsaso gehienetan hain ezti 'ta berdina, bereziki bortitzak izaiten dira. Hala gertatuko zen guretako: gau osoa eman ginuen uhainek bortizki leriatuak, leku berean itzulika, aitzinatu gabe. Eta ni, bereziki itsasoko gaitzari aiher, berehala eritu, xutik gehiago ezin egoiterano; etzan behar ukan nuen, etzanik gaitza eztatzen baita, gero iragaite guzian abantzu hala egon (hobeki joan zen ondoko urtean, aro eder batez handik etxera itzultzeko berriz Marzellaranoko itsas-bidaia egin behar ukan nuenean). Uste baino egun bat berantago heldu ginen beraz Bizerteko portura.

Hiriko gune 'ta inguru guziak soldadoez atxikiak ziren, aitzineko urteko gerla laburra oraino gogoetan, Bourguiba-ren gobernuarekin antolamendu berririk ez eginik, oro han *statu quo* delakoan geldituak oraino ephe zenbaitendako. Untzitik jautsirik gure hornimenduko zakua eskuan, eremanak izan ginen mendian aski gora jarria zen kaserna batera, han jantzi berriak emanaz erreximendu berriaren seinalekin (“Harma orotako sei-garrena” zen), bonet gorrien orde urdinak Tolosan berean emanak baitzauzkuten. Handik banakatu ginituzten egon behar ginuen lekuetara: batzu han berean (“alerta” egiten zenean, aldi bat edo bi, hara behar zen lasterrez bildu), bertze batzu

beheiti portura (jostatzeko ala bidaiatzeko, Tunizera edo bertzetara, leku hoberena da), eta bizpahirur ni barne han berean itsas-bazterreko mendi hegian eraikia zen “Camp du Nador” ttipira. Leku hura guzia baserri hutsa zen: lurra ondartzez gorri azken euriatarik iztiletan oraino, belarra metra erdi batez bederen gora, loretan, ilabete bat barne guziak behar zuelarik zimeldurik horitu hango iguzki beroan, eta lekuak murriz eta gorri gelditu ondoko buruil-urriletan lehenbiziko euri erauntsiak (“la tempête” zioten erdaraz bapateko aro aldatze horri) erori arteo.

“Camp du Nador” hori harresi gora batzuek hesten zuten kaserna ttipi bat zen iduriz; baina egiazki, nahiz leku bitxian, Bizerte guziko soldadoendako Frantziatik jin-arazten ziren gauza berezi, ikuzgai, edari, jateko (kasernetako aphairu-etakoak salbu) eta bertze gauzen bil eta saldegia, hauen bulego 'ta segeretaritegiarekin, G. kapitain korzikarra buru, harekin azpi-aitzindari bat. Frantzian armadako saldegietan manatzen ziren gauza guziak kamiun batzuez hara bildurik, handik ziren saltzen eta bertze kasernetara banakatzen. Hortako baziren bizpahirur soldado segeratarigoan ari, orduan zerbitzua bururatzen ari zuen errient gazte bat segeretari buru, etxera sartzeko ezin egonean: bizpahirur ilabeteren buruko joana zen, eta haren orde izendatu ninduten, urtearen buruko “brigadier-chef” lerrora goitituz (ttipie-naren gainekoa doi-doia, eniz geroztik batere armadako lerroan aitzinatu ez eta nahi ukan ere). Bertze hiruzpalaur soldadoek egiten zituzten gainerateko lanak, zaintzen, garbitzen, kamiun eta beribi-lak ibiltzen, hirira joan-jinak behar zenean egiten, edo hornimendu guzien hartzera 'ta handik goiti ekhartzera, behar zenean aitzin-dariak eremaiten bilkuretara edo segeretariak behereko bulego-etara: orotara kapitain buruzagiarekin eta haren ordainarekin hamar bat gizon, elgarrekin beti omore ona atxiki baiginuen. Jatekoa ondoko kasernatik ekhartzen zaukuten.

Hainbertze edari 'ta janari eskupean, “bar” bat soldado batek bazatxikala edan nahi zuenarendako, gure kaserna ttipitik noiz nahi atheraiak, armadan datekeen bizi errexenatarik batez gozaten ginela aithortu behar da. Kapitain korzikarrak, aski eroa izanik ere, besta batzuen egitera uzten gitu, eta batzuetan bera barne. Hala gertatua da bereziki 1962-ko Eguberri gauan. Goiti ekharriak zituen gurekin auhaltzera emaztea, hirian

errientsa baitzen, eta orhoit niz “petite” ziola gure aitzinean ere, harekin alaba, erdaraz Eguberriko kantu bat eman-arazi baitzaukon mintzo-azkartzekotik. Argazki batek erakusten gitu han mahi luze baten inguruan kantuz, aitzinean Mum “xingola gorri” xampaña batoilak nasaiki, ondoan koñakakoak, basoak eskuan. Usu egiten duen bezala, gutara bildua da erreximenduko omoniera, edaria aski maite zuen gizon tipito bat ohi den bezala soldado jantzitan, ez aiphamen hoberenekoak hortako ala bertze; bazuen aski urgulu artetan norbaiten ttipitzeko, baziolarik, han egon zen Tarbe ondoko aphezgai bati, aztalak goitituz, hura “prelata” zela, ez nor nahi! Erran behar dut hainbat jan eta edan zela gau hartan, nun ahazti ere baitut ordu batetik hara zer gertatu zen, guziak hein batean mozkorturik (nihauri gertatu zatan aldi bakar-bakarretarik, eta ustez azken!), etzan baiginen goizaldera, biharamun goizean berant jeikitzeke "arrailtzeke" buruko minarekin...

Kasernako janaria ezpaitzaiku beti gostuko, gertatzen da handik hurbil den “gurbi” dioten baserriko etxola aphalt ttipi, sasiz inguratua zen batera joaiten girela bi urhatsez bidexka hertsu bati beheiti. Hartan, abantzu sasipean bizi den gizon batek gogotik saltzen dauzku 'ta merke, artetan oilasko zenbait, usuago arraultzeak. Gure kasernako guziek ezagutzen dute ‘ta aski elhaide, bereziki kapitainak: uste dut ere hau, bere kargua kolonietan eremanik, hika mintzo zizakola, batzuetan hitz bat edo bertze erraiten zaukola ere araban, nahiz osoki gutiesten zituen Arabak eta kolonietako bertze jendeak. Tuniziar hori, erdi laborari erdi erromes, gizon azki gozoa zen bertzela, frantzes gaizki 'ta guti mintzo bazuen ere. Nahiz etxean bazituen emaztea 'ta familia, guti dauzkogu ikusi; gu hara jaustera utzi baino nahiago zuen, uste dut, gure kasernarano berak jin arraultzeak oihal batean edo zerabilan zaia zurail zabalaren sakelan.

Gerlarekin zenbait ilabete lehenago Tuniziarren eta Frantzesen artean phiztu zen haserrea eztatzen hasia zen ordukotz. Alta soldadoer hiriko “medina” edo azoka arabera joaita debekatzen zizeen oraino. Hala ere ainitz bazoan, asti zenean eta aste ondarretan, portu inguruan hiri “frantzes” zenerano, batzuetan urrunago Tunizera edo Kartagora; han dirua zutenek erosten zituzten, Frantziara igortzeko, ala han burdina landuz egiten ziren muble batzu, ala tapiza, ala bertze

orhoitzapen. Nihaurek ere aski usu jautsi behar ukan dut Bizerteko hirira, bidariak baininderaman beribilez, ez saldegietara edo zenbait bezala aste ondarretako gau batzuez hango josta-leku bekanetara, baina gure hornimenduak behar direnean untzietarik karga-arazi, gauzak manatu ala hortako bulegoetara paperreriak ereman, kasernan mekanikaz izkiriaturik eta gure kapitainaren izen-pean. Batzuetan ere izan niz ezagutza egina nuen soldado (azpi-aitzindari ala lotenant-orde zenez ahatzi dut) ezkondu baten etxera: emaztearekin hiriko etxe aphen leiho urdinekilako bat – han guziak bezala – emana zaukoten, eta filosofiako agregazionera ari baitzen, lan azterketa bekan batzu egiten ginituen, elgarrenak zuzenduz ahal bazen, hara gomitatua nintzalarik. Hala ere, 1962-ko urte hartan etsaminetara joaiteaz etsitu nuen azkenean, nahiz hortako baimena ukan nezakeen, debaldetan izanen zelakotz, eta hark ere uste dut.

Bertzela Nador-en giren gutiek bizia aski errexa dugu. Egia da badela artetan gure kapitain korzikarrarekin aharra zenbait (noizpait zerbaitetan ez haren gostuko izanik, enekin ari zen segetari laguntzale bati erran omen zaukon, dardariak mihi puntatik luzatuz Korzikako zaharren aran: “*Ha! O. c’est le plus mauvais soldat de l’armée française!*”, orduan halako laudorio irigarri bat bezala hartu bainuen), baina bertze kasernetako egitekoetarik arinduak, multzo ttipia elgarrekin omore onean, bada ere asti zenbait han berean agregazioneko lanetara abantzu egun oroz, lan jarraikirik ezin bada ere, behako labur baten emaiteko. Etzandegi handirik ezpaitzen han bertze kasernetan bezala, oheak barne ttipi batzuetan ezarriak dira, gehienak binazka, batzu berex; nihaurena gure segetarien barnean berean da, burdinazko har-mairu handi batzuen gibelean. Baditugu irratiak (ez telebixtarik) eta lana utzi orduko, ezpazen ingurunetara atheratzeko aro edo astirik, musika entzun daiteke, eta berriak.

Aljeriako gerla erreferendum-aren ondotik buru-ratzen ari, soldadogoa ere neurri berean laburtzen hastera, Frantziako gertakarier beha gaude irratiatarik. Horrela entzun zen egun batez, Tuniziako irratiak frantzesez emaiten zituen berrietan, Debré lehen minixtroak kargua utzi ondoan (nahiz De Gaulle-ren aldekarri mina hastapenetik, etzuen biziki onhartu Aljeriaren jartzea bere gain, minixtrogoa atxiki zuen aldi guzian

horren kontra ahal zuena eginik, “harki” delako Aljeriarrak soldado ezarririk Frantze-sen alde haien zorigaitzetan, errana den bezala, eta V-garren errepublikako konstituzione berri erdi-“monarkixta” ezarririk), De Gaulle-ek bere nahitara gambaraz axolatu gabe, beti egin duen bezala, lehen minixtro berria hautatu zuenean, nehor gutik baitzakien nor zen, entzun zen hango irratiko andere batek erraiten deputatuen gambaran mintzatu berri zela “*PAMPIDOU*” Jauna, gu guzien irri karkailetan. Alabaina, De Gaulle-ren segere-tari izana ordu arteo lehenago Rotschild-en dirutegian egonik, erakaskuntzako Ulm karriko “Eskola normal” aiphatutik agregazionearekin lehena atheraia zen, baina lan hori laster utzirik, behin ere ez deputatu hautatua ez politikan ezaguna izan gabe, nehor gutik zuen izen hori entzuna, are gutiago Tuniziako “frantxi-mantek” (gure aldetan zioten bezala euskara jakin gabe frantzesez mintzo zirener).

Hirira baino gustagarriago izan zaiku han eman dugun 1962-ko uda osoan, bertze hirurzpalaurre lagunekin ebiakoitz-igandetan, armadan dioten moldean “kartierra libro” baiginuen gehienetan, bazkal orduko edo jan-edanak eremanez, gure harresi goretarik atherarik mendixkako alde zutari beheiti zuzen itsasora emaiten zuen bidexkatik jaustea. Ondartzea behere-an begiek ikus ahala luze da, itsasoa Korzikian eta Niza aldean bezala hain garbi, zola urrundik eta barna ageri, gu salbu jenderik ez batere, mainuak beti goxo berantago Probenza aldean luzaz ezagutu dutan Mediterraneko ur abantzu epholean. Gure kaserna ttipian baginuen, nundik hara bildua eztakit, zaldi zahar ile harro bat (argazkietan ikusten da), artetan, gainera zalthutsiganik, ingurunetan itzuli labur baten egiteko, eta lagun batek (Tarbe ondokoa zen eta ni hara heldu nintzanetik urte erditan joana) zuen zakur eme gotor beltz zaharrak egin baitzuen ume andana bat, hetarik zenbait atxiki ginituen han berean, “mazkota” gisan, bakotxak berea hazi 'ta hezi; nihaurena, behin ere ukan dutan ihizi lagun bakarra, “Dolly” izendatua nuen, xakur zinez ezti bezain gixako hura ere han da azgazki batean ene sahetsean, beharriak xut..., ezpaitakit orai hea haurzaroan etxean ginituen ihiztor beltz hetarik zerbait gogoratzen zautanez ohargabeen.

*

Soldadogoa Bizerte-en bazoan horrela, 1963-ko agregazioneko izena Parisera emana nuen, ikustera bederen joaitekotan, zerbitzua enekin hasia zutenak etsaminako ostaro-ekhainak baino lehen armadatik liberatzen baziren ere, doi-doiatarik gertatu zena. Anaia ordukotz Aljerian egonik etxera itzulia zen. Ephailean telefona ukhaldi batek deitu ninduen aitzindari-ordearen bulegora, etzizatan berehala mintzatzera menturatu: aita, ordukotz handizki eritua, galdu ginuela zen mezua. Paperrak berehala eginik, etxera joaiteko baimenarekin hamabortz egunendako, Tuniziatik abiatu nintzan beraz. Laster egin behar zen ehortzera bederen heldua izaiteko; baina armadak Tuniziatik Frantziara jiteko zituen bide moldeak, ahal zen laburrenak izanik ere, luze ziren. Frantziara zoan lehenbiziko airekoa hartu nuen biharamunean berean; gelditaldi bat egiten zuen Korzikaren Solenzara-n, gero handik Salon-de-Provence-ra jausten zen; han behar zen, armadako aireportuan ohi diren paper eta urhatsak eginik, burdin-bideko gararano joan, airekorik ezpaitzen egun hetan (eta bertzetan ere uste dut ez edo guti) Baiona aldera jiten; Tolosara buruz zoan lehenbiziko treina igurikaturik (eta gero ere batzuetan hortaz amets egin dut), bidaiaria luze enhoagarri baten ondotik (Frantzian daitekeen luzena zen liña hori, eta apur bat lehiatua izanik ere geroztik, hala gelditua da oraino), Tarbe 'ta Pauen gaindi Baionara heldu, eta hor oraino Orzaizera zeraman treinarra igan... hots, Bizerte-tik abiatuz geroz eta Probenzatik Euskal-Herrirako bidaiaria, hirur egun eta gau bederen iraganak. Etxean ahal bezainbat igurikatua ninduten, baina garara bila ethorria zizatan koinatak ikasi zautan, gehiago ezin luzatuz, ehorzteak bezperan egin behar izanak zituztela. Etxekoekin egoiteko ukanak nituen hamabortz egunen buruko, bide berdin luze beretik, Bizerte-ra itzulia nintzan.

Gobernamendua azkenean, ezinbertzean baina De Gaulle-ek iduriz hastetik ikusia zuen bezala, urhats handiz abiatua zen Aljeriako bakera, bere gain Aljeriaren uztera, ondorioak ezpaziren gero ez errexak ez dolu 'ta bortizkeria gabeak izan ere, ez han ez hemen. Zerbitzua hastean uste ginuen baino laburrago izan baitzen horren gatik, Aljeriako gerla aitzinean bezala hemezortzi ilabeteren buruan soldadoen liberatzea deliberatu zen, eta gertatu zen enekin batean sartuak zirenekin lehenbizikoatarik izan nintzala, behar zen baino ilabete

zenbait lehenago, laburpen hortaz baliatzen. Ostaroa jadanik aitzinatzen hasia, udako aro beroa abiatua zen itsasoz haraindian, eta belartzeak ohi bezala horitzen. Han ginen hamar edo hamabi gizonetarik hirurzpalaurek Nadorko egoitza uzten ginuen, urte osoa eta zenbait egun gehiago han eremanik. Gure kapitain ohi bitxi korzikarra, erretetara abian zen hura ere. Kapitain ohia diot, ezen zenbait egun lehenago guziak bere bulegora bilduak ginituen, ukana baitzuen (segeretari nagusi bezala eskutitzeria eni heldu zizatan) khexu apur batekin igurikatzen zuen berria, azken mugan baitzen hortako, goien aitzindarietako lerrora izendatzen zuen erabakia: hiritik deitua zuen bere andrea sartu zeneko, guziak zutik, berehala erran zauzkon ahazten eztitutan hitz hauk: “*Petite, je suis accrrroché au tableau!*”, alabaina “komandant” zen orai, eta armadako bere bizi luzearen bururatzeko orduan emana zaukoten, aski usu egiten den bezala, lerro ohoragarri hori.

Gure abiatzekotan aphairu ttipi bat egin zen Nadorrean, gutartean, ezpaitzen hartara komandant berria agertu. Azken eguna phusken biltzen, haiekin adixkidantzak eginak ginituener goraintzi erraiten iragan zen, batzu han gelditzeaz hek edo berexte hortaz gogoia apur bat ilun, behin betiko uztea baitzen (eztut geroztik, salbu bati hitz bat egun zenbaiten buruan diru ordaintze ttipi batez, armadako lagun hetarik ehon ikusi, ez aiphatzen entzun ere), azken gaua hiriko kaserna batean iraganik, goizaldera untzia hartu ginuen. Hara urte bat edo gehixago aitzinean eremana ninduen bezalakoetarik zen, “Argence” hura bera uste dut, geroago Probenzan ikusiko dutan ibai ttipiaren izenekoa. Baina zer eguraldi miragarria orduan, Mediterranea oihala bezain leun, “oliozkoa” zinez, etzen orduan itsasoko gaitzaz eritzekorik, egun osoa zubian uhainer beha, batzuekin eta bertzeekin solasean! Multzo ttipi bat gertatu gira zubi gainean iguzkitara filosofiako eztabadan, politikara bakoitzaren aburuen ezjakinean guti menturatuz, hetan orhoit niz jadanik “dominikanoetan” sartua zen fraile gazte bat aski jakintsuna, Nadorrean ezagutua nuen Tarbe aldekoa zen aphezgai bat ere, bertzeak osoki ni bezala guziak edo gehienak sineste gabekoak, moralaz, ezkontzaz, atseginaz; eta gai hortan batzuek aphezzeria irri zenbaitekin khitzikaturik ere, ezta gure dominikanoa batere durduzatzen. Untziz egin dutan azken bidaia horren buruan, Marzellatik Salon-de-Provence-ra kamiunetan eremanik, hiri hau

utzi ginuen arma-daz, kasernetako biziiaz, eta han ikusiak ginituen gauza gehienez, orhoitzapen zenbait ezpada, den gutieneko dolurik gabe.

Hortik bakoitza, hiriko jantzietan zorionekin (“permissionetan” ere soldadoek behar zuten oraino armadako jantzietan ibili), bere aldera banakatu zen. Eta nihaur, bizpahirur egun doidoia etxekeekin egonik, ostaro erditako berriz Parisera heldua niz, Louis-le-Grand-eko erakasle-lagun lekua, zuzen eta legezko zen bezala armadako zerbitzu aitzinean nuen hura bera, berriz hartua dut. Bila aste bat edo biga Saint-André-des-Arts (lehenago erran den bezala elizarekin aspaldidanik barreatu "arkuetakoa" izana) karrikan izen bereko hotel batean egonik, bizitegia ere hatzemanan dut azkenean San Luis Irlan, Paristik 1964-ko uztail ondarrean joan arteo atxiki baitut eta halako bihotz hauste ttipi batekin utzi, hain zizatan leku gozagarrria. Agregazioneko izkiriozko etsamina guzietara izan nintzan "ikusteko", Bizerte-en biziki guti – eta gai batzuetan batere ez – landurik ere, beraz ukaiteko usterik batere gabe, berriz behar baitzen alta gauzak nola zoazen ikusirik, erdaraz erraiten den bezala, “mainuan berriz sartu”.

*

7. 1963-ko udatik 64-kora Parisen

Bi urte abantzu horietan - eta unibersitateko aro neurriari buruz, urritik ostarora, banadukan arrazoinekin bi urte oso nituela galduak -, etzen gauza guti aldaturik, Paristik 1961-ko urri azkenean abiatua nintzanez geroztik, ez bakarrik Aljeriako bakearen egiteak, “Pampidou”-ren gobernu berriak baino gehiago, gogoak bertzelakatuak zituelakotz, airea nolazpait arindua. Aitzin-ean ezagunak nituen lankiden erdia bederen handik joana zen, batzu Capes-a edo agregazionea ukanik izendatuak izan ziren leku berrietara, Paristik urrun gehienetan; are gutiago ziren zaintzalego-an aitzineko urtetan ezagunak nituenak han berean geldituak. Hala ere aitzineko lankidetarik batzu berraurkitu nituen, loturaren egiteko aski: etzen Louis-le-Grand-eko erakasle-lagun goa errex uzten, hiri nagusitik urrun gehienetan, probinziako “zoko” batzu-etara joaiteko. Ezpaziren han

lanean ari, hurbil zauden ere, Auzo Latinean bizi, M. J. Saint-Séverin karrikako bizitegi ttipi bat harturik, J. B. bere emaztearekin Gay-Lussac karrikako bertze batean, eta lagun berri batzu ere egin nituen, agregazioneko kursoetan ezaguturik ala bertzela. Derradan berehala Parisek oso-osoan hartu ninduela berriz, eta agregazioneko lanari serioski lotu nintzala, hura ukaiten banu nora joaitea hautatuko nuen buruari batere eman gabe.

Berriz ere azkarki senditu dut orduan Parisen bizitzeak, eta urte hetan gero baino azkarkiago egiten zen etzelakotz aireko ala TGV-ez hoin errex lekuz eta herriz aldatzen, jendeari bademon “munduaren erdian” bizi delako sendimendu hura, ezpaitu guti emaiten biziko zorionari. Etxeko gauzetarik – jendetarik ere – urrun luzaz egoiteak eta gertatuak ziren aldamenek hein batean baztertua ninduten, eta udako zati bat etxean eman badut beti bezala treinaz joanik 1963-an eta aldiz beribilez 1964-tik hara, eniz bi urte horietan Paristik biziki urrundu ez Eguberriko ez, are gutiago, Bazkoko lanartetan (baziren orduan hamabortz egun orotan), behar baitzen ere agregazioneko galdua nuena berriz bildu 'ta ahal bazen hobetu. Egia da enintzala tinkoki jarraitzen Sorbonako ikastaldier, ezpada hizkuntzako batzuer (G. Antoine, J.-Cl. Chevalier, Gougenheim), behin ere huts egin gabe alta latinean ezin hobea 'ta Aro-Zaharreko jakintsun ezaguna zen P. Grimal beti omore on gozagarrikoaren ikastaldiak, literaturan gutiago (salbu arteka A. Adam, P. Sherer, J. Deloffre) ezpaitzau-taten beti nahi nuen guzia ekhartzen. Agregazioneko lan balia-garriena, bereziki izkirioko (ahozko entsegu lanak hiruzpalaur ikaslekiderekin bildurik egiten ziren lehenago bezala elgar zuzen-duz), Parisen izanik ere ene karguaren gatik errex ukaiten nituen korrespondanziazko ikaskuntzetakoa zen. Baziren hor gai guzieta-ko lanak, beti aski zorrozki zuzenduak.

Etzen alta agregazionekoa, lizeko kargu aski arinarekin batean, asteen hiruzpalaur egun erdiez egiten zena, orduan ukan dutan egiteko bakarra. Parisen ikastetxe pribatu (ez guziak hemen bezala katolikoak) ainitz bada, eta hetan erakasle galdea azkar. Aspaldidanik Louis-le-Grand-en zen lagun batek emaiten zituen españoleko ikastaldiak “Cours Nadaud” izeneko hetarik batean; erran zautan 1963-ko urriko frantzeseko erakasle

galdez zaudela, ene izena han aiphatua zuela, eta lan horren hartzera sustatu ninduen. Nahiz bizi nintzan lekutik apur bat urrun zen, Père Lachaise ilherri ezagun hetako ondoan, baina metroz Parisen alde orotara ibiltzea hain errex, lan hori hartu nuen, lizean nuen zerbitzuaren gainera. Beribil baten erostea gogoan bainuen, etzen hortako, eta berenaz ere, diru laguntza hori gutiestekoa. Ikastetxe ttipi hark bazuen Parisko auzo hartan halako arrakasta bat, ikasleak kolegioko lehen mailekoak zituen bakarrik, sei-garrenetik hirugarrenenerano, eta kurso ttipi horietako erakaslegoa etzizatan hain errexa iduritu ez ene gostukoena (bigarrenetik beherago erakaskuntzan ari izan nizan urte bakarra da). Urtea bururatu zenean lan hortaz apur bat akhitua nintzan, eta hango jendeak, andere buruzagi begitarte ideki gozo bat bereziki, gurekin beti gogo hoberenekoak izan badira, ikasletan ontsa ari zen guti zela iduritzen zata, batzu ingurunetakoak ikastetxe haren aiphamenak ekharriak (Akademia Frantzeseko gizon ezagun baten alababitxiaz orhoit niz), dirudunak gehienak, ezpaitzen orduan ikastetxe pribatua merke.

*

Ikastetxe hartara joaitea metroz egin behar bazen, lizetik ene bizitegirakoa bide laburrez eta oinez egin nezakeen: han berean Jondoni Jakobe karrika izkinan, Frantziako Kolegioaren behean, har Eskoletako karrika Cardinal Lemoine karrikarano, hor ezker itzul eta urhats zenbaiten buruan heltzen da La Tournelle-ko zubira, santa Jenofevaren harrizko guzaiduri handi batek urrundik ezagun-arazten baitu, eta handik berehala San Luis-ko irlaren erdira sartzen. Jende ezagun eta dirudun andana bat beti bizi izan baita irla hartan, Pariseren erdi-erdian den leku ixilena 'ta atsedeneko hoberena, jende ezagunak aurki zaitezkeen, saldegietan nor ogi, esne, haragi erosten, hala nola M. Morgan komedialaria oraino bere ederrenean (bizitegia Bourbon kaian zuen), ostatuetan, edo ibilki. Arrats ezti batez, hamekak hirian etzatera joan aitzinean han hurbil bizi zen adixkide batekin oraino Pont-Marie-ko izkinan solasean, ikusi ginuen Pompidou lehen minixtroa, taxi batek zubi buruan utzirik, bere larruzko zakua besapean, han berean bertze aldeko kaian zuen bizitegira oinez sartzen, eta nahiz gu doi bat erdi-irri trufari bat ezpainenetan,

ezpaitzen orduko gobernua batere gure aldekoa, burua behekituz agur bat igorri zaukun. Irlaren inguruaren egitea kaia bazterretik bereziki laket zizatan arrastirian, jende gehiena bizitegietara sartua denean.

Irla hortako bizitegi gehienak XVII-garrenean eraiki ziren, geroztik guti aldatu. Eguraldietan leihoak arrastirira idekirik uzten baitituzte, bidetik ikus daitezke egoitzetan molde frantzeseko tronadura batzu miragarriki zizelkatuak eta margoztatuak. Baina gehienetan haren ikusteko itzuli berezi labur bat egin dutan egoitza, ene bizitegitik bi urhatsetan baitzen (baina etxe eder horien ondoan hau XX-garren mende erditsuko eraikuntza berria bezain itsusia iduritzen zizatan, azpian jaben “kinkalleriako” saldegiarekin!), XIX-garren mendean “Hôtel Pimodan” zeritzoten hura da. Ur bazterreko karrikara emaiten du harresi gora eder batekin, laur izkinetako harri pikatu leunduetan, burdina landu-ekilako galeria bat ibaialdara aitzinatzen. Baudelaire poeta handi hura han egona zen, eta beti uste ukan dut hango bereko orhoitza-penak gogoan, diru eskasez edo bertzela bizitegi ezin ederrago hura utzi behar ukan baitzuen, egin zuela gero *Bildutasun* (“Recueillement”) izeneko hamalaurkun hunkigarria. Hartan bere bihotz-minari, “oinazeari”, da mintzo bi laurkUNETAN:

*Ezti hadi Oinazea! Nahi huen Arratsa,
Horra nun den, jausten ari...*

Gero, hiri handiko atsegin harrabostunetarik urruntzen duela lehenbiziko hirurkunerano iraganez -

Emadan eskua, haugi, Oinazea, hunara,

Hetarik urrun. - erakusten dauzko hirurkUNETAN, ametseta-ko andere batzuen itxuran, orhoitzapenak gogoratzen dauzkon iduri maitatuak, ibaian leinuratzen den “Hôtel Pimodan” haren gogamen batean bezala:

(Hetarik urrun.) Ikuskin gurtzen iragan Urteak

Zeruko galerietan, noizko zaietan soinak;

Jalgitzen uren barnetik irriñoz Urrikia;

hori guzia gauaren urhats ixil eta hilkorra laguntzen duen iguzkiaren azken argian, zubi baten azpian etzatera doala:

Hiltzera den Iguzkia lokhartzen arkupean,

Eta, hil-mihise luze(a) Orienten herrestan,

Entzun ezan, maite(a) entzun, abian Gau ezitia.

Baudelaire, Parisko neurthizlari 'ta ibiltaria, agre-gazioneko ahozkoan urteko programatik kampoko aztergai ukan bainuen geroxago, frantzeseko neurthizlarietan aurkitzen den hoberenetarik batendako eduki badut ere beti, enintzan batere orduan, are gutiago geroztik, gogo ilun erromantika hortara bereziki ixuria. Etziren bertzela ere hiri nagusiko jostagailuak, ikus eta entzunkizunak eskas. Lehenago bezala, musikaldietan nintzan usu, batzuetan operan, antzokietan ere. Auhaltzera biltzen ginen, noiz gutarik baten bizitegira, han astiz edo politikaz edo bertze zerbaitez luzaz eztabatzen, noiz, aste oroz bederen, bizpahiruretan berdin, aitzinean gindabilan auzoko ostatueta. Aire hartzeko batzuetan egiten ginuen athermaldia, Boulogne-ko oihanean den aintziran untzi ttipietan ibiltzeko zen, han argazki batzu hartuz. Noiz edo noiz izan gira ere “L’orée du bois” izeneko ostatu aipatu hartan: khonduak atxikitzen zituena sortzez Orzaizeko andere bat zen, ni haren anaia gaztekin ibilia Baionako lizean.

Zaldiz ibiltzera joaiteko “Vallée de Chevreuse” izeneko ibar eder hartara gutizia ezpanuen eskas, etziren han, aldiz, lehenago eremaiten ginituzten lagunak, astia ere hartu behar egitekoen artetik. Alta gogoan naduzkan oraino bizpahirur urte aitzinean oraino zaldiz igaiteko hara egin itzuliak, hetaz halako urriki apur batekin, hain zen gozagarri ibar hortako landa luze 'ta oihan sahetsetan eta batzuetan barnean laurhazkan joatea: zaldiak zuhatz baten azpitik itzultzean abar aphalt bati kokaturik utzi ninduen egun batez, bertze lagun bat ur erreka baten iragaitean bereak hartara aurdiki... Bapatez heltzen zen Dampierre-ko jauregiaren gainaldeko ordokira, San-Simunek bere *Orboitzapen* miresgarrietan – frantzeseko hitz laxoan egin den lan handi-enetarik dela uste ukan dut beti - ainitz aiphatzen duen gorteko adixkide mina zuen Chevreuse-ko dukearen etxea zena orduan. Munho baten hegira heldurik gelditaldi bat egiten zen han, daitekeen ikuspegi miragarrienari beha, parkearen itzulia zaldien urhatsean egin baino lehen. Han berean da, bere botere osoan eta aitasainduari gustatzeko, “Port-Royal des Champs” Luis XIV-garrenak eta Parisko arxapezpikuak aurdik-arazi zuten serora jansenixten komentuaeren lekua. Lekua diot, ezen osoki barreatu zuten, ez harria harriaren gainean utzi, eremu guzia ahalgegarriki suntsitu. Zimenduak dira bakarrik ikusten, zurezko

iragarki batzuetan erraiten dutela nun zer zen, eta horien artean aski gogoetagarri zen “Racine-ren bidexka” bat. Paristik urrundu baino lehen, beribila ukan nuenean, azken itzuli bat egin dut hara, oraino badutan argazki bat harturik, leku orhoitgarri horier beha egoiteko. Artetan joaiten zen J.-B.-ek bere emaztearekin, hau handik hurbilekoa baitzen, zenbait demboraz atxiki zuen bizitegirano, Meaux-ko hirian, Bossuet Luis XIV-garren aroko pheredikari ospetsu haren apezpikutegia izana, Condom Gaskoiniako hiria (hor behin ere egun bat egon izana gabe omen) utzi ondoan ukan zuelarik, gorteari hurbilago izaitekotan.

*

Urtearen bururatzeko, bi etsamina mota banitu-en, osoki ezperdinak egia erran: agregazionea alde batetik, eta ez gauza ttipia ez izkirioko egiten ziren bortz lan ezperdinetan (frantzesean bi idatzaldi handi, filologia, latina, española), ez, hortan onhartua baldin bazen bakarrik, uztail osoa hartzen zuten zazpi ahozkoetan. Bigarren etsamina beribileko permisa zen, han berean Eskoletako karrikan ikasten nuena, aski arinki, orduan egiten zen bezala. Ukan dutan lehenbiziko beribila erosirik ostaroan, ekhain hastapenean ukan nituen biak, entseguak entsegua laguntzen baitu agian, eta lanak lana: permis hori eta agregazioneko izkirioa. Derradan ene lagun zenbait hortaz apur bat ustegabetu zela. “Le Monde” berrikaria Parisko karriketean arratsaldeko bi orenetan saltzen baitzen, Courtine-ek kozinaz eta ostatuez egiten zuen artikulura nindoala berehala ikusten zuten, berrikari hortako artikulua hoberena zela niola batzuetan, ene filosofo lagunaren serioetik apur bat urrunduz bezala: ezkertiar andana Auzo Latinean, zozialixten eta kominixta staliniarrekin hautsirik, PSU delakoa gauza ttipia bilakatua, “situationnisme” izeneko gogamen politikoari emaiten ari zen, eta ene lagun gizon ala emaztetan berdin, baina hek luzaz eztabadan entzunik ere, ni ez. Hots, ostatu on, ikuskizun eta bertze atheraldietan ene bulegoan bezain usu ikusten nindutelakotz, trufa arin batean bezala “Sybarita”-ren izen goiti jostagarria emana zautaten, eta aithortu behar dut oraino etzizatala batere gaizki!

Bi ilabete abantzu baziren izkiriotik ahozkoa. Gero ahozko zazpi etsaminek uztail azkenerano bazirauten,

bakoitza bertzetik egun bat edo bertzez artekaturik. Beribilaren eremaita ohian uzten nuen La Tournelle-ko zubitik Louis-le-Grand-erano, eta Parisen berean edo inguruetan athermaldi zenbaiten egitetik (beribila karrika bazterretan errex uzten zen oraino leku gehienetan) gehiago behar baitzen tresnaren beraren aski trebeki erabiltzeko, beribilean ordukotz trebatua zen lankide batekin (aspaldidanik Paristarra izanik ere, ethorkiz Bretoina zen) abiatu nintzan itzuli baten egitera Liger ibaiaren aldera. Bidea ezta luze 'ta orduan aski beribil guti. Beauce-ko ibar aberatsean behera zuzen, jausten da Chartres-rano. Aitzineko neguan izana nintzan, andere lagun batzuekin hetarik baten beribilean, hango katedral eder haren ehun eta zortzigarren urtaburuko arrats batez eman zen Beethoven-en *Missa solemnis*-aren entzuten: lehen lerroan ikusten zen Pompidou lehen minixtroa bere ezkontidearekin.

Handik laster, inguruan berean, edo ibai handira hurbilduz eta hau iraganik ere, aurkitzen dira arrazoinekin omen handikoena duten Liger-ko jauregi ederrak. Barnean zituzten edergailuen ikusten ibili gabe egun hartan, asti eskasez, eta beribilezko itzuliaren ahal bezainbat luzatzekotan, eta gauko, Le Mans-etik goiti, berriz Parisera itzuliak izaiteko, ikusi ginituen horrela, ikusi bakarrik eta lasterrez, argazki zenbaiten hartzeko astia doi-doia hartuz, Amboise, Blois, Chambord, Cheverny, Fontainebleau, hemen luzaxago geldituz: zaldi oinpeko burdinaren iduriko mailalde ohargarriari begi ukhaldi bat, eta itzuli labur bat oihanean, bere harroka handi biribil zuri hain bitxiekin. Flaubert-ek *L'Education sentimentale* elhaberrian luzaz erakusten du oihan hori, eta iduriz liburu hortako maitasunaren aphaizteko bezala, baina egiazki, idazlearen eskutitzetarik dakiguna hitzez hitz, zuhatz bakoitzean “bere buruaren urkatze-ko” gogoarekin. Eztakit batere gauza hori gogoratu zizakunez orduan eta aipatu zenez. Bertzela ere, bereziki ikusi nahi nuena, lehen-lehenik eta Chartres-tik jalgi orduko, Talcy-ko jauregia zen, guti ezaguna egia erran, eta ere XVI-garrenean izana zenetik biziki ttipitua 'ta laburtua, erlisionekeo gerlen ondorioz uste dut. Aitzineko urte batez agregazioneko emanak zituzten Ronsard-en hamalaurkUNETAN *Sonnets pour Hélène* izenekoak, ondu zituen azkenetarik, orotako ederrenak guzien ustez.

Baina Ronsard-ek, maitasunezko hamalaurkUNETAN hasi zenean, “Hélène de Surgères” hori Medici-ko Katalina

erregina amaren gortean ezaguturik, egiaz edo alegiaz apur bat maitatu baino lehenago, lehenbiziko *Maitasunak* (berrehun eta hogeita bat orotara) “Cassandre”-ri eskainiak zauzkon 1556-an. Cassandre andere hori, erreginarekin batean edo lehenago, Firenzatik jina zen Salviati dirulariaren eta Talcy-ko jauregi hortan jarria zenaren alaba izana zen. Ronsard-ek hortik hurbil, gortea Blois-en zenean (“... *Maitasunak zauzkan uste gabean, Cassandre-ren begi-ederrak erakutsi, Blois-era gortearekin joaitean...*” baitio berak zenbait urte berantago), ikusia omen zuen, 1546-ko jorrailaren hogeita batean:

*Mila bortz ehun berrogei-ta seigarrenean
Eder gaixto batek ber'ilekin bihotza
(Ez paitakit gehiag(o) eder ala gaitza)
Garaziez hartu 't' estekatu zautanean ...*

Itzulpen labur hori doakola Berphizteko mende bortitz bezain gogamenez eta mota orotako edergintzaz aberats horri, eta orduko poetetan lehenbiziko aiphamena zuenari, ohore ‘ta miresmenezko agur baten ordainez.

Hamaseigarrenekoa zen ere, baina lehenbiziko zatikoa, Ronsard bigarrenekoa delarik, Nabarrako Margarita lehena, François I-ren arreba, “Valois-ko Margarita”, Henri Labrit-en emaztea, eta ez hunen iloba izen berekoa, berantago Henri IV-garrenaren lehenbiziko ezkontzako, erdaraz “Reine Margot” dioten hura. 1963-64-etan agregazioneko ezarria zen Nabarrako Margarita-ren *Zazpiegunetakoa* (frantzesez *Heptaméron* Italiako Boccaccio-ren moldean izendatua baita). Gertatu zen ahozkoan bilduma hortako zati bat ukanik aztergaitako, egun hartan bereziki akhitua sendi nintzalarik alta, uste baino hobeki athera nintzala halere. Liburu hortan, Biarnoko bortuetara Sarranzako beilan izanik itzultzean uren ganditzeak erregina bere ingurukoekin geldi-arazirik, hasten dira izen berezi batzuen azpian, bakoitza bere aldian elgarri maitasunezko ixtorio erraiten. Horietan batzuek Nabarrako gorte zaharrea, Iruñen, Oliten gertatu ziren ixtorioak badematzate – egiaz ala alegiazkoak zer neurritan nehork jakin gabe hor ere, literaturan usu bezala –, agian senarraren familiako Labritarrenan, edo zenbait urte lehenago haiekin batean Iruñeko gortea behin betikotz utzi behar ukan zutenen ganik entzunik, Fernando Katholikoaren armadak erresuma zimarkuz eta gerlaz ebatsi baino lehen, 1512-an, gure

erresuma osoaren (Nabarraren, diot) buru zirenean. Hogei bat urte gerla, hartze, uzte, irabazte ‘ta galtzeren buruan, erresuma zatitu zen, eta 1530-ean, Karlos “Quinto” emperadorea azkenean etsiturik bezala, gure Baxe-Nabarra xoilak eta hertsia egiazko “Nabarrako erresuma” bere gain gelditu. Paristik jalgirik uztaile azkenean, gehiago ez itultze-kotan, beribilez egin ditutan lehenbiziko itzuliak, eta urte zenbaitez jarraiki, orduan sortu zuten mugaz haraindiko leku horietara beretara izan dira.

Uztaileko azken egun batez agertu ziren gure agregazioneko ondorioak: konkursoa egin zuten 553-etarik 31 ginen gizonetan Frantzia guziko, eta, onhartu direnen izenak hoberenetik hasiz azken onharturano jautsiz emaiten baitira, enuen ez hoilatzeko ez dolutzeko arrazoinik batere aurkitu, 15-garrena agertzen nintzalakotz! Gero, lerro berean, ephailen buruzagiak (latinean “Orotako inspektore” Cart zen urte hartan, gizon azki mintza errexa eta gogo onekoa) hartzen zituen agregatu berri guziak bat bertzearen ondotik, eta orduan oraino libro ziren lekuetan hautua emaiten. Ene aldia jin orduko hamalaur hautatuak ziren beraz, eztaikit ene gustuko hoberenak ala ez, ororen nahi-kariak ezpaitira berdinak. Lehenbiziko gogoa Euskal-Herrira hurbiltzea ukan banuen ere, etzen alde hortara den gutieneko lekurik, eta hurbilena urrunxko, Châteauroux-ko hiria. Mediter-raneako eskualde iguzkitsua soldado zerbitzuan ezagutua nuen, eta ezpazen gure eskualdetara hurbiltze hoberik, Parisko arotik eta harrabotsetarik zenbait urtez bederen (baina betikotz gertatu zen!) ihes egitea hobe zizatan. Marzellan bazen leku bat, baina hiri horrek aspaldidanik zuen aiphu doi bat bortitz eta gaixtoak apur bat lotsatu ninduen, gero egiazki ezagutu dutanean, usu izan bainiz ikustez eta hango ostatu batzuetan aphaizuz ere, orduan ez hautaturik aski khexu izan bainiz, berantegi ...; ezen, nolakoa den batere jakin gabe, auzo hiria duen Toulon-go “Dumont d’Urville” izeneko lize handian zen leku bat nuen hartu. Hirur mila ikasle hurbil bazituen eta mail guzietakoak, erakasleak ehunez goiti, hara buruilean heldu nintzanean jakin nuen bezala.

*

8. Itsasalde urdinean

“Itsasalde urdina” dioten hartara joaitea, Toulon -dik Italiako mugara Menton-erano Mediterranearen bazter guzia hartzen baitu, gutziagarri bezain gustagarri iduritu zizatan oro har. Laster ohartu behar izan zen alta Toulon-ek etzuela bere baitarik jendearen eta bereziki erakasle gazte baten luzaz atxikitzeke gauza handirik, ez eta oraino geroztik lan eta gastu handitan egin diren ondartzeko artifizial hetarik. Inguruan Probenzako herrietara joaiten zen beraz astia zen orduko, lanarte ala asteondar: edo Maures-etako oihanean zehar Saint-Tropez-ko ondartz eta jostagailuetara (1968-ko uztaile osoa, ostail-ekhainetan izan ziren politikako nahasmen bizietarik landa, han eman ginuen ikastegiko lagun batzuekin itsas-mainuetako etxe bat alokaturik Ramatuelle-en), edo itzuli bat arratsaldetan gehienik Marzellako hiri handi bezain gogo onekora. Egia da Toulon-en eman ditutan laur urtetan adixkide onak ukan ditutala, ala ikastegian ala hirian. Baina jende gehiena itsasoari 'ta bereziki armadako untzieriari esker bizi zen, hiria “itsas-prefetura” izanez (Orzaizeko Antoine Sala amirala buru egona zen gerla ondoan zenbait urtez), eta ni armadako jende 'ta gogoaz jadanik asea. Laur urte bururatu gabe, 1968-ko ostaro-ekhainetan Frantziak ezagutu zituen gertakari heke ere baino lehen, gure lizea ilabete osoan halako jazarmen batean atxiki baitzuten, Niza-ra joaitea galdegina dut. Bazen han unibersitate berri bat hasten ari, bertze lagun batzuek jadanik hara izendatuak, eta 1969-ko urrian Nizako erriente eta kolegioko lehen maileko ikaslen molda-tzeko ikastegian sartu nintzan, eta han egon niz, Unibersitatean ikastaldi batzuek artetik emanez, frantzeseko erakasle, literatura 'ta gramatika, latineko ere apur bat, hamalaur urtez.

Nizako hiria Toulon-gotik osoki bertzelakoa da, baina urtetik urtera itsas-bazter horrek metatzen ari zuen jendeak azkenean asperturik utzi baldin badut egun batez, eta Bordeleko unibersitateara aldatzea hautaturik ukan, euskarazko thesisa hasirik (eta Montpellier-en Frantziako literaturan hartua nuen gaia hasi orduko utzirik...), hamalaur bat urtez zituen errextasunez baliatu niz gibel gogamenik gabe. Mende bat zuen, doi-doia, Frantziako bilakatua zela 1860-an (beraz Baxe-Nabarra 1791-ean “agorrrileko laurko gau” aipatu hartan, nahi ala ez egin izana zen baino

mende bat hurbil berantago), Napoleon III-garrenak Italiako errege erresumaren batzen lagundurik egin ziren antolamenduetan. Saboiako duken kondate bat izana zen lehenago (ohartu nintzan hortakotz eskudoa, mendi gain batean bere arranoarekin, Orzaizkoaren egite handikoa zuela!), eta horiek Italiako erretatea bildu zutenean, italiarra bilakaturik egona.

XVII-garren mende aitzineko eraikuntzetarik guti atxiki du hiriak, bi lekuetan ezpada. Lehenik “Gazteluko munhoa” diotena, hura noizpait izanik hiri zaharraren bihotza bera, eta den lekuan, betidanik Probenzako 'ta laster Frantziako mugan berean (Var ibaiak egiten du muga hori, gero horren izena urrunagoko departamenduari eman izan bada ere), itsasoa zaindu behar, azpian beti baliatzen den “Portu zaharra”. Badu aspaldi harroka zut eta gora horrek eztuela gaztelurik. Luis XIV-garrenak Saboiarekin ukan zuen gerlan, Frantzesek azpitik zilaturik jauzarazi zuten, eta bolbora hornimendu guziak han baitziren, bapatez osoan erre zen. Ikus daitezkeen gauza bakarrak, harresi ondarkin motz batzu dira lurrean zenbait zehetan gora, eta hetan bereziki erakusten da kathedrale erroman zaharraren egitura. Baina, usu bezala, lehenagoko hil-herriak oraino munho haren aldapan geldituak dira, beheago dagon “Hiri zaharra” diotenetik zenbait urhatsetan. Behere hortan egin zen gero, bertze eliza andana baten erdian, kathedrale berria, eliza guziak bezala (bada ainitz) XVII-XVIII garren mendetako estilo “jesuitiko” edo “barrokoa” zeri-tzon hartan eraikia. Derradan kathedralea izana gatik, eraikuntza-ren ederraz eztela hurbiltzen ere aro berekoa den Bordeleko Andredona-Maria harri zizelkatuzko eliza miragarrira (bitxi dena: hunek aitzinean du “Niza-ko hotela” zioten etxe ederra!). Bertze eliza handi ala ttipietan, eta bada andana, “Jesu-koa” Erromako eliza bat iduri (baditu “Santa Rita” dioten sainduaren aldare 'ta gizaiduria, beti aitzinean hiriko emazte andana batekin zirio phizten eta othoitzean...), edo merkatu ondoko kapera biribil urreztatu mirazkoan, badira gauza ohargarriagoak.

Elizetarik bertzalde ikusgarri da erakustoki bilakatua den ara italiarreko Lascaris palazioa. Iruñeko artxiboetan aurkituak eta argitaraziak nituen Erdi-Aroko euskal-izenen aztertzen hastean – “Izenak badituzu, egizu thesisa bat” errana zautan Jean Haritschelhar-ek, hortan utzi bainuen

Montpellier-ko unibersitatean hasiera nindoanaren gaia! - , ohartu nintzan eskualde hartako jende-izen andana batek, “Gubernatis, Lascaris, Tomatis...” usu bataio izenak latinduz eginak, bazuela hemengo batzuen egite handia: Henriquiz, Ianiz, Periz, Sanchiz...

Sortzez Nizatarrak ziren gerlari Garibaldi 'ta Masséna-ri hartuak dira hiriko bi plaza nagusien izenak. Azken hunek hesten du aitzinean baratze batekin, edo hobeki itsas-bazterrera idekitzen, hiri zaharra, eta aldi berean, “Paillon” izeneko uhaitz ttipi orai bidez eta eraikuntzez estalia arteko (ur aste handietan batzuetan hiri beherera gainditu da), hiri berrirateko erdigunea egiten. Plaza hortan eta Portu zaharrera idekitzen dene-an, gazteluko munhoaren bi aldetarik, eraikuntzak gorri ilun ezti batez dira margoztatuak, azpian Masséna plaza bezala ibiltzeko arkupekin. Horrela, barneko karrika hertsiekin, oihalak batzuetan leihoetarik dilindan idortzen, Nizako hiri zaharrak badatxika oraino lehenago Italiakoa izana delako hatza.

Ezta bizkitartean hango hizkuntza zaharra Italiakoa, baina Probenzakolari hurbil den okzitanoki bat, “nizarta” diotena, eta oraino omen bederatzi milako jende batek mintzo zuen, gehienak hiri zaharrean eta batzu inguruetan bizi, eskualdeak aroaren eta itsasoaren gatik duen arrakasta handiak osoki frantzestu 'ta berritu eztituen baserri menditsuko herrixketan. Hiri berriak aldiz, aitzinetik “Angelesen ibilgunea” dioten itsasalde luzeko hotel (aiphatuena “Negresco”), kazino (“Palais de la Méditerranée” delakoaren inguruan izan da azken urtetan alde hartan sortu den auzi luzerenetarik bat), eta bizitegi aberats eta batzuetan bitxiekin, barnago saldegi handi berdin aberatsek betetzen dituzten karridak, ukana du, eta horren erraitea gostu du hango jendeak, eta hoilagarri, arrazoinez, “Paris-xipi” izengoitia. Lehenago Erruso dirudunen baitan arrakasta handia ukana du, katedral orthodoxa eder eta margo biziz aphaindu bat lekuko (badu zeremonietako molde errusoan kantatzen duen korala, eta jendea entzutera badoako, Parisen nintzanean Daru karrikako katedralera zoan bezala), eta oraiko Errusiar aberastu berrienean arrakasta berdina ba omen du.

Barnean mendi aldera, hemen hurbil-hurbila baita 'ta gora, igaitea zut, hiriak hartzen du Erromatarren aroko “Cemenelum” erdarán “Cimiez” bilakatu den izeneko auzoa, aro

zaharretan hiri berezi izana. Gainean, ibilbide luze bati goiti joanik, bi aldetarik hiriak dituen egoitza gozagarri ainitzetan aberaski eraikiekin, baratzez artekatuak – han eman ditut Nizan egona nizan hamalaur urte osoak -, zabalzara heltzean, aurkitzen dira hiri zahar haren ondarrak: anfitheatroa oraino zatiz zutik, udako ikusgarrietan eta musikaldietako baliagarri, hiri zaharreko etxe, karrika, mainulekuak, aldiz, lurrean harresi ondarretarik baizik ez ageri. Baziren hemen ere, Nizan (izena grekako “Nike”-tik omen, “garhaipen” erran nahi baitu) Gazteluko munhoan bezala, girix-tinotasuneko lehen mendetan, laurgarrenetik goiti, apezpikua 'ta kathedralea, hunen harresi ondarkinak oraino lurrean ageri hemen ere; eta ba omen zuten artetan bi apezpikuek elgarrekin aharra 'ta auzi zenbait, bi apezpikutegiak bat bertzetik hoin hurbil izanki (eztira ere biziki urrun Grasse, Vence, Sospel, berdin lehenago apezpikutegi izanak), horrelako herrialde menditar eta harritsu emaitzaz, itsasokotik ezpada, hertsikoan. Zaharkin horien erakustokia han berean da, estilo italiar klasikako “villa” edo jauregi eder batean. Apur bat beherago jarriak dira ere fraide “franxixkanak”, serora “klarizak” bere komentuan, kapera ttipi batekin. Handik goiti mendi hutsa, eta lepho bat laster iraganik, elhurrak larrazkenean goizik eta primaderan berant arteo, lerragune 'ta jostaleku.

*

Niza Italiako bidean, Menton mugako hiri ttipi pollitera heldu baino lehen, iragaiten den Frantziako azken hiri handia da; edo bederen hara heldu nintzanean hala zen, beribilbide berria hiritik bazter eta goraxago gaitzeko lan eta gastuetan egin aitzinean. Errepideak hirian sartu behar zuen, erditik zeharkatuz, gaitzeko kamiun zerrenda khetan, beribilak artetik ahal bezala, Cimiez-ko behere aldean burdinbidera heltzean itzuliz, orduan izan zaitekeen aire zikindueneko gunea egiten zutela. Gero bidea hirur besotan banakatzen da: gainean mendian aski gora aldapa hautsiz egina, “korniza handia” diotena, ikuspegi ideki bezain zabal batzuekin, itsasora 'ta behereko herrietara, gero artekoa, herrixken eta etxen artetik hara-hunaka (handik etxera jaustean zen ixtripuz hil Grace Kelly Monaco-ko prinzesa); beherean aphaltena, itsas-bazterren arau

inguruka hau, mendiko oinak eta harrokak itsasora zuzen goratik eroriak ahal bezala itzulikatu behar izan baitira batzuetan zilatuz, herriz-herri. Aurkitzen dira Villefranche bere itsas-inguru abantzu hetsi beteginarekin, ondoan Saint-Jean-Cap-Ferrat, lur-beso luze bat itsasoan barna sartzen dena, Nizako bertze aldetik Antibeskoa egiten den bezala, bi lekuak oihanpetan etxe 'ta “villa” ederrenekin (ezagunena “Kerilos” Greziako erai-kuntza zaharren moldekoa zen), jende aberatsendako hotel handi, ostatu, untzien ezartzeko portuak orotan, beti bete-beteak, orotan ere ondartzeko inguru-erdi moldeko aski ttipi batzu, goizik epheltzen den itsaso hartan hauteko mainu leku.

Nizan ala hiri ttipi horietan, Italiara buruz, lur egitura harritsu, aldizka zut eta konkor izana gatik hiritik jalgi orduko ala hirietako auzoaldetan beretan, hemengo mendi aldapa eztiarik ezin ezperdinago, lekuek omen handia ukana dute goizik, eta atzerritarren arrakasta, Angelesena eta Errusoena bereziki. Eta orotako aiphatuena Monaco prinzipate ttipia, hain ttipia nun San-Simun orhoitzapenlariak orduan hango prinzearen urguluaz eta beregain nahiaz trufan, Valentinois-ko duke 'ta pare bezala gortean lerrokide baitzuen, arrazoin zenbaitekin baitio “sakelako mokane-sa” bezain handi dela, eta erditik “kampora thu” egin daitekeela. Eremua ezin hertsiago du, mendiaren eta itsasoaren artean (itsaso gainera harriak eta lurra garraiatu bortxaz apur bat irabazi badute ere), hala nola nun beti aberastuz eta atzerritar aberatsez betez, ezpaita han hogeita hamar milaz goitiko biziliarretan sei mila herritar baizik, eraikuntzek gero 'ta gorago joan behar ukan baitute, eta lehenago zitroin, iranja, olibondo beteak ziren landa bero hertsien lekua hartu hain gaizki “dorreak” deritzoten eraikuntza mehar luze itsusi elemeniak. Eztu beraz hango hiri nagusi bakarrak, bere “Monte-Carlo” izen italiarrarekin, leku hertsia ezin ttipiago bat baizik atxiki zinez ikus eta gozagarri denik: “harroka” diotena bere jauregiarekin eta hartara deraman “hiri zahar” hertsia. Kathedrale berri ezer zinez ederrik gabeko baten ondoan (printzek ukana dute aski berriki Erromatik apezpiku katedera bat), jauregiko zabalzaren sahetsean, etxe pollit multzo batek egiten ditu bizpahirur karrika ttipi, oro margo eztiz aphainduak, horail, gorraxta, berde arin, Italiako aran, eta hetan abantzu athe bezainbat ostatuxka 'ta “pizzeria”, auhariko jendez bete-beteak,

gehienak gazte, ainitz Italiar han bizi edo auzotik bi errota itzulitan ethorriak.

Jendea gehienik hara ekharri duena, Estatuko zergarik ez ukaitez bertzalde, diru joko leku izaita da. Hortako “Casino” bat egina zuten XIX-garren mende azkenera bere operako sala ederrarekin, Garnier Parisko operaren eraikitzaleari berari manaturik. Guzia, Biarritz, Cannes eta itsasaldetako udalierren, eta gehiago orduan menturaz, ezen lehenago neguko baitziren hara jiten ipharralde hotzetako jende handiak, neguliarren atsegineko, eta hek zuten diru soberakinaren biltzeko: han ala hemen, bat baino gehiagok du bere fortuna apurtu, eta batzuetan oso-osoan agortu. Frantziako erresumatik berex baita, “diru mekanika” delakoak prinzipatean goizik alhan ziren, ez bakarrik Casino-ko saletan, baina, Amerikako diruekin omen eta Amerika-ko moldean, han eraiki zen “Loew” hotel handian. Lagun batzuekin lehen aldikotz ikusi nuenean, bazen burxoratzekoa, jendeak metan, zahar eta gazte, alta iduriz zahar eta emazte adineko ainitzago hetan, monera xehea eskuan, mekanika hetan sar eta eskukaldi batez gider batetik itzul-araziz, batzuetan, bekan, monera meta bat jalgitzen burdina harrabots baten klixkaldi jarraiki batean, baina gehienetan batetik bertzera jauzika, hea zeinek zituen aberastuko, edo bederen galdua zutenaz ordainduko. Geroztik diru mekanika horiek orotara hedatu dira, jendea gero 'ta gehiago bildu dute, gau osoak hetan, nahiz guti edo batere ez aberastu.

Monakotik hara, mugara heltzean berean Menton hiri ttipi pollitak baditu aro ezin eztiagoaren, eta Frantzian den eztienaren abantailak: orotan iranja 'ta zitroinondo, landare 'ta baratze, hartakotz egiten baita primadera oroz “zitroinaren besta” handi bat, orgak hori-horia zitroinez aphainduak eta estaliak karriketari ibilki. Hango hilerrietarako itzulia egin behar da: nun nahi Errusiako printze 'ta izen handien hobi ederki zizelkatuak (badute Biarritz Donamartekoen egite), ezen ordu batez bulhar-retarik eri ziren “poitrinerrak”, ustez sendatzeraz, hara igorriak ziren. Eritasun horrek mendiko haize mehe 'ta hotxa nahi du, sano delakotz eta garbi, hartako dira “sanatorium” izeneko “sendategi” edo eritegiak mendialdetan rgin, Alpetan gora, edo hemen ere, nahiz beherago, Urzua 'ta Mundarrainen arteko azken aldapetan, baina itsasotik aski urrun,

Kambon - eta amatxiri entzuna nuen erraiten Orzaize ere aipatu zela... -, ez Menton-en eta halako itsas-bazterretan den aro heze 'ta ezta. Errusiako handi gazte hek, sendatzeko orde, berehala hiltzen ziren, hilerrietako hainbat harridazkiek dioten bezala. Mentonen, itsaso bazterraz bertzalde bere ondartzeko garbi, arin eta argiarekin (Nizakoan ezta uharririk biribil eta aski gotorrik baizik), ikus daitezke plaza ttipi baten bi aldetarik bekoz beko bi eliza eder, hango estilo barroko aphaanean eraikiak, bi kofradia ala komentuenak izanak agian.

Nizatik ala Menton-dik mendi aldera, hango "hergaraia" erran daitekeenean, bideak badoaz herri edo hiri ttipietan goiti, bazterretan utziz, hemen Contes, Levens, hor, Italiako Cuneotik Turino hiri nagusirano (Saboiako duken hiri nagusi izana zen eta Italiako erregen lehenbizikoa) deraman errepidean edo hurbil, L'Escarène, Lucéram, biziki herri pollita bere karrika hertsietako etxe aphaindu mendi mazela zutean kokatuekin, batzuek baderakutsatela athe gaineko harrian, hemen bezalatsu, eraiki edo berreraiki diren urtea; gorago Sospel, Breil, Saorge, La Brigue, Tende. Hirixka bitxia da Tende, mugarakoan azkena: heldu baino lehenxago bidetik agertzen da mendi aldapari lotua bezala iguzkitara luzatzen, etxeak karrika bat edo bien aldetan hego aldera itzuliak. Ohartu nintzan arthaldeak, ez handi-enetarik, hiriko etxe batzuen zolan sartzen zirela oraino, eta selauruak bazituztela hegaztegipe batzuetan, airera idekiak, belar idorrak metan karrikatik ageri. Herri horiek abantzu guziek badaduzkate eliza barroko moldekoak, ez beraz hain zahar, XVII-XVIII-garren mendetan berreraikiak iduri, ala ixtripu edo gerla zenbaiten ondotik, ala jendeak eta buruzagiak (Saboiako duke Italiako errege bilakatu zena, elizako kargudunak) aberasturik. Eliza hek badaduzkate gehienetan bi edergailu, berezi bezain ohargarri: begien atseginarendako debozionario bezainbat, Brea margolari handiaren erretaula 'ta margazkiak; behariarendako organo batzu biziki gustagarriak, nahiz ez handiak: eztira hetan bakarrik elizako organo gehienetan aurkitzen diren soinuak eta "joko" ohikoak, baitituzte oraino xori kantu egitekoak, atabal eta zinbala egiazkoak, xilintxak eta bertze. Hortako hetan emaiten diren musikaldiek - mezek eztaikit, ezpaitut entzun - arrakasta aski handia dute.

Herri horiek batzuetan ikusi ahal baditut, ezta beti baitezpada bidaia hutsez eta atseginez izan, hori gertatu bada ere noiz edo noiz, baina badituztelakotz bigarren maileko ikastetxe edo “kolegio” batzu. Bidea neke, luze 'ta itzulikari izana gatik, eta neguko ilabetetan elhurras edo hormaz hartua, erakas-kuntzako ari ziren gure ikasle zenbaitek urtean bizpahiruretan hetan eman behar zuten ilabete bat erakasle konseilari baten menean, ikaslen aitzinean eta ikastaldietan hunekin trebatuz, eta behar zen egiten zuten lanari behatu 'ta ahal bazen hori zuzendu urteburuan egiten zuten etsaminako. Urtean behin udara heltzean, lanak bururatu-xeak, ikaslekin egiten zen atheraldiko, egun osoa hartuz, izan gira alde hetan gora “Miretako mendia” (“mont des Merveilles”) diotenaren ikustera: harroka zuri garbi, urrunera leun iduri batzu Aro-zaharreko jendek marraz eta margazki bitxiz barna zizelkatuak, egiazko izkiriorik batere gabe alta, izenak dion bezalako leku mixteriozko bat, duela laur edo bortz mila urte han bizi izana den jende ez ezaguna bezala.

Nizatik herri barnera burdin-bidez abiatzeko, Parisko treinen gara nagusitik bertzalde, bada gara ttipi berezi bat Digne-ko hirira buruz Var ur-errekaren luzara deraman “Train des pignes” (“Leher-hazietakoa”) deritzotenarendako: noizpaiteko karrosa aphas eta zabal bitxi bat zen, mekanika khetan, burdinbide hertsi batean harrabots, inharrosaldi 'ta kurrinka. Hiriarri 'ta departamenduari ainitz gostatzen omen zako, eta noiztenka ekhenduko delako berria zabaldu da, baina udalierren gatik edo, azkenean atxikia dute 'ta telebixtak erakutsi duenaz berritua. Hasteko handik ere egin dugu itzuli bat edo bertze, gure ikaslekin batean urte oroz egiten zen atheraldi hetan, margazki batzu artetik hartuz aphas egiteko estakuru, baina ere ixtorioko erakasle lagun batek emaiten zituen xehetasunen entzuten. Digne-ko hirira hel baino lehen, herri ttipi batzuetan iragaiten da: Carros, Villars, Touët, Puget-Théniers, Entrevaux... Azken hau (hemengo “Tbarrarte” balio du) da menturaz ohargarriena, lehenago apezpikutegi izana ere kathedrale erroman bat lekuko, aski handia hoin hiri ttipian, eta gaztelu bat harroka muturrean zut noizpaitez geroz eta oraino aski berant soldadoez atxikirik izana. Uhaitza arku bakarra gora datxikan zubitik iragan eta bidexka hertsi bati goiti igaiten da gaztelurano, han bidearen eta ibaiaren zain egonki, lehenagoko etsaikerien eta gerlen ondarkin ohargarri.

Digne-ko hirira heltzeko iragan behar da oraino, Saint-André-des-Alpes hirixkan gaindi, Verdon izeneko erreka: zenbait lekutan mendi harritsuak artekaka zilaturik, bi harresi goren zola-zolan urrun ikusten dira joaiten haren ur bizi urdin-muskerrak, eta badute Xuberoko Kakueta zerbait egite, nahiz handiago, eskualdea idekiago ere. Digne-ko hiriaz banakien gauza bakarra etzen batere hango eraikuntza edo ikuskarri bereziez, guti ditut ikusi eta gutiago gogoan atxiki. Baina hango katedraleko kalonja izana zen XVII-garren mendean Gassendi filosofoa, Aro-Zaharreko filosofia atomixta berritu nahi ukan zuena, hortakotz Descartes-en etsai bezala baitadukate zenbaitek. Haren gogotik hurbil ziren aro klasiko hortako idazle nagusi batzu, eta hautan lehen-lehena La Fontaine alegialari gogoz “epikurixta”. Alegietako azken liburuetan aurkitu da Gassendi-ren filosofiatik gogamen andana bat, hala nola VII-garren liburuko XVI-garrenean (*Ihizi bat ilargian*) (13-16):

*“Itxuraz nolakoa, badakusatan Ekbia?
Hemendik eztitu hirur oin neurtzen inguruan;
Gain hartan ikus baneza bere duen egoitzan,
Zer luket(e) ene begiek Naturaren begia?”*

*

Nizatik itsas-bazterrez, Italiako aldera joan orde, Var ibai lehenago Frantziako muga izana denaren ahakalde hertsia iraganik Saint-Laurent-du-Var herrira, eskun utziz Villeneuve-Loubet, La-Colle-sur-Loup (“otso” izen iduri hori menditik jausten diren uhaitz ttipietarik batena du), eta ezkerretik itsas-hegian harriak eta lurak ekharriz zabaldua den aireportua, erre-sumako handienetarik bat, bideak baderama, Antibes eta Juan-les-Pins hirietan hara, oro ondartzeko, udalierren leku hautetsi, Cannes-ra, gero Toulon eta Marzellara buruz. Errepide nazional 7 zaharraren gainera, lehenago Nizara heltzeko edo handik jalgitzeko bide bakarra, hain hertsia, lanjeros eta enhoagarri beribil eta kamiun ethengabeko zerrendetan, mendian itzulika, itsasalde urdinerako bide ohikoa oraino 1964-an hara nindoanean, beribilbide berria zilatu zen azkenean, Esterel-go mendi gorriaren erdi-erditik. Handik jaustean “Aingeruen (itsas-arrain batzu dira...) Bahia” agertzen da, ondartzekoak itsaso urdin-

urdinaren, erdaraz “Urdin handia” diotenaren inguruan. Hala zen bederen lehenago, ezen ikuspen gehiena 'ta ederrena moztu baitaukote geroztik hor berean, ur bazterrean egin diren eraikuntza gora bihurtikatu bitxi 'ta oro har, diren lekuan, itxuraz ezin gaitzagoko batzuek. Gutik egin du, leku miragarri horien zaintzeko lege 'ta arrazoin guziak izanik, eta goraki oihukaturik ere, ezpada hemen Espainian Mediterranea hegiko hainbertze lekutan bezala, ingurumen arraroena behin betikotz osoki andeatu.

Nizatik alde hortara jendea bizi den lekua ahalago 'ta apur bat zabalago bada ere guneka, barnera mendia ez hain gora, eztira bideak Menton aldera baino biziki errexago, negu ala uda, udan are gutiago, ibilkari, beribil eta kamiun lerroak metan, noiz nahi geldituak. Herriak ere metan daude, artetan hutsuneak guti edo batere ez, bazterrean bezala barnera. Abantzu orotan bada, gehienak itsaso zabal urdinera so bezala dauden lekuen ideki gozagarriaz bertzalde, erakustoki ala ostatu hautatuz nahikoa. Horra lehenik Cagnes-ko mendixka, aro zahar ala berrietako edergailuen eta margazkiekilako erakustoki ttipi bat bada- dukan gatzelu zaharraz koronatu; apur bat gorago Saint-Paul-de-Vence, leku lakekarrietarik bat, urrundik bere harresi gorez inguraturik (lehenago erresumako muga zen hemen) begia joiten baitu, ostatu on batzuekin, hetan aldi berean aro berrietako margazkien erakustoki bilakatu den “Urrezko urxo xuria” (“La Colombe d’or”: nahiz eztitutan han izan nizan aldi bakarretan nihaurek ikusi, Simone Signoret eta Yves Montand-en udako egoitza izana zen). Hurbil-hurbila du, leherdoi baten erdian abantzu gorderik, hego-aldeko zero urdin argia gaintetik, Maeght familiaren emaitzaz eta haren izenarekin, XX-garren mendeko zenbait edergile handien (Miro, Giacometti) lanen orotako erakustokia; hurbil-hurbila ere Vence, lehen apezpikutegi izana (kathedralea ikusteko da). Hango apezpikugora izendatu zen XVII-garren mendean Sévigné-ko Andreak bere ezkutitz ezagunetan aiphatzen duen “Godeau des Marais” edo “le petit Godeau” (hiriko plaza batek badakhar oraino haren izena). Beherago dira Biot, XX-garren mende hastapenean margolari handien erdian ezarri zuten Fernand Léger-en lanen erakustokiarekin, eta Vallauris, hain luzaz Picasso-ren egoitza.

Alderdi hortako leku goren gorenean jarria da Grasse, itsas-bazterreko hiriak turismoari esker handitu baino

lehen, eskualdeko hiri nagusi izana baita, estilo erromanean egin zen kathedrale ilun handi bat lekuko, geroztik usain onen hiri nagusia Frantzian. Euskara irakurtzen dutenek izen hori gogoan dukete, ezen Jean Etchepare medikuak hor egon zelarik gaztaroan ikusi zuen han egiten duten lan berezia, erakutsiz, iduri elukeelarik, zein akhigarri den: loren uzta, orhoitzapen hori gogoan egin baitzuen gero *Buruchkak* liburuan ezarri zuen *Lilien usaina* izeneko kapitulua. Beherean hedatzen zako Frantziako Mediterrane-aldeak dadukan hiri ederren eta ezagunenetarik bat: Cannes. Lekuan dioten “Le Suquet” munho ttipian zen hirixka zaharra eliza baten dorreak erakusten du urrundik. Hiri berria, XIX-garren mendean hasi zen eraikitzen itsas-mainuetako ohidura zabaldu zenean. Alde hortako aro abantzu urte osoan ederrak itsasoaren ephelak bezainbat Europako aberatseria hunara ekharri zuen; eta etzako arrakasta geroztik handitu baizik. Hiria idekia bezala dago, hemen ere Nizakoaren iduriko itsas-bazter ezti ingurudun batean, “La Croisette” izeneko ibilbidera, eta azpian duen ondartzeko hori xehera. Hor eraiki dira aitzineko mendean Frantzian egin diren hotel handi aberatsenatarik batzu, munduan zehar ezagunak dituzten izen usu angelestu batzuekin: Carlton, Gray d’Albion, Majestic, Martinez, Sofitel... , denak bere itsas-bazter bereziekin, batzuek jateko ostatu gustagarriak ere.

Hemen jarri zen azkenean urte oroz zinemako bestaldi ospatua, ephe batez zalantzurik hea Cannes-en ala Biarritzen eginen zen, bi hiriak halako zein-gehiagoka batean bezala egon baitziren, jende handiak, dirudunak eta zinemalariak bien artean dudan, azkenean XX-garren mende erdiak, Europan ala Ameriketara eta bereziki hegoaldekoan, ekharri zituen gertakari latzek, aroaren goiti-beheitiak gaintetik, Biarritz aski urrun gibelean utz-arazi baino lehen. Cannes-ek bazuen, horien guzian gaintetik, abantail handia: Biarritzek eztu hark bezalako portu handirik, ezin hobeki gerizatua itsaso ezti bateko bahian, hedatzeko errexa, hala egin baita ere, bidaiatzeko untziez bete, ttipi ala handi, baina handietan daitezkeen ederrenak, hagen oiha tinkia badoala kaian ikus ahala, itsas-haizera klixkatuz arinki joiten duten burdinki 'ta xilintxeekin. Hiritik hurbil bada oraino ikusteko ala atsegineko leku: ur bazterrean haratago baina hiriarri lotuak Mandelieu, La Napoule, eta untzi bat hartuz batzen


diren Lerins-ko bi irla tipiak, gazteluez zainduak, batek baitu fraile komentu zahar-zahar bat.

Uda mina baino lehen, lekua jadanik udalariez mukurru betetzen ari, halako arintze bat sendi nuen alde hautara berriz abiatzean Esterel-go mendian zehar, gelditaldi bat eginez alta, bidea luze baita, akhigarri bezain enhoagarri, are gehiago beribilbide berria egin baino lehen, Probenza barneko hiri zenbaitetan. Geldigune hori usu Montpellier izan da, hain hiri eder, bizi, gozagarria, herri-alde hortan azkarki ufatzen duen ipharhaize “mistral” izeneko hotza bortitzegi eztenean, hartara joaite nizan eta aspaldidanik Europan izan den unibersitate omen handiene-koarekin. Orhoitzen da XVI-garren mendean Rabelais-ek, bere liburuetan euskara apur bat imprima-arazi duen lehenbizikoa Frantzian, han zuela medikuntza ikasi, eta hura baino lehen ala berantago bertze ainitzek.

Gero gertatu zen J. B. Parisko adixkide filosofoa bere familiarekin, J. emaztea eta S. alaba, hek ere Meaux-aldeko iphar haize 'ta lanho hotxetarik aro eder eta iguzki bila, handik hurbil jarri zela. Etziren alta, hainbertze Paristarrek ordukotz betetzen ari zituzten Luberon-go leku gozoetara joan, baina ez urrun, lehenik Carpentras-ko hiri-bazterrera, eta laster barnaxago Villes-sur-Auzon herrixkan eraik-arazi zuten etxera, malda eztieta-ko mahastien erdian, mahiko mahats ala ere batzu arno aipatu emaile (Gigondas), bazterretan lerroka gerezi ondoak, han hemenka olibondo zahar batzuen orstatze xurailak (olioa hetaz egiten da oraino hango laboretxetan), bekanago haritzen iluna-goak, azpian onjo boil ezin kharioagoak biltzen baitzeztee urtaro denean. Baina mendia hurbil dute, baina gora, “Ventoux” bere izen zuzenarekin. Ibarretan bakar-bakarrik, Alpetako lehenbiziko maila, gaina haizeak eta luzaz irauten duen elhurrak osoki murriztua daukote, eta gainera heltzen denean, oihanetan itzulika doakon bide luzetik, beribiletarik jalgi orduko, jendea hotzak hartzen du, uda minean ere. Herri-alde hori guzia mendi harta-rano, “Comtat Venaissin” izeneko erresuma edo “kondate” bat eginik, aitasaindu “frantzesek” Erroma utzirik (Clément V-garrena “Beltran Agotekoa” Bordele ondokoa lehenik) atxikia zuten lehenago, Avignon-en jarri zirenean eta mende bat hurbil, XIV-garrena, han egon, orok dakiten jauregi handia eraik-arazirik, Rhodanu (edo “Errodanua”: “le Rhône”)

ibai handiaren hegi gora batean. Horren iragaiteko egina, badu aro hetako zubi bat, molde gothikan, eder bezain bitxia, egia erran zubi-erdi bat, ibaiaren erditan gora gelditzen baita, edo noizpait barreaturik, edo gaineratekoa zurez izanik eta ez berriturik.

Hunaratago gelditu niz ere batzuetan Nîmes-en, Erromanoen “Nemausus”, eskualde hori guzia Aro-Zaharreko hiriez eta eraikuntza oraino bi mila urte ondoan miragarriez aberats baita. Hango hiri bazter batean jarria zen familiarekin lehenago Louis-le-Grand-en lankide ukana nuen B. “gaztea”, matematikalaria, emaztea agregazionea nik baino urte bat lehenago zerbitzuan nintzalarik ukan ondoan hara izendatua izanik; hiri bazter batean etxe berri bat egina zuten hek ere. Urte batez itzuli bat egin zuten Orzaizera, eta oihal-etxe bat Irigoizbehereko “phentze zola” ginionean hedaturik, egun zenbait han egon. Bazkaltzeko, “biderdi” erraiten den bezala, baina arrats-aldea 'ta beraz arratsaldeko bidaia egia erran goizekoa baino bietan luzeago, gelditu niz ere Beziers-en, edo Mediteraneatik alde huntara hurbilduz Carcassonne-en, urrundik ikusten baitzazko lehenik, mendixka batean eraikiak, Erdi-Aroko hiria inguratzen daukoten harresiak eta dorreak. Bada oraino eskualde hortan guzian XIII-garren mendean, erlisioneaz, egiazki ala ez, “heretikak” bilakatuak zirelako estakuru, “Cathares” zeritzoten jendearen sarraski izigarriaren hatz eta orhoitzapen ainitz. Hortaz baliatu zen Frantziako errege – Luis IX-garren edo “saindu” hura – Tolosako kondateaz eta Béziers eta Carcassonne-ko bixkondatez osokjabetzeko, lardarian hiri horren atxikitze egin baitzizazkon ikusten diren harresi 'ta dorreak. Armadaren buru “Simon de Montfort” ezarria zuten, zenbait urte berantago Gaskoiniako “senescal” eta gobernadore aurkituko baita, Thibalt I Nabarrako erregek haren kontra Baxe-Nabarrako eremuetan jabegoaren atxikitze egin zuen gerla labur eta bortitzean. Béziers hartu zutenean, hiria suntsitu, hango jende osoa, handi ala ttipi, ezpataz garbitu, batek soldadoer manatu omen zauen: “Hilzkitzue guziak, Jainkoak bereak ezagutuko ‘tu!’”



Donezteko ibarrean: Donamaria dorretxea.

III. NABARBIDE

(Mugaren bi aldetan)

1. “Bihar Iruñerako ...”

1939-ko gerla aitzineko urte hetan, eta batzuetan ere berantago, gure eskualdetako amek, amatxiek, amañoek haurrak altzoan leriitzen zituztenean, usu kantatzen zuten oraino, laur mende iraganik Nabarrako erresuma iphar eta hego aldetara hautsia zela behin betikotz 1512-1530-ko gerlen ondotik, kantu zinez zahar baten errepika haur:

*Arri, arri manddoko
Bihar Iruñerako;
Handik zer ekharriko?
Zapat' eta gerriko.*

Adinekoek baldin bazakiten “Iruñe” hori zer zen, abere tratulari 'ta merkatari zenbait salbu, guti ziren orduan, are gutiago emaztetan, Nabarrako erresuma zahar haren hiri nagusia, bazela salbu, apur bat ezagutzen zutenak. Eta gainera, Espainian Franco-ren alderdiak sortu zuen gerla zibilak 1936-tik 1939-ra eta haren ondorioek moztuak zituzten mende hasta-penean oraino mugaz haraindikoekin atxikiak ziren lokarri gehienak. Gure aldetan Nabarrako erresumaren orhoitzapen guziak ezabatuak ziren, haurzaroko kantu hortan ezpada, eta urtean behin aiphatzen ziren ferietako (etxean ainitz lekutan bezala kantatzen zuten *Iragan Sanferminetan, Iruñeko ferietan...*).

Bertzela guretako “Espainia” zen han, ez urrun, baina mendiz haraindian. Gauza batzu baziren hortaz etxean erraiten zirenak: “Espainiako errege” ikusirik Baionan arkupeko karrikan xokolet hartzera jina, erregina bere hurrekin Hondarribiko edo Donostiako ondartzean (ala Biarritzekoan?) uda egun batez han ibilki amatxiri erakutsia, burrumba ukhaldi batzu urrunean etxetik entzunak (batzuetan entzuten baitzen oraino, mekanika harrabots guti zen aro hetan, “itsas-orroa”) eta norbaiti erraiten “Espainiako gerla zela”; eta orduan Orzaizen bizitzera jinik hemen geldituak eta ezkonduak haraindiko bizpahirur gazte, aitzineko mendean gerla karlixten ondotik bertze batzuek egina zuten bezala

alde huntako herrialde guzietara, Lapurditik Xubero-rano. Berantago dut ikasi eskuneko herritar batzu Franco-ren alde jarri zirela: bi etxeko nagusiek ukana zuten izen goititako, oseba baten ganik jakin nuen bezala, “Franco 'ta Mola”, eta geroztik jakin dutana ere, mutikoen aphez eskola berriak sortu zituen kalapitetan (besta handia egina zuten ideki zelarik 1938-an, delako Ibarregaray politikari eskundarraren hitzaldi batekin...), 1939-ko kantu batzuek aiphu zituzten...

Jokatzeko kartak, Euskal-Herri guzian bezala, “españolak” ziren; haurrek jokoak goizik ikasten zituzten etxekoekin, lehenik “hogeita hamarra” eta “ipurdi zikin” (arrosako bata zen karta hura eskuan gelditzen zizakonak galtzen zuen jokaldia), gero “musa”. Hor ikusten ziren, “arrosa”, “kopa”, “ezpata” ala “bastoin”, laur “xango” edo nerabe zutik, “anddere” (izena karta frantseser harturik, ezen 11-ko “zaldunak” ziren horrela deitzen), eta 12-ko laur “errege”, gizon bizkor bizardun batzu, bere jantzi zabal luze margo gorri-bizidunetan, urrezko koronak buruan. Eta han urrun, hegoalde usu argi hartan, etxetik ginakusan “Fuji-Yama” iduriko Auza (“Hauxu” zioten etxean) hirur kantoineko mendi elhurtu haren giblean, asmatzen zen, literatura erro-mantika frantsesik bazela ere jakin baino lehen, halako “oriente” batean (hegoaldera bada ere egiazki...), “Espainiako errege” horien lur gogoetagarri ametsetakoa.

Itsasalde Urdineko urte luzetan, doi-doia gertatu da Italian, aldi bat edo bertze San-Remorano, nehoiz ez haratago, itzuli labur bat egin badut, hango hiri omen handikoek eta edergintza lan mirazkoek joateko gura aldi bat baino gehiagotan eman baldin badautate ere... Urteko lana gelditua zeneko ekhain ondar edo uztail hastapenean, indar batek ereman nau beti (“orratza burdin-aitzak” bezala lerrake Oihenart olerkariak) etxeko aldera, bidaia batzuetan luzaturik ere bidenabar, aiphatu diren Probenza eta Languedoc herrialdetako lekuetan geldituz egun bat edo bertze, edo lehia zenean oren zenbaitez bakarrik. Hara heldu orduko berehala abiatu niz, urte oroz, ez itsaso handiko mainu-etara, horien aldia gero zen, baina, bizpahirur asterendako, Garazin eta Orreagan gaindi gehienetan, bidea hobea baitzen, batzuetan Baigorri eta Aldudetik labur-renean, edo Izpegitik Baztanera jautsiz, Nabarrako hegoalde hartara buruz. Bidaia horiek ukan dute, urte andana batez, laneko arrazoin on bat, eta ez bakarrik lanarte 'ta bidaietako.

Etxera noizpait, 1970 inguruan edo lehenxago, ekharria zautaten Ahaize gure auzoaldeko etxen zerrenda bat, XVII-

garren mendeko azken urtetako zergen banakatze bat etxez etxe, herriko zinegotzien konseiluaren manuz. Emaiten zituen, zerga biltzeko kargua ukana zutenen izenaz (bat gure auzokoa) eta auzoan urteko zinegotzitako hautatuak ziren bienaz (bat gure etxeke nagusia) bertzalde, hiruretan hogeita hamar bat etxeren izenak, zerga handiena ordaintzen zuten “aberatsenetarik” ttipie-netarano. Urte hetan gure ixtorio zaharra guti agertua 'ta guti ezaguna zen, eta etxean entzunak ziren gertakari edo erran batzu-etarik hara - “sukaldeko xurruta harrizkoa kampora agerian zuten etxeak zaharretarik zirela” zion amatxik -, nehork zer guti zakien gure aldeko etxen zahartasunaz eta iraupenaz. Paper horiek, laur mende iraganik, emaiten zituzten, ez batere nobletasuna Frantzia-ko erregen aroan atxikia edo bildua zutenen izenak, gure herri-aldetako paper zaharrenak ezagutu eskasean, ezpaitzen orduan holakorik ezagutzen, eta bertzeak nahi zituenak irakur baitze-zazkeen liburu batzuetan (Haristoy edo bertze, nahiz ordukotz aspaldidanik agortuak eta ez ororen meneko), baina orduan zutik eta jendeztatuak ziren etxe guzien izenak, eta abantzu guziak oraino han ziren. Gauza horrek hein batean ustegabeturik, artikulu bat moldatua nuen eta bien ararteko mediku ezagun baten bitartez Jean Haritschelhar-ek Baionako erakustokiko *Bulletin* hartan agerr-arazi zuen, egiten nuen lehenbiziko artikuluetarik bat izan baitzen. Baina XVII-garren mendean han zirenez geroz, eta, Frantziako erresumari lotu baino lehen, XVI-garren mende hastapeneko gerlen ondotik, lehenago Nabarra guziko hiri nagusia Iruñe izana zela jakinez, eta gure eskualdetako etxen bizi luzeaz gorago joaitekotz, Iruñeko artxiboetara jo behar zen.

Hango “Hirur erregeren” hotel handian zenbait egunendako jarririk, urte zenbaitez gero ere egin dutan bezala, hiriko eraikuntza ohargarrienen ikusteko arteak hartuz, banindoan artxiboetara, eta nik dakita nola, orduan haien buruzagi zen Florencio Idoateren bulegoan gertatu. Gizon gozagarria iduritu zizatan, osoki “Nabartarra” (nik “aquí en España?” erran ordu batez, berehala zuzendu ninduen: “aquí en Nabarra!”), eta gure eskualdeko etxen zerrenda zaharrik bazenez han aipatu orduko, erran zautan berehala 1366-ko “florin”-etako zergaren banakatze-ko aitorenseme ‘ta laborari etxen zerrenda, herriz herri, nun aurki, eta haren ondotik 1350-ko diruen zergakoa (“monedage” erdaraz), eta hortarik katalogoetan mihatuz, errex ukan nuen ere 1412-koa, eta gainera, guziak han berean fotokopiatuz, hala egiten baitzen orduan, XIII, XIV eta XV mendetako gure eskualdez, Orzaizeko ala bertze,

ari zen paperreria aberatsa. Horra nola, ustegabetarik, gauza ainitz hala gertatzen baita, ikhertu nituen ehork oraino ezagutzen etzituen paperrak, ez eta Erdi-Aroko lekuen eta jenden izenaz thesis bat egin berria zuen Eugène Goyhenechek ere. Bazen hor, egin nituen artikuluez bertzalde, lan gotorragoko baten gaia, thesis batena, Jean Haritschelar-ek berehala hartara sustatu baininduen. Horrela hasi zen, eta paperrak eta dokumentoak urtetan zehar bilduz ondu, Montpellier-en hartua eta hasia nuen gaia utzirik, Erdi-Aroko etxen euskal izenen thesisa, Bordele III-ko unibersitateko euskal ikaskuntzetan.

*

Iruñeko hiriak duen ikuskarri ezagunena, delako San-Ferminetako feria du. Erran behar dut eztutala aldi bakar batez baizik ikusi. Etzoan oraino orduan besta hartara, gero, muga osoki ideki ondoan, Franco-ren ondotik Espainia demokraziara itzulirik Europako batasunera sartzen ari, urte oroz abiatu den atzerritar jende elemenia. Izana nintzan jadanik aldi batez lehenago zezen lasterraldi batera, 1959-an Parisko lagun batekin Espainiara egin nuen lehenbiziko itzulian, feriatik ezer bertzerik ikusi gabe. Eztut geroztik zezen lasterrik aldi bat edo bietan baizik ikusi, hainbertze zauri, sarraski, odolek laster gohainditu baininduten. Hogeit bat urte hurbil berantago, Orzaizetik lagun batzuekin eguneko hara joanik, orhoit niz San Fermin bestako omore onak, alegerak, hainbertze jenderekin bortizkeriarik batere gabeak, aski loriaturik utzi nindutela.

Besta den handi ala ederrena baino gehiago, Iruñera 'ta ingurunetara udan urtez eta urtez ereman nauena bertzerik zen: artxiboetako ikherraldietan jarraikitzea lehenik, eta ere nahi bainuen ikusi zer gelditzen zen irakurtzen nituen paper eta liburuek, usu laudorio handitan, aiphatzen zituzten Erdi-Aroko ederland, eraikuntza, leku 'ta lekukotasunetan, erresuma zahar hark oraino erakuts zezazkeen hatzetarik, ez bakarrik paperretan, baina egiazki, zutik. Iruñeko hiria lehenago ere literatura frantsesak aiphatua bazuen, Valois-ko Margarita erreginaren *Zazpiegunetako*-an lehengo gorteko gertakari zenbait eta harekin izena bakarrik, San-Simunek bere embaxada handian Espainiako errege Filipe V-garrenaren gortera XVIII-garren mende hastapenean egin zuen itzulian xehekiago (erakutsi zauzkoten hango gazteluak eta harrisiak eta miretsi zituen, baina ez hainbat hartaz espantu handiak

eginik jan-arazi zauzkoten arrain tripak), Victor Hugo-k, 1843-an egina zuen bidaiako liburuan da aurkitzen lehenagoko ixorioan leku aski handi bat ukana zuen erresumako hiri nagusi horren erakuspede egiazkoa.

1830-an hainbat harrabotsen erdian Parisko Antzoki Frantzesean eman-arazia zuen *Hernani* “drama” moldatu zuenean, ixtoriotik neurri batean urruntzen bada ere, Errege “katholikoek” eta Nabarraren arteko gerla hura gogoan zukeen. Hernani, Espainiako korona Emperadoreari berriz hartu nahi daukon printze jazartuak guti badu ikusteko Joanes Labrit Nabarrako errege zuzen bezain ahularekin, eta Hernani izeneko herria Gipuzkoa osoa bezala aspaldi danik (1200-an) Gaztelaren meneko jarria, gauza horiek eta berak Espainain haurzoaroan aita han Napoleonen armadako jeneral izanik egina zuen bidaiaria gogoan zituen Iruñera heltzean diolarik: “*Ene haurzoaroan ikusi dutan Espainia guzua agertzen zata hemen lehenbiziko idi-orga ikusi dutan egunean bezala. Bizitik hogeita-hamar urte ezabatzen zaizkit; berriz haur ttipi bilakatzen niz...*”. Aro erromantikako Espainia gogoan Nabarrako ixtorio berezia baino gehiago, etzakoketen ikasi hiriaren izen euskalduna, Erdi-Aroan hainbat aldiz latindurik paperretan usu aipatua izanik ere (“Iruina” da latinkietako molde zaharre-netan), ezen nahasten da hiriaren izenez dionean: “*Baskonen hiria batzuen araura Pompelon izenarekin; hiri erromatarra bertze batzuenara Pompeiuz-ek egina*”. Aro zaharrena ahatzirik edo jakin gabe, hemen ere gogoan duen Erdi-Aroa azken mendetako baitu, bere *Notre-Dame de Paris* elhaberrian bezala, erresumako ixtorioaren laburpena 'ta nortasuna aski zuzen emaiten ditu, dionean: “*Iruñe gaur-egun hiri nabartarra da, Evreux-ko etxeak hiri gothika bilakatu duena, Austriako etxeak hiri gaztelarra, eta iguzkiak abantzu Orienteko hiri.*”

“Iguzkia”, ezen Hugo-k uzten zituen Lapurdi-ko 'ta Gipuzkoako aro hezetik landa, Iruñera heltzean agorrileko 11-an, Nabarra gehienean bezala Mediterranea aldeko uda beroarekin aro idorra zuen aurkitzen, eskualdearen, zuhaztien, alhorren itxura berri bat, hainbat aldiz Orreagako lephotik jausten hasi orduko, hemengo uda usu hedoitsu bezain bustietarik ihes egitean, nor nahik Hugo-k bezain azkarki senditzen baitu aldamen ustegabeko hori: “*Parisen eurria duzuen aldi berean, nik hemen iguzkia dut, zeru urdina, eta behar diren bedoiak, zuzen-zuzena, miragarriko kebe batzuen egiteko mendietan.*”

Oraiko bidaiariari bezala, lehenbiziko begi ukhaldian Iruñeko eraikuntzak guti ohargarri iduritu baldin bazizazkon Hugo-ri, etxeak margoz, galeriaz, erridauez argiturik ere “*beltzak*”, bitxiki aldi berean “*airos eta biphil*”, ikusi zituen geroztik hiriak galdu ala aldatu dituen gauza batzu, eta bereziki “*adarailu idorrezko dorre laur kantoineko handizki egin bat*”, gogoaren phizteko behar zuen guziarekin “*hamahirugarren mendea molde arabiarrek bertzelakaturik*”, hari zatxikon XVII-garreneko athe handi aphainduia – “*Filipe IV-garrenaren estiloko athe harri handi batek aberaski betetzen du dorre horren azpia...*” - ikus baitaiteke aldiz oraino hiriko parke handira sartzean ezarria. Hortik hara gehienak erlisio-nekoak diren eraikuntza eder eta zaharren bilatzeak guti askietsirik utzi baldin bazuen ibiltzale erromantika, Iruñeko elizek bereziki hala egin zuten, eta kathedraleak berak hastapenean. Hain itsusiak iduritu zitzazkon eliza hortako aitzinaren aphaintzeko orduko “moda berrian” XVIII-garren mendean ezarri zituzten aitzineko dorreak (“*Karlos III-garrenaren aroko bi ezkiladorre higugarri...*”), nun gibelera itzultzekotan izan baitzen, *beteginki haserreturik* dio berak:

“*Nola! nion, horra zer egin duten Filipe II-garrenaren gaztelua eraikitzen ikusia duen kathedrale abantzu erroman hartarik, Loiolako Inazio arkabuz frantzes batek zauritzen, eta Evreux-ko Karlos Nabarrako erregeak hain eder aurkitua zuena nun bere hil-hobia hartan ezarri nahi ukana baitzuen!*”

Buruaren itzultzean ohartu zen, zorionez, bazi-rela *aitzineko harresi gora beltzen gibelean*, estilo gothika garreztatuan eginak ziren leiho 'ta dorre ttipi batzu, bazterreko athe bat XV-garren mendekoa, eta hortik sartu. Iruñeko kathedrale erroman zaharra eroririk, XIV-XV-garren mendetako zuen alabaina ikusten Hugok, eta oraino XVIII-garreneko molde mundutarrean egina zen sankristaua, eta hortakotz zukeen, eliza baten barnean, maltzurki miretsi: “*Dante da kalostran, Pompadour-ko Anderea sankris-tauan (...)* Sankristauak *bekatura gomitatzen du, kalostrak penitenziara.*” Kalostrak, egiazki miragarria harri aphainki landuen goratasunean, ikuslea ustegabetzen badu beti, Hugok aurkitua zuen bere amets gothiken hazteko bertze ederlan bat, aitzinean aiphatua zuen Nabarrako errege Karlos III-garren “noblea” deritzoten haren hil-hobia, bere emazte erreginaren sahetsean etzanik zizelkatua den harbiziko gizaidurian, xeheki erakusten baitu orduan zuen itxu-ran, eta orai ikus daitekeen leku berean:

“*Hamaborzkarren mendeko hil-hobi adoragarri bat da, Bruges-en izaiteko on lizatekeena, Flandre-ko Maria 'ta Karlos Beldur-*

gabearenen ondoan, Dijon-en Burgoñako duken hil-hobiekin, edo Brou-en Saboiako dukenekin. Gaia ezta aldatzen, baina hain da xoil eta eder! Errege bere lehoinarekin, erregina erbi-xakurrarekin, elgarren sahetsean etzanak dira, korona buruan, harbizizko ohe batean, ezkontide hil-hobi hunkigarria, baien inguruan itzulia badagiela, lan hautekoeneko zizelkadura tipi batzuen azpian, itxuraño lerro batek nigarretan..."

Nihaurek ere hil-hobi horri behatu dut kathedralean ikusten izan nizan aldi oroz, lanaren miresteko bezain-bat, orhoituz 1425-ean hil baino zenbait urte lehenago, Orzaizeko jende 'ta zinegotziekilako auzi luze baten ondotik, errege horrek emana zuela 1418-an Orzaizekoek Nabarrako Estatuarekin eta Erretatearekin handik goiti ukanen zituzten eginbide 'ta zerga guzien "pribilejio" edo lege berezia: aretxe larru gaitzeko bat betetzen duen eskutitz bat da gazteleraz izkiriatura, egun batez osoan hartu bainuen argazkiz, eta geroztik etxean atxiki: *Guk Karlos, Nabarrako errege, Nemoux-ko duke, eskutitz hauk irakurriko dituzten guzieri, Agur!...*

Ezta aldiz gehiago han ikusten, eta musikaren maitale bezala baderraket "zorigaitzez", Iruñeko kathedralean V. Hugok miretsi zuen organo ederra: "*Organo albise zabal bat bada, azken mendeko moldean, biziki aberatsa 'ta urreztatua, khoru guzia azpian duena hartzen eta ez andeatzen. Gainean irakurtzen da bertzela ere Espainiako organo guzietan ezarria den berset hau: Laudate Deum in chordis et organo. Beherago urtea: Ano 1742.*"

Herriko baratze handia, erdi-erdian eta itzalpean – behar da ere itzala iguzkia ardura samin den leku horietan! – ostatu bazkaltzeko gozagarri batekin, Espainiako erregek bermoldatu zituzten harresiak eta gazteluak inguruan, kathedralea, erakustoki bat Erromatarren aroko harridazki, mozaika, kathedrale zaharreko zutabeburu erromanez ohargarria, horra, eraikuntza berriekin eta "Gazteluko plaza" dioten erdigu-nearekin, arkupeak inguruan, Iruñek gaur-egun begietako miresmenari eskain dezo-keen hoberena. Ezta hainbertze nahi bada, oro har, hainbateko aiphamena ukan eta atxikia duen hiri nagusi batendako. Bizkitartean, Hugok xoilki bezain zorrozki errana zuen gogoko askieste hura egia da: "*Iruñek hitzemaiten duen baino gehiago emaiten du.*" Hara heldu orduko, beti senditu dut gure lehengo hiri-nagusiaren ikustek emaiten duen (eni bezala bertze zenbaiti ere entzun dauetanaz) halako etxekotasunezko sendimendu berezi bat, ez Baionak ez Donostiak ez Euskal-Herriko bertze hiri edozeinek phizten eztatena, eta agian gure erresuma zaharraz entzun eta irakurria

dugun guziaren ondorioa. Bizkitartean “Baxe-Nabarra” XVI-garren mendean sortuz geroz batzuek “Nabarra-garaia” deritzoten herriak badu bertze ikusgarririk, egiazki batzuetan Iruñekoek baino gehiago ustegabeturik uzten baitute: komentu, hiri, jauregi.

*

2. Ibar eta hiri, eliza 'ta komentu ...

Orreaga

Espainia beherea mahometanoen azpian egon zen mende zerrenda luzean, 711-tik XII-garren mendera eremu gehienez, eta Al-Andaluz handitik gelditu zen Granadako erresuma ttipia 1492-rano, Nabarrak eta iphar-mendien aldeko ibarrek bere gaintasuna zaindu edo berehala bildua zuten, erlisione girixtinoaren geriza leku bakarrak geldituz, eta eliza ala komentu ainitz egina izan zen, X-garren mendetik XII-garreneranokoak orduko molde erromanean.

Ibañetako lephotik jausten hasi orduko, burdin-zurizko hegaztegi eder baino bitxiago batzuer ohartzen zaie bapatez, zuhatzen eta mendiko izurduen artetik, Luzaideko etxeak utziz geroz aurkitzen den lehenbiziko eraikuntza: Orreagako komentua. Ezta zaharrena Nabarran, beilarien eta ibiltzalen ostatu xoil izanik hastean, ezpaitzen handitu, eta biziki aberastu ere, XII-garren mendea jadanik aitzinatua, 1136 ingurutik hara, erregek abantailez hornitu zutenean baizik. Leku hotz eta gora hortan, Karlos Handiaren armada Frantziara itzultzen ari zen, Mairuek bazadukaten Zaragoza debaldetan setiaturik baina Iruñeko harresiak aurdik-arazirik, Errolande Britainiako markesa armadako azken lerroen buru, ingurune hortako jendek Lephoederrera heltzean ustegabetarik jaukitu 'ta suntsitu zutenean: 775-ko agorrila zen. Gertakari hori bermoldatuz egin zen gero, XI-garren mende ondarrera, frantzes zaharreko “kantu” aiphatuenetarik bat, *Errolanden kantua*. Gauzak gertatu ziren moldetik osoki aldatuak baldin badira hor, Frantzia beheretik heldu ziren bidariak, ala Konpostelako beilari, ala armada, ala tratulari 'ta merkatari, bazakiten “Garaziko portua” zioten mendi iragaiteko neke bezain lanjeros horren berri: “*Gora dira mendiak, ilun ibarrak...*”

XIII-mende hastean Errege Zantxo “azkarrak” (“hetsiak” dio ere Oihenartek) ainitz lagundu zuen bere aitak handiturik utzia zaukon komentu hori, eta ikusgarri da oraino eliza

gothika aski ttipi baina aphainaren ondoan, kalostrapeko kapera batean erakusten den haren gizaiduria, hil-hobi berritu baten gainean etzanik, korona buruan, ezpata sahetsean, zango bat bertzaren gainera bitxiki emana (minbizia ba omen zuen batean), bi metra gorako gizon gaitzeko bat: "azkarra" bederen soineko handitasun hortaz, edo Las Navas de Tolosa-ko gudu handian, 1212-an, Mairuen armadaren garhaitzeko egintza bereziaz agian. Ezen Espainian Mairu horiek hartua zuten eremuaz bertze errege girixtinoak emeki emeki jabetzen ari zirelarik, bere erresumako zati gotor bat galdua zuen ordukotz, jendakiaz hurbil-hurbila zuen Gaztelako erregeek Gipuzkoa osoa 'ta Arabako zati bat Gazteizekin (hiriaren setiatzeak bederatzi ilabete hartu omen zituen) ekhen-durik 1200-ean, erresuma zaharra horrela ttipituz oraino lehen baina ez azken aldikotz, mende baten buruko Bizkaia 'ta Araba osoa galdurik gelditu behar baitzuen Nabarrako erresumak.

Aspaldidanik uste da errege horrek ezarri zituela, delako La Navas de Tolosako gudua orhoitzapenez, Nabarrako eskudoan jende gehienek ikusi dituzten gatinak. Dudarik ezta batere jendeari han edo hemen, eta orai Orreagan, gudu hartan omen erregeek ezpataz moztu hek berak direla erranez erakusten diren gatina horiek eztutela zazpi edo zortzi mende iraganik. 1648-an A. Oihenarti Iruñeko artxiboetara sartzeko galdea hark egin eta (Agaramundarren ixtorioko zion) ezaren emaiteko aitzinatu zen arrazoin bat, gatina horien ixtorio edo hobeki leienda onhartzen etzuela izan zen (bertzea Nabarra-ko errege legezkoen alderdikoa zela, eta ez erresumaz zuzengabe jabetuak ziren Espainiakoen). Hugo bera, eta aitzinean San-Simungo duke orhoitzapenlaria, ohartuak ziren bazela hor jendearen enganatzeko gezur huts bat. Hunek holaxe dio, 1722-an Espainiako embaxada berezitik itzultzean erakutsi zauzkoten gauzez: "*Erakutsi zauzkuten Errolan-den ezpata 'ta horrelako erlika elhaberriko ainitz.*" Bertzeak, mende bat iraganik berantago, Iruñeko kathedraleko burdin-sare bat ikusi zuenean delako gatinez egin zela zion latinezko idazkiarekin: "*Alabaina gatina horren burdinarekin egin da sare hori. Horra bederen zer daukon agertzen iragaileari 'ta zer dion burdin-sare horren gainean ezarria den idazkiak (...)* Ezer eztut laurkun horri ibardesteko, sare lana hamalaurgarren mendekoa dela baiarik eta batere ez hamahirurgarrenekoa..." Gai beraz eta ixtorioko egiaren gain emaiten diren ametseriez bururatzeko, erran behar da oraino badirela XI-XII-garren mendetan zizelaz marrazkitu diren gudari nabartar batzuen eskudoetan, jadanik, eskudo berrian agertzen diren "gatina" horien eite handia

duzen itxura batzu, eta oro har, delako "gatinak" aspaldidanik erredoletan eta eskudoetan ezarria zen erdarazko "rai d'escarboucles" ("joiagorri arrai") deritzoten hura bera dela, Oi-henartek bere *Notitia*-n hain argiki erakutsia zuen gauza.

Lehenbiziko aldietan handik iragan nizanez geroztik, bideak berritu 'ta handitu baitira, mugaren iragaitea errextu, Kompostelako bidaia - edo nahi dutenendako "beila" -, oinez ala bertzela, modan jarri, neguko bizpahirur ilabetez ezpada, lekua luzaz egona zenetik bertzelakatua da, ikuspenez aski atsegingarri bilakatua, han dabilan jendea azkarki ainiztu baita ere: etxeak, harresiak, inguruneak garbi, beribilen uzteko lekuak zabal, elizak kampotik duen itxura, mendi 'ta aldapa aldera ere, ikusgarri bere harresi zut gorekin. Hala ere itxuraz osoki bertzelakoa zatekeen, eliza bera salbu behar bada, Nabarrako gerlan (1512-1530) Gaztelarrek zatiz aurdikirik berreraiki zuten aitzinean.

Komentutik beheraxago bada kapera ttipi erroman bat bere ithurriarekin, uste izan baita une batez Orreagako guduan (775) hil ziren Karlos-Handiaren armadako buruzagien ehorts lekua zatekeela, jakin delarik geroztik Bordeletik hurbil Belinen ehortziak direla. Berehala, ixtorioz beteak dauden leku horiek utzi orduko, idekitzen da, zinez, Auriz-ko herrira zuzen eta ezтики jausten den bidearen bi bazterretan, Orreagako ibar ordokia. Hortan ezarri zuen *Errolanden kantua* ondu zuen "Tuold" izene-koak Errolanden eta Mairuen (edo "Sarrazinen") armaden gudu handia. Alabaina, ezpaitzen orduan egiazko ixtorioaren axola handirik ez eta ezagutza zuzenik, ospagarriago zen egiazko leku zabal bateko gudu handi luze bat, alde batetik Mairu mahome-tanoak, bertzetik Frantziako girixtinoak, egiazki lephora heltzeko erreka gaixto ilun batean ustegabetarik, Errolanden menean ezarria zen armada gibelak, eremaiten zituzten zama 'ta hornimenduekin ezin ihardokiz, jasan behar ukan zuen jaukitze 'ta sarraski labur bezain bortitza baino. Jaukitzaleak berak, ainitzek diotenaz, ingu-runetako jendeak ziren, aspaldidanik Frantziakoak bezala girixti-noak, egintza hortako Iruñe inguruan, Ibero bazterrean eta Tude-lan nagusi ziren "Baku-Kasi" girixtino izan eta mahometano bihurtuak ziren buruzagiekin baturik omen.

Ibarra zabal bada, Aurizko herriak berak aski erakusten du, uren ixurkiaz Mediterranea aldera itzuliak izanik ere, uhaitz eta latsak Iberora jausten, mendian gora girela oraino, hotza, horma, elhurak usu, harrizko etxe laur kantoinekoek bereziki, hegaztegiak molde berean zut elhurralde guzietan bezala, leihoak,

harri handi batzuekin inguruan, hertsi etxe zaharretan. Ordoki hortarik aski urrun jautsi behar da Iruñera buruz, “Erroko ibarra” deritzotenaren lehenbiziko herrien aurkitzeko. Bide guru-tzeak, ezker bazterrera utziz harroka 'ta oihanen artetik Zaraizura 'ta Erronkari aldera deraman adarra, hautua uzten du: edo eskun Bizkarretatik (bitxiki “Viscarret” moldea hartua du erdalduz, ez uste lizatekeen bezala gaztelerara, baina urrungo bidari gehienek zerabilaten ohiko gaskoinera), edo ezker, bidea apur bat luzexago, Agoiztik. Eskualdearen itxura berehala aldatua da, lurra idor, landareak, zuhatzak ttipiako, leherrak nagusi, gainetik zerua abantzu beti argi, iguzkitsu, ezpaita atsegin ttipia Atlantika aldeko lanho-eurietarik usu udan ere ezin geldituetarik atheratzean.

Leire

Orreagako gothikatik Leire-ko erromanera alda-tzeak baderama bertze mundu 'ta aro batzuetara. Iruñetik iragan nahi ezpada, Auriztik Agoizko bidea harturik aitzina Irunberriko hobira jausten da, Iratiko uhaitzak badagien ur eremu hertsi bat harroken artean zilatua iduri. Handik hara Yesako herria iraganik izen bereko aintzira luzearen uren bazterretik abiatu ordu-ko, ageri dira ezkerretik komentuko hegaztegiak eta dorreak, laster mila metraz gora doan mendiaren lehenbiziko ordokiko *leiborrea*: hitz hori bera da, azpiko 'ta inguruko erreka, lats eta lohietarik idorrean eraiki zen lekuaren eta komentuarien izena, mendetan zehar latinduz eta aldatuz oraiko “Leire” eman baitu (norbaitek uste izan badu ere, Erdi-Aroko ohiduran latindu zen molde bakar bati behatuz, “legionari” erromatar zenbaiten ganik ukana zuela!). Hainbat aiphaturik izana da, IX-garren mendean geroz, Nabarrako erresumaren hastapenako aroetan oraino hurbil-hurbileko eremu-en jabe azkar zauden Mairuen jaukitzetan, herri horren bihotza 'ta horko erregen gerizaleku hautatua izanik, nun, aro horietako ixto-riotik zerbait gogoan den ber, Iruñe utziz geroz bihotza ordurano hunki eztuen sendimendu bitxi batez hartua izaiten baita hara heltzean. Hortako zuten Errege Zantxo Handiak XI-garren mende hastapenan, orduan berreraiki baitzen eta errege handia hil eta hogeitau bat urteren buruan 1057-an diotenaz konsekratu, aitzine-koek eta ondokoek, handizki lagundua orotako abantailez eta emaitzez, hango

abadeari apezpiku baten ohore ‘ta lerroen emaiterano, errege hetarik batzuek han berean ehortziak izan nahi ukaiterano.

Alta lehenbiziko ikuspenak gogoia halako gose batean uzten du: eraikuntzak eta harresiak ba, baina uste zen baino ahalago, hertsiago ere, komentu zaharreneko etxekietarik ezpaita gauza guti baizik gelditzen, eliza salbu, batasuna duen egitura handirik begira ez jauzten, harriak halako gorraile beltzaran batez, orai agerian emanak diren Iruñeko katedralean bezalatsu, baina argiagoko batzuekin nahasiak, iduriz berritu dituzten edo berdin berriagoak diren harresietan. Estilo erroman bera elizak du bakar-rik argiki erakusten, kampotik harresien goratasun xoilak baino gehiago sortaldera dematen elizaburuko hirur inguru-erdiek, laur athek, sartaldeko sartze handiak bereziki, biziki antolatua izanik ere iduriz, bere gizaiduri luze guretako apur bat bitxiekin – estilo erromanean bereziak direla diote -, aro hartako, erran nahi da hemen XII-garren mendeko elizetan ikusten diren apostolu, saindu, jende, ihizi, suge ‘ta bertze, orduko erlisionearen erakaspén guzien bilduma bat, zizelkari ez ezagun batek edo batzuek arthoski, baina ere maltzurki, batzuetan irrigarriki moldatuak; athe handi horrek eztuelarik alta Espainiako eliza erroman batzuek duten handitasun hura (eta Frantzia aldean ere: Moissac, Bordele-ko Santa-Kurutze, Biarnon Morlaas-koa bera, hunek atheko arku inguruan duen ahate lerro miragarriki zizelkatuarekin, eta bertze ainitz...). Hainbat urte iraganik, gudu, sute, ala edozein gauzek bere baitarik jasaiten duen zahartze ‘ta andeatze, ondorioz ere, ahaleen araura ez beti molde hobereanean berritze guzien ondotik, uste da, behar bada huts eginez, eta berantagoko eliza edo komentu handiago zenbait gogoan ukanez, hoin ospe handikoa izana den lekuak itxura handiago bat aberatsagoa behar zukeela.

Barnera sarturik “gainekeo” eliza nagusiaren ikus-teko, gogoia sendimendu beretan gelditzen da: XI-garren mendeko molde erromanari berehala ohartzen bazako elizaburuko hirur inguru-erdietara sartzea barnetik ikusiz khoroaren gibelean, begia joiten du ezperdintasun batek: erdiko handiaren bazterretako ttipiak ez neurri berean, eskunekoa ezkerrekoa baino abantzu bietan hertsiago, goraz hein berera hurbiltzen bada ere; hetarik barnera harresia aldiz gora, kampotik ikusten den elizaburu zaharraren aphaltasuna zuzendu nahi izana baliz bezela,

zerbait moldez “aberastu”, eliza gaina goitituz; harresi haren erdian leiho biribil bat, ttipi eliza zaharrenetako leihoak eta atheak oro diren bezala, lehengo jendea ttipiagoa zelakotz baino segurago etsaietarik eta ohoinetarik errexkiago zaintzeko; “erdian” harresi haren, baina ez elizaren... Eta orduan da ohartzen eliza gaina eztela bakarrik elizaburuko inguru-erdiek barnera duten itxura ezperdin hura baino heinez biziki gorago, leiho biribil ttipia, berantago eliza handietan “arrosa” deritzotenen handitasun eta aphainetik urrun, harresi goititu haren erdian bada, eztela, ezper-dintasun horren ondorioaz beraz, erdi-inguru ezberdinek eta bereziki erdiko handienak badematen erdigunean, baina eskunago; handitze hori 'ta elizagain guzia horrekin molde gothikan dela, beraz hori guzia, aitzina, atheak baino bi mendez bederen berantago, eztakigun gertakari edo ixtripu zenbaiten ondotik berriturik izana dela.

Gogoia apur bat asegabea gelditu bada eliza barne horri azken behakoaren emaitetan, Leireko elizak badadukan ohargarriena ikusteko da oraino: azpi-eliza. Horra zinez gainekoa zer moldekoa edo nolakoa izan nahi ukana zen erakusten duen egitura: berdintasun osoan luze bezain zabal, harri bakarrezko zutabe inguratu labur-labur batzu neurri osoko lerrotan, gaitzeko harri batzuez, gainean baditxikatela inguru-erdi erromanen indar-raz eliza guziaren phizu izigarria, zutabe buruak xoilki bezain ohargarriki zizelkatuak, athe bazterretakoen molde berean. Hemen, orai, barne hortako hutsak eta hotzak hartzen dute, asma badateke ere noizpait, XI-garren mende hastapenean edo berdin apur bat lehenago – jakintsunek egituraz eta itxuraz bederen “arkaikoa” dela baitiote -, bazabiltzala hor fraideak, eta batzuetan errege 'ta gorteak. Eta orduan da gogoan hartzen zerbait zinez berezi, handi, duen ospe guzia merezi duenaren aitzinean dela, eta Leireko komenturano joaitea ezin hutsegina dela Nabarrako ixtorio zaharra begiez eta gogoaz hunki nahi baldin bada.

Zangozatik Olibara

Leiretik berriz, sortaldetik Aragona eta Ipharetik Erronkari eta Zaraizuko uhaitzek bi aldetarik hartan batuz hazten duten Yesako aintzira bazterrera bi urhatsez (erraiteko

moldez, ala bi errota itzuliz) jautsi eta, handik harat Aragon izeneko lats bakarra baitoa beheiti eguerdi-aldera, baina beti, aphaltzen badira ere, mendien artean, hor berean da Erdi-Aroan hain aiphameneko izana den Zangozako hiria. Lehenago Erromatarrek oraiko (XI-garrenkoa bada ere...) Loarreko gaztelutik hurbil zen “Calagurris Vasconum” izeneko hiri harriz azkarua bortizki setiatu eta suntsitu ondoan, “Baskonen herria” izana zen eremu menditsua 'ta jendea azkenean menperaturik, eremu hori zatitu zen eta, behar bada jadanik V-garren mendetik 711-rano iraun zuen Espainiako erretate agotaren aroan, segurkiago VIII-garren mendetik laster, erretate girixtinoen moldatzean, Nabarrako eta Aragonako bi erresumetan berexi. Gaztelakoa bezala, Aragonako lehenbiziko erret-korona Zantxo Handiaren semetarik batek ukana zuen XI-garren mende hastapenean, haurride ala jendaki, errege girixtino horiek guziak berehala eta horien ondokoak zein gehiagoka elgarren artean gerlan abiatu zirenean, Mairu etsaiak han hurbil oraino azkar zituztela ahatzirik edo axolatu gabe, artetan gezurrezko bake batzu eginez.

Zangoza, lehenago “Rocaforte” izeneko lekuan zen hiri zaharra handituz eta hedatuz, Aragonaren bazterrera jautsi zen eta beraz mugazain bilakatu, harresi eta gazteluz inguratu: Alfonso “Gudaria” dioten Aragonako eta Nabarrako errege, Mairuer Zaragoza eta bertze hainbat hiri eta eremu harturik, urte zenbaitez Zantxo Handia bezala “Espainia orotako Emperadore” izenarekin, Zangozan egona zen, erret-jauregi bat eginik eta hiri berriari “forua”, erran nahi baita lege berria emanik. XII-garren mende hastapena zen ordukotz. Zangozako eliza nagusia “Santa Maria la Real” edo Erret-Andredona Maria ezin hutsegina da. Ageri da lehenbiziko eliza erromana, XI-garren mende azken edo XII-garren hastapeneko (Alfonso Gudariaren dembora), berritu izan beharra dela hemen Leiren bezala, eta erroman moldekoa gelditu denarekin batean ikusten dela gothikoa sortzen. Elizak, karrikatik ikusiz, zilo batean iduri du, ezpaitu hortakotz begietara hobeki baizik jauzten hanbat aipatu eta aztertu den athe nagusiak: zizelkadurak nasai baino gehiago metatuak iduri, batzu biziki ohargarriak bereziki sei zutabegizaiduri luze, zaiak ixurka jausten, gorago zenbait itxuraz bitxiagoak eta batzuetan moldagaitz utziak bezala, guzia bertze athe batzuek duten handitasun hartarik gabe alta, gauza batzu

guti edo aski andeatuak ere. Diotenaz bi zizelkari jarraiki dira lan horietan. Athe gainak eztu inguru erdiko arku betea, baina molde gothikan jadanik, arku hautsia. Elizaburu ingurudunek, dorreak, barneko zutabe handiek bere buru arthoski zizelkatuekin bademate mirestekoa.

Zangozak bortizki jasan zuen XVI-garren men-de hastapenean Nabarrako gerla, jendetan ala eraikuntzetan. Alta hemengo erret-palazioan sortua zen Joanes III Labrit Nabarrako azken errege zuzenaren semea, Henri II “Zangozako” diotena hain zuzen. Zorigaitzez erresumaz ber-jabetzeko aitaren ondotik 1521-ean hasi zuen gerlan, Frantziako erregek lagunduz armadaren buruzagi ezarria zuen Azparrozko jauna Logroñoren setiatzeko behar baino gehiago aitzinatu zen, han berandu, Gaztelakoer eta hauen lagun Gipuzkoar, Arabar, Bizkaitar eta bertzer biltzeko astia utziz, azkenean armada nabartarra erhautsi baitzaukoten Noiango gudu izigarrian, eta bera preso hartu.

Komentuak usu eta hurbil zauden, oraino eliza erromanak, herri ttipienetan ere, usu diren bezala: aipatuena Aragonako aldean “San Juan de la Peña” diotena erdaraz (euskarak izendatzen zenean, euskara Aragonan eta Jaca-ko hiri handian oraino mintzatu baita XIV-garren menderano, “Aitzetako Jondoni Johane” zatekeen), errege batzuen hil hobi, eta beherago Nabarran mugatik ez hain urrun, Aragon ibai bazterrean, “Oliba”-koa. Aragonatik aski usu iraganik ere, Zaragozan gaindi Barzelonako aldera edo, Soriatik Espainia barnera eta beheko itsas-bazter-retara jautsiz, etzata gertatu Aragonako mendi aldetara igaitea, hainbat hiri eta gaztelu aipatu baldin bada hor ere, Jaca, Loarre, Huesca (Erromanoen aroko “Ozka” hura bera) eta bertze, ez eta ere “Aitzetako Jondoni Johane” hortarano. Zangozatik beheiti, Aragon ibaiari jarraikiz, Olibako komentura laster heltzen da. Orhoit niz hango gortera sartu orduko elizako athe nagusiak duen handitasunak begietan eta gogoan nola joiten duen. Nahiz XII-garren mendean molde erromanean hasirik elizaburu inguru-erdidunek eta oraino barneko eta kalostrako zati batzuek baderakutsatenaz, XIII-garrena zen eta estilo gothika hedatzen ari zizterzianoen komentu eder hori bururatu edo zatiz bederen berritu zutenean. Athea gerizatzen duen arku hautsi handiak elizatzinean (edo hobeki gibelean,

“aitzina” zuzenez aldareak barnetik iguzkira so dituzten elizaburuek baitagite), bi aldetara neurri berdinean hedatzen den harresi gora baten erdi-erdia hartzen du, eta begira harresi osoaren herenetik bat zuzen, bi aldetan bi arrosa ederrekin. Ageri da hemen lanak manatu dituen kompas eskuan ari izan dela, zizterzianoen biphiltasun hautatu hura matematikaren zorrotasunaz egituratuz, abantzu murrizta-sunera eremanen ere.

Hurbilduz, etzatera doan iguzkitara harresi osoa Nabarrako zeru urdin bizian hori-gorrail urreztatu batean agertzen baita eta harresietako izkinen eta zizelkadura ttipi lerroaren itzalak hertsienean, guziaren marrazkitzeko behar den hartan, ohartzen da athe iduriz handi bezain murriz hori, ikusi eta miretsi ditutan elizetan hemen baizik ezpainako ohartu, hamabi arku-hautsiek eta azpian bertze hainbertze zutaberdi xoilek egina dutela, gainean haustura gothikoa doi-doia ageri, arku horien hariak bertze, zizelkadura ez iduririk batere gabe. Gorago behatu behar da Erdi-Aroko elizek hain gostuko zituzten zizelkadurak badirela ere ikusteko. Baina ezta hemen ez Leireko ez are gutiago Zangozako itxura metatu hetarik: athe gainean, arku hautsiaren azpian, ihizi gurutzadun ttipi bat inguru bikun batean hartua, bi bazterretan gizaiduri berdin ttipi batzuekin; eta arkuen gainetik harresiaren aitzinatze zizelkatu zuzen baten azpian, lerroan, hamahirur buru, asma baitaiteke, bertze ainitzetan bezala (eta estilo erroman hutsean Zangozan), Andredona-Maria (eliza haren izenean da Zangozan bezala), bazterretan seinaka hamabi apostoluekin. Atheak bademan biphiltasun handi horren ondoan, kalostira gothika gozagarriago da, ez batere Iruñeko kathedralean aurkitzen den goratasun arinean, arkuak aski apha ere, baina arku-erdien barneko harria gothiko gardun hartan aberaski landua, ez beti molde osoki berdinean. Frailen biltzeko sala leku aphaindu atsegingarri hortara idekitzen zen.

Aragon ibaiaren bazter horiek ukana dute aberastasunean ziren aro bat, Nabarra osoak, idor eta erre iduritzen bazauku ere gehienean orai, ukana duena ere, eta gure adinerano atxikia. Hor gaindi dabilanak usu iragan behar dituen hirur ibai nagusien izenak gogoan atxikiak nituen Baionako lizean C. espāñoleko irakurlearen ganik gazteleraizko erran zahar hau ikasirik (geroztik ehoiz eztut entzun): “*Ega, Arga y Aragón hacen a Navarra varón*”, euskaraz holaxe bailizateke: “Egak, Argak eta

Aragonak Nabarra badagite jaun eta nagusi.” Iberotik jinik ibai horier goiti sartuak zatezkeen Norman edo Viking-ak, Iruñeko harresietarano heldurik errege bat preso hartu zutenean eta zenbait egunez, diruz eta urrez ordaindu arteo, atxiki.

Lizarra

Iruñetik osoki bertze aldera abiatzen da, Arga Puente-la-Reina-n iraganik, lehenago orok dakiten Kompostelako beilarrien bideko XI-garren mendean egin zen zubi hartan, orai zubi berrian, Egaren bazterreko ibar hertsu batean dagon Lizarrako hirira heltzeko. Lekuaren izena goizik, X-XI garren mendetan, irakur daiteke euskaraz ukan zuen molde lehenbizikoan: edo *lizarraga* (1079, 1084, 1098) iduriz ethorkiz molde zuzena bere *-aga* atzizki zaharrarekin ezpada ere izkiriaturik aurkitu den lehena, edo, agian ezpaitzen hitzaren bururapen hori erdaldunek bere hizkun-tzetan ezagutzen zituztenatarik, apur bat aldaturik *lizarrara* (958, 1024, 1047...). Hizkuntza “ofiziala” aro hetan latina baitzen, badi-duri izen hori latindu nahi ukan zutela, eta, ainitzetan gertatu den bezala (Lapurdikoko Urkietaren izen zaharra zen “Urkueta” ahozkatze gaskoinean “Urcuit” bilakatu baitzen, Baionan apezpi-kutegiko idazkari jakintsunek latindu zuten *urki* zuhatzaren izenaz egina zela batere ohartu gabe, eta asmatu *auricocto*: “urre errea”...), gaizki egin: hemen ere *lizar* edo *leizar* zuhatzaren izena, arruntegia iduriturik hoin ospeko lekuarendako edo bertzela, hastapeneko *l-* hori moztuz, “izar” bilakatu zen erdaran, eta hori latineko *stella*-ra berehala itzuli: “Stella, Steylla” (1076...), hortik baitator gaztelean ahozkatuz oraiko “Estella”. Erdaltze horrek bazuen hemen arrazoin berezi bezain azkar bat, ezen hastapeneko herri ttipi hura, Mairuak haizatzen ari zituzten arau ainitz leku bezala, Nabarrako erregek XI-garren mendean handitu nahi ukan baitzuten eta jendeztatu atzerritik, erran nahi da Frantziatik, “frankoak” izenda-tu ziren jendeak lege berezi batzuetako abantailen bidez hara ekharraraziz. Horrela Lizarraga edo laburtuz Lizarra Nabarrako “franko” horien hiri nagusi bilakatu zen.

Etzen alta ukan zuten bizi leku bakararra, jakina baita, behazunez, “burguak” zeritzoten Iruñeko bi auzotan jarri zirela, eta bertze leku batzuetan ere. XIII-garren mendean

Thibalt I Xampañako konde ‘ta Nabarrako errege izan zenak aitzineko lege berezi gehienak bilduz izkiria-arazi zuen *Nabarrako Foru zaharra* izeneko bilduman, erresumako jendea laur multzotan bana-katzen da: Nabartarrak, Frankoak (biak batzuetan “girixtinoak” izendatuak Foru hortan), Juduak eta Mairuak. Franko horiek etziren hizkuntza euskara zuten Nabartar euskaldunak bezala, ala aitoren seme ala laborari eta menpeko, lurraren jabe ‘ta lantzale, baina hiriko ofizio eta salerospenari emanak. Etziren ere lekuko jendekin beti ontsa akomeatu. Hortik sortu zen XIII-garren mendea bururatzen ari zelarik eta erresuma errege adinekorik gabe (Henri Lehena Thibalt II-garrenaren anaia gazterik hilik erresuma haren alaba Juana nexka ttipiaren gainera erori zen, hau gero Frantziako errege “Filipe Ederra” diotenarekin ezkondu baitzen), “Iruñeko Burguetako gerla”. Anartean Lizarra, erregen lege berezi-en laguntzarekin, Kompostelako beilarien geldi-lekuak ekhartzen zuen salerospenarekin, aberastu zen. XI-XII-garren mendetan Nabarrako erregek bazuten han oraino ikus daitekeen erret-jauregia.

Nabarrako eskualde horrek guziak, Zantxo Handiak bermoldatu zuen Kompostelako bideari zor dauko, neurri handi batean, elizaz eta komentuz ukana eta atxikia duen aberastasuna. Lizarratik hurbil aurkitzen dira Erdi-Aroan hainbateko aiphamena zuten Iratxe ‘ta Irantzuko komentuak, inguruetan Eunate ‘ta Torre del Rio-ko elizak eta bertze. Lizarra bera Erdi-Aroko eliza eta komentuz ederki horniturik gelditua da, ukana zuen Juduen zinagoga, gero, Juduak Gaztelako erregeren nahitara haizatu zirenean, elizara bihurtu zena (“Santa Maria jus del Castillo” edo “Donamaria gaztelupekoa”), eta ere zaintzeko gaztelua. Bereziki ezaguna da “San Pedro de la Rua” izeneko eliza bere kalostrearekin: “rua” hitz hori frantzeseko “rue” bera da, euskarak derabilan erdalkian “karrika”. Lizarrako “Karrika” horrek izena beilarien iragan eta geldi lekua izana zelakotz ukana omen zuen, eta hortakotz agian hiriko nagusia bilakatua. “Karrikako Jondoni-Petri” eliza bazen XI-garren mende hastapeneko, baina eraikuntzak berritu eta osatu zazko oraino XIII-garren menderano bederen. Ipharraldera deman athe handiak, azpitik ikusiz, mail batzuen gainean gora, miresmena sortzen du berehala: estilo gothiko hastapeneko lana salatzen duen arku hautsi handi bat, harresi azkar bat salatuz barna sartzen dena

zortzi zutaben gaine-an, laur gotor eta laur meheago, bertze hainbertze gangadura hautsi badatxikatela, gero eta ttipiago, athera heltzean azkena hameka harri mutur landuek bururatzen baitute beti arku hautsian. Eztut ikusi hortik hurbil den Cirauqui-ko eliza, athe molde berekoa omen baitu. Lizarrakoa ikusi orduko gogoratzen dena da ezkirela edo bederen etzela hor estilo arabarretik hain urrun, eta are gehiago nun zutabetarik goiti doazen bederatziz gangaduretan diren zizelkadurak oro, lerroz lerro, asma daitezkeen marrazki itxura guziez eginak baitira bakarrik, giza-ihizi-iduri bat ere gabe (hauk zutabe buruen gainean aurkitzen dira): biribil, arrosatto, orstail elgarrekin nahasi, palma, izkina, orsto, itze buru, sigi-saga, gangail...

Gothika aphaindu horren ondoan, elizak baditu ere estilo erromana atxikia duten zatiak barnean, hirur elizaburu inguru-erdidunak, lehen estaia egiten duten aitzineko leihoak berdin, eta zutabe handien buruak, zizelkatu ziren aro zaharrago bat salatzen baitute omen erakusten dituzten gaietarik; hemen ere marra itxurak baldin badira, ikus daitezke zaldunak guduka, jende begitarteak, batzu maskaratuak, ihiziak... Baina molde berean Karrikako Jondoni Petri horrek badu bertze ikusgai bat oraino ohargarriagoa: kalostrapea, ezpada ooren buruan kalostrape erdi bat baizik, laur kantoinetan hetsia izanik lehenago ohi bezala, ezpaitzako bi alderdi baizik gelditzen orai. Huna zergatik: Aragonako 'ta Gaztelako errege Nabarra 1512-ean jaukiturik, setiatirik, azkenean errege Labritarrer ebasteko egin zuten gerla luzean, ixtripu bat, bertze ainitzen artean, gertatu zen Lizarran. Ontsa zaindua zen hiriko gazteluaz jabetzeko, 1521-ean Gaztelako gobernari Cisneros kardinalak armadari manaturik gaztelu hori, bere harroka gainean azkar, barrea zezaten, Villalba izeneko koronelak hainbertze bolbora metatu zuen eta jauzarazi, nun munhoko 'ta gazteluko harriak elizaren gainera erori baitziren, hau azkarki andeatuz, kalostrako bi harresi osoki suntsituz. Gertakari horrek orhoit-arazten zautan nola joana zen, abantzu bi mende barantago alta, Nizako gaztelua Luis XIV-garrenaren armadak Saboiako dukearekin gerlan berdin jauz-arazirik. Lizarrako eliza berrantolatu behar izan zen, hortako baitu duen itxura estiloz doi bat nahasia. Gelditu zen kalostrerdiak asma-arazten du zer zatekeen oso zenean: arku guziak inguru-erdi betean, zutabeak bikunak eta zutabeburuak

berdin, hautan artha handiz zizelkatuak liburu sainduetako ixtorio, gertakari, jende, mithologia zaharreko ihizi 'ta mustro batzu ere, gainera orstail eta fruitu; hala ditu bereziki laur zutabe elgarri bitxiki trebes-inguruka loturik dituen batek, bi harresien izkinan ezarria baita zortzi zutabe elgarri lotuez eginik.

Hiri zaharrera buruz, beilarien eta Frankoen auzoko mugan, “Merkatu zaharreko plaza” diotenaren sahetsean da San Miguel eliza erromana, hala dela berehala erakusten baitu ipharraldera, hemen ere, idekitzen den athe handiak. Egia da barnea, berrikiago eginik edo lehenbiziko eliza berreginik, gothika duela, baina elizaburu inguru-erdidun erromanak bezala, athe hori itxuraz erroman molde hutsean egina da. Hemen bortz zutabek igortzen dituzten gangadurak, arku betean, zutabe buruak bezala ixtorio sainduetako jendez, begitartez, gertakariz zizelkatuak dira. Athearen bi aldetarik harresiaren gaineko zatian, Zangozako elizan bezalatsu, lerrokatzen dira zutabe-gizaiduri handi batzu, hemen laur apostolu alderdi bakotxean bere bizar handiekin eta eskuetan liburu edo gako (uste da orotara sei eta sei, hamabi behar zirela, baina lana etzela nahi bezala bururatu), gainean eta azpian oraino bertze zizelkadura ttipiago batzuekin, hautan aingeruak hegalak beheiti ala goiti zabalduak, guziak zaia handi luze ederki ixurkatuak soinean. Aroak eta gertakariak lehenagoko zizelkadura leunak han edo hemen markesturik utzi badituzte, begitartetan sudur batzu hautsiak, ageri da lan hori egin zenean molde hoberenean, arazenean landu zutela. Hortik ondorioztatu da athe hori osoan asmatuak egin zuen zizelkari nagusia bakar bat zela eta aro hartako antzekoenetarik.

Iratxe 'ta Iranzu

Ezta Lizarratik urrun joaiterik Erdi-Aroko Nabarran hainbateko lekua 'ta ospea ukan duten bi komentu handien ikusteko, biek atxikiak baitituzte, aldatu gabe edo guti, euskara Nabarran hizkuntza ohikoa zen aroko izenak: Iratxe 'ta Iranzu. Izen horien erroa den *ira* basa-landareak erakusten du, ohi den bezala, nola komentu horiek jarri nahi ukan ziren leku baztertu ixil batzuetan, baina aldi berean eremu handien jabe, hiri 'ta bide handietarik, eta hemen zen ere Kompostelakoa, sobera

baztertu gabe. Lehenbizikoa Lizarratik Bianan gaindi Logroño hirira deraman bidetik hurbil, Arga bazterrean aphas eraiki zen Lizarratik goiti abiatu ondoan, laster agertzen da ezker aldean. Nabarrako erregen seme lehenek “Bianako prinzipa” izena ukana zuten, eta Ibero ibai nagusiaren “Errioxa” (gure eskualdetan erabili den *erripa* latinkia balio du: ur bazterra) dioten eremu hori guziaz Nabarrako zen, hain zuzen nun Zantxo Handiaren semabitxi “Zantxo Najerakoa” zeritzon erregek bere gortea Najeran atxikia baitzuen, Ibero iraganik oraino beherago: eraikuntza handi batzuek orhoit-arazten daukute oraino XI-garren mendean eta ondotik hiri horrek ukana zuen ospea. Handik hara bide bazterrean aurkitzen da “Santo Domingo de la Calzada” dioten komentua, Garaziko “Galzeta” leku-izenak bezala gogoratzen baitaiku hortik zoala Erromatarrek harriztaturik atxikitzen zuten bide nagusia.

Iratxen orai ikus daitezkeen eraikuntzak XII-garren mende azkeneko molde bierartekoan baldin badira gehienean, zatiz erroman, zatiz gothika, berantago egin diren berritzeak bertzerik, komentu hori X-garren mendekotz aipatua zen, Lizarrako hiria baino lehenago. Molde erromaneko eliza zaharre-netik geldituak dira hirur elizaburu inguru-erdidunak, erdikoa biziki handiago usu gertatzen den bezala, horietako leihoak arku betetan, iphar eta sartalderako atheak berdin. Gehienik gogoa ustegabetzen duena 'ta miresmena jauz-arazten, eztira bizkitartean horiek, baina sartu orduko handiaz eta goraz ikuspena betetzen duen eliza barnea. Elizaburu zaharragoer lotu baldin bada barne hori, gaina molde gothikan arku hautsietan berreginez, guziak atxikia du batasun handi baten itxura, zutabeburuetako aphasin-duretan halako murriz biphil batekin, gehienean xoilki orstoz eta marraz, salbu khororen bi aldekoetan, hemen agertzen baitira batean zaldunak guduka, errege magoak bertzean.

Iratxera heltzeko bidea Lizarratik goiti hartzen baldin bada, handik laster 1044 metra gora den lephora atheratzeko, Iranzura joateko ipharraldetik heldu den lats ttipi baten hegari jarraiki behar da: hara heldurik, landaretze handi batean (izan ginenean erakutsi zaukuten XVIII-garren mendekoa omen zen intzaurrondo zabal bat, eta bizpahirur intzaur bildurik, orai ditugunak baino biziki ttipiakoak, geroztik hemen atxiki ditut...),

ibarra hertsia, ixil eta heze da, baina inguruan mendiak gora hemen ere, 1000 metretan eta gorago. Batzuek ingurune hortan “Baigorri-ko mendiak” izena dute, baitzen hor Erdi-Aroan, Baxe-Nabarrako ibar ezagunaren (eta ere Xuberoko mugan Montoriko etxe zahar baten) izen berarekin, Baigorri zeritzoten herri bat, gero, Nabarra-ko leku aintzetzan bezala “despoblado” edo jendez gabeturik gelditu dena. Beneditanoena izanik, jadanik XI-garren mendean aiphatua, XII-garren mende azkenera berriro zen, edo bederen berriro hasi, zizterziarrek orduan (1176) baitzuten hartu. Nabarrako *Orotako foru* bilduman behin baino gehiagotan gorai-phetzen da orai “Zantxo Zuhurra” deritzogun Nabarrako errege, “*Don Sancho el Bueno que edifico Iranzu*”: “Iranzu eraiki zuen Don Zantxo Ona”, erran nahi baitu beraz “berriro”-arazi zuela. Elizaburuak – eraikitzea beti hortik hasten zen - , kalostrape miragarriaren erdiak eta bertze gauza batzuek molde erroman hutsa salatzen badute, eliza barne ederra, gainerateko kalostrapea 'ta bertze gehiena janadik gothikara itzuliak direlarik, eta berant landurik edo berlandurik izanak, XIV-garren menderano batzuek diotenaz, beti alta begira gehenik emaiten duen biphiltasun zizterziar hartarik baztertu gabe. Eraikuntza zaharrenean ondarretan gelditu da, orai berrantolatua, San Adrian izeneko eliza ttipia, elizaburu inguruerdidun batekin hau.

Obanos

Komentu handi horien ondoan, eztira alde hortako eraikuntza neurritz ttipiako batzu, baserri betean geldituak edo herrixka batzuetan, gutiago mireskarri. Orreagatik Agoitzen gainti, Artaizko herri bazterretik (bada hor ere liburu guzietan aiphatzen den eliza ttipi molde erroman baserritar batekoa), Iruñeko hiria bazterrera utzirik, euskaraz bitxiki “Gares” deritzo-ten Puente la Reina-ra heldu baino lehen, biderearen ezkerretik ogi landa hori zabal baten erdi-erdian (hala zen bederen ikusi nuen lehen aldian), ibarrean bakar-bakarrik agertzen da Eunatze-ko kapera. Inguruetan ezto den gutieneko etxerik, Muruzabal eta Obanos-ko herrixkak hurbil baditu ere. Nabarrako ixtorioan azken hunek badu bere lekua. Evreux-ko konde 'ta Nabarrako errege Karlos II-garrenak, Frantzian egin

zituen gerla 'ta nahaskerien gatik (Frantziako semabitxi zen zion bezala “laur aldetarik” eta korona haren nahitan ere) “Karlos gaixtoa” izengoitia ukan baitzuen han, korona hartu zuenean XIV-garren mende erditan, erret-larderia azkartu nahi ukan zuen, eta zergak hertsiki bildu. Haren gobernuari zor dugu, zorionez alde batetik bederen, 1350-1353-tan, korona berritan harturik ohi zen bezala, erresuma osoan bil-arazi zuen diru egiteko zergako zerrenda (“monerakoa”), hartan agertzen baita lehen aldikotz xeheki gure eskualdetako etxe ‘ta jendez hainbat xehetasun.

Urte hetan beretan bertzerik gertatua zen Iruñe-ko ingurunetan. Obanosen, erret-larderiari ihardokitzeko edo berdin hori ttipitu nahiz, Nabartarrek zituzten “foruen” (lege berezien eta abantailen) zaintzeko arrazoinarekin, “Obanosko infanzonak” izenpean ezaguna den aitoren- seme batasun bat - nahiz biltzen zuen laborari, sal-erosle ‘ta bertze - egin izana zen XIII-garren mende azkenean, Nabarrako korona ondoriotasunez eta ezkontzaz Frantziako erregen buruan gertatu zenean. Bazituen bere zigilu 'ta erredola bereziak ikurburu batekin latinez: *pro libertate patriæ gens libera state* “aberriaren libertateko jende libreak egon zaitezte”. Errege urrun izaiteaz baliatuz, hainbateko boterea hartu zuen, nun jaun handiener goratik egiten baitzauen, hetara sartu nahi ukan zuen Iruñeko apezpikuari berari ezaren emaiterano, hori guzia hastapenean bertze ondoriorik gabe, inkestak eta mehatxu guziak eginik ere. Filipe Evreux-koaren ondotik 1349-an haren seme Karlos II-garrenak korona ukan zuenean, hura gogoan ala ez, molde bertsuko batasun batean bildu ziren Iruñe inguruetao jende batzu, gehienak laborariak, “Miluzeko junta” izenarekin, “Miluze” han biltzen ziren phentze baten izena baita. Karlos II-garrena, Frantziako gortean hazirik hango erregen larderia osoan ohitua, etzen dudan egon: batasun hortako buruzagiak hartuak izan ziren, bortizki gaztigatuak, batzu urkatuak. Foruen zaintzeko ala ez, etzen ordutik Obanos-ko infanzonen bilzarrea ez Miluzeko batasuna bezalakorik sortu.

Obanosko kaperak, zortzi alderdi 'ta horrenbertze izkinetan banakatuak diren arku betekilako harresi handiaz inguraturik hedoi-hertzean garbi agertzen bada orai, ikertu dutenek badakite lehenago, beilarien bideko geriza-leku zenean, etzuela batere itxura hori. Inguruko harresi arkudun hortan ikusten diren hatzek erakustera eman dute orduan guzia etxe ‘ta

hil-hobi batzuen hegaztegiek, lauzez egina duen estalgia salbu, erdi gordetzen zutela gehienez. Uste izan da ere Templarien eliza bat zela. Baina alde batetik ezta horien ontasunetan behin ere aiphatzen, eta ohartu da azkenean, beilari ainitz hiltzen baitzen hortik zozan Kompostelako bide luzean, batzu hor berean ehortzirik haien hil-hobien lekua izana zela. Hil-hobi zenbait oraino ageri dira, handik ez hain urrun, Lizarra iragan eta Logroñora doan bide bereko bazterrean aurkitzen den Torres del Rio-ko kaperan, hau ere molde berean zortzi izkinetakoa, egituraz gorago alta, eta herriaren barnean hartua, Hil-hobi Sainduko izenarekin. Orhoitzen da alderdi huntan ere, Xuberoko mugan den San-Bladiko kaperan, edo Olorongo Santa-Kurutzekoan zortzi alderditako egitura bera ikus daitekeela. Obanos eta Torres del Riokoak estilo erroman hutsean dira, elizaburuak eta leiho gainak arku bete erditan, zutabeburuak ezin ederkiago zizelkatuak, baina orotara, bere harresietako harri landu leunak iguzkitara gorri-horail, baserriaren erdian heriotzetako kapera batzuek behar duten biphiltasunean egonez. Lizarran Karrikako Jondoni-Petrin ikusi den athe handiak bezala, kapera horietan senditu da Aragonan hain usu aurkitzen den molde arabatar edo “mudejar” hartarik zerbait. Eliza horiek eraiki zirenean, XII-garren mende azkenera, Zantxo Zuhurra Nabarrako errege zenean, bazen oraino harreman ainitz, eta eraikitzeko moldetan bereziki, Espainiako erresuma girixtinoen eta Mairuen artean.

Uste izan da Eunate izen hori kaperako arkuek duten athe itxurari zor zakola, hots “ehun athe”, ainitz gutiago bada ere, hogeita zortzi orotara. Bitxi lizateke ezpaliz hemen ere izen euskaldun hori, inguruetako lekuen molde berean, lurrari noizpait eman zizakon izena, eraikuntza hori baino behar bada biziki zaharragoa. Nabarrako euskalki batzuetan “euntze” diote hemen “phentze” dugun latinkiari (bien ithurburua latineko *fenu* “belar”), eta leku-izen horren erroa hortan balatza eluke harritzekorik batere: jakinez *-tze* landare mota guzietan emaiten zizeen atziz-kia dela (“iratze, sagartze, pikotze” eta “phentze...”), horren orde agertzen dela ere batzuetan “lekua” balio duen *-ate*, hala nola hainbat “Garate, Haltzate” ‘ta bertze (ezpada ere batzuetan egiazki *athe*, “iragan leku”, *Elizathe* Orzaizen bezala ala bertze)... Gaur-egun ikusten diren gari landa handiak ttipiagi

baitziren lehenago, ordoki hori, mendixken artean doan ur-errekaren ondoan “belar-leku” bat hautekoa hatzemaña zuketen Obanostarrek aberen alhatzeko...

“San Miguel in Excelsis”

Bada oraino Nabarrako ixtorio zaharraren leku-ko ezagunenen artean, bertze moldez ere ikusgarri dena, ez batere Lizarrako bidean hau, are gutiago ordokian, omen ederra ukan eta atxikia duen kapera bat: erdara latinarekin nahasiz “San Miguel in Excelsis” izendatua zuten (noizpait euskaraz erran bada “San Migel Hergoretakoa” zatekeen...). Iruñatik goiti ezker Donostiara deraman bidea hartzen da lehenik, gero Irurzunen berriz ezker Alsasua 'ta Gazteiz aldera, orai beribilbide nagusi berria, Huarte-Arakilgo herrirano. Bideko ibar hori bi mendilerro goren artean zuzen hautsia bezala da, duen handiaz zinez ustegabegarri: ezker Andiako mendilerroa, bideari hurbil-hurbila, gorenean baitoa 1500 metratarano, eskun Aralar-koa (zaharrago-ko “Aralarre” zenbaiten ondorioa agian) gorenean 1345 metretara Hatxuetan, 1431-etarano Irumugarrietan. “Hirur mugarri” horiek badiote argi bezain garbi Nabarrako 'ta Gipuzkoako muga hortik doala. 1200-go urterano ezpazen bi herrialden muga baizik, Nabarrako erresumak hegal-deko laur herrialde euskaldunak batzen zituenean eta Baxe-Nabarra gainera, urte hortan Gaztelako erregek hartu zituen Gipuzkoa 'ta Gazteiz (gero Gaztelara erori ziren ere Araba osoa 'ta Bizkaia), eta bi erresumen arteko muga zen hor gertatu. Bi alderdiak Euskal-Herri zaharrenean izanak gatik, bien arteko etsakeriak eta gerlek luzaz iraun behar zuten:

Mila urte ygarota, ura bere bidean.

Guipuzcoarrac sartu dira Gazteluco echean,

Nafarroquin batu dira Beotibarren pelean...

Horra zer dion XVI-garren mendean Garibayek bildu zuen kantu zahar baten hastapenak. Bazen mende bat iraganik (ez “ura bere bidean” bezala “mila urte”!) Gipuzkoa Gaztelako erregeren menean jarria zela, Nabartarren kontra Beotibarko gudu hori (gaztelera hitzez “pelea”) 1321-an Gipuzkoarrek irabazi zutenean. Bertze bi mende berantago, 1512-30-ko gerlan etziren gauzak hobetu Euskal-Herrialde horien

artean: “Frantzesal!” zion oraino gaitzestez eta laidoz Agirre izigarriak Hego-Amerikan 1561-ean hil-arazi zuen Urzua bere aitzindari baztandarrari, nahiz hunen familiako gehienak Gaztelarren alde jokatua zuten eta ez Frantzes eta Nabartarren.

Gauza ezaguna da leku baztertuetako mugak aspaldidanik gune hautatuak izan direla eliza 'ta kapera ezartzeko, edo bakezko iragarki batzu bezala (Erdi-Aroko erregen arteko gerlak geldi-arazi nahi izan ziren “Jainkoaren bakea” izendatu zenarekin, iraupenezko ondorio onik gabe...), edo ere hortik iragan behar zuten jenden gerizatzeko. Aralarreko “San Migel Hergoretakoa”, izenak dion bezala, mendian gora da, Hatxuetako hegiari hurbil. Bide luze batek baderama goiti, oihan handi batzuen artetik, itzalean, igan arau airea udan ere hoxten baita. Azkenean, zinezko desertu batean, aurkitzen da kapera, egia erran bi kapera batean, eliza barneak baitaduka ere kapera itxuraz xume bezain ttipi bat, baina leku hori mithologia zerbaitez inguratzen duen harpe baten gainean egina. Ba ote, hemen oraino Bidarrain girixtinotu gabe gelditu den “Harpeko saindua” bezalatsu, aro lehenetako erlisione edo debozione zenbaiten hatza?

San Migel eliza 1098-an aiphatzen bada, gehienean orai ikusten dena berantago azkarki bermoldaturik izana da, ez beti ara hoberenean. Badu alta, edo bazuen berriki arteo, ebatsirik izana baita, eta eztu hain aspaldi berriz hatzemana (ezpaitakit leku berean ezarri denez...), eskualde hortan guzian aurki daitekeen edergailu mireskarrienetarik bat: aldare aitzina egiten daukon burdinki urreztatuan zizelkatu itxura andana bat gaintetik esmail koloredunez estalia. Azpian ezarria zakon izkirioak dio nola 1756-an berrantolatu zen, eta ordu arteo Iruñen baitzen, kathedralean, gain hortara ekharri. Lehenbiziko moldea zuenean nola zen eztatigu, baina gelditzen denean burdinki lamaren erdia hartzen duen zizelkadura, arraultzarako ederki aphaindu batean, Iruñeko Andredona Maria da, jarririk Jesus haurra altzoan, biak korona urreztatuak buruan, haren laur izkinetan ebanjelixtak itxu-ratzen dituzten laur ihiziak, bi bazterretan hirurnazka lerroan sei gizariduri arku bete batzuen azpian, apostolu, aingeru, errege mago 'ta bertze, gainean laur jende itxura ttipiangoan, esmail gehiena urdin, zati musker batzuekin, guzia urre kolorez marratua, zola den bezala, artetan

harri balios koloredun batzu. Uste da hoin gauza hautukoa 'ta aberatsa Frantzian Limoges-en zen landegi zenbai-tetan egin-arazia dela, edo bederen Espainian berean burdinkia hango moldean zizelkatzen, esmailtzen eta margoztatzen zen batean, segurrenik XII-garren mende ondarrean edo XIII-garren hastapenean, eta jende handi, errege edo erregina zenbaiten eskaintza Iruñeko katedraleari. Aitzinatu da eskaintzale hori Zantxo Zuhurraren alaba Berengela zatekeela, 1191-ean Rikardo “Lehoin Bioztun” izendatu den Angeleterrako erregerekin ezkon-dua baitzen. Hara ethorkiz nabartarra zen lagun batek bidaturik izan nintzan aldian, goiza oraino, aroa lanho 'ta eurixka, ohartu ginen bazela gain hartan beribil andana bat kaperaren inguruan gelditua. Elizara hurbiltzean entzuten zen barnetik gizon kantu azkar bat (euskaraz ala ez? eniz orhoit): sartzean ohartu ginen meza bat bururatzen ari zela, eliza gibelean harmonium-a joiten zuen baten inguruan gizon multzo bat bildua batzu paperrak eskuetan. Hek jalgi orduko kapera hutsik gelditu zen, ezpaitzen agian oraino ikusliarren tenorea, ez eta aroa.

*

6. Gazteluz jauregi...

Lizarrako erretegia

Nabarraren ixtoria eztago bakarrik ikusgarri Erdi-Aroko eliza 'ta komentuetan, erlisioneak ordu hetan hainbat leku hartua ukana gatik. Mairuen menetik lehenago Agoten aroan 711-rano, Imperio erromatarra izana zen guzia bezala, osoki girixtinotua zen Espainia guziaren liberatzeko abantzu zortzi mende iraun zuen gerlan, erregek, etsaietarik zaintzeko, eta bereziki auzoko erresuma girixtinoetarik XII-garren mendetik goiti, bere gortekin bizitzeko, jendek berek eta lehen-lehenik aitorenseme gotorrenek, hiriek berdin, egin zituzten gazteluak eta jauregiak enituen ahazten muga iragaiten nuen aldietan. Hainbertze gaztelu, erretetxe, jauretxe aurdik-arazirik eta motzarazirik Fer-nando katolikoak, Cisneros kardinalak ala Karlos “Quinto” emperadoreak Nabarrako erresumaren hezteko 'ta menean atxiki-tzeko 1521-1530-eko gerletan, lehengo azkartasun haren lekuko utziz xoilki ainitz lekutan harresi mutur batzu

(Alitas, Monjardin, Monreal, Santacara, Tiebas, Zozaya ala bertze...) edo deus ez (Maya), herriak badatxika oraino ikus eta mirestekeo den eraikuntza, aitoretxe ala dorretxe andana.

Europako erresumetan aurki daitekeen erret-jauregi (“erretegi” lizate zuzenez) zaharrenetarik ikusten da oraino Lizarran, XII-garren mendeko eraikuntza bat, hiria bere gorenera heldua zenean. Ezta hain handia berantago ezagutu diren erretetxen ondoan, oso baldin bada hasteko 'ta aro hetan nolakoak ziren zorrozki ezpadakigu ere, hiriko karriken eta etxen artean tinkan bezala, gune aphaltatean ez biziki agerian emana. 1521-an suntsitu zen hiriko gazteluak erregen egoitzarik ez ote zuen? Egia erran jauregi hori erretegia izana dela oraino erakusten dituen egituratik eta zizel lan ederretik da ondorioztatu, erregeak ordu batzuek Lizarran egon direla (Alfonso Gudaria da gehienik aiphatzen), ezpaita egoitza horren baliatzeaz lekukotasun handirik Erdi-Aroan. Hasteko berantetik XII-garren mendeko ara erroman hutsean eginga dela ageri du, biziki berantago ekharri diren aldakuntzen gatik ere: laur kantoineko 'ta estai bakarreko lehenbiziko jauregia goititu zen, sortaldera dorre batez “aphain-du”. Barneak erakusgarriak baduenez ezta erraiten eta ni han izan nizanetan bederen etzen ikustera emaiten.

Kamptik duen itxurari behatuz ageri da etzaitekeela holako lan ederra, aro horietarik geldituetan bekana, edonoren egoitza izan. Jauregi guzietan bezala bizi-lekua ezta behean baina lehen estaian: leihoak hor ditu, ez beti bezala sortaldera bademan etxaitzinean, ezpaitu hor leiho bikun bakar bat baizik, baina laur kantoinekoaren alde luzera, ekhialdera. Azpiko laur arku bete handien gainean idekitzen dira bertze hainbertze leiho bikun, erdian zutabe batekin eta bazterretan bertze biga, baina gainetik laur arku ttipi, horrek gogoari emanarazten baitu noizpait leiho horiek laurkunak izanak direla behar bada. Alde hortara etxearen bi izkinetan, jauregia noizpait goititu zen baino lehenagotik geldituak, hegaztegi bazterra atxikitzen zuten harbu-ruetarano (“modillons” deitzen dira erdaraz) badoaz, laur kantoin pikatu harri ederrezko harresian hartuak, bi zutabe erdi handi, bakoitza bi zutabeburu zizelkatuekin, bat behereko arkuen heinean estaiara heltzean, bigarrena gain-gainean hegaztegi azpia zen lekuan. Leiho bikunetako zutabe ttipiek, etxaitzina idekia den bakarrarekin, badituzte oraino hamabortz

zutabeburu zizelkatu. Ororen artean aiphatuena ezkerreko zutabe handiaren erdikoa da, eta hura da ikustera doazener erhiaz lehenik erakusten.

Gaia Karlos Handiaren armada girixtinoko Errolande buruzagiaren – Orreagako gudutik landa literaturan hain omen handikoa izana den - eta Ferragut mairuaren buruzburuko gudua du: biak zaldiz, azta erredolak eskuan, kaska buruan, burdin-sare xeheaz soin guzia estalirik. “Ferragut” izigarri hori – nahiz Errolandek garhaiturik erakusten den - ezta delako *Errolanden kantuan* diren mairu izen hain bitxietan aiphatzen, eta kantu horren egile frantzesak etzukeen ezagutzen. Ezta jakina zutabeburu horrek erakusten duen gertakaria asmamen huts bat denez, Errolanden ixtorio mithifikatua ainitz egintza handiz aberastu baitu literaturak mendetan zehar, ala egiazkoa. Ixtorio edo leienda horrek dio Karlos Handiaren armada Zaragozatik itzultzen ari zenean Iberoaren ibarreko bideari jarraikiz Logroñorano, eta armada biltzen ari orai Puente La Reina den lekuan Iruñen gaindi Garaziko bortuetara heltzeko, Lizarratik hurbil, Ferragut etsaiak - izigarri izaiteko egina iduri duen izen erdalduna: “burdin-zorrotz”!! – jaukitu zuela bortizki, eta Errolandek, Orreagan gertatu zizakonean baino hobeki helduz, gudua irabazi 'ta Ferragut erahil.

Eskuneko zutabeen, hegaztegi azpian den bigarren zutabeburu handiak eztu gudurik erakusten, gaia moralekoa baitu: gaixtaginak ifernuan (bertz handi bat suan, debruek jendea hartara botatzen...), zikoitzak gaztigatuak, molsak eskuaz tinkan, lephokoarekin; eta ere musikaldi bitxi bezain trufari bat, ihiziak soinu joiten, asto bat harpa eskuan musikan, hunen aitzinean bizkarrez lehoina iduriko ihizi handi bat neurkada emaiten. Zizelkadura horietan ohi diren orstailen ondoan, ihizieria mithiko batek, zori, mustro, abre, aphaintzen ditu leihoetako zutabeburu ttipiak. Lizarrako erretegiko edergailuek badidurite, literatura, ixtorio, ametseria erlisionearekin nahasiz, etxeak eta ingurunek ukan dituzten aldamen guzien gatik atxiki duen handitasun berezian, eraik-arazi zuena, gai horiek hautatuz, XII-garren mendeko literaturaren ezagutzale zela. Lizarragan orduan egon ziren erregetarik ote zen, ala, egoitza hori, duen egituran gogoetatzeko 'ta atsegineko egin baitzen eta ez gaztelu bat bezala zaintzeko, erregina zenbait?

Uxue

Lizarratik berriz Iruñera buruz abiatu ondoan berehela, eskun, Tafallako bidea hartzen da, gero Arga iraganik Larragako ondoan, Tafallan gaindi, lehenik Untzeko Donamartera heltzen, herriko elizak atxiki dituen edergailu erromaner behako baten emaita ahatzi gabe, baititu XII-garren mendean egin edo berregin zenetik gelditu zazkon zati ederrak: inguru-erdiko elizaburuak, eliza azpikoaren gaina berdin zutabeburu garbiki bezain xoilki zizelkatu batzuekin, athe nagusia hirur zutaben gaineko bertze hainbertze arkubete zizelkatuekin, orstailez, laur-kantoineko xehez, eta itze buruz aphaindua, zutabeburuetarik batean agertzen baita Jondoni Marte (hainbat eliza egin dira, Nabarra osoan, Tours-ko arxapezpiku horren izenean), zaldiz, leiendak dion bezala ezpataz bere soingainekoaren zatitzen behartu bati emaiteko.

Urrunago, gorago, ibarretik 1000 metra hurbiletara igaiten diren mendien arte zabal batean, agertzen da hedoi-hertzean gora hau ere, munho baten bizkarra inguruan hartzen duela, etxe multzo bat, gain-gainean erdi gaztelu erdi eliza egiten duten harresi handi 'ta dorre batzuekin: Uxue. Hurbildu ondoan ikusiko da badirela egiazki, biak batean hartuak, gaztelu azkar bat, eta eliza handi bat. Uste da beti 'ta errepikatzen aspaldidanik Uxue (euskaraz orai “Uxua”) izen hori gure euskalkian derabilagun “urzo”, ttipituz “urxo” xoriarenetik egina dela. Jakinez alta euskalkietako ahozkatzearen aldatzean beti $-r\ddot{x}$ / $-rx$ - multzo zaharretik dela $-s$ / $-x$ - sortzen eta ez alderantziz, aztertze horrek itxura guti du ene ustez. Bildu diren izkirio molde zaharrenetan huna zer irakur daitekeen: XI-garren mendean guti, (*b*)*ussue* (1064), *unse* (1076: agian ondoko “Untze”-rekin nahasia, ala biek ithurburu bera?), XII-garrenean ainitz, ala *ussua* (1102, 1155), ala *uxua* (1102, 1137), *ussoe* (1111), *iusua* (1150), *ussue* (1157)... Ondorioztatu behar da *usu* edo *uxu* dela erro zaharrena, ez *urxo*-tik berant jaldi daitekeen *uso*/*uxo*, eta euskal-hiztegi ezagunak eztaukula hitz hori erakusten, ezpada “usu” erran nahian “ainitz, tinki” (ezpada eraikuntzen tinkiari!), leku bati guti doakon hitza. Bertzela “urzo” edo “uso” nihun behin ere leku

izenetan aurkitzen ezten izenak eztu iduri baduela hemen itxura gehiago, ezpagira bederen, iduri duenaz, leienda hutsean... Eta oro har *ursu* hitzak (“ur ainitz sortzen edo biltzen den lekua”), euskaran asmatu bada hasteko, bertze edozein etimologiako ithurburuk bezain arrazoin ona baluke, edo berdin hobea, *-rs-* multzoa *-s-* xoilera laburtua baliz bederen XI-garren mendeko, gaskoinean egin den bezala, baina berantago: *Garzia*-tik ezpaitugu *Gassie* XI-garren mendean baino lehenago aurkitzen (1080).

Eliza ala gaztelu? Biak batean segurki, orai errexenik ageri denaz, itzulian hartzen duten gazteluko harresi azkarrak iraganik inguruan badagiten ibilbide zabaletik, eliza baldin bada ere. XI-garren mende azkeneko aiphatua baita jakilek diote aro hartako erroman nabartarrean direla, ez bakarrik lehenbiziko elizatik gelditu diren elizaburu inguru-erdikoak, alde hortako leihoak arku betean, baina ere zutabeburu batzuetako zizelkadura ohargarriak, jenden itxurak harrian ez osoki landuak eta leunduak iduri, alta indar bitxi batez beteak, athe nagusia gothika hutsa delarik.

Elizatik ipharraldera jalgirik kapera handi bat aurkitzen da, gazteluaren baliatzea utzi zenean bizitegitik gelditu ziren barnetan egina. Alde hortara dira alabaina gazteluak zaduzkan barne gehienak. Gazteluaren itxura elizarena baino hobeki dute emaiten ere, leiho handi batzu hartan zilaturik inguruan Nabarrako eskualde hortako ikuspegi zabal bat emanaz ibilbide estalia gerizatzen duten harresi handiek, bi estaietan gora, are gehiago ahal bada bi dorrek. Biak ipharraldera dira, handiena elizako hegaztegia baino gorago aitzinean sortaldera, lodi, itxuraz azkar, bigarrena eliza gibelaren heinean, biak, gerletan eta jaukitzeari ihardokitzeko, gainetik harresi ozkatuekin. Eliza hasi zenean XI-garren mendean gaztelurik bazenez jadanik ezta erraiten, orai ikusten denak, elizako zati gothikek bezala, biziki berantagokoa baitiduri.

Ixtorioak dio Nabarrako erregetan bat Uxueko eliza-gazteluari bereziki atxikia izana dela: Karlos II-garrena, “Evreux”-koa. Iruñeko erret-palazioan hil zenean 1387-ko urthats-ez, 54 urtetan, batzuek diote soraioturik (zenbaitek “legena” dioten eritasunaz), katedraleko khoroan ehortzi zen. Testamendua hartu zaukotener, hetan Baionako apezpikua, manatua zauen ereman-araz zitzaten haren gibel-erraiak Orreaga-

ko elizara, bihotza Uxuekora. Aldi batez han ikusi nuen aldare bazterreko zutabe batean dilindan, ezteinu 'ta berinazko untzi mehe baten barnean ezarria gauza ttipi ilundu bat, errege haren bihotza omen. Errege horrek nahi ukana zuen Uxuen moldatu Nabarran lehenbizikoa izanen zen unibersitatea, egin baliz, zeren, ukanak zituen hain-bertze xede bezala, gerlaren mehatxuak, hau Gaztelarekin, bazterr-arazi baitzuen xede hori.

Egia da gazte zeno biziaren urte gehienak nahasmenetan eta gerlan eremanak zituela. Hastetik, Frantziako errege semabitxi izanez amaren aldetik, Normandian "Evreux"-ko konde bezala 'ta bertze leku batzuetan, portu (Cherbourg), hiri 'ta eremu handien jabe, ukan zuen, orduan Frantziako errege Angeleterrakoarekin bazadukan etsaitasun jarraikian sartuz eta haren ahuleziaz eta zorigaitzez (Poitiers-ko gudua galdurik Angele-terran preso egon behar ukan zuen) baliatuz, noiz Frantzesen alde, noiz Angelesen, berak Frantziako koronaren hartzeko gogoia, emaztea "Jean II de Valois" errege horren alaba zuelarik ere. Bazion "laur aldetarik liriuetakoa" zela, Frantzian orduan aipatu berria zen "lege zalika" ukhatzen zuen, Angeleterrakoak arrazoin beraz egiten zuen bezala: "lege" horren izenean Frantziako tronua emazter debekatzen zizaien. Jean II horren kondestablea hil-arazirik preso harturik izana zen, eta, biziaren irriskutan baitzen, Nabartar eta Baxe-Nabartar jaun batzuek (hautan Zibitz Zaldu-koa) handik ihes-arazia beharrik. Azkenean, abantzu Parisez jabetzekotan izanik, jendeak hango "kapitain" hautaturik eta izendaturik, "Jakes" zeritzeeten Frantziako laborariak jaunak kontra abiatua zuten jazarraldia garhaiturik, Angelesen alderdia hartua zuen. Elgarrekin Gaskoiniako "Captal de Buch" zioten Grailly jauna armadaren buru ezarririk, Frantziako erregeri gerla handi baten egitera abiatuak ziren. Baina Cocherel izeneko lekuan egin zen gudua Frantziako armadak osoki irabazi baitzuen, Angelesek eta Nabartarrak "Bretigny-ko bakea" diotena onhartu behar ukan zuten 1361-an. Karlos II-garrena bera Iruñen gelditua zen.

Ukan zuen ere zer egin Gaztelako 'ta Aragonako errege artean, hemen ere noiz hunen alde (errege Karlos III-garrena izan behar zen semea Gaztelako erregeren alaba batekin ezkondu zuen: hek dira gizaiduri etzanetan Iruñeko kathedralean), noiz haren, bat bertzearen kontra azpiz sustatuz,

beti antolamendu egiten, beti horien hausten eta berritzen. Hoinbertze zimarkuen erdian, Uxueko gaztelua, mugetarik ez hain urrun, leku biziki balia-garria zen. Ororen buruan, gerla galtzez, Frantziako edo Espainia-ko politikan zituen xede guzieren haustez, nahigabez akitua edo, Karlos-bigarrenak azken urteak bere erresuman iragan zituen, beti zergak eta dretxoak Khonduetako Gambarari arthoski bil-araziz. Dena den, Frantziako eremu, kargu 'ta abantail gehienak galdu baldin bazituen, han Karlos “gaixtoa” izen goitia bilduz gainera, Nabarrako erresuma, Donapaleutik Tudelarano (berak edo aitzinekoek, Zantxo ala Thibalt, Gaztelari berriz Araba, Bizkaia 'ta Gipuzkoaren ekhentzeko edo biltzeko egin zituzten entsegu ala indar guziak behin betikotz debaldekoak izanak ziren), atxiki zuen oso bere libertate betean. Hortakotz diote ixtoriolari batzuek, “gaixtoa” izan bazen Frantzian, Nabarran, Miluzeko batasunaren bortizki hausteko ala zergen zorrozki baino gehiago biltzeko eginak zituen guzieren gatik, “ona”-rena zuela merezi.

Olite

Iruñetik hego aldera zuzen doan errepidea (orai beribilbidea) hartu ondoan, Tafallako hiria eskunean utzi deneko, ezker Unx eta Uxueko bidea, Iberoko erripara (Nabarrako Errioxa diote) idekitzen den ibar zabalean, harresi gora gaintik dorre xapeldun andana batzuekilakoek begia bereganatzen dute. Nabarrako erregen egoitzetarik gelditu den osoena, eta zerbait moldez ohargarriena, ederrena berdin hor da, Oliteko erretegia. Luzaz utzirik eta aski andaturik egon ondoan -lehenik ikusi nuenean etzen oraino biziki ikusgarri, zati zahartu batzu erortzera abian, berrituak behar baino berriegi... -, osoki berrantolatu da. Nabarrako erresumari jarraikia zizakon Espainiako herrialde “foral” horrek diru handia ezarri du atxiki dituen eraikuntza horien berritzeko, ez beti, hastapenean bederen, behar zen artha guziarekin, baina gero 'ta ederkiago beharrik. XV-garren mendean Nabarrako erregeren gorteak handitua 'ta ospean ezarri zuen hiri hori XII-garren mendearen hastapeneko ezaguna zen eta jendez-tatua. Aro hartarik atxiki da herri zaharreko Jondoni Petri eliza erromana, sei arku beterekilako athearekin, zutabeburuak ederki zizelkatuak, gaineratekoa guti edo aski

berantago berreginik izana molde gohikan, hala nola herrira heltzean urrundik ikusten den sei izkinetan goiti biribilduz eraikia den ezkila dorre punta meharra.

Aro hetakoak dira ere herriak, nork daki zein hizkuntzetarik baina ez iduriz euskaratik (nahiz hala dion Oihenartek), ukana zuen izen apur bat bitxi horren lekukotasun zaharrenak, batzu ohi zen bezala latinez aphaundurik: *olit*, *boleti* (1102), *olith*, *olito*, *olitus* (1171). Latindua iduri du ere 'ta berregina, baina ez argiago, XVII-garren mendean Moret Nabarrako ixtoriolari jesuistak emaiten duen *oligitum*. Garibay-ek izkiriatura zuen XVI-garren mendean euskaraz izena *erriberri* zuela, eta hala diote orai euskara berritzen ari dutenek, Nabarrako eremu ekhialdeko horietan aspaldidanik osoki galdua baitzen, nahiz ingurumeneko leku-izenek, Tafallatik beheiti, eztuten holakorik salatzen. “Herri-berri” izendaturik izan bada egiazki Olite, ez menturaz lekuan berean baina euskara oraino zerabilaten eskualdetan, Nabarrako erregek jauregia edertuz eta handituz, gorrea han jarriz eta erresumako bilzarreak hara deituz, herriari eman zaukoten aiphamen bereziaren ondorioz gertatu zatekeen. Aro ospedun horren oiharzun bat bezala bademate, nahiz behar bada berantago berreraikiak, erretegi inguruko karraketan ikusten diren etxe miragarriek, gorteko jaun handienen egoitzak izanik agian, harresi-ak harrizko sargia ingurudunez, eskudo zizelkatu handi batzu gainetik, zur aberaski landuekilako hegatz-hegalak karriken gainera itzal eginez aitzinatzen.

Jauregian ezarri da Espainian “parador” (euskaraz “geldi-gunea”) dioten hotel bat, leku orhoitzapenez bete horrek zerbait moldez ederragotzen duena, bere ostatuarekin, sartzea herri aldera deman laur kantoineko plaza nagusitik. Erretegira behereko aldetik hurbiltzea hobe da bizkitartean, ustegabeturik uzten baitu Avignon-en aitasainduen palazioak erakusten dituen molde gohika bereko harresi lodi gora batzuen ikusteak: hortik palaziora sartzen da gaitzeko harresi zut horietan idekitzen den arku hautsi handi baten azpitik.

Karlos III-garren “Noblea” diotena, aitaren gerlen eta zimarkuen ondorioz Frantziako erregek (Karlos II-garrena “Jean II de Valois”-en alabarekin ezkonduarik, Charles VI Frantziakoa lehen gusia zuen) erresuma hortan Evreux-ko kondek zituzten hiri 'ta herrialde gehienez eta izenaz beraz

gabetua zuen. Ordainez “Nemours-ko duke” izena ukan zuen 1404-an, hortik hara egin zituen eskutiz eta erabakietan agertzen den bezala: “Karlos Jainkoaren garaziaz Nabarrako errege, Nemours-ko duke...”. Gaztelako infanta zuen emazte erreginarekin bizi gaixtoa ukan zuen luzaz, laur haur elgarrekin ukanik ere. Printzesa horri Nabarrako erresuma ordukotz ttipituan bizitzea aspergarri omen baitzizakon, Gaztelara itzuli zen eta luzaz egon hango politikan sartzeko ahal zuena eginez, azkenean haizatu behar ukan baitzu-ten. 1415-ean hil zen “Oliteko palazioko gambara nagusian” dio Moret Nabarrako ixtoriolariak. Alabaina, gerlako gasturik ez ukanez (ez ere egia erran haien ordaintzeko aita Karlos II-garrenak zituen Frantziako eremu handi hetarik...), Karlos III-garrenak Oliteko erretegia berri 'ta handi-arazia zuen XV-garren mende hastapen hortan, orai berrantolaturik ikus daitekeen moldean. Badiote ederki aphaindua zela, halako Erdi-Aroko “Versailles” baten itxuran, ikus-entzugarrietako, atsegineko, jostatzeko leku hauta: bizitegia 'ta tronuko sala handiak, gambarak bere harrizko galeria ederrekin arku hautsi lerden gothiketan, “dilindako baratze” deritzeeten batzu miragarriak omen (han izan nintzan batez, oraino berrantolatzeko lanak ari, gorte ttipi batean etzen ikusten mahazuza zuhatz zahar ondo lodi bat baizik...), inguruan hamabortz dorre bakoitza bere izenarekin. Iruñeko artxiboetako paper batzuen ikusten da bazirela jauregi haren antolatzen ari Baxe-Nabartar batzu, eta hetan Orzaiztarrak ere.

Karlos III-garrenaren erreinuan gertatua zen Orzaiztarrek erregeren prokuradore Errekaldeko jaun garaztarrarekin hasi zuten auzi handi luzea, hermendien erabiltzeaz eta bereziki ezkur aroan atzerrietako urden gizontzetik erregek biltzen zuen “kinta” izeneko zergaz. Prokuradore horrek ohidura zaharretan ekharri nahi ukan zituen berrikeriak, herritarren urde zergak ere galdeginez atzeritik gizontzera ekharriak zirenetan baizik etzelarik egiten, Erretelia izeneko erregeren (edo haren izenean) arthalde handi batzu herrian haz-araziz eta bertze, etzituzten Orzaiztarrek onhartu. Bazioten hermendien jabegoan erregerekin batean barne zirela; erregek berriz eta haren ordainek jabegoa, etxen ontasun bereziak salbu, osoki erregek zuela jendeak hartan “parterik” batere gabe. Azkenean, 1418-an auzia gelditu zen erregeren “pribilejio” edo lege bereziarekin: erregek

hermendien jabegoa oso atxikitzen zuen, baina Orzaiztarren urteko zerga guziak eta urden kinta ttipitzen, hermendien erabiltzea haizu uzten zitzaien neurri batean, eta hetan alhatzen ahal ziren erregeren aberen zenbata hunenbertzeko batean mugatua zen. Berantago, XVI-garren eta XVII-garren mendetan, hermendien jabego osoa erretateak herritarren eskuan utzi beharko zuen azkenean. Hermendietan lehenik abere 'ta artaldendako, Nabarrako Foru orotako zaharraren legeari jarraikiz, erabiliak ziren ainitz borda etxe bilakatu zen, etxe berriak ere eraiki, guziak bere baratze, labe, alhor eta etxaldekin, eta horrela sortu ziren Ahaize-mendiko auzoa, eta gero XVII-garren mende hastapenean Bidarraiko herri osoa, lehengo Orreagako komenturen kapera 'ta "Bidarraiene" laboretxearen ingurune 'ta lurretan. Erran daiteke ibarraren jendez handitze 'ta aldatze lehenbiziko hura guzia Karlos III-garrenaren erabakiaren ondorio bat izan zela, eta gai beraz oraino ondoko erregekin ukan zituen auzietan, beti pribelejio hortara joiten zuen ibarrak, XVI-garren mende erditan egin zen bezala, Labriteko Henri II-garrena errege zenean, 1418-ko lege berezia osoki bere hastapeneko gazteleran berriz ikiriatuz.

Erretatea erlisioneari hertsiki lotua izanez erret-palazioek bazituzten bere eliza bereziak. Oliteko palazioarekin batean, herriko eliza erroman zaharra jende xoilari utzirik, eraiki zen jauregiari loturik erdaraz "Santa Maria la Real" (Erret-Andredona Maria) dioten eliza gothika, bertze leku batzuetan erran bailaiteke "erret-kapera". Ikusi nuen lehen aldian ondoko etxe itsusi batzuen harresietan hartua zen eta hetan nahasia bezala. Gero, garbitu denean eta hobeki ikusia izaiteko moldean ezarri lotuak zizazkon etxeak barreatuz, da zinez mireskarria agertu duen athe-aitzin osoarekin, alharze egiten daukon laur kantoineko kalostra ttipi baten barnera bademana, guzia, palazioa bezala, Frantziako molde gothikan landua. Atea arku hautsietan molda-tua da, athegaina Nabarrako elizetan usu ikusten den Andredona Mariarekin erdian, inguruan zutabe bikunek atxikitzen dituzten arku hautsi guziak arthoski zizelkatuak ixtorio sainduko gertakariez eta jendez, athearen bi bazterretan lerrokatuak diren gizaiduriak berdin oro arku hautsi gothika gardun batzuen azpian, kalostrako zutabe lerdenak bezala, athe gainera idekitzen den arrosa berdin. Hori zen zinez

Victor Hugok gogoan zuen Erdi-Aroa, bere *Parisko Andredona-Maria* elhaberrian berphiztu nahi ukana zuen hura, eta, Oliteko erretegia 'ta eliza orai egin daitezkeen moldean ikusi balitu, handizki miretsiko zukeena.

Karlos III-garrenaren aroan gertatu zen nehorik uste etzuen ixtripu bat: Iruñeko kathedralearen zati handi bat gau batez lehertu. Korona berak hor hartua zuen, 1418 urtean zatiz berak hobetu (“Amejoramiento” erdaraz) nahi ukana zuen Foru zaharrak manatzen zuen zeremonia handi batean, eta behar zen guzia egin eta egin-arazi zuen eliza horren berriz eraikitzeko ordu hartako ara hoberenean, Oliteko erretegiaren egiteko bezala. Hari zor da beraz, Victor Hugok hain zorrozki trufatua zuen elizaitzin XVIII-garrenekoaren gibelean, kathedraleak baderakusan eraikun-tza gothika gehiena. Hori jakinez bertze begi batzuekin ikusten dira khoroaren aitzinean ezarr-arazi ziren errege 'ta erreginaren gizaiduri etzan hek, Hugok hainbertze miretsiak zituenak. Leku horiek, Iruñe ala Olite, ikusi ditutan aldi oroz gogoratu zata nola hainbat urtez eta urtez, Nabarrako Bilzarre nagusia (“Cortes de Navarra”) batean edo bertzean idekitzen zenean, hemendik ere, Baxe-Nabarrako hiri 'ta ibar guziek bere deputatuak hara igorri behar zituztela, oinez ala zaldiz, haur kantu zaharrak dion bezala (“bihar Iruñerako...”) bi egunen bidetan, eta bidaia hortaz baliatzen zatekeela ere nor edo nor, ordukotz, hango merkatu handian eroste batzuen egiteko, “zapat’ eta gerriko”...

Urzua, Jauregizabar, Zubiri, Donamaria

Erret-palazio handi horien ondoan, Nabarrak atxiki ditu, hirian ala baserrian, Erdi-Aro azken hortan berritu ziren etxe berezi ainitz, jauregi, etxe-dorre, laboretxe berdin. Gehienik aiphatua dena “Xabier”-koa baldin bada, ikusi dutan bekanetan ospe handitan eta ez hain gustu onean berritua iduritu zata, horko seme zen San Frantzesen gatik elizak eta elizaren aldeko gobernu guziek handizki arthatu dutelakotz. Eni ohargarri bezain gogoetagarrienik iduritu zatana ezta beraz jauregi-gaztelu hori bera ez mendetan zehar aldatuaren bortxaz hartua duen itxura “neo-gothika” (aitoretxe berezia izaitearen gainera ukana zuen, Nabarra zatitu zuen gerlarano XVI-garren mendean,

erresumaren zaingoako gaztelu lerroa), baina duen izen erdalduntzez bitxia, bitxiago oraino, saindu haren gatik, bataioko izen bilakaturik arrakasta handikoa izan baita: “Xabier”. Hizkuntza hutseko gau-zetan geldituz bi ohar egin baldin badaitezke, bada zer erran: lehenik Euskal-Herrian, edozein etxetako, aitorenseme ala ez, hain hedatua den “Etxaberi”-tik jalgi dela, gaztelerako erdal-fonetikari esker; eta leku-izen huts bat horrela bataioko izen edo “izen-ttipi” bilakatu, gauza menturaz bakarra edo bederen ezin bekanagoa. Eztu beraz orai euskaraz duen hastapeneko \times -sabaikaria batere amultsutasunezko edo “hipokoriztika” (haur ttipier mintzatzeko gehienik erabili izan den ahozka molde hori adinekoetara azkarki hedatua baita aski bitxiki orai: jendaldetako zikanalisiak baluke hortaz zer erran!), baina “etxe” hitzak ethorkiz duen sabaikariaren ondorio xoilala...

Ursuak zazpi leiho, zazpiak lerro lerro... dio Baztango ibarrean Arizkun-en den etxe omendun hortan gertatu bortizkeria batez ari den kantua. Urzua ala “Ursua”? euskal ahozkatze zuzena zein den jakitea ezta batere argi: *-(a)zu* ala *-tsu* ainiztasunezko bi atzizki moldeak Erdi-Aroan (edo lehenago) erabiliak zirelaketz (gure eskualdetan “Leizarazua, Mendilahar-tsua”, hor berean “Errazu, Zاراizu, Alasua” eta bertze...). Ezta batere argiago ainiztasun hori zertaz den, ala *ur* ala *urr* (urriz aintz jiten dena). Orzaizeko familia batek bazadukan “utsutarr” izengoitia, menturaz familia horri lotua zelaketz, edo adar zenbait jende xoilan artera eroririk (edozein familia handiri gertatu dena noizpait, alderantziz xoilanak handienetarano igaita bezainbat agian, Oihenarten atsotitz batek hain zuzenki dion gauza), edo, usu gertatu dena ere, familiaren meneko eta zerbitzuko izanak zirenek nagusien izena harturik.

Hasteko Urzuko jaunak azpaldidanik Orzaizen ziren: XIV-garren mende erditako Karlos II-garrenak Urzutar bati utziak zauzkon ibar hortako emaitza batzu, erret-eiheren berritzeaz kargatua zuen ur-aste handi batek eremanak zituen urte batez, eta XV-garren mende hastapeneko, ezkontzaz batzuek diotenaz ala ondoriotasunez, Urzuako Jauna Orzaizeko Harizmendiaren (Erdi-Aroan ibarrak zituen zazpi aitoretxetarik bat) jabe zen, eta berriz hala gertatuko XVI-garren mende azkeneko ezkontzaz, hala geldituko oraino XVII-garren mendean Urzutarrekin Espainiako erregeren ganik ukana zuen “Jerena” ala

“Kerenako” (euskal ahozkatzean gaztelerako “jota” *ke* herskari gogor bilakatzen da) konde izenarekin, Frantziako iraultzarano. Orduan gobernuak, Espainiarekin gerlan, hartu zuen atzerriko erregetiar baten “ontasun nazional” bezala, salgai ezarri, Donapaleun antxeretan saldu, eta geroztik eskuan zadukan herriko familia batek erosi. Urzutarren adar batetik zen ere, Larrayozko Zubiri aitoretzetik XVI-garren mendean Orzaizen Arrosagarai (lehenago “Arlausa-garai”) izeneko etxearen jabea hango alabarekin ezkondurik, Juana Labrit Nabarrako erreginak laboretxe zahar hori (XIII-garren mendean aiphu da) aitoretxe lerrora goititu zuenean: Arrosako zubiaren gainaldean Eihartzeko auzoaldean ikusten da oraino, laur kantoineko luze gora bat, etxe noblendako orduan egiten zituzten leiho handi gurutzadunekin bertze guzien artean errex ohargarri.

Orzaizeko etxe eder XVII-XVIII-garren mendetan berrantolatu horren ondoan, ithurburu duela erran daitekeen Arizkungo Urzuak gogamen bitxi batean uzten du: gibeletik ikusten denean, bere mendixkaren bizkarrean, bereziki orai garbi-turik ezarri baita, hor ditu Baztango etxe-dorre guzien harri gorrailek landuzko harresia, leiho ttipi batzu molde gothikan harrian zilhatuak, itxura azkar, horko jaunek ukana zuten buru-pearri emana zerbait moldez (herrian etxe berri bat eraiki nahi zuen bertze jaun bati hitz hau erran omen zaukon batek: *urbixko eldu zara...*), bere eskulanetako Bozateko auzoan utziz edo hara ekharr-araziz jito edo buhame andana bat, eta han bere etxe ttipi berdinetan egon-araziz. Auzoko jaunek jende hetarik ez jasan nahiz auziratu zutenean, zaindu zituen, erranez euskaraz “agotak” erraiten baldin bazizaien, izen horren ethorkia “Goth” izanez (hitz hortarik sortua baitzen Erdi-Aroko etxe ‘ta herri batzuek atxikia zuten izena: Euskal-Herrian eta Akitania guzian, “agot” ala “agout” ala “gout”, “Beltran de Goth” aitasaindu Clement V hark bezala), horrelako auzoen ukaitea ohore izan behar zizaiela. Alabaina Mairuek 711-an haizatu arteo Espainia osoaren jabe ‘ta lehenago, Clovis errege frankoak 507 urtean haizatu arteo, Erromatarrek hor jarririk Bederatzi Jendalderen eta gero Akitaniako erretatearen jabe egona zen jendalde "Bizigoth" harena zen. Etzakiketen ordukotz, ez batzuek ez bertzek, gutietsiz “agotak” deitzen zuten, etxe onetarik urrun bazatxikaten eta elizetan athe berezi batetik baizik sartzera uzten etzuten

jendalde erdi erromes horrek, zuzengaizki ukana zuela izen zahar eta lehenago noble bat, eta berriki erdarako *cagot* (lehen aldikotz XV-garren mendean aurkitzen da bakarrik) hitzera zentzuz berdin zuzengaizki aldatua zela.

Aitzinetik, sortaldetik diot, Euskal-Herriko etxe zahar gehienak alde hortara itzuliak baitira, Urzuak eztu hain itxura gozagarria. Berreraikiaren ondorioz agian, lehenbiziko jaben familiak utzi zuenean edo bertzela, bi zati osoki ezperdinetan agertzen da, harresiek inguratua dadukaten korroila batean: eskuneko alde osoan etxedorra gibeletik bezala bere harresi gorraileder eta gorarekin, jendea ezpaitzen behereko estaietan bizi, harrian zizelkatu leiho ttipi gothika batzu, bikun ala bakun; baina ezkerraldea, azpia salbu hau harriz baita sartzeko athe arkubete-koarekin, hemen aski gaizki “lapurtarra” dioten moldean, argama-setan du, nahiz baden molde hortan ederkiago egin denik. Geroz-tik ohartu niz alta itxura apur batez hobetu daukotela, baina egitura bitxi hori aldatu gabe. Aldatzekoa alda, ezperdintasun hori bera aurkitzen da hemengo etxe zahar batzuetan, alderdi bat harresiz, bertzea argamasetan (nahiz hau hobeki antolatuak eta landuak gehienetan), horietan Orzaizen berean Urzutarrek luzaz atxikia zuten Harizmendi hura eta... nihauren sortetxea!

Jauregi horien menean, etxeari hurbil, bazen ainitzetan kapera edo eliza bat. Usu gertatu da parropiako eliza bera zela, eta, jaunak joan direnean edo elizen jabegoa utzi behar ukan dutenean, gero ere hala gelditu. Urzuak badu bekoz beko, etxera 'ta gorago deraman bidearen bertze aldetik, harri gorraile berezko harresi laur kantoinekoan eraiki zen kapera, athea etxe aldera arkubetean, gainetik ezkiladorre ideki ttipi bat: delako kantu zaharrean aiphatzen den “Santa Ana” hura bera, “*Utsuko etxeakoanderea Santanan defuntu dago...*” diolarik, Urzuko jaun batek, bekaitzez, egia edo leienda, ezkontaitzin izorra zela aurkiturik erahil zuen ezkontide gazteaz.

Nabarrako gerlan, Gaztelarrek Azparrozen armada Noain-go guduan garhaitua ukan zutenean 1521-ko ekhai-naren 30-ean eta Frantzia aldera haizatua, ondoko buruilean Nabartar batzu Amaiurko gazteluaz berriz jabetu ziren. Berrehun bat gudari gazte han jarri ziren eta 1522-ko uztailean atxiki zuten. 10.000 Gaztelar joan omen ziren, Mirandako kondea

buru, haren setiatzera, eta ilabete bereko 22-an hartu zuten. Karlos emperadoreak manatu zuen gaztelua aurdik eta barrea zezaten “etzadin geroko ohoian ala Frantzesen geriza-lekutako balia”, agorrilean berean egin zena. Ondarkinak alderdikari gaztelarren artean banakatu omen ziren edo saldu (harriak baliatu ziren elizaren berritzeko), eta Urzuako Martin kapitainak (Gaztelaren aldeko buruzagi zen) athe nagusia Arizkungo bere jauretxera ereman: han gelditu baliz, eta ikus ahal baladi, gogoeta-araztekoa baluke segurki.

*

Baztan ibarreko etxe zahar guziek, lehengo aitoretxe ala laboretxe, Erdi-Aro azkenera erregeren ganik ukana zuten orotako noblezia (hemen 1435-an Arberoko laboretxek ukana zuten bezalatsu), burgoitasun ageri batekin athe gainetan ezarri baitituzte orok laurkantoineko ttipi berdinetan zizelkatu eskudoak. Eztute guziek Arizkungo Urzuak bezainbat aiphamen ukan, ixtorioan ala leiendan; badira bizkitartean lehengo mendetako eraikuntzen egitura ohargarriagoa atxiki duten batzu, hala nola Larraiozko Jauregizaharra. Izenak dion zahartasun horrek mende-tan goiti norano deraman jakitea (bada Euskal-Herrialde guzietan Erdi-Aroan izendatzen diren Jauregizahar eta Etxezahar andana!) ezin da orai. Larraiozko Jauregizaharrak (Nabarrako gerlan aipha-tzen den izen berekoa bada Iruritan) azpia 'ta lehen estaia (bizitegia hor zen dorretxetan) harri pikatu gorri ederrez ditu, Urzuan eta bertzetan bezala leihoak xuhur eta hertsia, baina hemen bizitegira igaiteko mailaldea etxaitzinean, lehenago hortako baliatzen ziren zurubien orde egin daitekeena. Handik goiti hegaztegirano taula batzuek hesten dute. Uste da gain hori, taulen artetik haize orotara idekia, Baztango ibarreko hezetik bihi 'ta belarren aireztatzeko 'ta idorrean atxikitze baliatzen zela. Batzuek diotenaz, izenaz bertzalde, jauretxen eraikitze molde zaharrena hor da hobeki-enik ageri.

Ezta egituraz hain ustegabegarri auzo-auzoan duen Zubiria, une batez Urzutarren adar batetara, ezkontzaz edo bertzela, erori zen hura. Hegaztegi gaineko dorre ttipi motz bat salbu, argamasetan, dena harresi eder harri gorrizko batean egina agertzen baita, zirrito hertsia batzuekin, baleztari batzu barnetik

zain balaude bezala, harri zurizko eskudo bat iduriz berrikiago harresian lotua. Etxea aphaalgune batean jarria da, noizpait zaindu behar zukeen zubitik zenbait urhatsetan: hortako zen hain saminki deitoratzen Aimeri Picaud beilaria 1140 inguruan Kompostelara joaiteko Garaziko bidean, “Euskal-Herrian eta Nabarran”, jasan behar zenaz, bidariak – eta hetan beilariak ere – ibien eta zubien jabe ‘ta zain zauden jaunek iragan sariaren emaitera bortxatzen zituztelakotz, eta eman nahi ezpazuten gaztigatzen.

Molde berdina erakusten du, Baztandik urrunxago, Doneztebe Leringo ibarrean aurkitzen den Donamariako dorretxeak, baina hau, Nabarrako aitoretxe ainitz bezala, laur kantoineko xoil bat, neurritz aski ttipi nahiz behar den goratasunean, orai arthoski garbitua. J. Caro Barojak zion etxe hau zatekeela, gaztelu 'ta jauregi handi batzu salbu, Erdi-Aroko aitoretzek ukana zuten ara hortako lekukoetan zaharrena, XIIIgarren mendekoa behar bada. Etxe inguruetako ala barneko hatzak jakitatearen tresnekin mihatuz eta aztertuz da bakarrik zahartasun hori zuzenean jarriko. J. Caro Barojaren erraner jarraikiz (izanak ginazkon lagun batekin Beran zuen Itzea izeneko etxe handian ikusten, hara berak eta aitzinekoetarik bilduak zituen berrogei milaz goitiko liburetegi aberatsaren erdian eremaiten baitzuen orduan uda), Donamariako etxe horren ikusten izan nintzanean, etzen batere orai duen garbitasun argian: inguruan baratze 'ta sasi, hetan urde batzu musurka, eta lehen estaian bizitegiko leiho batetik, beribilaren harrabotsean, atso batek buru zuri bat agertu zuen, eta agertu bezain laster barnera gorde. Bizilierrak, jabeak baino segurrago, alokariak zituzkeen, aitoretxe zahar horiek bere lehenbiziko jabez utziak izan baitira ainitzetan.

*

7. Mendiko ibarretan...

Aezkoa

Baztango ibarrak, urez Bidasoara 'ta itsaso handira itzulia, gure eskualdea bezala hango aro hezearen menean, bademako han dabilanari egiazko joritasun baten itxura, Elizondo

hiri nagusiko etxe gotor bezain eder aitzin eskudoztatuek agerian emaiten dutena gehienik, baina ere bertze herrietakoek, Errazu, Arizkun, Amaiur, Irurita... Hor euskara bizi-bizia atxiki da, luzaz Baxe-Nabarra huntako hizkuntza moldeari biziki hurbil egon, ikaskuntza berriak hedatuz aldatzen hasi dueno. Izpegiko lephotik, Baigorriin gaindi, Errazura berehala jautsia baita, auzotasun horrek ukan ditu lehen eta orai bere ondorioak: Bidarraitik Baztanerako alhagunen antolamenduetako Orzaiztarrak Baztandarrekin Izpegi-ko hegian biltzen ziren. Hala egin zuten Nabarrako gerla bururatu ondoan laster 1547-an, elgarren “ahaide on” batzuen artean (hala dio hitzez hitz bi aldetako zinegotziek eta bilzarrek, etxeko jaun nagusi guzien izenekin, egin-arazi zuten izkirioak) zuzen zen moldean akomeatuz. Bi ibarren arteko harreman horien tinkatzeko hor zen orduan, bi aldetan jarria, Urzutarren (edo “Utsutarren” Orzaizen zioten bezala) leinuru zabal bezain ospeduna.

Bizkitartean, eztitut Baztandarrak izendatzen en-tzun etxean, Orzaizen eta Arrosan baldin bazen ere nor edo nor, ezkontzaz ala bertzela, handik jinik jarria, baina bai “Ahetxak”. Horrela zion amatxik orhoitzen zenean haren haurzaroan oraino, XIX-garren mende azkenera, udako uzta 'ta lanetara (“udalen” erranen zuen Oihenartek) Aezkoako ibarretik jiten ezagunak zituen langilendako: bereziki emazteak uste dutanaz, jende ttipi bizi ixil batzu omen, begitartez hemengo jendea baino apur bat beltxaranago. Alabaina, Aezkoako ibarra Baztangotik hurbil izanik ere, Errokoa bien artean, hau jadanik uren ixurkiaz Mediterranea aldera itzulia, osoki bertzelakoa da, leinuz ezpada 'ta ethorkiz, hango aroaren ondorioz eskualdeak duen itxuran, Iberoko ibarrera deman Nabarra gehiena bezala, eta alde hortako aro iguzkitsu idorraren menean. Orreagatik Auritzera jautsi orduko bideak ezker baderama Iratiko errekek eta hau hazten duten urek moldatu duten ibar xipi hortara.

Xipi diot, laborantzari mendi harritsu idorrek uzten daukoten eremuaz, ondorioz herrien handitasunaz eta jendetzeaz. Herri horiek eztira lehen Orzaizeko ibarra osatzen zuten zazpiak baino biziki gehiago, baina, Garralda, Hiriberri, Garaioa salbu (alde huntan ohi diren izenekin), binazka: Orbaizeta 'ta Orbara, Aria 'ta Aribere, azkenik Abaurrea biak, Zazaizuko ibarra-ren mugan. Gainera mendiko ibar horietako

herrialde ainitzetan bezala jende baserritarra, biziaren nekeak bezainbat Iruñek eta behereko hiriek gazten bereganatzeko ukan eta oraino duten indarrak, menturaz ere gerla karlixten ondorio latzak, herritar ainitz herriz aldatzera ekharri dute. Zenbait mendez Orbaizetako minek emana zuten lana, hetsi diren batean agortu da, eta lanaren apurtzearekin jendea xipitu. Eta oraino Espainiako gerlak eta berehala gero Aleman nazien Frantzian jartzeak bi mugaldetako harreman gehienak hautsirik utzi zituzten. Berriki alta, Aezkoan, Erron ala mendiko bertze ibar horietan, aldamen zerbaiti ohar daiteke: etxe utziak berrantolatzen ari edo eginak, berri batzu ere eraikitzen, baratze batzu landatuak, udan bederen jendea etxondo-etan mendiko hoxturaz gozaten, eta etxeko ihiziak, xakur eta gatu... Ageri da jende ainitz, herri handienetan ere, hiritarra dela, ala lehenagoko jaben ondokoak berriz itzulirik, ala udako 'ta lanartetako bizitegiak erosirik.

Ariako herri ttipiak, mendi maldan kokatua bezala, ez agian lehenago hain hel errexera, baina orai karriketari beribilak nasaiki laborantzako tresna batzuen artean, erakusten ditu etxe zaharretan Euskal-Herri osoan ageri diren athe inguru harrizkoak arku bete edo hautsietan, eskudo moldeko harridazki landuak, hetan berregin ziren urteak egilen edo jaben izenekin, etxen izen euskaldun batzu (elizaren sahetsean den batek dio hizki handiz ELICALDE), gaineratekoa gazteleraz, ekhialdeko ibar horietan euskarak goizik gibelera egin baitzuen. Hura ere baserri hutsean den Garaioa herriko ostatu batean bazkariz gertatu ginen batez, entzuten ziren hango jende guziak, zahar ala gazte, bakarrik erdaraz mintzo (etxean berdin ote zen alta?). Arian berean athe gainetako harri zizelkatu horietarik batek emaiten du xoilki urtea: 1566, Euskal-Herrian aurki daitezkeen zaharrenetarik bat.

Alde horietako etxe batzuen sahetsean gelditu dira etxola pollit batzu biziki ohargarriak: laur kantoineko harresiak harri ederrez Ariako batzuetan (ba omen dira ere leku zenbaitetan zurez), hegaztegiak zut, azpiko harresiaren laur kantoi-netan eta erdian harri bakarrezko zutabe motzak, harresi horren eta etxola hetsiaren artea airera idekia, orotara zortzi harri-zutabe laur kantoinekoak beheetik goiti mehatuz pikatuak, eta gainetik, etxola hetsiaren jarguneko, bertze hainbertze

zutabeburu, bakoitza harri bakar inguruan moztu batez egina, jendearen boneta iduri: garaiak. Dudan egon daiteke “garai” izen hori, eta berdin “Garaioa” herriarena, nola moldatu den jakiteko: zutaben gainean “gora” direlakotz? Ala bihitegiak direnaz geroz, “gari-gai, gari-egi, garau-egi” (“garau” latinkiak “bihi” balio baitu Espainiako euskalki batzuetan) edo horrelako hitz elgarretaratu zenbaiten ondorioz? Noizkoak ere etxola horiek? Badiote hasteko zertako egiten ziren: bihien atxikitze idorrean, lurreko hezetik berex, eta aldi berean sagu, garratoin eta bertze ihizietarik. Eta azken galde bat sortzen da oraino: zergatik etziren uztak alde horietan etxe barneko bihitegietan ezartzen, gure eskualdetako moldean, ala ezagunak eta mihatuak izan behar zutelakotz, hemen lehengo labeak etxetarik berex ziren bezala?

Erro

Erroko ibarrarekin Baigorriarrek dituzte ukan harremanak eta batzuetan garratzak, Nabarrako gerlaren ondotik behin ere izan etzen erresuma arteko muga bat ezarria izan zenean, ohidurak eta antolamendu zaharrak ahatziz, alhaguneak bi erre-suma berexietako jenden artean uzitu izan behar baitziren. Baigorrikoek, aro berean, XVI-XVII-garren mendetan, Aldudetik Urepelera (Erroko ibarrak hor berean bere etxea ezarria zuen eta erdalkiz “balea” hitzarekin izendatua) eta Esnazura doan eremu guzia jendeztatua zuten. Auzotasun berri horrek iphizta berriak ere sortu zituen berehala, hala nola nun aharrak ezpaitira oro har, XVI-garren mendean hasirik, XX-garreneko osoki gelditu. Egia da holakorik gabe ere, ibarren mugetan, hermendietako alhagunen gatik egin izana zela gaixtakeria 'ta bortizkeria ainitz, XIII-XIV-garren mendetan jadanik, Orzaizeko, Garaziko, Baigorriko, Irisarrikoen artean ikusten dena.

Luzaide alde huntan, Orreaga, Auritz eta Aurizperri haraindian Erroko ibarreko baldin badira Iratiko erreka doan Urrobi aldean izanik ere, eremu jendeztatuak eta herri gehienak Erro izen bereko erreka gainaldean daude, mendietako malden artean gora bi aldetan jarriak, Aurizperritik beheiti Zilbeti, Mezkiriz, Linzoain, Esnotz, Erro, Ainzioa, Ardaiz. “Erro” izen xoil hori herri nagusi izana datekeenetik emana izan zakoke uhaitzari, ainitzetan gertatu den gauza

(alderantziz bekan). Orreagatik jaustean (erraiteko moldez, bidea itzulikatuz goratik baitoa, 922 metretan Mezkirizen) izen horiek bide bazterreko iragarkietan, eskualde huntakoen itxura hurbila ukanik ere 'ta hitzetan “erro” andana bat berdina, begietara 'ta gogora bademate herri arrotz batera sartzen ari delako sendimendu bitxi bat, mendietako landare 'ta zuhatzen itxura bereziak azkartua oraino.

Argaren ibarralde gainak egiten du Ezteribarra, nahiz bi ibarrak, Erro 'ta Ezteribar, berexten dituen muga hor berean den. Alduden gaindi Esnazutik eta Urkiagako lephotik alde hortara, luzaz bide hertsia trabatu duen harrobi handi baten ondotik, Argako errekarri jarraikiz Eugiko aintzira handira jausten da: uren biltzeko ibarra hetsi zutenean herri zaharra behin betikotz gainditua 'ta ithoa izan zen, eta berri bat egin zen ur bazterrean. Iruñeko errepide orai ederki zabalduari beheiti inguruka jarraikiz horra gero Urtazun (orai españolez euskaraz bezala “Urtasun” erranik ere bada aski lekuko zahar lehenago –*urtaşon, urtaçon, urtaçon, urtassun, ortaçon...*), izen ezaguna hemen ere hortik jalgia zen familia baten gatik, Zubiri, Errea 'ta bertze, Erroko ibarrak baino herri gehiago baitu Ezteribarrak, baina berdin euskal moldea argi-argian atxiki duten hainbertze leku-izen. Ordoki aldeko azken herrixkak Erroko uhaitzaren ondoan dira: Errea, Ardaiz, Zunzarren.

Erroko ur hegitik berehala igana da Zunzarren-era: izan nintzan lehen aldian, ethorkiz horkoa 'ta izen bereko orduan auzo nuen lagun batekin, lekua jadanik ezagutzen baitzuen, bidea laburra izanik ere aski gaixtoa zen oraino. Etzen hor iduriz nehor gehiago bizi, orotara borzpastei etxe 'ta hetan bi jauregi (Ezteban Zunzarrengoa Fernando katolikoaren aldeko buruza-gietan izana zen Nabarrako gerlan), gehienak utziak, hetsiak, batzu lurrera ari edo aitzinatuak, bat edo bi gehien gehienik jendeztatuak. Bizkitartean jende arrotza han ibilki entzunik edo ikusirik, gizon adineko azkar bat jin zizakun, herrian orduan bizi zen familia bakarrekoa omen, etxe horiek jabeak bazituztenez gure galdeari ihardetsiz, guziaren jabe bakarra zela entzun-arazi baitzaukun. Deitura, orhoit nizanez, “Etxegarai” edo iduriko bat zuela erran zaukunean, hemen ere izen ohikoa, euskara mintzo zuenez jakin nahi ukan nuen. Gaztelera

ihardetsi zaukun lañoki, bai haren amak edo amatzik eta lehenagokoek mintzo zutela, baina hark ez eta nehork ez gehiago eskualde hortan. Horrela, mende erdi bat iraganik, Jean Etchepare medikuak *Beribilez* izendatu zuen bidaiako liburuan, hari ere Nabarrako herri batean (etzen alta Zunzarren) gertatua zizakon ixtorio bera berritzen zen, edo hobeki, jarrai-kitzen, hark euskararik etzakiten haur ttipiak baitzituen ikusi, ama oraino euskalduna zutelarik, eta haur haien handitzeko ephe hortan, erdara adinekoen hizkuntza bakarra bilakatua zen, euskara jadanik ahatzia bezala. Euskarari berriz lotu baita Nabarrako leku ainitzetan ere, badateke gaur egun, Zunzarrendarrik han bizi bada bederen, eta ez ondoko aldi batez iduritu zizakun bezala, hiriko jendeak asteburuko hara joanak, etxe batzu bigarren bizitegi-tako ala atsedeneko antolaturik, euskaldun zenbait badela Erroko bazter hartan.

Aldi hortan, aitzinekotik hogei-ta zenbait urte berantago, herrixka aldatzen hasia zen. Gaineko jauregia, eliza ttipi erromanaren ondoan bidea arte, Zunzarrengo palazioa Etxegarai jaunak errana zaukunaz, laur kantoin bere harrizko harresi azkar eta murrizetan, idekia zen, senar-emazte batzu ondoan kadera batzuetan airera; eliza bazterra baratze ttipi, zen lekuan bitxi batek hartua 'ta hetsia zadukan. Karrika hertsia eliza 'ta jauregirano goiti bere noizpaiteko harriztatze zaharrean utzia zen, ikuslierren beribiletarik zaintzeko iduriz, eta arrazoin onez. Bazen nun nahi, bide bazter, harresi, baratze, gaitzeko gatuelementa. Ohargarriena bertzerik zen alta. Bide hertsuari goiti abiatu orduko ezkerretik lehenbiziko aldiak ikusia ginuen jauregi zahar bat biziki andeatua, bi dorre laur kantoineko azkar huntz-orstoak gainerano hartzen ari, etxeko hegaztegiaren erdia lurrera eroria, athe handi bat ederra bizkitartean harri handiz arku hautsian, Nabarrako modan, erdiko harrian zizelkadura batekin: Etxegaraiek errana zaukun “Martere-na” edo “Martinena” zela. Eta Nabarrako ixtorioan, Zunzarren XIII-garren mendeko paperretan agertzen baldin bada (*cuñcarrain* 1242), izen hortako gizon aipatu bat izana zen bizpahirur mende berantago erregeren segetari edo horrelako kargu batean “Martin de Zunzarren”, etxe eder hori haren izenarekin egin baitzatekeen. Eta orai hor ginen hirurzpalaik ikusleak ustegabeturik gelditu ginen: jauregia osoki eta aski handizki berritua zen, hegaztegia,

dorreak, harresi guziak, leihoen barnetik erridau batzu ageri, inguruan baratzea landua 'ta harresi batez arthoski hetsia. Erroko ibarra berphizten hasia zen beraz.

Zaraizu

Aezkoako ibar hertsuari jarraikiz ekhialdera, izen bereko uhaitzaren mendialdea hartzen duen Saraizu, erdaraz Salazar dioten ibar luzera sartzen da. Izenak ahozkaraz higituaren eta erdalduaren bortxaz hartuak dituen molde horietan ezta errex ikusten ez asmatzen ethorkiz euskal izendegian hain ezaguna den “saratsazu” zela lehenbizian, hots “saratsa usu den lekua”, hemen Garaziko Sarasketa herrian bezalatsu, ur eta erreka bazterrak hain laket dituen zuhaxka orsto hautsaran horren izenarekin (zuhatz handien heineratu bakar batzu aurki daitezke, itxura arin argi eder bat baitute orduan), idazki zaharrenak lekuko: *sarasazu*, *sarasasso* (1170-1171). Auzo duen Erronkariko ibarrera bezala, Frantziatik hara laburrenean sar daiteke edo Iratitik, edo, bide hobez, Larrañeko lephotik. Hemen, Nabarrako erresuman orduko hartua zuten omenaren gatik herri gehienak XI-garren mendeko aipha-tuak dira, Aezkoatik abiatuz eta gainetik (Abodiko hegia 1537 metretan) beheiti (Uskarzeco ondoan Olagatokoa 1136 metretan):

Itzalzu, *yçiułoa* 1036-an: “izaien zilhoa” zatekeen hastapenean (ala *ibizi*-ena, basihiziena behar bada?) izena moldez eta erran-nahiz Itzalzu-ra aldatu baino lehen, “itzala usu den lekua”, agian leku-izen hau bereziki hedatua delakotz Euskal-Herriko mendialdetan, eta Orzaizen ere;

Otxagabia (argi-argia “otsoen ohatza”) orai “Otsagia”-ra laburtu badute ere euskaraz (*oxsaganua* 1072), baina ez Orzaiztarren ahoan etxean neguko ortzantzaldietan amatxiri entzuten ginaukon erran zaharraren araura (“*Otxagabiako atxoak arto nabasten*”); ibarreko erredola ikusten da athe-harrietan zizelkaturik, baitakhar “otso bat axuria ahoan”; elizak badu XVI-garren mende azkeneko (1578) erretaula aipatu bat, Miguel de Espinal-en lana (“Espinal” Erroko “Aurizperri” herriaren erdalizena da);

Eaurta edo “Jaurrieta”, hau ere lehenagokotik apur bat laburtua (*eiaurrieta* 1068);

Ezkaroze, aldiz ezin gutiago aldatua (*escaloçe* 1034);

Oronz berdin (*oronç* 1064);

Esparza (*esparça* 1068), handik ethorri familia batek erroak egin baititu alde huntan eta Orzaizen berean;

Sarries, batzuetan Sarze-ra aldatua euskaraz lehen luzaz egon zenetik (*sarres* 1085-1198), izen ofizialean erdaraz (hemengoa Aragonakoa zatekeen) ahozkatzeak ekharri baitu iduriz, eta goizik, bokalaren bikuntze edo “diptonga” hori (*sarries* 1268), ezpazuen bederen erroa gure leku-izenetan hain hedatua den *sarri*, guretako guti argi den osagailu edo atzizki batekin (badateke alta alde huntan hain usu erabili den “Serres” latinki-arekin baduela zer ikus);

Igari erdaraz Igal (*igali* 1108): ur bazterrean delakotz (baina bertzeak ere!) “igelen” lekua ote, ala izaitekotz bideak hortik mendira “igan” behar baitu 1000 metraz goiti, gero Bidangozera 'ta Erronkariko ibarrera jausteko?

Gorza-ren izena euskarak bitxiki aldatua du iduriz, ezen erdarazko “Guesa” ahozkatzea, bokalaren bikuntzea salbu, lekuko zaharrenetako hura bera da idazkien araura (*guosa* 1085, *gosa* 1198, baina ere *guesa* 1034, 1085); euskaraz oraiko “Gorza” egiten duen konsonant dardari hori nola sortu den guti argigarri da, erroa hastapenetik *gor* (“idor, leihor”) ezpaldin bazen hasteko: horrela izanez *-rç-* multzoa erdarak, gaskoinak, zukeen xixtukari *-ç-* xoilera hoin goizik aldatu, mendien bi aldetako jende izen “Garzia” hain ezagunetik (errege ‘ta jaun handi ainitzena lehenago), “Gassie” egina zuen bezala eta berdin goizik (1080, 1170). Zaraizuko jendeak harremanak ainitz eta luzaz ukan ditu, ala Leireko fraile 'ta bertze erdaldunekin, ala Larrañetik landa Nabarran gaindi Kompostelara iragan behar zuten hainbertze bidari 'ta beilari berdin erdaldunen entzutean; ahazti gabe oraino izen horien lekukotasun zaharrenak latinez izkiriatuak ziren paper batzuetan direla lehenbizian agertzen;

Izalle erdaraz Izal (*yçail, yçaille* 1037, 1119) eta Izize erdaraz Iciz (*içiz* 1068) herrien izenek, lekuko zahar horien araura, eztute iduriz ikustekorik “itzal” hitzarekin, ez ere hemengo leku batzuek bezala “ihizi”-rekin (“Thiztari” Orzaizen mendi izena, Sorhapurun etxe izena) baina segurrago “ihi, ihitze” leku bustietako landarearenarekin, alde horietako euskalkiak baitu

goizik, Aragonako erdararen ondorioz diote batzuek, gureak atxiki duen konsonant hastun hori ezabatu;

Galozeren izena ere badiduri euskarak atxiki duela bokala erdarak bezala bikundu gabe “Gallues”-era, idazki ezagun guzietan horrela agertzen delarik alta nahiz lekukoak berantekoak (1268 *galues*); izen horietarik ainitz bezala alde huntan ere errepikatua baita, molde zaharra atxikia du hemen, Amikuze Zozuetan zen aitoretxe edo “sala” bakarraren izenean: “Galos” (orai euskaraz “Galosia”-ra aldatua, “Galozea” izan behar lukeela-rik segurki). Horrela *-oꝛ* atzizkituak diren izener “akitaniarrak” deritzeete hizkuntzalariek, “akitaniar-iberiarrak” biziki hobe luke-telarik;

Uskarres euskaraz baina usuago “Uskartze” ezta mendetan zehar biziki aldatu (*uscarreze* 1072, eta jende izena latindurik goizago *uscarrensi* 997), beheko aldera ibarra hesten duen azken herria da, itxuraz euskalduna baina ez hain argi errexha hau.

Larrañetik jaustean eskun Zaraizuko ibarrera sartu orduko, Izalzu utzirik Otsagabiara heltzean eskun, aurkitzen da, malda zut bat igan ondoan 1537 metretan den Abodiko hegi aldera, Muskilda izeneko eliza erromana (euskaraz orai “Ama Birjina Muskildakoa”), Baxe-Nabarratik Ozkixen gaindi Xuberora sartzean handik iragan behar den “Muskildi” herriaren izenak duen erro berekoa. Izen horiek duten eite handiak erakustera bademo bidariari, bortu gorenetakoa arte-hauste guziez baliatuz bide egiteko, betidanik bi aldetako jendeak hurbil izan direla, zenbat harreman ukan duten elgarren artean, Xubero 'ta Erronkariko euskalkiak, azken hau bizi izan deno bederen, mendi gorenak arte izanik ere, zinez hizkuntza haurride egon direla mende 'ta mendetan. Muskilda, Zaraizu, Erronkari ala bertze, bada Ansoko ibarreko mugara heltzean Aragona hunkitzen duen Nabarrako alde hortan guzian, eta orai Aragonako den eremuan ere, ahozkatzeko aldatze batzu salbu, hemengoan itxura duten izen andana: Asparren, Zabalza, Arrieta, Uztarroz, Zuriza, Urduetz, Azkarra ... Horien ondoan ageri da ere badirela oraiko euskarak guti argitzen dituenak, noizpait bertze hizkuntza zenbaiteko hitzak euskara zaharrarekin nahasi balire bezala.

Erronkari

Zaraizun gaindi, Nabarrako mendietan sortaldera ala Mediterranea aldera, edo Larrañetik jaustean ezker hartuz, erresumako azken ibarra Erronkarikoa da. Ezka izeneko uhaitzak, 2000 metraz goiti doazen mendietako ixurkian, zilatua bezala du ibar hori. Izenak berak, oraiko euskal-ahozkatzean, alde orotako euskal-izendegian ezaguna den “erro” hitzaz orhoitarazten baldin badu, lekukotasun zaharrenek, latinduak izanagatik, bertze zerbait entzun-arazten dute: *Ronchal* 1098, *Roncali* 1112, *Arronchal* 1144 ...

Izaba Erronkariko hiri nagusira hurbiltzean, laur kantoineko ezkiladorre gotor bat agertzen da herriko hegaztegien gainetik. Eliza da, mendialde hortan uste den baino itxuraz handi-ago, harresiak harri aski ilun batzuetan eraikiak, athea ara erro-manean, laur arku betekin alde bakoitzeko laur zutaben gainean inguruan, zizelkadurak guti bezain xoilki. Dorre handiak, gain-gainean ezkila atherbe ttipi batekin, gaztelu bateko jaurdorrea eliza batena bezainbat gogoratzen du, eta guziak halako biphiltasun batez gogoa hartzen. Iduri du badela hor mendiko ibar horiek, Nabarrako erretatearen hastapeneko mendetan, IX-X-garretetan, Mairuen jaukitzeari ihardokitzeko ukan beharra zuten azkarta-sunaren orhoitzapen edo oiharzun bat, hiriak nahi ukana duen nagusitasunarena bezainbat. Azken arrazoin hunek dituzke ezarr-arazi ere, eliza barnean, lehenik ezker aldean aski gora alhasa barrokoarekilako organo gotor eder bat, bi tuta lerro aitzinera zuzen Espainiako modan (halako zerbait zukeen ikusi, handiago oraino agian, Hugok Iruñeko kathedralean), eta aldere-aitzinean Perez de Cisneros zizelkari margolariak egin Nabarrako gerlak ekharri zituen nahasmen eta bortizkerietarik landa (1540), erretaula handi bat izkirio saindu-etako jende ‘ta gertakariz aberaski zizelka-tua, margoztatua, gizaiduriz hain betea nun, Espainia aldeko erretaula landu barroko horietarik ainitzek bezala, azpitik beha dagokon ikuslea lehertzen bezala baitu ...

Eliza hortara igaitean ohartu da etxe batzuek badituztela, Nabarrako molde ohikoan, harri-pikatu handi leundu batzuek itzulian hartzen dituzten arku beteko atheak (nahiz molde berean ikusia nuen handiena Nabarran Uroz-ko herrian izana zen, harri bakoitza luzez athe osoak zuen idekiduraren

neurrikoa: etxeko zein urgulu motaren lekuko?). Athe horietarik ainitzen gainetan, edo berritu direnean harresian aski gora loturik, ezarriak dira nun nahi erredola batzu, ez alta Nabarrako hiri ainitzetakoak diren bezain handi. Horietan errepikatzen da, aldaketa batzuekin han edo hemen, ibar osoak atxikia duen ikurra zizelkaturik: erdian errege mairu bat korona buruan eta oihal baten floka gibelean airera, burua moztua iduri, begitartea eskuneko aldera itzulirik, azpian edo hirur arkuetako zubi bat, edo mendi bat. Ikusleak jakin dezan ixtorioko zein gertakariz marrazki horrek orhoit-arazi nahi duen, batek badakhar inguruan hizki handiz: ABDURAMEN REY DE CORDOBA, azpian 1588 urtea, guzia harrian goiti zizelkatua. Gogoratzen da berehala Kordoba izana dela luzaz Mairuen erresumako hiri nagusi (baitira oraino han delako “mezquita” aiphatua 'ta bertze gauza ikusgarri andana, hetan “Pikoen etxea” diotena, arku erdiko athe handi Nabarrakoak bezalako batekin), eta ohiki “Abderraman” errege izen hori noiz edo noiz entzuna dela.

Ikur horrek diona, ixtorioa bezainbat, leienda da. Ixtorioa lehenik, Nabarrako erretatearen lehenbiziko mendekak, VIII-garretetik XI-garrenean, ikhertu dituztenen araura. Al-Andaluzko (Espainiaren izen araba zen) errege edo “emir” mairuak, Abd al-Rahman III-garrenak, 891-an sortua, jendakiaz Nabarrako erret-familiari emazten aldetik hurbildik lotua (mairu 'ta girixtino “gurutzatzen” ziren euskarak dion bezala, batzuetan, gerlen artetik, ezkontzen ere), tronua 912-an hartua zuen. Nabarrako errege 905-az geroztik Zantxo Garzez I zen. Espainian usu gerla zen mende hetan, ipharreko errege 'ta printze girixtinoek mairuekin, eta elgarren artean ere. Espainia ipharreko erresuma batzuetan, Aragonako ala Nabarrako mendi, Leon, Asturietan eta Galizian, ezpaziren nagusi geldituak, Kordobako hiri handian jarririk oraino hegoalde guziaren eta, mendi horietan salbu, Espainia gehienaren jabe ziren mairuak. Abd al-Rahman III hori emaiten dute aro hetako emir ospetsu 'ta gerlari handiena bezala. Errege girixtinoek eta Zantxo Garzez-ek bereziki egiten zauzkoten jaukitzetarik behin betikotz arindua izaiteko edo, gaitzeko armada bildu zuen 924-an eta ixtoriolariek “Iruñeko gerlaldia” diotenera abiatu zen. Gudu guziak irabazirik Nabarrako errege 'ta armada hainbaterano zituen hertsatuak, nun mendietara ihes egina baitzuten han berriz biltzeko, ihardo-

kitzeko, eta ontsa ezagutzen zituzten mendietako leku gaixtoek lagunduz beti bezala, ahal bazuten irabazteko. Etzen zorigaitzez batere hala gertatu. Jadanik Iruñerekin bertze hiri 'ta gaztelu nagusiak hartuak zituelarik, Erronkarin, Ezkako ur bazterrean, uhaitz hori herrien erdi-erditik baitoa Erronkarin, Otxaren zeritzon lekuko guduan, mairuak irabazi zuen berriz ere, 924-ko uztailaren 21-an; eta Kordobara urrez eta thesozez betea itzuli omen zen Abal al-Rahman, Nabarrako erresumako jabegoa atxiki ahal ukan gabe bizkitartean. Alta Erronkariko gudu hortan herritarrek ahal zituztenak eginak zituzten Zantxo Garzezen armadan, mairu buruzagietarik bat, “Yakub ibn Abu Khalid Tuberi” izenekoa, eta emirraren inguruko gizon batzu garhaituak eta erahilak, lephoa moztuz agian, nahiz xehetasun hori ezten ixtorioak diona. Errege Zantxo Garzezek etzuen biziki iraun, eritasunak harturik, ondoko urtean 925-ean hil baitzen, eta geroztik barreatu den “Monjardin” izen frantzeseko erret-palazioan ehortzi. Abd al-Rahman-ek aldiz Kordobako tronua atxiki zuen oraino hogeita hamar bat urtez goiti...

Eta huna leienda. Badio Erronkariarrek etzutelak bakarrik delako “Yakub” hura garhaitu, baina Abd al-Rahman bera hil eta lephoa moztu, eta erahiltze hori egin zuena emazte erronkariar bat zela. Horrela aurkitzen da, Erronkarin, X-garren mendean, hirien zaintzeko ixtorioetan eta leindetan (nork erran beti zeintan giren segurki?) hain ezaguna den gertakari bat: Parisen V-garrenean Jenofeba bezala, berantago “Jeanne Hachette”, Nizan “Catherine Segurane”, Baionan “Garai” izeneko anderea, emazteki bat gerlari 'ta herriaren salbatzale. Dena den gertakaria aski handia izana zatekeen, Nabarrako armadak gerla hortan ukanak zituen zorigaitz eta galtze guzien artean, ezen errege Zantxo Garzezek eman zauen Erronkaldar guzier aitorensemegoa 'ta eskutitz ideki batean hala aithortu. Fagore hori erregek berritu zuten eta berraitortu, ixtorio zuzena jadanik leindakiarekin nahasirik eskutitz horiek diotenaz, 1015-ean, 1143-an, azkenik Karlos III-garrenak 1412-an. Ordutik Erronkariko eskudoak badakhar, Ezka bazterreko gudu horren orhoitzapenez, ixtorioari leienda batuz, delako anderea aipatu gabe alta: “*zola urdinean zubi bat urrezko hirur arkuekin, erdiko arkuan hirur begiekilako mendi bat, eta zubiaren gainaldean errege mairu baten buru koronaduna mozturik.*” Harma horiek dituzte Erronkariko etxe

batzuek bere athegain eta harresietan ibiltzaleari erakusten, batzuetan Abd al-Rahman bera izendatuz, duela mila urtez goiti iragan zen gertakari baten lekuko.

IX-garren mendeko egintza mithikoen orhoitzapen ospagarriak elituzke ahatz-arazi behar, alta (ezpada ere nor-baiten gogoan hortako bereko noizpait baliatu...), biziki hurbilago, etxaitzinetako eskudoak zizelkatu diren XVI-garren mende bereko hastapenetan, Nabarrako mendi alde horiek jasan behar ukan zituzten gertakari latzak. Fernando katolikoak erresuma bortizki hartu zuenean aitasainduaren eta elizaren baimen laster aithortuaz lagundurik 1512-ko udan, Joanes II Labrit errege zuzena bere familiarekin, gortearekin eta agaramuntes alderdikoekin Biarnora ihes egitera bortxatu zuen. Erronkariko 'ta mendialde hortako ibarrak ziren Iruñetik Biarnorako bide laburrenak. Urrian Joanes Labrit abiatu zen, Otxagabian gaindi, bere erresumaz berriz jabetzera; hazaro azkeneko ukhaldiak huts egina zuen, Iruñeko hiri nagusiaz ezin jabetuz, erregek armada ahulegiarekin Biarnora itzuli behar ukana.

Bigarren entsegua, 1516-ko ephailean, etzen gaizkiago baizik heldu. Armadako gotorrena Piarres Nabarrako marexala buru, Erronkaritik eta Zaraizutik jausten ari zelarik, Gaztelarrek han berean erhautsi zuten, marexala bera (geroztik Simancas-en preso atxiki zen, eta zenbait urte berantago bere presondegi-palazioan ganibet ukhaldika erahil) eta aitzindari nagusiak harturik preso ezarri. Ondoko ekhainean Joanes Labrit Biarnoan hil zen, Iruñeko kathedralean aitzineko erregeak bezala ehortzia izaiteko galdegina zuen zuzenbidea ukan gabe Fernando-ren ganik.

Henri “Zangozako” haren seme errege zuzenak 1521-ko ostaroa igurikatu zuen, anartean armada azkar bat Frantziako erregeren laguntzarekin zutik ezarri, Azparrozko jauna buru, hirugarren entsegura menturatzeko. Irabazter zuten aldi huntan, berrogei bat egunez (bakarrik!) ostaro-ekhainetan erresu-ma osoaren jabe egon, baina guziak, Nabarrarendako zorigaitz handitan, ekhainaren bururatzean, ophor egin zuen. Mendiko ibarretan – eta Baxe-Nabarran –, Amaiurko gazteluan, Nabar-tarrek ihardoki zuten oraino zenbait ilabetez. Gaztelarrek, lurrak jabetu baldin baziren azkenean, etzituzten gogoak oro

berehala bildu. Herritik ihes ez joaitekotz, ainitzek Lapurdira, Baxe-Nabarrera ala Biarnora egina eta egin zuten bezala, amor eman behar izan zen. Fernadoren nahitara Inkisidoreak ezarriak ziren Nabarran ere. 1525-ean sorgin bila abiatu ziren Erronkarin eta Zaraizun. Laurehun bat sorgin auzi egin zen urte hartan, hirurehun oraino 1527-an, lauretan hogeit hamar “sorgin” bederen errezipildu. Hezkuntza bortitza, erlisione estakuru 'ta haren izenean, egiazki politikako arrazoin huts bortitzenaz.

*

Herri gutik, orotara zortzi, dute osatzen Erronkariko ibarra, hemen ere, Errokoan bezala, izen berekoa den “Roncal” barne, herri horren izen berezia, eta doi bat bitxia euskaraz, baitaiteke noizpait ibar osoari eman, ibarraren erditsutan delakotz behar bada, ezpaita oro har, orai bederen, herri nagusia, ez jendetzez, ez dituen gauza ohargarriez. Beheretik goiti, erran badaiteke, ezen orotan mendia gora doa uhaitzen bazterretan, berehala mila metraz goiti, Ansorekin Aragonako mugan (1294, 1267, 1290 metra Zuriza Erronkariko herri gorenean) ala Zaraizukoan (950, 1188,1406, 1129), Larrañeko lephorano (1573).

Burgi da, Yesako aintzira bazterrari jarraikirik Sigues-en eta Ezkako Salbaterran gaindi, Erronkarin sartzean aurkitzen den lehenbiziko herria. Izena dituen lekukotasun zaharrenean araura etzako mendetan zehar batere aldatu: *burgui* (1159, 1193, 1200); eta badiduri erdarako “burgo, bourg” hitz bera dela, erran-nahiz euskarazko latinki “gastelu” balio duena, hizkuntza “ofizial” batetik emana, hitzak ethorkia aleman zahar-rean baitu, ez agian lekuko jendeak, baina zaindu behar zen leku horren jabegoa zuen botereak. Euskal-izen zaharrenean barnean egonez, aithortu behar da bizkitartean, “Burgi” izan daitekeela, bertze leku batzuetan, Araban ala Orzaizen Erdi-Aroko izenetan, “Murgi” hitzaren aldaketa ohikoa (bi ezpainetako konso-nanta sudurkatuz, "Azpe" XIV-garren mendekoa "Asme" egin den bezalatsu Ostibarran), “Plinius Zaharrak” izkiriartzen zuelarik, duela 2000 mila urte hurbil, izen hori bera emaiten zela Espainia behean orai Almeria izeneko hiriaren ondoko leku bati.

Horrelako lekukotasun batzuen aitzinean, ixtoriolari ala hizkuntza-lariak badu burxoratzekoa.

Burgitik landa ezkerreko ibar ttipi hertsuari jarraikiz (bi aldetan mendiak 1400 metraz goitirano igaiten), heltzen da Bidangozera. Izen hau ere aldatu gabe egon da, aldi bakar batzuez, hemengo izen batzuetan bezala (Barkoiz, Irigoiz...), izenburuan *-goiz* irakur daitekeelarik alta (1120, 1178), baina gehienetan bieko bokalik gabe *-goz* (1085, 1120, 1197...). Badiduri *bide* hitzetik egin dela euskarari, lehenago aintz erabili den *-ango* atzizki zahar ttipitzalearekin (Larrango, Berango ...); *-goiz*-ekin egin bazen alta hastapenean gero *-goz*-era laburtuz usu gertatu den bezala (oraiko Barkoxe “Barkoiz” zaharragotik egin da), orduan zuzenki *goiz*, "goizaldera" itzuliak diren bertze leku batzuen izena ukan ahal zukeen. Leku-izen mota horiek jende izenaz eginak direla baitezpada nahi dutenek behar lukete latineko “Vitalis”-etik jalgi diren “Vital, Bidau, Bidon” eta horrelako Erdi-Arokoetara jo. Bertzela “goizalderako bide ttipi” edo molde hortako erran nahi bat ukan zuela herri horrek onhar daiteke.

Ezkako ibarrari goiti joaiten bada Burgitik, Erronkariko herrira heldu gabe eskun Aragoneko Ansora doan bide ttipiak baderama berehala Gardera. Izen hau ere ezta mendetan zehar aldatu (1085, 1098...). Burgi, Erronkari ethorkiz erdalkiak izan baldin badaitezke, hau ere itxura guzieren araura, *garr*- (“harri” eta ez “su”!) hitz zaharra ezaguna izanik ere gure leku-izen aintzietan, ezpaita *-de* euskarak baderabiltzan hitz edo atzizkietarik: “garde” (euskaraz “zaintze, zaintzale”) hitza aleman zaharretik sartu da hemengo erdalkietan. Jakinez Erronkariko ibarra bere mendi gotorren artean, alde huntan auzo duen Xuberoko Basaburua bezalatsu, mendiko leku azkar berenaz gaztelu balio zuten horien zaintzale bat zela, Bisigoten (Agoten) erregeak ote ziren, 711-an Mairuak Espainiaz jabetu baino lehen, leku horiek izendatu zituztenak?

Ezka aldera berriz itzulirik berehala gorago aurkitzen da Urzainki, hau aldiz beharrira euskararen moldean joiten duen izena. Erdi-Aroko lekukotasunek berdin erakusten dute baina eztira hain zaharrak: XIII-garren mendetik XV-garreneko *urçainqui*, *urçainc*, *urçanqui*, *urçainqui*... Lehenbiziko zatian, *urç*, ikusi da batzuetan, arrazoin on zenbaitekin, “ordoki”

hitzaren erroa den *urd-* guti aldaturik. Bigarren zatia *-ainki* ezta bizkitartean hain argi. Dena den aski bitxi lizateke, Burgi eta Garde izenek ukan dezaketen erran nahi inguruan, *urzain-* entzun behar ukaitea, erran nahi da *uraren zaintzale?* Herria Ezkatik apur bat barnago da, hobeki behatzeko bezala, eta behar bada “zaintzeko”.

Izabak, 813 metretan, jadanik mendian jarria da, bide gurutze egiten du: ezker Uztarrozen gaindi Larrañeko lephora 'ta Xuberora, goiti zuzen, eskunean utzirik Zuriza, alde hortara Erronkariko azken herria, Dona-Marte Harriko lephora 'ta Biarno-ra. Mendi goreneko herri horiek betidanik jendea iragaiten ikusi baldin badute, erregeak armadekin, merkatariak usu, beilariak batzuetan, horien hatz guti dute bere izenetan atxiki edo batere. Izabaren izena aski berant agertzen da ezagunak diren paperretan, XIII-garren mendetik hasiz baina batere aldatu gabe: *ysana, ysava, issava, isaua* (izkirio zahar horietan “u” ala “v” hizkiek gure “b” balio dute beti). Azken *-ba* horrek “be, behe, behere” balio duela, “aldapa” eta horrelako hitz eta izen zahar batzuen moldean, itxura badu, ezen herriak duen goratasun hori (813 m.) guti baita hortik goiti laster aurkitzen diren Laza (1542 m.), Maz (1945), Dona Marte Harri (2044) eta bertze hegien aldean. Lehen osagaitzat duen *iz̃a-* ezta hoin argi: ala *iz̃ai* lehenago oihan goien zenbaitek utzia beheko aldean zuen herriari; ala *ihit̃ze*, alde hortan hatstunak aspaldidanik ezabatu baitira, *it̃ze*-ra laburtua (mendi arte ‘ta zoletan lurretik jalgitzen diren ur nigarrek ihia jin-arazten dute); ala leku-izenetan *ait̃z* (“harri, harroka”) hitz zaharraren aldepenetako ezaguna den *it̃z?* Izaba baino biziki gorago, jadanik Anso-ko ibarrean hartua, beraz Aragonako erresuman, bidea handik uren ixurkiz Izaba 'ta Erronkarira itzulia izanik ere, Zurizak du (1290 metretan gora) Nabarra alde hortara mugatzen. Eniz alta harano baztertu erraiteko zerk eman ote daukon Uharte-Garaziko etxe zahar batek (*çuridce* 1366) ere atxiki duen izen ezagun hori: harrien edo lurraren margo zuriak, ala gain hartan urtean berant badiraute elhurrek?

Itzultzeko bidea Erronkariko ibarretik egin dutanean, alde huntako bidari gehienek bezala, Izabatik Larrañera hartu dut, Uztarroz baita hor iragan behar den Erronkariko azken herria. Ezta izen hori ere XIII-garren mendetik hunara aldatu (1268-1270 *uçtarroç, uztarroç*) baina goragoko lekuko-

tasunak behar dira molde zaharrena zer zuen jakiteko. Duen moldean, eta jakinez Erronkari 'ta Nabarrara sartzeko bide nagusian zela herria Xuberotik edo Xuberon gaindi heldu ziren atzerritarrendako, erran nahi da “arrotzendako”, *urd-/ur̄-/ur̄t-* aitzinean erran den erro beraren itxurak direla euskarazko lekuen ainitzetan, balidurike izan zaitekeela hor Erronkariarrek aspaldidanik “arrotzen ordokia” bezalako zerbaitendako zadukaten leku bat, *arrō* hitza bera ere ezpaliz (Oztibarren “Arroz” eta bertze...) alde hautan ezaguna den bertze molde 'ta erran nahiko leku izen zahar bat.

XX-garren mende erditik laster hil zen Erronka-riko euskalkia mintzo zuen azken emaztea, eta geroztik, gauzak berriki aldatzen hasi baldin badira hor ere, ibarra osoki erdaldurik gelditua zen. Alta XIX-garren mende azkenean jendeak, hiritarra 'ta ezaguna izanik ere, oraino mintzo zuela ikusten da Julian de Gayarre kantari aiphatuak Barzelonatik 1894-an herriko izaba bati igortzen zaukon ezkutitzetik, Mediterranea bazterreko aro ephela 'ta bizi gozoa goresten zituela herritar menditarren hotza gogoan: “(...) *Ez̄tu eguiten quem̄en ōzic batrere, chaten dugu quem̄en anisco ongui (...)*”. Erronkariko euskara Xuberokoari hurbiltzen zako, aldi berean zatiz Baxe-Nabarrako ibar batzuetakoari ere, lekuen eta etxen izen zaharrak ikhertu dituztenek argiki phoragatu baitute. Hor da zinez ageri leku urrundu horietako euskarak, ahozkatzean ezpada, euskalki guziek auzoko erdalkiari zor dutena baztertuz, orotako hiztegia luzaz alde hautakoen berdina atxikia zuela, gramatika ere, eskutitz berean Gayarrek diona lekuko: “(...) *ichasoaren eustra (...)*”, aditz izenaren osagailu mugatua genitiboan ezarriz.

Badiduri duela bi mila urtez geroztik gauzak biziki aldatu direla eskualde horietan. Aragonako 'ta Nabarrako erresumen muga hor berean baldin bada orai, lehenago “Baskonen” herri bakoitz bat egiten zuketen guziek. Hori ezta bakarrik Aragon aldeko mendiek eta nabek atxikiak dituzten leku izen ainitzek garbiki erakusten dutenetik ondorioztatzen. Pompeioren Erromatarrek, gure aro aitzineko lehen mende erditara heltzean, duela bi mila hiruretan hogeitaz goiti, Erromari jazartua zizakon Sertoriusen alderdia atxikirik bortizki setiatu zuten eta suntsitu “Calagurris Vasconum” (ezpaita, luzaz uste izan den bezala, Oihenart bera barne, Ibero Errioxako

“Calahorra”, baina ba Loarre), Baskonen hiri 'ta gaztelu nagusia. Ikus daiteke oraino Aragonako eremuan, leku berean edo hurbil den Loarreko hiri ttipiaren ondoko mendi zutak gora zaintzen zuen izen bereko gaztelu handia, XI-garren mendean Zantxo Handiak eta haren seme Ramire Aragonako lehenbiziko erregek aberaski bezain miragarriki azkartua. Handik kilometra gutitan Aierbe izeneko hirixka, aldapa zut baten behean, lehenago hor mintzatu zen euskararen lekuko gelditu da.

*

8. Larraindik Xuberon gaindi ...

Frantziatik Espainiara ala Espainiatik Frantziara, Urkiaga-ko lephoa ala Orragea-koa aski gora baldin badira, azken hau gorago 1057 metretan, iragaiteko luze bezain enhoagarri, orai beribilez ere horrela batzuendako beldurgarriago, ezta Larrañe-koaren iragaitea errexago ez laburrago, bereziki Xuberoko aldetik: Ligitik abiatuz bide mehar bati goiti, gero ezker utzirik Holzarteko errekek, Larrañerano igan eta, bada handik hegira oraino hamabi kilometrako bat, guzia itzuli 'ta itzuli. Larrañeko herritik gorago, lehenik Erroimendiko lephoa iraganik jadanik 1362 metretan, alde orotara mendiak gero 'ta gorago, ikuspegiak eta mazelak bere harroka ilunak agerian zinez miragarri, azkenean Larrañeko lephoa diotenera heltzen da. Hau, 1573 metretan, bi hegi zuten artetik hautsia da, eskun han berean itsasaldera Orhiko hegia 2017 metretan (arrazoin handiz zion Oihenartek atsotitzaren araura *Orhin laket* izan zaitekeela phorogatu zuela ziona, gezurrez ari zela edo irriz), ezker apur bat urrunago, abantzu goratasun berean, 1923 metretan, hain izen bitxiko Otxogorrigaña: otsoak “laket” ziren “gain gorria” ote da, ala, leindetako moldean, “otso gorri” zenbaitek, egiazkoa baino segurrago jendearen asmamenekoa, noizpait Frantzian Gévaudan aldeko ihizi hura bezain izigarri izanik, leku hari utzia daukon orhoitzapena?

Gain hartara, Erronkariko aldea orduan lehen aldikotz ikusi nahiz, Orzaizetik bidea Oztibarren eta Xuberon gaindi biziki luzatuz auzoko lagun batekin heldu nintzan batez, oraino Franco-ren gobernuko azken urteak, haraindiko Euskal-

dunekin aharra bizienean, ikusi ginen hegira orduko zazpi-zortzi soldadoez inguratuak, hauk harmak eskuan mehatxuz bezala. Paperrak zuzen ginituela erakutsirik, biziki mihatuak izan gabe, utzi ginituzten alta. Jausteak badu zenbaiten izitzekoa, bide meharretik beheiti – beribil zenbaitekin gurutzatzeak lanak ditu batzuetan – hobe, bidari denean hasteko, begia ezpada uzten aldapa zutek badagiten lezetara eremaiten, behakoak berak batzu burxora baitezazke. Uda mina baitzen, ohi den bezala alderdi hura berehala iguzkitan aurkitu zen, hegia usu inguratzen duten hedoi arinak utzi orduko, azpitik behatuz Victor Hugo-ri mendiaren aphaundurak iduritu zizazkon hek berak. Alta Otxagabiatik ala Uztarroztik goiti alde huntara heldu denean, hedoi arin hek berak, udan ere, egun ondarrera iguzkia beheiti ari, hegira orduko gaua erortzen, beldurgarri izan daitezke.

Hala gertatu zizakun hasteko, aitzinean erran itzuli hura baino urteak berantago, eguna iguzkitara gozoki alde horietan eremanik adixkide batzuekin arrastirian etxe aldera abiatu ginen batez. Hegira heltzean, azpitik doi-doia ageri zen lanho xurail hura lurrari lotua bezala hedatzen hasia zen, ilunabarraren hurbiltzearekin batean iluntzen ere, hala nola nun, hegitik beheiti abiatu orduko, nahiz gaua oraino erortzetik urrun – iluna baino lehen gainerateko bidea iraganik etxerano sartuak ginen - , lanho lodi batek eskualde guzia azpian hartua baitzuen, eta bidea harekin. Argiak phizturik ere, bi metretan jeus ez ageri, beribila jausteko phizuaz beraz eremana izanik ahal bezain emeki atxiki behar, hurbil-hurbildurik baizik ez ohartzen bide hertsian goiti zoazener, arrastatzeko ukhaldi bat bide lerrakortzen ari zenean lanjeros, nik dakita zeinbat luze izan zen, edo bidari nintzanari hala iduritu – orhoit niz biharamunean minberatua jeiki nintzala! - , Larrañe, lehenagoko "Larraun", molde berean iraganik nahiz errexkiago bidea zabaltzen baita 'ta malda eztatzen, Xuberotarrek dioten “Ibarrexkerreko” zolarano atseginekin heltzea. Etzen hor *Berter-retxen kantore*-an “Bost-Mendietan behera Marizantzen laster” haren (oinezkoa hura) idurikorik, eta Larrañe-tik iragaitean beti orhoitzen baldin bada delako kantuan izendatzen den eta izen bereko haren etxea eliza ondoan den “Berterretxe” zorigaitzekoaz, aithor dut aldi hartan, nahiz bide bertsuaren egiten ari, etzizatala batere gogoratu. Berriki agertu da, eliza barnea garbitu denean, khoro gaineko harri-giltz biribil XV-

garren mende azkenean - Berterretxe erhail zuten aroan Jaurgain ixtoriolari xuberotarraren ganik dakiguna aski segurki - zizelkatuak badadukala inguruan latinezko hizki handitan "Berterretxe" horren izena, iduriz hura hil eta haren ezkontideak ("Mariana" idazkiak dionaz) orhoitzapenez edo ohorez ezarrarazi zukeena, elizako nagusitasuna baitzuen zuzenez aitoretxeak: *UC BERTERRECHE MARITI MARIANA*, behar bada hain zuzen 1500 urtean, hastapeneko UC irakurtzen bada VC "500" latinez.

Baxe-Nabartarra beti ustegabetua gertatzen da, Amikuze mugako herriak utzirik, Xubero barnera sartu orduko: etxeak Biarnoko moldean zabal baino hertsiago, izkinka ainitzetan, hegaztegiak ez teila gorritz bi ixurki zabaletan baina arbel ilunez edo oholez zut, athe-leihoetako harridazki 'ta marrazkiak gehienetan ttipiako, ospez xuhurrago bezala, nahiz halako aphain-tasun arin batekin landuak; eta oraino herri andana batean, zori-gaitzez ala jende handitzearen beharraz aurdikirik berrituak eztirenetan, eliza erroman batzu, gehienetan ttipiak - ezpada Santa-Garaziko fraiden "kolegiata" aski gotor hura, edo araz aski nahasia den Montorikoa, berriez ez mintzatzeko -, edo bederen handi-tasunez bien artekoak: horrelakoa da Urdiñarbekoa. Bere neurri hartan alta, orai gehienak berrantolatua baitira, mirets-arazten dute: ara erroman XI-XII-garren mendetako garbi, elizuntzia bakun eta hertsia, harresiak eta elizaburuko inguru berdin bakuna harri pikatu urdin zurailtan (ezta hemen Bidarraiko gorri hartarik), usu harresian, athegainean eta barnean inguruan laur kantoineko ttipi aldizkatuekilako - bat goiti bertzea beheiti - zizelkadurak.

Molde hortan Haunzekoa da menturaz ohar-garriena, gutienik andeatua ere, mendien artean baztertua den ibar hark nolazpait ixtripuetarik begiratu baituke. Ohartu gabe ezin utzia da, sartu baino lehen ingurua egiten zakonean, zein bitxiki den hilherri alderako harresiaren goratasun erditan ezarria, jende uzki batendako har daitekeen gizaiduri zati bat, bere bakartasunean orhoit-arazten baitu Europako hainbertze eliza erroman handiago-en athegain eta zutabe buruak hetaz betez, jendearen erakaskun-tzako, diotenaz, zizelkatzen ziren molde bereko iduri trufaz eta itsuskeriez irrigarri horien oiharzun hegal bat harano joaitera utzia izan baliz bezala. Barnea, han edo

hemen mailu ukhaldi batzuek edo berdin negu bortitzetako hormek zizelkadura lerroak doi bat andeatu baldin badauzkote, orotara hobekienik begiratu denetarik du.

Haunzeko eliza erromana ezta Xuberoko ttipi- enetarik halere, ba aldiz Zünharkoa, lehenbiziko hirurzpalauretxen bazterreko hegian, beheko ibarretik ontsa ageri. Adixkide batzu-ekin hara izan ginen batez, Xubero alde hortako herri andana baten ikusten ibilirik eta berandurik, ezkinuen idek-arazi, nahiz ondoko etxekandere batek egitera jitea eskaintzen zaukun; beldur niz ez ote zen alta bazterretik ikusirik gelditzea hobe, hain du neurria, azpialdeko harri gotorretarik hein batez goititua edo berregina iduri baldin badu ere, bere ttipian, elizaburu biribilerdi beteginarekin, begiarendako atsegingarri. Orotako ttipiena, alta, Basabürü beheko azken muga izanik ere baina mendian gorago, harateko bidea ez errexenatarik, etxe multzoño baten gainaldean, Zihigako kapera, hobeki erraiteko othoiztegi laur kantoinekoa dateke.

Larrañe aldetik (edo berdin Santa-Garazitik) Atharratzerano jautsi denean, Ibarrezkerreko urak eta Ibarreskuinekoak Alozen elgarretaratu aitzin, mendetan gorago igaiten da, eta berriz mendian ere, Atharratzeko hiri erditik goiti Madalenarano heltzean, eskualdearen idekitze mireskarri bat inguruan. Madalenako kaperak, ainitz eliza girixtinoek bezala, hartua du lehenagoko erlisione “pagano” dioten batek hor berean ezarria zukeen templo ttipi zenbaiten lekua. Barnean atxiki da hasteko, zorionez, Erromatarren aroko aldare orotan aiphatua: hortan izen molde latineko “Caius Valerius Valerianus” batek (bera Italiarra ala lekuko izena aldaturik?), eskaintza egiten zaukon aski garbiki “Herauskorritze” (*HERAUSCORRISEHE*) izenda-tzen zuen hor zatekeen templo (*FANO*) ttipiari. Uste izan da, aurkitu diren aro hetako harridazkietako eskaintza gehienetan bezala, “jainko” zenbait zela horrela izendatzen. Hain ditu halere hitz horrek euskal-leku izen baten itxura 'ta egitura, nun galdez egoitekoa baita hea “her(h)auskorritze” ez ote zen mendi gain larrutu horren lurr-erhauts horail-gorriaren, bidexkek hain agerian uzten dutenaren izena bera.

Erdi-Aro lehenean Erromako imperioaren lekua erresuma berri batzuek hartu zuten, hemen Agotak Espainia osora hedatu baino lehen, gero Frankoak ipharraldetarik Galia guziaz jabeturik, eta Frantziaren izena horri emanaz. Eta “Karlomagno” Europa abantzu osora erresumaren hedatzeaz hain “handi” haren imperioa bera, IX-garren mendean, erresuma ttipi batzuetan (erretate, dukate ala kondate...) xehatzen hasi zenean, sortua zen, Erromatarren aroko "Bederatzi jendalde-ren" izena ahatzirik, Gaskoiniako dukate-kondatea, mendi haraindian Nabarrako erresumaren hastapenetan “Eneko Arizta” erregerekin. Lehenagoko “Baskonen” izenetik deitu zen, ala jende hartarik mendi alde huntan jarri zelakotz Oihenartekin ainitzek uste ukan duten bezala, edo zuzenkiago gure mendialdetarik ibar aphaletara xoilki jautsi 'ta hetaz jabetu, ala hizkuntza berekoak zirelakotz (euskara zaharra zela dudarik ezta), ala bi arrazoinak batean. Frantziako erresumaren barnean gelditzea salbu, dukatea beregain egon zen XI-garren mende erditarano, eta dukeak, hetarik batzu “Zantxo” izenarekin ere (“sanctius” latinari hartua omen zuten), jendakiaz Iruñeko erret-familiarekin ahaide hurbilak. Gaskoiniako dukate-kondateko herrialdetan kondearen ordaintzeko bizkondeak ezarri zirenean, sortu ziren (kondeak izendaturik ala jendeak berak hautaturik nehork eztaki) alde hautan Lapurdiko, Akizeko, Biarno-ko, Olorongo, Xuberoko bizkondeak, azkenik, Zantxo handiak berak izendaturik, XI-garren mende hastapenean Baigorrikoa. Azken hau orotako ttipiena, ibar xoil hortan mugatua baldin bazen, Xuberokoa, nahiz jendaldea Erromatarren aroan jadanik aiphatua zen eta oraino berantago Frankoer ihardokirik (errege Dagobert-ek armadako buruzagi igorria zuen Arimbart dukea erahila zuten), etzen ere handienetarik.

Bazuen ondoan, zorigaitzez, eremuz eta indarrez biziki handiagoa: Biarnoko bizkondatea. Xuberoak bere bizkonde bereziak atxiki baldin bazituen horrela XIII-garren mende azkenerano, etzen errex izana. Gaskoiniako dukatea ahultzen hasi zeneko, azkenean Akitaniakoaren menara erortzeko, Biarnoko bizkondeak etzuen Xuberotarra bakean utzi, batzuetan menpean atxiki baldin bazuen behin ere osoki jabetzera heldu gabe bizkitartean. Xuberotarrek ihardokitzen zuten, bixkonde biarnes “Zentulu zaharra” gerlan erahiltzerano 1045-ean. Alta

urte horietan beretan Xuberoa, aitzinean Akizeko apezpikutegiari lotua baitzen, Olorongoari bortxaz – Akizeko idazki batek dio horko jaun xuberotarrak jazarri zirela, bereziki Jeunteingoa, debaldetan - emana izan zizakon. Ordukotz Biarnoko bizkondea Olorongo bizkondateaz jabetua zen.

Badiduri herriari bere gaintasun horren atxikitzeke zela Xuberoko bizkondea Aragon-Nabarrako erregearen gana itzuli, bi koronak batuak egon ziren mende laburrean, eta berantago oraino gizamenak Thibalt erregeri eginez XIII-garren mende erditan. Hasteko ixtorioak dio Mauleko gazteluaren jartzera (edo berritzera) Alfonso Gudaria bera jin zela 1129-an (Baiona setiatu zuen urte horietan Lapurdi menean atxiki nahiz, baina ondoriorik gabe). Hala ere Xuberoa ezta behin ere Aragonako edo Nabarrako erresumaren barnean osoki jarri. Baina Xuberoko mugetara heltzean Biarnoko azken gaztelu azkarra zen Nabarren-koxek XI-garren mendean, Marca Biarnoko ixtoriolariak dionaz, ukana zuen izen latina, *sponda nauarrensensis* edo “muga nabartarra”, Xuberoak hego aldeko erresuma horiekin zuen auzotasunari zor zako behar bada.

Mauleko gaztelua nahi duenak bere harresi ilun azkarrekilako itxura handiengan urrundik hurbiltzean ikusi, Amikuze aldetik Lohitzun eta Aiñharben gaindi (D 242) sartzea du hoberena. Lextarreko gainetara heltzean hari zako berehala ohartzen, mendixkaren aldapari lotua iduri, azpian dituen hiriko etxen hegaztegi metatuak hor direla ikusi ere gabe lehenbizian, bi mundu osoki ezperdin balire bezala elgarretarik berex, noizpateko guduen eta lanjerren zaintzale beldurgarria gainean, mende berrietako jenden ofizioak eta lanak hedatuak behean. XII-garren mendean ukan zukeen gaztelu horrek bere erdal-izen izitzeko egina, aro horietan erregek eraik-arazten zituzten gazteluen eta hiriendako ohi zen bezala: “Lehoin gaitza”, ala latinez *malus leo*, ala, gero, gaskoinduz “Mauléon”, euskarak, berantago oraino, hitz hori bitxiki moztu baitu “Maule”-ra. Bizkondearen boterea itxuratzen zuen, egiazki lehenik eta gero haren orde Angeleterrako erregeren meneko gobernadorearena XIV-garren mende hastetik (azken bizkondea “Auger III-garrena” Nabarran jarri zen) Gaskoinia gehienarekin Frantziako erregeren armadek XV-garren mende erditan Angelesa haizatu zuten arteo. Horrara eremaiten ziren Erdi-Aroan jendeak eta

bereziki labora-riek bizkondateari urtez urte ekharri behar zauzkoten zergak eta emaitzak, ihizin hartuak zituzten oreinen zati hoberenak barne. Presondegira kondenatuak hor hesten ziren ere, hortakotz Mauletar eta Xuberotarrendako “gaztelu” hitzak ezpaitu *castellu* latinezko hitzaren erran nahi ohikoa atxiki bertze herrietan bezala, baina “presondegia” balio baitu. Mauleko hiria bera, gobernuko ordezkarien eta haien inguruko ofiziarri 'ta jende usu erdaldunen ondorioz, etzuten lehenagoko Xuberoko baserritarrek biziki gogoan, “Turkian baliz bezain urrun” zizaiela erraiterano.

Mauleko hiriarekin nahasi da, hartan urtu, Lextarreko herri zaharra, ezpaitzako azkenean erdarazko bigarren izena baizik utzi: “Mauléon-Licharre”. Bizkonden gaztelu “Lehoin gaitza” 'ta gobernua uraz haraindian baldin baziren, hunaindian hedatzen zen Lextarre, Xuberoko etxeko jaunek, aitorensemeak buru, egiten zuten bilzarre nagusiaren bilgunea-ekin aldi berean auzitegia, zeinuez hara deiturik. “Intzaurtze”, erdi-mithiko (ezen bertze leku batzuetan ere aiphatzen dira intzaurzpeko bilzarreak) baten azpian egiten zela diote XIV-XV mendetako paper batzuek. Lextarreko herri zaharra Mauleko hiriak hedatuz eta hirituz iretsi du. Ertaroko izendatzen diren hamabortz bat laboretxe zaharre-netarik (bazen Lextarreko Jauregia) guti da gelditu, izenetik ezagun daitekeenik bederen. Orain lekuari aiphuarekin batean aphaindura handiena emaiten dauko gehienik Andurraingo go jauregiak, izena XVII-garren mendeko apezpiku baten familiarena baitu, eta hau ethorkiz Haunzeko aitoretzetarik zen. Ikusteko gauza biziki xume-agoa, lekuz apur bat aldatu dena Maule hiriko plaza nagusia – eta ikuspegiz zinez ederra – berri 'ta handitu denean, “gurutze zuria” da, ikusgarri den ezer ezpadu ere, lehengo Lextarrez orhoit-araz dezakeen lekuko bakarra.

Andurraingo jauregiaren bertze aldetik, artean Mauleko hirigoienara Uhaitza zubi gora batean iraganez dereman bidea, agertzen da, laurkantoineko luzean, itxuraz biziki aphaina, oraiko “Herriko etxea”. Oihenart ixtoriolari 'ta poetaren sort-etxea hirigoienean baldin bazen, hau izana omen da Ezpondatarrena, erran nahi da XVI-garren mendean erlisioneko gerletan eta nahaskerietan hainbat aiphatzen diren eta izena orduko modan erdalduz “Sponde” zeritzotenena: aita Eneko

Joana Labrit erregi-naren segetarietarik izana zen, hura bezala protestant aithortua, Donapaleuko elizan 1594-an erahil baitzuten hortakotz Lukuzko jaun katolikoaren meneko batzuek. Bi semeak Henri IV-garrenarekin batean katolikotasunera itzuliak ziren aitzineko urtean: Joanes Ezponda (“Jean de Sponde”) Frantziak aro hartan ukan duen olerkari handienetakarik bat, hau Bordelen hil baitzen 1595-ean, eta Henri (izenez bederen errege zuen “aitabesoetako” edo Xuberon dioten bezala “egüzaita”) Pamiers-ko apezpiku bezala ezagutu dena. Euskara ikasirik mintzo zutenez ezta jakin. Ethorkia Espainian zutela diote batzuek. Alta ideia horrek eztu itxurarik batere, huna zergatik: Frantzian “Bizkaikoak” zirelako aiphamena zuten “Sponde” horiek bere aroan, baina XVI-garren mendeko frantze-sean “Bizkaia” hitzak erran nahi zuen “Euskal-Herria”, uste baitzuten, hutsez, “Bizkai” eta “Basque” ethorkiz erro bereko hitzak zirela. Ezponda hitza euskarak “sponda” latinari hartua zuen, bertze leku izen ainitz egina zuen moldean (Lako, Luku, Zaldu eta b.). Ertaroko zerrendetan Ezponda izenarekilako etxeak badira mugaz hunaindian (haraindian batere eztaikit, behar bada Erronkari aldean...), eta hor dira gehienak oraino, Garazin bereziki. Bat osoki ezeztatu da bizkitartean, izenez bederen, eta hain zuzen Xuberon izen hortako bakarra, Ündüreñe-peko auzoaldean, aitorenseme edo jauretze lerrokoa baitzen “Censier” delako zerrendak gaskoinez dion bezala: *lostau desponde ez des oxtaux cabers et gentius*, “Ezpondako etxea etxe gapare ‘ta nobletarik da”. Itxura handia badu beraz, bertze lekukotasunik edireiten ezteno bederen, Mauleko Ezpondatarrek etxondoa hurbil-hurbila zutela.

Lextarretik beheiti, Ündüreñen gaindi, Xubero-tik jalgi nahi duena Amikuze ‘ta Donapaleura buruz, errepidide nagusiak baderama lehenik Uhaitzaren oheari jarraikiz, “Petarra” izen aski bitxia hartua duen Xubero-behereko (edo -peko) ibarrean hara, gero, Aruetik Domintxaineko ordokira igan eta (elizako ezquila dorrea lehenagoko potestatearen dorretik egina da), berehala agertzen baitira aitzinean Donapaleu eta Amikuzeko mendixka aphaltak. Ibarreko bide errex hori hartu nahi ez tuenak Mauletik Garazi aldera 'ta Baxe-Nabarrera sartzeko, mendien iragaiteko ezpada lotsa 'ta bazter gora horien ikusgura, badu bertze bortz biden hautua: lehena, aphaltena, ez hain errexa alta

Lextarretik goiti abiaturik, badoa Ainharberen bazterretik, Lohitzunen gaindi, mendixken hegi lerroari hurbildik jarraikiz 200-300 metretan (Oihergain 347 m.), bi aldetan oihan lekuka argaldu batzu, noizpaiteko izenak beti ezin zuzenago dituzten Larraibar eta Sorhapuruko ibarrera jausteko, han hartzen baita ipharrera Donapaleuko bide nagusia, hegora Oztibar eta Garazikoa.

*

9. Mendiz, Garazirano ...

Biziki gozagarriago da, asti denean eta menditik ibili nahi, bertze laur bidetarik baten hartzea, gero 'ta gorago iganez:

gehienek hartzen dute errexena, Urdiñarbetik, Muskildin gaindi, Ahetzeko aitoretze 'ta jauregi ederra eskun utzirik (ezaguna bereziki kantu zahar baten eta athegain aphainduko harrizdazkiaren gatik: “*Etxe bat niz idekia, mendez mende aiphatua...*”), Ozkixko lephorano doana, goren-gorenean 500 bat metretan hurbil, Muskildiko herria utzirik gaineratu baino lehen gelditzea hobe baita, gibelera beheiti herri hortara begi ukhaldi baten emaiteko, bere ordoki zabaletako etxe multzo ederrarekin, eliza ondoko auzo ttipian salbu guziak elgarretarik berex, bakoitza bere alhorretan, abantzu oro jadanik Ertaroan hor bere izenekin, eta urrunago begia baitoa mendietarano, Arbalak eta Basaburua abantzu osoan hartuz. Hor berean ezkerretik, gorago, 703 metretan, bitxiki bakarrik, ageri da Ertaroan jaun handi batzuen arteko bortizkerien baketzeko omen, Baxe-Nabarrako muga hor-tan Nabarrako errege Karlos II-garrenaren aroan egin-arazi zen San Antonioko kapera; bidea jausten da gero, igan bezala, bihurguneka, Oztibarko Donaixtirano.

Donanixtira doa, ere, biziki hertsia izanez jende gutik hartzen duen Naphal lephokoa, hau mendi aldera barnago. Urdiñarbera heldu orduko eliza erroman ohargarriaren heinean (jabegoa luzaz Orreagako frailek atxikia zuten), Arangoren izeneko lats ttipiaren ibarrari jarraikitzen da, hunek egiten baitu Garraibiko auzo baztertua, lehenago mainu leku

aiphatu izana, eremu mehar horren bazterretako munhoer etxe batzu lotuak, zenbait Ertaroan jadanik hor. Azkenean Naphalgo lephora heltzen da, egiazki Ozkixkoa baino goraxago 600 metretan. Badiduri hortakotz “naba apha” laburtuz (hitzkuntzalariek “haplologia” dioten silaba moztez) izena lepho-ari ibar tinki oihaneztatu horrek eman daukola. Naba bera “aphal” iduritu bazen lehenagoko bidarier, mendiak inguruan aski gora doaz: 700 metretan eskun Elauidiko hegia, 832-tan ezker Gategoreneko lephoa, oinezkoena hau bakarrik, urrunago 1204-etan Etxekorteko hegia. Izenek dioten bezala, oro oihan, belartze, kaiolar, alha leku, auzo herrietako (ala Xuberon Muskildi ala Oztibarren Donaixti) etxen eta jenden eskuan eta menean.

Haraindian Donaixtiko herria, izana zenetik azkarki jendeztatua zen XVIII-garren mendeko: XII-garrenean izen hortako “elizaxka” – *ecclesiolam* latinez – Zorduako frailen eskuan zen, urrunago mendi aldera izenak dion bezala hemen ere gero galdu den *Iriondoko* Salvatore kapera batekin (ohi bezala izen "salbagarri" bereko kapera eraikia zen Iratitik Garazira jaustean), aspaldidanik jende ainitz hortik bazabilalako lekukotasunak. Galdu da ere XII-garren mendean oraino herriak zuen izen euskaldun hain ohargarria: “Ekize”, ekhi (xuberotarrez) edo iguzki leku, mendi handietako itzalgietarik (Belxu 1120 metretan, Zaboze 1178: horren oinean sortzen da Arana – “la Bidouze” -) aski urrun, horrarano baita goizetik arrats beteki sartzen. Galdu da, diot, baina ez osoki: “Ekizekoa” izana den ibar gizenari jarraikiz (lehenago orai auzoalde baizik ezten “Ibarra” zen herri nagusi), herri bildua utzi orduko Bunuz aldera, aurkitzen baita orai “Equixito” dioten lekua: lekua 'ta etxea, baina hau, muga hegi ttipian berean Bunuz herriko, osoan “Ekizegito” (*Equiceguito* izkiriartzen zen oraino XVI-garren mendean) bere izen ezin argiagorekin.

Hirurgarren bidearen hartzeko hauta daiteke, edo Arbala behean Idaunze ‘ta Mendi iraganik Alzürüküko herri 'ta ibar aphaera jautsiz (Urrutiko aitoretxea bere bi dorre motz azkarrekin athearen bi aldetan hor da, elizari hurbil, herriaren erditik doan ur ttipi baten haraindian edo “urrutian”), eta handik goiti Arangaitz izen apur bat beldurgarriko lephora: eta egia da gain hartan, 1000 bat metra abantzu, etxerik ez gerizapenik ez ageri, abereak eta lehenago segurki basa-ihiziak

bakarrik, batek bazukeela izitzekoa! edo, lepho berera joateko bide laburragoaz Basaburuko Ibarrexkerretik Altzain gaindi. Lephora eta, ordokian da, alha leku han ere, zaldi, behi, abelalden artean joanki bidea, Garazi aldera abiatu berehala ohartzen baita eskuneko aldapan etxe gotor bati: Ahuxkiko ithurria bere hotelarekin. Ahuntzen haz-lekua ote zen izendatu zenean? Badira hor “Bohorkorta” (behor-rena, molde xubero-tarrean oraino), “Olhatzezaharra” ala bertze, hazkuntzak aspaldidanik eman dituen izenak. Ahuxkiko ur sendagarriek omen handia baldin bazuten une batez Euskal-Herrian, orai ostatuak eta mahiak hartua dute arrakasta handiena. Hurbilhurbila da bide bazterrean “Otsalatze” dioten bertze ithurria; aitzinean ikusi diren lekuetan etxe-ihiziak, abereak eta hazkuntza baziren aiphu, hemen “otsoen latsa” (izena orduan ahozkatze erdaldunetik hartu da), edo behar bada “alhagunea, alhatzea” erran nahiko lekuan aurkitzen da.

Hortik laster bidea badoa lehenik, Garazira jausteko, Aphanizko lephoa, 1044 metretan, abantzu ondoko mendi handienak bezain gora, bi adarretan berexten dena Behorlegiko hegiaren (1265 metretan) bi aldetara: eskuneko Hausko (“Hauzko” zatekeen euskara zuzenean) mendiaren (1268 metretan ingurunetako gorena da) beheko aldetik badoala Elhortarano, landaretzeak oraino hor duen araura “elhorrieta” izenaren laburpena baitukete etxe ‘ta gune horiek, Egurmendiko (1095 m.) behean, Behorlegiko herrirano; ezkerreko adarra, laburxago, Mendibeko belartze ‘ta borda batzuen ondotik, sei edo zazpi mila urte badituzten “dolmen” edo “harmahi” bakar batzu – uste da orduko jenden ilharriak zirela gain horietan ezarriak – ikus baitaitezke oraino bazterretan geldituak, erdi-eroriak, herri hortara sartzen da. Jauts arau alde orotara, aroa eder deno (gain hetara lanho-pean abiatzeak irrisku luke), ikuspegia handi, bidea mendi-aren mazelako lezetan beheiti burxoragarri.

Xuberotik Garazirako laugarren bidea, goren-gorena, Larrañen berean ezker abiatzen da, herriko laboretxe auzoalde hedatueneko alhorren artetik, Iratiko mendien eta oihanen erdi-erdira igaiteko, hortik baitu duen aiphamena, oihanen eta betidanik mendi horietan egin den hazkuntzako mozkinen gatik baino gehiago, orai, noiz elhurretara, noiz udan itzal eta hotx bila aldizkatzen diren negulier edo udalierretarik.

Larrañeko etxeak utzi direneko, mendi hegiek eta lepho guziek, hemen, izen berekin batzuetan, 1200 metrak gainditzen dituzte, batzuek biziki gehiago. Bide nagusiak, ezen mendialde guzia bide 'ta bidexkez gurutzatua da, iragaiten ditu lehenbiziko lephoak, bat bertzearen ondotik: lehenik Organbidexka 1284 metretan (izenak aski erakusten du, bide ttipia izana gatik, etzutela lehenago gain horietarano bakarrik oinezkoek edo zaldizkoek baliatzen...), berehala gero Iratiko "etxoletara" heltzean Bagargi: izen bera hartzen du, phagoen eta xuberotarrez "bagoen" hutsune argi batean, 1248 metretara doan phagadoiak. Mendi gorenak erdigune hortan aurkitzen dira, eskunera ala Mailetako hegia ("Eskaleretakoa", 1472 metretan), ala Mendibelgoa (1411 m.), Xardeka (1440 m.), ezkerrera Pelusegainekoa (1594 m.), gorena Bizkarzekoa (1656 m.), Okabe-koa beheraxago (1456 m.).

Bidaria hemen jadanik hegoaldera 'ta Mediterraneara – alta itsaso handiko heze 'ta hedoiar hoin hurbil! - itzulia den ixurkian aurkitzen da, Burkidoiko oihanpean gurutzatzen baitu, abantzu ohartu ere gabe, Iratiko ithurri xipia. Hor berean sortua da, berehala Nabarrako aldera jausten abiatzeko. Errekaz erreka eremuak mendien artean iraganik, azkenean Iratiko urak Iberoko ibai handian nahasiko dira, ibiltzalea ustegabetzen baitu, hoin bide gutiz, zenbait urhatsez bi aldetako ur ixurkinetan iragaiteak. Bidea une batez Iratiari jarraikitzen zako, ukhondo tinki bat egin baino lehen, berriz gero Garazi aldera abiatzeko, bertze adarra doalarik aspaldidanik ezaguna 'ta hain aiphatua izana den "Pedroren etxola" sahetsean utziz (Iratiko elhur jostetak ere baino lehenago arrakasta handia ukana dute horko atsedenaldiek eta amarrain ala ihizi aphairuek), Espainiako aldera.

Burdinkurutxetako lephora jausten hasia deneko (1135 metra goratasun du) Garaziko lurretan sartua da, Baxe-Nabarran. Xuberoko euskalkiak moldatuak zituen izenak, mendi hegiatako *-gañ* hek guziak utzi dira, baina mendi osoan eta eskualde huntara ere lekuen izen gehienak, ezpadituzte oihandiek, landaretzek eta eskualdearen itxurak berak emanak, abere alhagietarik egin dira, ala oihanetako zuraren erabiltzetik: Ilunatze, Mendibel, Burkidoi, Inharxuri (mendietako "ilhar" landaretik iduriz), Artaburu, Phagaxegieta, Egurgi, Aztakieta ("aitz" edo "harri" lekua, eta ez, ustez, "arstoena"!), Harpea.

Ohargarri dira, hainbertze “etxola” 'ta “kaiolar”-en artean, mendietako alhagia bereziak izendatzen zituen “saroï” hitzaz eginak: Saroberri, Erre-kaxaro, Aphatesaro ... Garaziko euskalkiaren sabaikatzeak xixtu-karietan gehienik (Orzaizen erraiten da Garaztarrak “xu”-ka direla mintzo, ez bertze herrialdetan sabaikatze hori egiten eztelakotz, baina han gehiago egiten baita) eman ditu “phagaxe”, “xaro-”, “kurutxe” eta holako, “phagatze, saro(i)-, kurutze” orotako ahozkatzearen orde.

Izen lerro batek entzun-arazten du oraino utzi 'ta ahatzi diren oihanetako zuren erabiltzeak ala mendietako bertze mozkin eta emaitza batzuek noizpait ibarretako jenden bizian ukana duten eragina. Garaziko hermerdiak herriz herri uzitu ziren XVIII-garren mendean, etzirenean aspaldidanik etxez etxe eginak, eta hortako borda, etxola, alhagia ala oihanek usu beheko etxen izenak atxiki dituzte. Burdinkurutxetako lephoa iragan eta, ezker utzirik “Pheredikahegi” bitxiki dioten mendia (norbait noizpait “pherediku” egitera gain hortara igaiten ote zen, ala Salvatoreko kapera erromana hurbil duelakotz da izendatu?), bideak jausteko egiten dituen bihurtune motzen ingurua “Gahalarbe” izendatua da; gorago eskun, Mendibel eta Xardekako haraindian bada “Galaharra ordokia”, urrunago oraino Aphanizeko lepho 'ta Behorlegi aldera “Gaarze” izeneko borda edo etxola. Ezta jakina izen horien erran moldea noiz, nola eta nori hartu zen, eta kartetan izkiriatzea nola hautatu (“gahalar, galahar, gaar”); itxura badu alta *galharr* edo *garharr* dela orotan (XIV-garren mendekotz bi izkiria moldeak aldizkatzen dira), erran nahi da “zur ikhatza”, oihanetarik luzaz, burdin-olhetako (Ahuxkiri hurbil da preseski “Burdin-olhatze” lephoa) ala bertze, egin den su gaia, oihan leku ainitz suntsitu 'ta larrutu baitziren horrela aitzineko mendetan.

Salvatoreko kapera errepide bazterrean utzirik, bere harresi laburrekin ordoki batean luzara jarria, lehenagoko jenden sinesteko gogoan leku baztertu ohilduetan zabilanarendako ustezko gerizapen eta sokorri, jadanik Mendibeko lehen etxetara heltzean, Laurhibarreko eskuneko maldak (“Laurhibar ospitalea”, ospitalierren etxea, ez eritegia, Erdi-Aroan jadanik behere hortan zen) badu izen gogoetagarriago bat: “Xilardoï”. Molde bat baino gehiagotan entzun daiteke: lehenik “zilharra” da gogoratzen, eta egiten da lehenago, Erromatarren aroan edo

aitzinean, Itsasun, Arrosan, Baigorriin, Urepelen bezala, Mendiben ere minak ba ote zirenez, izenak erran nahi duenez mendi mazela hori “zilhar leku” bat zela, ala “ilhar” mendietako landarearen izena denez aldatu, ala berdin, “zilo-hardoi” edo “harrobi” entzun behar denez ...

Bada Euskal-Herrian, atzerrietan erdaraz berdin, “mendi” hitzaz izendatu den bizi-leku ainitz, herri, auzoalde, etxe. Hek bizitzeko hautatu zituztenendako “mendi” izendatuz, badiduri batzuetan burgoitasun zerbait gogoan, aski zen gehien-etan ibarretik doi-doia lauzpabortz metrez goititzen zen mendixka ahalena. Mendibe zuzenago izendatu zen, lañokiago ere, Iratiko oihan eta alhagietara oinez, zaldiz, ala orgekin, joan behar zutenek baitzakiten, gaurrengungo beribildari udalier ala negulierrek baino biziki hobeki, zenbat lan zen handik goiti gaineko ordokietarano igaitea, eta berdin zenbat arintze ‘ta atsegin “mendi behere” hortanaro gaitzik gabe jautsia izaitea.

*

10. Garazin gaindi...

Behorlegin eta Mendiben jarri ziren noizpait - badu 6000 urtez goiti hor eraiki zirela, lan handitan, ezagutzen diren "dolmen" edo harrizabalak - Garazi alde hortako alhorren, dakigunaz bederen, lehenbiziko jabeak, eta bien artean Lekumberrin, hain zuzen Garaztarrek Hergaraia deritzoten herrialdean alabaina. Lekumberrik berritasuna izenean du bakarrik eta izena bera: lurak labakituz alhor berriak egin diren aro zuzena ezpada jakina, Erdi-Aroko paper guziek elgarrekin izendatzen dituzte oraiko herria moldatua duten hirur auzoalde zaharrak: Ianitz, Lartaza eta (izen hau geroztik lekuan osoki ahatzi da) Sarriaizkoiti: “landaretze tinki, harri, goratasun”, horra zer dion izen zahar batzun horrek, eskualdeak lehenago – jende euskaldunak lurraz jabeturik landu zuten aro hartan ote? – zuen itxura gogorra zen bezala erakutsiz. Behorlegi, Mendibe ala Lekumberri, hirur herriek bazuten bere etxe andana duela zazpi edo zortzi mende, laboretxe ala aitoretxe. Azken hauk, noblezia Baxe-Nabarran ez orotakoa izanik ere (Erronkarin, Baztanen edo bertze herrialde batzuetan errengenganik ukana zuten bezala), usu ziren Garazin, gutiago bizkitartean errepide nagusitik eta Donazaharretik herri baztertu-enetan, ala Hergaraian, ala ibarrak

Jatsu-Suhuskune aldera Irisarri-ko 'ta Orzaizeko mugarano hedatzen duen adarrean. Behorlegik zituen bi aitoretze zaharren gainera (Garaziko gutiena zen, horrek sortu baitzuen, zerga gotorrenak laboretxen gain zirelaketz, Oihenartek bademan atsotitza: *Garaziko zorra Behorlegik derosa*), erretateak egin zuen hemen “barondegi” bat. Nahiz jauretze berezirik egin zela ezten erraiten, “Behorlegiko baroin” hori izendatzen da XVI-garren menderano Nabarrako gertakarietan. Mendibeko jauretze anda-naren artean, Jondoni-Bixintxoko biek elizaren eskaintzako izena hartua zuten. Berdin Lekumberrin bi Dona-Martek, “beherea” eta “garaia”: garaikoak, harri pikatuzko harresiekin eta leiho bikun XIII-XIV-garren mendetako moldean oraino oso edo guti aldatuekin, alde huntako itxura hobe atxiki dutenak, eliza zaharra ondoan zuen ere (berriak, etxetik urrunago hilerriekin, eztitu ehun urte beteak).

Garaziren aiphamena ixtorioan egin duen gauza, bere ondorio guziekin, Erromatarrak Akitaniaz (“bederatzi jendaldetako herria” Gaskoiniara aldatu baino biziki lehenago) gure aro aituzineko 56-garren urtean jabeturik, Bordele aldetik bere armada, hornimendu 'ta ororekin Espainiara joan-jineko ezarria, edo berritua zuten “harbide” edo “galzeta” lauzatua da. Oztibar eta Garazi arteko mugan gelditzen ote zelaketz noizpait, edo hasten, dua Garazin sartzeko uneak atxiki “Galzetaburu” izena? Zer gatik eraiki zen ere hor (eta nork, Gaskoiniako dukeak ala Akitaniakoak, ala Nabarrako erregek?), XI-XII-garren mendetan noizpait, Ainhiza zaharraren ondoan, Monjelosko hiri berria bere izen gaskoinarekin (Suhuskuneko aitoretze zahar baten izena ere hizkuntza hortan emana zen: “Jelos”), eta ondo-ondoko mendi harritsuan eraiki berdin izen gaskoinarekilako “Rocafort” gaztelua? Hor gaindi Espainia aldera iragaiteko athekek eta lephoek herriaren izena hartua zuten XI-garren mendeketz: “*as greignurs porz de Sizet*” – “Garaziko atheka goreneta” – dio *Errolanden kantua*k frantzes zaharrean.

Bere aroan gotorrak izanak diren Erdi-Aroko aitoretze batzu metan bezala daude ingurune hortan, herri osoak hartuz batzuetan, Bazkazan, Iriberrin, Zabalza-Urrutia (XII-garren mendetik, Donibaneko – “Jondoni Johan” zen hastapenean – hiri “berria” handitzen hasi zenean, “Donazaharre” izena atxiki du), Izpura. Bazkazango gazteluak eztu utzi haren gainean eraikia zatekeen munhoa baizik, hariztoi biribil bat orai; baina beheko aldean “Gaztelusarri” zeritzoten aitoretzeak (orai xoilki “Gaztelua”) hori guzia etzun-arazten du oraino. Orotako handienak, orai ezpadaiteke dorre nagusi biribilaren ondar bat baizik ikus (baziren

inguruan oraino hirurzpalaurre, guzia harresi handi baten gerizan), Ahatsa gazteluko jaunak izanak dira luzaz, lehentasun hori ageri baitzen oraino XI-XII-garren mendetan “Ahatsako” edo “Garaziko” jaunaren izenaz baliatzen zirenean, eta Nabarrako erresumako jaun handienekin, 1060 urte inguruan Bizkaiko kondekin, ezkontzaz gurutzatzen. Jauntasuna aroak ereman du, abantzu gaztelua ere. Ez alta menean zituen laboretxeak, hor baitaude oraino, geroztik bere zuzenbiden eta lurren jabetasun osora heldurik. Herri osoa 'ta eliza bera etziren alta Ahatsa gazteluko jaunaren menean: bi dira hemen ere “San-Julian” aitoretxeak, “beherea” 'ta “garaia”, eskaintza bereko eliza ondoan, eta baziren bertzeak.

Ahatsako 'ta Bazkazango gazteluen arteko mendixka batean ohar daiteke behereko bidetik phentze baten erdiko borda laur kantoineko apha bati, hobeki behatuz harresiak iduri harriz, hurbilagotik ikusiz eta pikatuak, barnean alde orotara, Ahatsako dorrean bezala, balezta egozteko zirritoak harresi lodietan laur kantoin moztuak, bitxi abeldegi edo arditegi batendako! Berriki jakin da lehenagoko Garate hura dela, hobeki erran haren ondarrak, ingurune hortako aitoretxe ainitzetarik bat, ez agian ttipiena, ez baitezpada jauna Nabarrako gerlan aiphatzen baita Gaztelako alderdia harturik (eta harresi erre sutean gorri-tuek, etxearen laurdenera bederen xipitzeak eta mozteak, nehork phoro-gatu ezpadu ere, gerla horren ondorioak izanak ahal dira...), baina gain hortarik begia baitoa gazteluz gaztelu, hegiz hegi, alde batetik Hergaraiko mendietarano, bertzetik Ainzil eta Zaron gaindi Urkulura, ixtorioan zehar hainbat bailatu diren lephoetara. Garateko munhotik inguruan beha dagonari, herri lehenago azkarki zaindu baten itxura emaiten dauko Garazik.

Etziren gutiango hala, Ahatsa-mendiko hunaindian, Ainhiza-Monjolostik landa galzetaren ingurune hurbilenak. Lehenik Lakarra: Harizpe jeneralak erosirik XIX-garren mendean berri zuen jauregiak ez zuen ahatz-arazten horko jaunak Nabarrako handienetarik izanak zirela, alaba bat errege Henri II izan behar zuen Xampañako kondearekin adixkide 'ta ezkontzekotan, errege Thibalt II anaiak debekatu ezpalauko erret-familia batean ezkontzeko. Sortu zen haurrak eta jauregiaren jabe ondokoek atxiki zuten luzaz, Nabarrako moda zaharrear, “Henriquiz” izena. Lakarran, Buztintzen, Buzun-aritzen, Donazaharren, Izpuran, eta Uhartan bezala, etxetan gehienek aitoretxe lerroa zuten, hogeit bat hemen. Osasuneko urek emanak zauzkoten aiphamena 'ta izena, etzukeen

aski ukan Gamartek, (*gamo* hitza, nork daki zein hizkuntzetarik hartua, Euskal-Herrian Gaskoinian bezala ur horien izendatzeko baliatu zen luzaz: Gamu Amikuzen, Gamue Xuberon, eta hemen berean mendi ganean Buzunariztik Ibarrolarako lephoan Gamo lehengo aitoretxea, orai “Gamia”, eta berze ainitz ...), ezpaitzen hor aitoretxe guti baizik, eremu gehiena Lakarrako jaunaren menean. Uren baliatzea osasuneko, bertze ainitz lekuetan bezala hor, ahatzixea da orai, egiten zen gunea bera doi-doia ezagungarri.

Buztintze ‘ta Iriberrri bateratu diren bi herrieta-ko etxe zahar gehienak lekuan berean gelditu baldin badira, zenbait izen ohargarri batzuekin (“Harrizurieta” zeritzona, orai “Harxu-ria”, ondoko harrobi handiek abantzu jaten eta gordetzen dute; Salanoak molde hortako etxe izen ttipitzale ezagun bakarra daduka oraino: gure ahozka moldean “Salañoa” bailizateke zuzenez), batek alta azkarki huts egiten du, Buztintzeko Agerre jauretxeak. Eliza xipi erroman moldekoaren ondoan (berdin da, bere munhoan bakarrik, Iriberrikoa), ezta lauza zenbait baizik gelditu. Zer eta nola zen azken demboretan ikusi nahi duenak, bilatu behar du XIX-garren mendeko marrazki zenbaitetan, Agerrea erakusten baitu herriko gorenean, eliza ondorioz xumearen sahetsean oso, hegaztegiaren izkinetako laur dorre xipiekin. Itxuraz berdintsu zen Olhonzeko jauregia, Donibanetik eta Uhartetik jalgirik Zaroko bidean, eta berdin barreatu da, azkena diotenaz XX-garren mendean aski berant. Buztintzera sartu ondoan laster, aitoretxe batzu utzi, eskun Doneztebea (kaperaz zenbait ukan ote du lehen?), ezker urrunxago munho batean Gorostiaga, iragan leku horien zain bezala ezarriak hor, bide adar batek baderama Jatsura, eta handik landa, horko aitoretxe azken eta gotorrena izana den Ganaberroaren sahetsetik hartzen da Suhuskun, Irisarri 'ta Arbero aldera: Jatsuko etxen artean bidekurutze izkina egiten du hain zuzen izendatu zen Arbelbideak.

Buztintze-Iriberrri eskun ikusi diren orduko, errepidea zuzen (“galzeta” zaharra etzoan urrun), Aphate-Ospitaleko kaperaz erromana abantzu barreaturik gelditu denaren sahetsetik, igaiten da (adar berri batek eskunera itzuliz herri barnea orai inguratzen du) Donazaharreko herria hor hasten duen ordokira. Izen horrek, den zaharra izana gatik, XIII-garren mendetik hunara “Donibane-zahar” bilakatu baitzen, eta orai hainbateko arrakastan den Donibaneko hiri berritik eta gaztelutik baztertua (“berria” hau XII-garren mende azkenera errege “Zantxo Onak” – hala dio Nabarrako foruak - edo “Zuhurrak” eraik-arazi zuenaz geroztik!), ezta gordetzen Zabalza (izenez bezala hala da izaitez) eder eta ideki

hori dela betidanik Garaziko ibarraren erdigune egiazkoa. Bazter herrietako bide guziek horrara deramate, inguruan ezkerretik eskunera, ekhialdetik ipharrera: Buzunaritz eta Sarasketakoak, Irati 'ta Hergaraikoak, Urruti-Harrietakoak alde batetik, erdian zuzen hegoaldera Madalenen gaindi (Irumberriko jauregiaren oinean kapera gothikarako aphaïn batek izendatu du auzoalde hori) Zaro 'ta Eihelarrekoak, gero Uharte 'ta Arnegikoak, Izpurakoak eta ipharrera Jatsukoak: bide adar horietako azken aitoretxeak, Jatsuko mugara heltzean Ipharragerrea izendatu zena, Izpurako haraindian Orzaize 'ta Baigorriko muga, Errobiaren eta harekin Azkarateko lats ttipi bat batzen den gunearen bazter-bazterrean Lastaun, hau etxe azkar, harri pikatu gorrizko harresi gorekin norbaitek margazki batean hartu zuena XIX-garren mendean, gero erdirano moztua izan den baino lehen. Baina gordetzen du herria moldatu duten auzoaldeak eta lehenago herriek, elizak eta kaperak oraino lekuko, ukanak dituzten nortasun berezia 'ta aiphamena. Elizen eskaintzek, eta etxe batzuen izenek, dute oraino gehienez herriaren lehengo izanara salatzen:

Donapetriak atxikia du XII-garren mende azkenera Akitaniako dukeak, Richard “Lehoin Bihotza” izen-goitikoak gaztiguz (beilarien zaintzeko omen...) barreatu zuen etxe-gazteluaren izena; ezta bizkitartean orai aitoretxearen etxetiar izana zenaren egoitza baizik, lehenbiziko etxe-gazteluaren lekuan, eskaintza bera duen elizaren ondoan (“Jondoni Petri Usakoa” zioten XVI-garren mendean, balio baitu “ordokikoa” edo “zabalzakoa”: zati erromanak atxiki ditu), eraiki den jauregi berriari “Sala” izena eman baitzako. Zabalzako auzoak, bere aitoretxe lerroarekin eremuaren erdian, bazuen bertze eliza bat, urrunago, Jatsuko aldera, Arsoritzeako kapera.

“Jondoni Johane Garazikoa”, XII-garren mendean zioten moldean izena hiri berriari (Donibane Garazi) eman baino, eta “Donazahar” bilakatu baino lehen zenetik, ezta orai eliza ondarkin bat baizik gelditzen, zorionez azkenik apur bat garbitu dutena bederen. “Jondoni Johane Urrutikoa” zen oraino Erdi-Aroan, Urruti-jauregi zorigaizki izenez aldatu duten aitoretxearen ondo-ondoan den bezala oraino ere. Alde hortara joateko, uraz edo lehenagoko bertze muga zenbaitez haraindira, “urrutira” euskaraz, Laurhibar latsa iragan behar da. Zabalzatik errekarra bidea azki zut jausten da lehenik, hiri Erromatarraren (“Imus Pyraeneus”) hatzak, harresi, mainu leku, eta ondoan berantago lurrez goititu zen munhoa (“motte” diote erdaraz) sahetsean utziz. Hor zen XII-

garren menderano lekua zaintzen zuen gaztelua, hortakotz Donazahartarrek behar baitzuten, oraino XIV-garre-nean, Nabarrako Khonduetako Gambarak biltzen zuen “harresi azkartzeko” (“cermenage” zioten erdaraz) zerga berezia ordaindu.

Urrutitik goiti oihanarte batzuetan hara bideak baderama eztiki Harrietako jauregirano: hor egiten omen zen lehenbizian, jauretxe hortako leiho baten azpian, Garaziko bilzarre nagusia. Ordokia da berriz hor ere, Donibane Garaziko gazteluaren (lekua Mendiguren izendatzen zen), Irumberriko munhoaren eta Zaroko herriaren artean, laborantzako 'ta hazkun-tzako lurrak zabal, hain begiko nun erdaraz izendatu baitzuten Erdi-Aroan gaskoinez “Belverder” (“ikuspegi eder”) eta berantago “Belle Ezponde” (“ezponda eder”). “Muga” balio duen Ezponda latinki hori bera atxiki du Zaroko herri, bere artebide barna zilatuekin hain bitxiki ohargarrira heltzean, hauste zut baten hegian eraiki zen aitoretxe batek.

*

“Galzetaburu”-tik hara, izen hori Erroma-tarren arotik landa zatiz erdaldurik atxikia zuen “bide galzatua”, Donazaharreko ordoki zabal, ingurunetako mendien artean hain gozagarriki idekian gaindi, bazoan, Zarotik, Ainzildik, Eihera-larrera buruz, handik goiti berriz orai Ibañetako lephoa denari hurbil, Leizar-athekako hegi (1409 m.) ondo-ondoan Bentarte 'ta Arnoztegiko lephoetara heltzeko. “Erret-auzo” (*burgus regius*) izanik XI-garren mende ondarrera Nabarrako errege Zantxo “Peñalengoa” diotenak han zen Bixintxoko komentua Ibañeta “Salbatore”-koari emaitzaz utzi zaukonean (gero Ibañetan jarri baitzen Orreagako komentua, emaitza horren ondorioz etxe batek erakusten du oraino athegainekeo harrian hango abaden makila gurutzadun zizelkatua), gainera bi elizekin, Ospitaleko San Barto-lome kapera hirugarren, saildu horiez guzietz guti axolatua izana baliz bezala, Eihelarrekin atxiki du bere lehenagoko, erran daiteke betiko euskal-izena: mendian gaindi lephoetara abiatu gabe, edo jaustean, uren indarrak baliatuz, handik zabilan jendearen goseari ihardokitzeko behar bada, eraikiak ziren eiherena. Herriak zituen hamaka aitoretxetarik baten izenetik, “Eiheraldea”, asma daiteke orai ere eihera horiek nun zatezkeen. Bide bat badoa ibar hertsituan barna, Erdi-Aroan oraino jendeztatuak etziren Ezteren-zubin eta Ezterengibelen gaindi, mendiko ordokietan hedatzen den

Phagalzetako auzorano: etxe eder batzuek bere alhorrekin gain hartan ustegabetzen dute. Hango ibiltzale 'ta ikuslariendako, berriki ezarri da alde orotara behatzeko mahi bat, inguruan ageri diren mendien izenekin.

Lephoetarako bide nagusia, Erromatarren eta XIII-garren menderano Erdi-Aroko armaden, ibiltzalen, sal-eroslen, beilarien hura – gero Arnegitik eta Luzaidetik abiatu ziren beilari gehienak - , Eiheralarreko herrian berean hasten da, bihurgune tinki batzuer goiti eskun, berehala 1000, 1100 metraz gora doazen hegien sahetsetik (Orisson 1064, Itsasegi 1161, Hoztategi 1142 metretan), Bentarteko lephorano (1337 metra). Biderdi bezala igaite hortan, 1085 metretan aski gora, mugatik ez urrun, Gaztelako erregeak Nabarra hartu zuenen, XVI-garren mende hastapenean, egin-arazi zuen Peñako gaztelua (“Château-Pignon”), baina oro har ephe laburrez baliatu, Baxe-Nabarra 1530-ean utzi behar ukan zuelakotz. Geroko gerletan ere (Iraultzan eta Napoleonenetan aiphatzen da) erabili bada, hatz guti utzi du.

Akitaniaz jabeturik, ixtoriolariek diotenaz, Erromatarrek gain hortan, itsaso handiko 'ta Mediterraneako uren ixurkiaren berexkunean, Hizpaniako 'ta Galiako mugari hurbilhurbila (orai Espainiako 'ta Frantziakoari), eraiki zuten goren-gorenean (1419 m.) Urkuluko dorre biribil gotorra, bereaz aski aphaala (orai zatiz barreaturik zen baino aphaalago ikusten bada ere), baina alde batetik ala bertzetik, gainean Erromatarren ikurrina handi zenbaitekin, aroa argi zen ber, urrundik errex ohartzen zizakona. Sahetsean gelditzen zazko bertze eraikuntza baten harresi ondarrak, laur kantoineko luzean zuzen, alderdi laburren az iguzki sartaldera beha, latinez zioten “templum” hura izerturik egin baliz bezala, elizaburuak eta gure eskualdetako etxeaitzinak bezala goizaldera itzuliak: templo bat egiazki, ala gain hartan ezartzen ziren zaintzalen etxola? Nehor gutik aiphatzen du, are gutiago zer zatekeen argitzen, eta noizkoa den ere, hurbilagotik ikhertzeak xehetasun horiek eman lezazkeelarik behar bada.

Mendi gatinen aldapetan ageri diren artalde 'ta betaldekin erraiten dute hemen ere, oihanekin (Arlatekoa, Harxurikoa, Oriungoa), Garaztarrek mendiak, lehen eta orai ere, hazkuntzako baliatu dituztela, leku izenek berdin: “mendiko olheta” balio duen Mendiola Eiheralarre aldera, bordak eta “sarioiak” nun nahi, batzuetan behereko, Eiheralarre, Uharte, Arnegiko etxen jabegoa salatzen dutenak: goitikoan ezkerretik Hegiluxeko, Landarre, Aztate, Elhursaro, Oilasko (ustegabetzen duen izen hori bera emana zako

Bidarrain Baigurako mendi bati), Larrondokoak, eskunetik Xaltro, Martxote, Harizpuru, Ibarla, Urritzolha, Lasturrekoak ... Noiztenka ikus daiteke sai lepho murriz multzo eder bat hegian gelditua, ala bere kafiren eta umen zain hurbil, ala abere hil zenbait hezurretano garbiturik aseak, ala berdin inguruetara urrun bere begi zorrotzez beha bertze zenbait nun ikusiko duten, hara gero lerroan alde orotarik jausteko hegalak haizera zabal ...

Saien karranka (gaitzeko harrabotsa aitzikitzen dute abereki baten jatera zein lehenka heldu nahiz aharra gorrian), artalden xilintxa, noiztenka artzain edo betzain zenbaiten oihu, orai beribilen burrumba batzuer nahasiekin, eskualde gora horiek badidurite hatsa bake hutsean dutela hartzen. Aitzineko aroez axola duenari alta, Urkuluko dorreak Erromatarrek bi aldetan jabetzeko eginak zituzten gerla luzeak dauzko gogoratzen.

Zenbat ezta gero ere gain horietan gudukatu, VIII-garren mendetik, XVI-garrenean gaindi, XIX-garreneano. Bentarteko lephoak ("bentak" edo euskaraz hobeki "mentak" bidarien atsedeneko 'ta ostatsatzeko hor ezarri zirenean aski berant erdal-hitz horrekin izendatua) eta Arnoztegikoak badadukate, ixtoriotik ala literaturatik, 778-ko udatik, behar bada, XII-garren mendetik segurrago, orhoitzapen berezi bat: Errolandek, guduan zauritua, ezpata hautsia, rhaituak, "olifant" adarra gerritik harturik ezin bertzean ibarretan beheiti Frankoen Karlos erregeri hel eginez, buru-munen athera-arazteko indarretan ufaka, jo zuen heiagoraren oiharzuna, Tuolden neurtitzek erdaraz hain zuzen baitzioten, lekuak berak ikusiak ukan balitu bezala: *Gora mendiak, ilun ibarrak ...*

* *
*

Osakin:
Amespide gorde batzuetan gaindi ...

I. Urrunera burdinbidez ...

... Hazaro azkeneko edo negil hastapeneko gau bat zen. Sendi zen burdin-bidez izigarriko lehia eroan eremana, urrun, urrun, norapait, mendien, ibarren artean hara, beti aitzina ... Eta horra azkenean agertzen hasi zirela hiri ezezagun bateko dorre berriak, gorak, etxeak, nihun ez ikusiak, doi-doia bitxiak alta; uste ukan zuen Bangkok (etzen hara behin ere izana) Thailandako edo han Asiako erresuma urrun hetako hiri nagusi zenbait zela...

... Barne zuri-zuri, eritegi batzuetakoak bezain garbi batean aurkitu zen edo ustez atzartu, bapatez. Jende batzu han daude, borzpasei, elgar ezagutzen dutela iduri, ohe xuriz oihalezatu batzuetan etzanak, solasean, nehor ez iduriz eri edo ez ontsan, atsedenean bezala, lekua garbi bezain hotx, egiazko hotzik senditu gabe bizkitartean ... Sendi da zerbaitetan ari direla, han, athe haraindian...

... Noiztenka zerbitzari bat hurbiltzen da ohetara, edari ala jateko (arratsalde askari, duthe?) zenbait eskuetan... Guzia eztiki, emeki, berezi dela ohar daitekeenik ezer gabe, ez atzerri zenbaitetan delako iduripenik, nahiz berri, nihun ez oraino ikusia...

II. Goizeko bortzetan

1. Ikastetxe zahar bat, poetika, erhauspean, erortzera abian, ja barreatzen ari, orhoitzapenak, paperrak, liburuak elgarrekin nahasiak eta iduri galduak, guzia hunkigarri baina ere apur bat etsai eta hertsagarri...

(Auzoko Z. medikuarekin solastatua zen bezperan B.-ko lizetik jalgiak ziren jende ezagun batzuez, mediku 'ta bertze...)

2. Leku hura bera, baina oraino gaizkiagotua, lanjeros bilakatzen ari, ikaskuntzako gauzez hustua, etxeko batzu haren ikustera jinak...

(Ezkerreko zangoan zauri batek gelditurik baitzadukan, artha zenbaiten emaitera heldu zizazkon egun hetan...)

Eta horrara bapatean agertzen dira lehenago, Itsasalde Urdineko gau-bestetan ezagunak edo bakarrik ikusiak zituen jende eroxka batzu, irriz, multzoan, erdi-erdian orok goraki elhez bederen miresten duten neska handi bat, N. sortzez Suizatarra, biziki aberatsa, aski itsusia, mireskarri baino hastiagarriago oro har, ezpainetan gutiespeneko sinoa irri erkatx batekin nahasiz, mehar eta hits...

(Bera eritegian egona zen egunetan baziren alta begitarte pollit goxagarriak, eta abiatzen utziak zezteen ekharriak zizazkon bixkotxa on batzu...)

Suizatarra ere bixkotxa eskaintzen ari da orai inguruan; hark ere hartzen ditu, eta gero berehala ikusten dira guziak, ondoan dituen etxekoak ere, okhaztatuak, ezpain-hortzetan loturik ezin irets dezazketen bixkotxa falsuen – trufa jokoetako saldegietan irri egiteko aurkitzen diren hetarik datezke... - zati gezak, igelsu, ileki itxurakoak, ekhen eta ekhen... Horrela hatzemana izaiteaz apur bat ahalgetu da, baina izanen dira hor berehala egiazko bixkotxak, bere untxian, jateko gura bizi bat sortzen baitute... trufa jokoa iretsia ukanen duteneko...

3. Harresien goratasun handian, bakartasun osoa, nehor ez... Harresien oinean, behere-beherean, bide bikun hertsu bat, hoin goratik ttipi-ttipia, badoa erhautsean eta nehor ageri ezten baserri hutsean, etxekoak handik joan baitira... Behako bat inguruan eta oinetan dituen dorre biribilek badagiten itxura nahasi ezperdinari, harri eder berdinekilako harresi azkarrer, han ontsa zela sendi baitzuen eta, aldi berean, herstura arin bat gogoan...

(Arrats hartan telebixtak emana zuen Carcassonne-ko hiritik V. Hugoren *Ruy Blas*, eta bera Ardi-Aroko paper zenbaitetan ari zen...)

... hipa mingarri batzu ere alta, eta zangoko oinaze hastapen batek atzarri zuen... goizeko bortzetan.

III. *Ametsetako oihanpetan...*

Oihana aphil, gozagaitz, bihur, elhorritsu, ilun, zuhatzak motz (orstorik gabe?), batzu bertzeekin nahasiak, ezin berexiak... lurra harritsu, gainetik harresi luze batzu baitoazko; aspalditik utziak iduri dute, haien gainetik ibili behar da, phezoin batzu uzitzen dituzte: hemen A. etxekoa zen...

(I.-ko eihera inguruan bezalatsu da, hesiak harresien orde alta han)

Barne utzi batzu, hetan muble, burdin-horizko untzi, halako lanabeseria bat, guzia itxuxi, ttipi, andeatu... erosten artzeko nahikaria bat bailizateke, baina ezta gutiziatzekorik...

...gero ohartzen da halako harpe itxurako barne bitxi xuhurki mubleztatuan dela, beldurgarririk ezer gabe alta, zutabe orde zuhatz ondo motz hek berak, mithologiako itxura nahasi batzu gogoratzen dituen jendetze bat itzaletan ibilki dela (ala geldirik?) iduri, ixilik alta, zuhatz ondo motz azkarretarik guti berexen baitira, ... azpi gizadi zenbait ala asmatzen diren lupeko izaite batzu?

Eta gero hor, urrunxago, zuhatz hek berak meharrago, baina oihana argitu da, ordenuan jarri, hemen zuhazpea goroldio musker xamur gozagarriz da, malda ezti...

(Etxeko salatik ikusten diren soroak gogoratu zizazkon; eta hemen, arte badagien baratzean, bizpahirur zuhaxkaz bertzerik ez izanik ere, aldi berean arestiko zuhatzondo beren artetik dira soroak ikusten...)

...zer gutizia hara onjo beltx, beltxaran, eder, ontsa biribil batzuen biltzera joaiteko eta hain usain onekoak!... asmatzen dira ikusten baino gehiago, goroldioa xilatzen dutela han-hemenka...

(Oihanpe horiek amets egin baino lehen ikusiak zituena, larrazkeneko onjo biltzetan, ala gero, gogoak orai erakusten zauzkon bezala? Orhoitaren ahulezia...)

IV. *Bi mundu*

Gogoan bazituen mundu bi, ezin ezperdinago...

Etxe hura ikusten zuenean lehenago – hartan bizi zen orai - , utzia, erortzera abian, mixteriozko gauza batzuez betea asmatzen zuen. Nahiz andere ahaide biziki urrundu bat han egona zen aitzineko mende azkenera, etzuen ehoiz jenderik han bizi izana zela amestu. Edo, baldin baziren, etziren ikusten... urhats batzu, behar bada... edo mintzo apur bat doi-doia entzuna...

Kampoko itxura nola zuen etzizakon orai orhoitera biziki nahisirik baizik jiten, eraikuntza gora bat, doit bat nahastekatua – aphala zen izaitekotz egiazki, hego aldera hegaztegian hartu leiho batez doi-doia aphaindua - , guti edo aski beti lanetan. Orai ere batzuetan horrela asmatzen zuen, egiazki zenetik azkarki ezperdin, eta berriz ere denetik: poetika, apur bat trixte bere utzimen idurian.

Barnea berdintsu guti argia zizakon. Baina bazuen ametsaren haztekoa... Barne handi ilun batzu dirdiran, zureria gorbeltz batez estaliak – zurgorria behar bada - , eta oroz gainetik oriente-buruko gauza batzu, zizelkatuak, itzulikatuak, nakaraztatuak. Holako batzu ezarriak zituen berriz, hor baitziren orai, gauza bitxiki segurtagarri. Etzuen alta, bereaz, han T.-ko aldetan bilduak zituen xinakeria horiendako gostu handirik.

Jakina zuen azken jabe hura, bere neskatoarekin, pianoarekin eta perruketarekin hara erretiratu zela, orduko jende ainitz bezala Hego-Ameriketan luzaz egonik, behar bada Venezuelan...

V. Etxe aurdikiak

Erran-merran zenbaitek aiduru ezarririk, D. etxearen aitzinetik iragan zen (bezperan, mahastian ari zen auzo batekin elhekatzean orhoitua zen nola, duela mendea, I. etxea zatiturik izana zen, hango azken alaba D. batekin ezkondu baitzen, eta hunek saldu baitzaukon ukana zuen erdia Z. etxean bizi zen arbaso bati): osoan batez eroria da, eta betun berrizko habe bitxi batzuek badadukote hegaztegia airean... Etzen hoin beratza zela asmatzen; erhauts buztin kolereko batek estaltzen dauzko orai harriak eta harresi eroriak ... Baina berreraikitzen hasia dute, eta laster ari, harrizko leiho inguru gainean biribilak (bazuena ere?), Baiona inguruko etxe nagusi zaharren moldean

(etzatezkeen egiazki holakoak), lekuan ezarriak jadanik, eta ontsa ederrago iduri dute orai, etxeak berak bezala, osoki berreraikia agertzen baita. L.-ren hargineria ari zen, iduritzen zizakonaz.

Urrunxago, S.-ko zati bat eroria da ere, harrien artean buztin erhautz berdinarekin; eta, gehienik, U.-a: lastimatzen ari zen harresi aurdikiez, lehenagoko leiho-inguru batzu han ageri, aitzinean ikusten etzirenak, barnaxagoko etxe-aitzin zahar bateko egiturak berdin. (U.-a berritu denean, etxe-aitzineko zati zahar batzu agertuak ziren, halako argamasa molde batekoak, XVIII-garren mendeko berreraikitzearen azpian)...

Khexu batez harturik, berriz igan da Z.-rano: iduriz harresietako hautsaran urreztatu hura 'ta izkin-harriak oso dira, itxuraz azkar horrek segurtatzen du... iduritzen zako bizkitartean, biziki nahasiki, izurkatze khexagarri bat badela aitzineko harresian...

(Eta erdi-atzarririk badago amets hori aitzin-mezu bat ote den, ala asmuz senditu duen lur ikhara zenbaiten ondorioa. Zortzi orenetako berrien entzutean ohetik jeikitzerakoan, jakiten da auzo herriko R. Andere bat ari dela eskualde huntan sendi diren lur ikharatzez xehetasun biltzen, eta zenbait urte huntan usuagotzen ari direla omen...)

VI. Diplomatikoki irriz...

(Bazen aspaldi etzela ametsetarik irriz atzartu, han itsas-bazter urdinetan, Kataluniakoan ala Andaluziakoan, zuela hogeitau urte lehenago egiten zen molde...)

Urrungo hiri “diplomatiko” bat da, ainitz baitira han elgarrekin, ofizialki igorriak... Han da ere Presidenta (frantzesak), erraiten baitzazko, biziki ahapetik baina jendearen aitzinean, nork bere nekeak edo beldurrak, baina aieruz bakarrik... eta ihardesten du, biziki luzaz, adixkideki, baina beti elhe aieruzko bihur hartan.

Gertakariak biziki nahasian gelditu zazko: bizia ofizialtasunean eremaiten da, soineko gurutzatuetan, athorra xuria, lephoan xixter ilun bat... Orok badiduri abantzu lañoegi, argiegi, abantzu errexegi elgarren arteko bozkario guti edo aski alegiazkoan... paper ixtorio horiek ezpalire...

Bilkura mundutar horietan, ezta behar baieztatzeko laño zintzoegi zenbaitekin behaztopatu... eta, oroz gainetik, ezta ukan behar eskuaz sakelan zimurtzen diren paper hetarik (hartu diren ohar, entsegu ondar, saldegietan ukan diren erosketak...). Aierugarri den zerbaitendako hartua lizateke, eta erran gabe ontsa jakina da, orduan, zigorra urriki gabekoa dela. Mehatxu argi bat, eta biziki urruna, biziki ixila aldi berean...

Baina oraikotz oro badoa goxoki, hala nola jendea elgarri eztiki bultzaka jostatzen den plazetako besta zenbaitetan bozkario bizi zintzo batean, soineko urdin, athorra xuri eta xizter ilun..., hitz bat erran adixkidekin, eta Presidentarekilako eztabada luzea... eta taulada batera bulzatua senditzen da, adixkiden oihiak gibeletik: “Hitzaldia! Hitzaldia!...”

Aldi berean behatuz eta asmatuz egin behar diren mintzaldi horiek bereziki hastio zituen betidanik (berriki phorogaturia zuen oraino bertze nunbait)... gogoan zer den eta nola erran aitzinetik ikusi gabe, alegia egiten eztenean ez ikasi ez nahi, oro iduriz hain goxoan doan leku batean hoinbertze jendetasunekin hala ere ikhertua, neurtua izanzen dela jakina delarik! Abiatu behar zen alta...

“- Jendearen aitzinean mintza nadin galdegiten dautazue, hitzaldi baten moldatzen ezta kitalarik... Hortakotz eztautzuet ere hitzaldirik eginen, eta huntan geldituko niz, begitarte guzietan argitzen badakusatanaren erraitan: ordu batzu badirela hetan behar baita nor zer den, den bezala izaitez askietsia izan, eta ere, egun huntan oro elgarrekin zorionean, bai eta esker onaren ukaitez ephe bizi-bizi hauk emaiten dauzkutenen aldera, hetan baita hemen direnetan bakoitza..., ontsa izanaren eta elgarrekin errextasunean izaitearen barneko indarraren senditze-az... Baina, den laburra izan dadin, erraiten dautzuetan zorionezko solas motz hau, nahi nuke gorazarretan burura ladin... Eta zer edo nor dut goretsiko? zuek oro hain irrikor eta zoriondun? Irria bera alabaina, irriak guziaren erraiten baitaki guhaurez ala bertzez, ene herriko idazle handi batek duela laur ehun urtez goiti, bere lan osoaren giltzatak emaiten baitzuen, ber-bera aski den arrazoin bakar hunen gatik – izanzen baita ere, jadanik, ene solasaren azken hitza - : “irria baita gizakiaren izanara.”

...

(Irri horrek, leku arrunt hori lagun, atzarri zuen zazpiak eta hirur laurdenetan, primadera udatar bateko egun xoragarri batez.)

VII. Gerlako aroetan...

Azken gerla zen.

Ordukotz, orai bezala, etxean usu bakarrik gertatzen zen, aroa eder, asti, geldi, omore onean. Eta horra nun jakiten duen haur batek (E.-koa da, hamar bat urte gehien gehienik) erran duela jendearen aitzinean Alemaner salatuko zuela (guti “konformixta”, solasa libro, politikan bereziki, aphezeriaren kontra, beraz ezkerreko, gogoz urrikalgarriki eskunera emana den herri batean, eta hortik aro hetako salatze lanjerosenean “kominixta!”: salatze, preso hartze, eta betikotz joaite, 1939-44-etan hemen berean norbaiti gertatua da...). Deliberatu du etxeko guziak, jendakiak, auzoak etxera bilduko dituela, eta erran solas horiek publikora emanen... Zuhurtzia behar bada debaldekoa...

... Eta gogoia, loturarik iduriz batere gabe, norapait joana da: hemen dira etxera jinak mugaz haraindiko jende batzu (hemengo norbait hetan ere behar bada...), badituzte Errioxako arno botoila batzuekin airera aphairu egitekoak (ala hemen berean etxean zituen?...). Solasa Erdi-Aroko gauzez da, nola zen hemen, aitoretxeak zein, zenbat ziren herri arau, hautan batzu osoki haien eskuetan, guzia goxoki... bizkitartean Alemanak hemen dira beti, “okupazionea” diotenean da erresuma guzia...

Orai itsas-bazter batera heltzen ari zen: Mediterranea aldetako hiri handi bat, kaiak, edangiak Italiako etxen moldean margoztatuak (orhoit zen Nizan hala zirela...), zabalzak iguzkira, itsasoa hertsia, hetsia bezala (ikusten etzituen etxe batzuen artetik ageri zizakon), Veneziako urbide zenbait iduri, untzi batzu baitoaz uhain nahasi alaigarri batzuen gainean. Zabalzetan jendea, kalakan eta aldi berean erdi-lo...

Joan-jin bati ohartzen da. Gazte batzu (Euskaldunak?), mutiko ixil mixteriodun batzu, haiekin neskato zenbait behakoa idekia, badoaz doi-doia gelditzen den untzi batean: norbait igaiten da untzira, nehor ohartu ez axolatu gabe. Baina

hura zerbaiti ohartua da: alegia jeus ez, nehork ikusi gabe, gauza baten gordetzera bezala egiten du (esku-zaku iduriko batean)... Hori guzia ethortzean berean ikusi du 'ta hartu, baina alegia ez ohartuarena egiten du, gauza horietan barne dela erakusteko gutiziarik ezpaitu batere...

Baina zimarkularietarik bat zerbaitez jelostu da, aiduru baitago, buruzagia behar bada, jokoari norbait ohartua zakola ikusia du, udako kaia hortan daudenetan bakarrik. Itxura axolagabetuak eztu hura gibel-arazten, eta hurbiltzen zako, hitz bat beharrira emaiten, mehatxu labur bezain argia. Ihardesten du, euskaraz, nor den ezagun-arazten, gertatzen ari dena ikusia 'ta hartua badu ustegabetarik izan dela; bertzela ere, haren ustez, hortik eztela nehorendako damugarri denik jeus atherako. Itxura aski axolagabe batekin erdi-irriz bezala mintzo da, osoki sinetsia dela etzako alta iduritzen...

Untzia urruntzen da...

(Guzia ezabatzen da atzartzen hasi denean, buruileko goiz batez, zortziak laurden gutitan...)

VIII. Hiri batera ikustaldi...

1. Hara beribilez – ikusten zuen oraino, kolorea urdin, oinbide bazterrean gelditua abantzu bakarrik – joan behar ukana zuen: hiri ttipi apha bat, aski ilun, lur kolore batekoa, “Languedoc” aldeko herrixka gaizki iguzkitu bat iduri, eta bizkitartean itsas-handiko B. hiri handiaren inguruetan (hara joitea aiphatzen da).

Eskualdea zabal, landaretzerik abantzu batere gabe; karrika hertsu batzuek, izar moldean, baderamate hiri erdigune ttipi apur bat andeatua 'ta nahasia iduri batera, lurra kolore beltzaran berdinekoa; karriketarik baten bazterrean apha hedatzen da ofizioz hara deitua den eraikuntza laur kantoin ezperdinetakoaren itxura zabala.

2. Andere gixako batek bidatzen du alde batera, argiki etzakien egiteko zenbaitetako (begiztaldi? norbaiti ikustaldi? kargudun zenbaiten gana?... ala bakarrik bere iraganaren?)... Horra eguerdi, jan behar da alta (gose sendi zena bada, gau luze bat lotan ereman ondoan? hamarrak eta erditan goizegi etzanik, zazpi 'ta hogeietan atzarria?)... Jandegietarik

kaxola harrabots bat entzuten da, handi batzu (ikasleak bere taulier hautsaranetan ote? orhoita! ha orhoita!...) hara hurbiltzen ari; jateko zer den jakin-arazten zako, ezin gehiago “jandegietakoa”: bertze nunbait bila joaitea hobe dela badagi bere baitan. Berriz karrika luze zuzenean, hiri barnera buruz...

3. Ostaturik badea ere? (Usu senditu dena, mahi baten bila azken ephean abiatzen delarik, dembora joaiten ari, gosea zimikoka, akhidura apur bat ere...)

Azkenean, halako plaza gaizki zahartu batean, kolorez berdina, landegi ideki batzuetako zoko ilunetan langileak etxera abian, ametsetako itxura doi bat nahasian, horra leku gozagarri bat: ostaler eta ostalersak begitarte apur bat ezaguna dute, ongi-ethorria egin eta, ostatzale baino gehiago gogoetatzale direla iduri... Mahi inguruan guzia ontsa eta omore hoberenean bururatuko dela hitzemaiten da...

Beharko da alta, arestian, beribil urdina berriz hartu..., eta hiri handira buruz abiatu, asmatzen baitira aitzinetik hango hiri bazterrak eta kaia harrabostunak...

IX. Buenos-Airesen...

(Noiztenka, Buenos-Aires-ez amets egiten zuen. Ehoiz etzen han izana, baina etxeko ainitz bizipide bila hara joanak ziren, lehenbizikoak 1840-garren urte inguruko han jarriak; gogoratzen zizakon bereziki urte hartan (1985) Mendekostez aitaren lehen gusi batek bere alabarekin hunara egina zuen ikustaldia...)

Ametsez hara lurreratzen den Buenos-Airesek eztuke egiazkoarekin ikustekorik jeus: ethorbide handi bat, gauaz, berinalde ‘ta ostatuak argiez eta krixtaleriez itsutzeko dirdiretan...

Aldi huntan egun argi da; karrika luze apur bat itzulikari baten jausten hasia da, etxeak ohargarririk jeusik gabe, bidea abantzu hutsa. Baina bada nunbait, geldi-geldi dagon ibai apur bat hori baten bazterrean, eraikuntza handi zutabekilako bat: indar-jokoetako ala igerikako palazio, gazteriak iduri baitu hara doala metan. Berak eztu hara joan gogo.

Bi andere oraino gazte, haien ondora heltzen ari denean, iragaitera uzteko gelditzen dira. Gauza batzu, argazki

egitekoa, zaku bat, utziak ditu indar-jokoetako etxearen ondoan saldegi bat badadukan norbaiti.

Eta ibilaldian jarraikitzen da: mendixka landarez nabar batzu han hemenka etxe bakar batzuekin. Bideak baderama etxeoekin hainbat aldiz aipatu den urrungo “pampa” jendez erdi-huts hartarano... Gibelera itzulirik, ustegabetzen da, zerbitzu emaitako uste duenaz (eztu eskertua baizik!), gauzak utziak zauzkon hark pelikula hustua duela, diolarik, argazki multzo bat egina dela jadanik, guziak berdin: orotan etxe-aitzin “neo-klasika” berdin bat zutabekilan, aitzin gaina hirur kantoin!

Gero gizon gazte bati mintzo zako xehetasun galdez: nun da aberatsen auzoa, duela guti zendua den ahaidetarik bat han bizi baitzen? zein dira jostatzen den lekuak? Esker onez ostatu batean auhaltzera gomitatzen du... (eta berrikusten du orai, ametsean zehar, ohikoagotua zakon ethorbide bereko zati bat, ilunago bilakatua iduri.) Españolez mintzatzean, euskarazko hitz bat utzi du, eta ustegabetu da solaskidea hizkuntza berean ihardesten entzuteaz (handik nunbait hegoaldeko euskal-baseritik ethorri ahaide batzuekin ikasia omen du...)

(Amets biziki gozo bat eta bakegarria... Baina buruko min apur batek atzartzen du, orhoituz orduan ezontsa hastapen batekin etzana zela.)

X. Iragan galduko gogo-ilundura

Orok betan joan nahi ukan dute guziak aitamekin bizi izanak ziren etxearen berrikustera, urrunagoko auzoalde batean (egiazki orai bizi zen etxetik bi urhatsetan jaioak ziren...), lehenago ohikoak zituen etxe guziak azkar dira oraino, aitaxi-amatxiena barne, hunen eihera salbu alta, sobera aspalditik jendez hustua gelditurik, haize orotara idekirik utzia...

Hartan sortuak diren amaren (aitamen) gaba-raren ikustera igan da, badu leiho bat gaineko harri gorria arkuan moztua, hegoaldera (sortetxekoa bezala da)... Oro deitoragarri: leiho-zurak dilindan abantzu atheraiak, harresiak murriztuak, erakusten dutela nun nahi harri gorra guti edo aski aphailatua (egiazko harresia harri edozeinez egina zen, izkinetan eta athe-leiho inguru pikatuetan salbu), gisuz orbaindua oraino, erauntsiez bustia... Barnean liburu batzu han hemenka herrestan (bazen

andana lehenago etxe hartan), zikinduak, doi bat urratuak, batzu oraino lerrokatuak alta (horrela ikusiak zituen aldi batez auzo-herrian E.-ko jauregikoak)... Hegaztegiaren orde, asmuzko eraikuntza gora hertsia, ideki-idekia, baderakutsa zero urdin arin bat hartan hedoiak lasterrez baitoaz sortaldetik sartaldera... Eskolier ttipi multzo bat ari da ondarkin horietan josteta, mintzoaz haizatu baititu... Nigarra jauzi zako... (nigarra begietan zuen oraino urtarrileko goiz batez hirurak eta erditsutan atzartzean, haize hegoak etxeke leihoetan zirimolan jaiten zuela...)

Etxekoak bizi-bizia erasiatu ditu, hortaz den gutienik axolatuak iduri ez tutelarik, ordu zeno teila bat ez ezarririk, eraikuntza osoa gerizatuko baitzuen herexa guziak ekharri dituen ithaxuretik. Gero, gogo-ilhundura betean – hura bakarrik, bertze guziek iduri baitute izaitekotz alai eta axolagabe -inguruneak ikusi nahi ukan ditu. Bertze etxe berdin andeatu batzuen artean, jauregi ttipi-ttipi bat dorrexka xorrotx elementia batekin – ezpaitaiteke nehoiz halakorik izan lillurazko amets zenbaitetan ezpada – aroak, axolagabeak, erauntsiek abantzu barreatua dute. Ohartu dira aitzinera joatea mozten duen bide bati, harri aphailatu batzuen gainean apur bat goititzen dena iduriz. Norbaitek erran du (aitak uste zuen, nahiz baziren urteak galdua zutela...) aitatxi hor izan baliz horren ikusteaz zorion ukanen zuela... Leku heze ‘ta iguzkitu hori utzi dutenean, ezin bertzean orotarik lurrera ari, sendimen-duzko leku abantzu osoan asmatu hori, bihotza ilunduraz oraino ithoa daduka.

(Eta beti hegoa ufaka, urriki gorde guzien gauazko bidari...)

XI. Zabarki saldegiko ostatu goxoa

Ametsetan bazuen beheiti zoan galeria luze bat (ala karrika hertsia bat, abantzu estalia, T.-go itsas-bazterreko M. auzo hartan bezala?) han baitzabilan andere xahartu gixako batzuek zaduzkaten gauza zahar eta baliosez bete saldegi batzuen erdian...

Donibane-Lohizungo eskualdean zen, haien adixkidetarik batek bortizkeria bat jasana zuela nahasiki ikasten zuela, ezpaitzen omen azkenean kontrabandako ixtorio edo

horrelako zerbait baizik izana, ondorio gaixtoagorik gabe... Saldegi handi baten aitzinean aurkitu da: hau zur argizko edo gorrizko muble gora batzuez betea, burdin-horiz inguruka aphainduak, itzulikatuak eta markexkatuak, bereziki maite etzituenak, eta ... nola etzakien, horra nun den mahi ttipi baten aitzinean jarria, andere biziki ikustateko batek, gazte oraino, eskaintzen baitauko sartzeko janari bat, ezti-eztia (aretxeki xerra mehe bat fruitu erre zenbaitekin ote?)... Erdi-ba erdi-ez, akhidura apur bat ere, egitera utzi du. Gero badabilala urrunago, aurkitu ditu, muble beren artean, ostatuko mahi handi batzu hantemenka ezarriak elgarretarik berex, han jende iduriz zorionean diren batzu jartzen baitira etxekoz-etxeko bezala, ixil eta irriño bat ezpainetan, doi-doia ikusten diren zerbitzuko bizpahirur jende lagun...

Bere mahi ttipira itzulia da, leiho-izkinan, sudur-raz karrika geldi apur bat hertsira, eta andereak beti berdin zerbitzu-egile eskaini dauko gaineratekoa: bizpahirur gauza prezio biziki arrazoinezko aphairu batekoak (ezpadu zerbait gaizki irakurri, orduan banko-kartaz ordaindu beharko baita...). Eta horra bapatez khetan den platera baten aitzinean: onjoekilako arraultze moleta edo tarta bat... uste zuen alta haragi zenbait manatua zuela... baina geroko izanen da menturaz...

Guzia nahasten da gero ... (eta atzartzean badu halako bolsuetako min arin bat, gambara beroegian, ekhainaren 30-ean, erretzeko beroak ari baitira aire arin goxozko egun batzuen ondotik.)

XII. Klarinetako konzertoa

1. Treina bazoan naba gora mendi artetakoen eskualde miragarri batean hara, aldapa belartsu musker argi, iduri hesiez laurkatu batzuen artean, han hemenka gune oihaneztatu batzu ilunago: eskualde hotx eta handizki aberatsa, pirenear baino gehiago alpetar eta bavieratar, nahiz, margo muskerrean ezpada, nahasiki ikusia.

X-ko hiri ttipira zoan, hura herri barnean, bere unibersitatearekin edo ikastetxearekin, larrazkeneko sartzetik zenbait egun aitzinean, ordukotz neguko jantzietan jarria, aroa ezti-ezti alta... Saretan, gauzak han ezarriak baititu, buruaren

ganean, ile hautsaranezko (ala musker?) bizkarrekoa iduri batekin utzia du molde bereko xapel ttipi bat, Bavieratarrek ezartzen dituzten bezalakoa. Bidaiari gehienek, X.-ko hirian ikasle, adixkide 'ta etxeko batzu lagun, herrialde hartako jantzi hori bera dute. Larrazken eder bat ari du, apur bat hauts kolore aldapa gora muskerren artean, ur-erreka ttipi batzu sendi baitira han joanki.

Haren inguruan, gazteria apur bat harroa, baina egonara jendetasunekoan, han edo hemen adineko batzu aphaanak eta ixil, solasean ari da, bereziki musikaz. Auzokoen ezagutza laster egina du; hetan klarinetalari gazte batek bere aitama 'ta adixkidekin erraiten du hautuak musikan zer dituen.

2. Gelditaldi bat: jautsiak diru guziak, hura ere, haien etxe batera joiteko. Berehala musika joiten hasi dira.

Aitzinean ezarri zako gaitzeko harmoniuma bezalako bat (ala organo-piano bitxi bat?), barokoa, miragarria, bi joitekoekin (bortz otaba ala gehiagokoak?), hunkigaiak zur argi eztiz, beheko bi otabek, apur bat baztertuak, bere jokoekin berex joiten baitute...

Hitz bat elgarri erran ondoan, deliberatu da Mozart-en klarineta konzertoa joren dela, eztiki xamurra, larrazke-netako zerbait gogoratzen baitu. Eta hasten du (orkeztraten orde) lehenbiziko aire hain pherekaria... garbiki atherako dela segurtasunik batere gabe, hoin tresna bitxi 'ta berrian. Baina guziek badute ontsa konfiencia osoan direlako itxura bat...

3. Horra gero berriz bidariak treinan, solasal-dietako harrabots beretan – apur bat gutiago alta - . Bidariak jausten ikusiz galdegin du hea haren geldi-lekua berehalako izanen denez: lehenbizikoa izanen zela erraiten daukote. Lore zango-gorri mulko batek (edo baserrietako bertze landare zenbait da?) harresi-ko arteka bati lotua kaiaren gainaldean geldi-arazia du pimpirina hegal urdin, zabal, inguru biribileko abantzu argalak dituen bat, hetan begi ilun handi batzu beha bezala, gero bigarren bat, biak edaten ari eztiki, airean abantzu geldi-geldia.

Eta, treina berriz abiatzera doan orduan, gertakari zenbait gogoratzen zako, edo norbait, behar bada andere beratz ile horiekilako ixil bat, ixtorio erromantika batzuen

irakur-tzean aurkitzen diren hek bezalakoa. Baina doi bat hatzemanan, ikusiz inguruko bidariak abantzu oro jautsiak zirela, nor bere etxetara, nor auzoko adixkiden baitara joateko, badago bere bizitegi berriko moduak apur bat gogoratuz...

(Amets bitxi ezti, buruil bateko gauan, Bizkai-garaian O. ra egin behar zuen bidaia baten aitzineko egunetarik batez...)

XIII. T.-ngo hirian galdua

T.-ngo X. Andereak, haren adixkidetako alhar-gunsa bat, soin-araz artekoa, handi baino ttipiago behar bada, baina ontsa hartua bezain gozagarria bere soineko ilunetan (beltzetan ote?), zerbitzu bat emana zaukon egun batez, bapatez han athorra has gertaturik, soingainekoa, trikota edo bertze galdurik (nunbait ahatzia? erauntsi batez? jende biltze bateko bulkadan?), jendeki emanez bere senar zenaren soinekoak, biziki ontsa baitzoazkon alafe 'ta goxoak, ongi moztuak oihal eder arin batean...

Haren bila joan nahi ukana zuen, ala eskertzekotan, ala ephe batez harekin ordu hetaz solastatzekotan, hura aiduru zagokola baitzakien. T.-ngo hirira joana zen beraz, han urte zenbait emana baitzuen zuela hogeita hamar bat urte. Hiriak atxikia du, ametsetarik ikusten duen aldi oroz, halako itxura zatikatu bat, apur bat nahas-mahas eta gau aldera, abantzu ezin aldatua (ametsetan ikusten zituen bertze hainbertze leku bezala, egun argiko egiazkoetarik, xehetasun batzu ezpada, azkarki ezperdinak...). Berrikusi zuen harmategiko harresi goraren azpitik zoan karrika luzea, handik iragan behar zenean hirian sartzeko ilunabarretan abantzu burutzerik gabea, erdi-itzalean jadanik, platana-ondoaz landatu plazetan ari baitira oraino Probenzako modan azken bola-jokolariak, urrunago jende batzu solasean merkatu zenbait bururatzen ari dela iduri, edandegi aitzin batzu gaizki argituak, eta han, eztakien hesi edo harresi zenbaiten giblean, hiria, bere harrabots eta argiekin, asmatzen baita ikusten baino gehiago...

Karrika hura berriz aurkitu behar zuen (Hiriko Harresietako ethorbidea dea, edo bertze izen batekoa, biziki argi

zizakona orduan, baina geroztik ahatzia?), X. Anderea bizi den hirialde burjestar batean. Oinez abiatu behar ukan zuen, gara aldera goiti ala haratago, eta huna nun galdua den (eta apur bat akhitua) karririkaxka malkar maldatsuetan, etxe ttipi ezperdin batzuen artean, hetarik zenbait apur bat margoztatuak (buztin-horiz), baratze txar batzuekin harresiz eta burdin-hariz hetsiak; bada bizkitartean etxe-aitzin eder bat zuhatz batekin orsto ozkatu batzu dirdiran... hiri-bazter probenzatar zahar bat, erhaustu, menditsu (hiria F.-aren aldapa zolan tinkan da), arratsalde haste batez.

Hortik harri ederrezko etxe batzuen auzora jautsi behar zen baitezpada X. Anderea bizi den karrika itzulikari bati jarraikiz. Eta orai, burdinbideko zubia iraganik jausten ari da gararen bertzaldeko karrika konkorreran... Baina X. Anderearen bizitegia nola ediren, izena bera ahatzia delarik eta helbidea! eta ari da zerbitzuko polizariari erran beharko den galdearen bila: “andere bat, alharguna, karrika itzulikari batean bizi, etxe eder bat...” Antsiarekin sendi du molde hortako galdearen eskas handia, jendetasun gabea ere. Balidurike delako anderearen ikustea ezina dela; badaki alta aiduru dagola, behar den bezala eskertu beharko duela, eta ikusten du haren begitartea, beti onginahia, baina galdeka bezala 'ta ustegabetua... Ezin egin daitezkeen gauzak badira, eta utzi behar dira, gogoia dolutan...

(Atzartzen denean berantxago, goizeko zazpiak joiten ari, treinan lehenago hain usu egin duen gauazko bide luze baten ondotik baliz bezalatsu da, uzten baitu joana den lekutik biziki urrun, lehenbizikoa berehala ahatz-arazten duen eskualde berri batean.)

XIV. “Kondatea”

Miragarri izan zen eta lilluragarri.

Gau hartan, mahastietako lurra litatu zen, azpian agertzera utziz buztin gorrizko lupe batzu, urek, urtzen duten gisu-harri askatuzko leku hortan, eginak baitzituzten, duela aspaldi, etxe zolako lurrean den ziloa, lupeko galeriak eta mendiko lezeak.

Behar izan ziren, lehenik, mahastietan sartuak ziren ibiltzaleak lanjerretik urrundu; gero galeriak ikusiz jautsiak ziren, abantzu lupez bezala, bazterretan eskualdea doi-doia ageri, etxe hartarano. Hor etzen litatzerik, baina, bizitegiaren azpian, erakutsia zizeen lupeko barroki-belartegi luze bat, bazterretarik phentzetara idekia, han ziren mahats brentsa gorekin (betidanik “lakoa” zeritzoten bordaren azpian dira), harnesekin, tresneriarekin. “Hor dira, taula horien gibelean, jartzen kampa-menduz gure ikusleak” (uste zuen Angeles batzu zirela) errana zauen lekuko jabeak ondartzeko argizko leku bat erakutsiz, ondarmunhoxka zabaldu bat bezalakoa, estalia baina aldi berean idekia udako egun apur bat urrundu ez hain ageri batera.

Hortik jalgitzean, gertatu dira bapatez uhaitz ttipi baten aitzinean, ur hotx argiak burrustan joanki zabalean, eta erran du: “Horrek zuen egiten lehenago etxea inguruan gerizatzen zuen ur-erreka”. Bada ere egiazki, mendebalera, erreka inguru-dun bat, lehenagoko eiherraren urbidera doana (hetsia da aspaldi-danik eta agortua: guzia, eihera ala urbide, berriki barreatua), eta urruntxago bihurtzen den eta etxeko izena emaiten zizakon ur-erreka ttipirano; etzuen alta uste leku ttipi hetsi menditsu horrek gordetzen zuela orai agertuko den hiri alegiazko lilluragarria...

Geldiagotu den erreka ttipiari jarraiki dira, lehenik leku ilunago batean aurkitu (badirela inguruan orstatze tinkiekilako zuhatz ezin ikusi bezalako batzu?). Hor, zabal-zabaldu den lurrian, abantzu leun, zuri, badira onjo bitxi pollit batzu, horiak, urradura gorri batekin hala nola zuhatzen ondoan eta azpian airatzen diren pimirina batzu, zuhatz azal koloreko hegalean azpi gorri bizia hegaldatzean erakusten dutelarik, zangorik ez xapelik eztute, lore-orsto bakuna biribilean idekitzen zein lore batzu bezala, marra mehe gorri-bizi batzuez hautsiak, XVI-garren mendeko gortelari batzuen jantzietako beso artekatuak iduri.

Gero, bapatez, horra muble batzu metan, erdi-itzelean hartuak eta urtetako erhauts-pean, zahartuak eta guti gutiziagarri. Baina iduritzen zake badirela jadanik jende batzu ibilki, axolagabe bezala, biziki behatu gabe – zaharki biltzale batzu aiduru behar bada, nor daki nundik jinak? Eta apurka apurka, aitzina arau, ezin sinetsia agertu da: harmairu, mahi,

bazter-mahi, berineria, krixtaleria elementia, burdin-hori urrezta-tuzko gauza batzu, antze arin batekin zizelkatuak eta landuak, nahiz “modern style” (erdaraz “kitch” baitiote) delako molde guti estimatu bi gerlen arteko hartan. Hemen, bizkitartean, zurgorizko edo gerezizko harmairu mehe gora batzu, Luis XVI-garreneko ara aphain eta xoil hartakoak metatzen dira. Jende ainitz bada orai, beha, miha, batzuek ere zerbait baderamate berekin, halako erdi-ixil arin batean; berak ere laur-kantoin luzeko miraila moldeko bat hartua du begira 'ta hunkitzean gozagarri...

Gain hartan iragarki handi bat, ez biziki ageri, “Kondate” hitzarekin, hizki handitan eta erdaraz: LE COMTAT. Badiote hiri bitxi horren izena zela, aro hartako jende aberatsen bidaiia 'ta lanartetako leku hautatua izana, orai utzia, debaldeko aberatseria andeatuen metatze hortan. Gauzen eginaratik, baztermahi batzuen gainean utziak diren argazki batzuetarik, han ikusten baitira gizon mundutar batzu bere aleman-arako jantzietan tinka-tuak, emazteak soa xamur ahul batean, bekokian kuxkulatzen diren ilen azpitik, zaia luze argi tinkietan, zangoa oinetako arin mehe batzuetan hartua, Vichy-ko aro hura jin zizakon lehenik gogora: orduko boteredunak besta egitera biltzen ziren leku bat ote? Baina batek erran du: 1924-a..., eta urtea hor edo hemen ageri da liburu 'ta argazki batzuen bizkarrean. Bururatzera doan “Aro eder” baten hatzak, orai behin betikotz joanik ahatziak, eztaliak...

Eta hiriak, haien buruen gainetik, badiduri luza-tzen ari dela oraino bere urruneko ezkiladorre barokoetan, argi-zilo handi batzuez idekiak, Vermeer-en moldean urrez-tatuak... Beherean, egunargi ahul batean, jendea plaza zabal batzuetan badabila: hemen harbizi hautsaran edo urdin marratuzko zutaberdi luze mehe inguru-erdidun batzuekilako etxe-aitzin bat, hotel handia izana zatekeena, hor baratze harrokadun batzuek Versail-les-en bezala hori-gorria 'ta muskerra ezkontzen dituzte; eta orai leku hortan da, zuhatz morkoiztun (eztira egiazkoak) gora orsto xehe berdin musker ezti ilun batzuekilakoen artean, atxikia baitute, garbi bezain berri, adarrak doi-doia argitzen dezteen izotza...

(Zazpiak ziren atzartzekoak jo zuenean ohe sahetsetik, ikuspegi lilluragarri hori bapatez mozten zuela... eta

egon zen ephe batez, nundik jina ote zizakon, lehenagoko bidaia batzuen hatzak nahasiz ala, han “Comtat Venaissin” deritzoten eskualde hartara, “Luberon”-go Paristar ezagun batzuen udalekua hurbil, eginak zituen itzuli batzuez orhoituz; bideari egiazki lotu behar zuen hazaroko goiz ephel batez...)

XV. Itsas-bazterrean

Udetan mainuz ibilia zen itsas-bazterrek itxura berezi batzu hartuak zazkoten ametsetarik: ondartz gizen, hautsaran, heze bat, belar gora multzokatu batzuen artetik bapatez itsasora jausten baita oinak ur argian, han dabilan jendearekin ustegabetarik aurkitzen dela (eta gero arratsera, ostatuetarik jalgitzean, hiria abantzu hutsa, eta apur bat bihotzmingarri, arsto-bizkar egiten duen karrika batean beribiletara igaiten baita, noizpait ikusia zuen hiri baten itxura behar bada aldatuan baliz bezala...); edo ibiltzale bakar batzuen artean badoa itsas-ezponda zut baten azpian, lurrean banakatuak diren harri zabal batzuen gainetik, uhainxken xaflatzetan (eta han, gainean, etxe batzu bere baratzeekin guti ageri, han egona baita, lehenago T.-go auzoalde hartan bezala...).

Aitzina joanez, ezpondako izkina batean itzultzen da, nundik abiatua den ahatziz, bertze leku ilunago 'ta hotxago batzuetan hara, ipharrera itzuliak iduri (eta batzuetan ere goiti doan bidetik, itsas-ezpondaren gainari jarraikiz, berriz itzultzen da ilunabarrak iluntzen ari duen hirira buruz...).

Egun hartan itsas-bazterreko hegi hari jarraikiak ziren, eremanak baitzituen, multzo aski gotor bat uste zuen, urrunagoko leku ezezagun batera, harritsu, argi, leun, belarra ere leun, harresiak leun, hunkitzean ezti, hor ixilki ezarriak diren gazteluttoen gunearen erdian, zainduak ere uste zuen... Eta ohartu dira hek ere zainduak direla, han atxiki nahi dituztela. Badakite lekua lanjerosa, arrai atomikoak hara heltzen diren (ala helduko diren?) gune militar bat... Ihes egin behar da, burdinsaren gainetik jauzi, itsas-ezpondako muga gorak jauzi, urrundu, urrun-du, ixil baina laster, hats-bahitzeranokoa, lanjerretik atherbean jarri, hetsia izaitetik... Eta guziak lehian, aitzinera, mugaren igaiten, itzultzeko bidea hartu – batzuetan hartzen duenetik osoki bertze bat -, itsas-mugako maldatik, orai argi-argia

hegora itzulia baita 'ta sartaldera. Emeki-emeki eztitzen da, bada sendimendu orotako bat, oraino nahasia, lanjer gorde 'ta larri handi batetik athera direla edo atheratzen ari, ez alta herstura zenbait gabe oraino...

(Atzartzean, urtarrileko goiz batez, gogoratzen zako “Golfako gerla” - lehenbizikoa - errabian ari dela nunbait, eta behar duela berehala berrietara joan...)

XVI. Mahastiak sutan...

(B. hiriko hotel bat, berogailuak gelditurik hozten ari zen gambara batean, jorrail erdi hartako gau hormatu batez...; goizeko seiak eta erdi hirian, su, itxindi 'ta khezko amets batetik atzartzeak ustegabeturik utzia zuen.)

Mahasti aldetako mendixketara igana zen (bazen urteak handik hurbil bizi zela). Han, hego-sartaldera jausten zen malda apur bat xutean, aihenen artean, lurra litatuz egina zuen zilo bati hurbil, eraikitzen ari zen etxea zertan zen ikustera zoan. Egitura lurrean marratua da, lurr-eremua zabalzaka ezarria, eta harresiak igaiten hasiak datezke jadanik (hegaztegia bera ageri?) laur kantoineko luzean, oro landaretzeaz itzalkatzen hasia behar bada...

Balditu zen begietara agertu zizakonean, eraikuntzaren orde, hesola lerroa oraino khetan, itxindi batzu gorri-gorria: etxetik gelditzen zen guzia... Mendietako otheak bezala, sutan ezarria zuten. Bitxikeria, han bi abelburu (arsto? zaldi?) berak ere hezurretano erreak, eta zutik bizkitartean, bizkarreko bi aldetarik halako bertz batzu oraino dilindan khea zarioten egur batzuez beteak: “sutearen phizten baliatuak zatez-keenak segurki” egin zuen bere baitan...

Etxeko norbait ethorri baitzen orduan, erasiaz eta laidoz erhautsia zuen, eskualde hura hala andeatzera utzirik, ez bakarrik utzirik, baina segetetuki gordeka berek zuzen kontra andeatuturik, hari hitzik erran gabe! hainbertze diru xahutua zuelarik han, oraino garbi, gozagarri, orotarik gerizan gelditua zen ikuspegi ezin ederragoko leku hartan. Nehori salatu gabe, eta, onhar etzezakeena, hari ere ez, orok metan leku horren xehakatzea deliberatua zuten, aitzinekoek haren zaintzeko,

urrearen balioan berrerosteko hainbertze urtez egina zutenaz den gutienik axolatu gabe, ez eta lehenbiziko auzoez ere!

(Bazakien horrela zuela aitzineko udatik hunara bizi ukana zuen barneko nahasmenari ihardokitzen. Egon zen ere ez ote zenez amets hori aitzin-berri emaile zenbait, ... bi egun lehenago irakurria zuen Eguiateguy-ren 39-garren “berezita”, *Ametsetaz*, hartan bezala: gogamen zoroa, zinez, baina apur bat hertsatzen zuena, gambara hoztu hartako goiz-argitze hartan... Etzen egia erran osoki segurtatua izan, arratsaldeko hirurak eta erdi hirian, lekura heltzean guzia oraino oso zela ikusiz baizik.)

XVII. Etxe bateko zaharki miragarriak

Etxe hartako ezkaratzean zauden, zergatik hara joanak ziren jakin gabe: bazen bizpahirur mende aitzinekoak handik jalgiak zizazkola, eta jendakian luzaz gelditu ondoan etxea duela orai mende oso bat eskuz aldatua zen. Hor ari da hargina bere semearekin, eta bertze norbait ere ustez; eta oharr-arazten zezteen zuraren zizelkadura biribilduak lurretik gorago idekitzen zen athe haren gainean (egia da etxe batzuetan ezkaratzetik barnetara sartzeko mail bat igan behar dela; alta orhoit da hartan eztela egiazki ezkaratzeko ernai nagusi bat baizik zur aski ederki biribildu batean noizpait moldatu zutena).

Eta ereman ditu, han, luzara doan barne lerro hartan hara, etxea urteak eta urteak hetsirik egonik, utziak baitira orai. Egiazki ezkaratzaren bi aldetan etxe gehienetan ohi den bezala idekitzen ziren barne lauza gorritz zolatuak – bazituen hetarik batzu osaba batek emanik etxe aitzineko oinbidean ezarriak -, sukalde ‘ta gambara jarraikian, biziki laburrago baziren ere, horrela zizakon alabaina beti ametsetarik etxe hori agertzen, itxura gabeko luzatze iduriz hertsi hortan.

Zolako erloi gora-gora bati oharr-arazi ditu, bere zur biribildu dirdiratuan, eta bertze bati ere, halako gambara ilun batean, ezin goragoa 'ta goititzean hertsitzen (eta badago nola igaiten ziren hain gora doi-doietarik ageri den orraztegi ttipi hartarano, phizuen goititzera; eta asmatzen du etxeko haur norbait, erortzeko irriskutan, zurubi zenbaiti goiti harano igaiten)... Eta bertze bat oraino, ttipiago, baina gorago ezarria;

eta badakusa horren basa-gerezi gorrizko etxe azpian, ideki baita, badela erdi-itzalean zur urreztatuzko muble luxe bat, zizelkatua, itzulikatua!

Eta gero, barne-bide utzi erhaustu hartan, jargia batzuen itxura nahasien artetik, barne zabal batera sartu dira, erdi-saloin, erdi-kapera (izkina batean bada ere egiazko kapera ttipi bat, utzia, aldarea, harbizizko edergailu erdi-barreatu batzu, berinaki margoztatu batzu: eskuan hartu ditu, ereman nahi ukan...): balusazko jar-leku batzu ezarriak dira han-hemenka, alki, jargia, denak gorri, zurak urreztatuak; mirail gora batzu berdin zur urreztatuz, urredura zurirano higatua dute, baina aberats emaiten du guziak eta eder, haren lagunek diotenaz. Haritz zizelkatuzko harmairu gora bati oharr-arazi ditu: “Berphizte moldekoa” dio; eta hunki du, ereman nahi ukan ere... Baina nola?

Norbaitek (arreba batek?) erran dauko: “Amak galdegiten zitu!”, eta horrara jina da, ixilik eta abantzu nehor ohartu gabe (Bi ilabete bazen galdua zutela...). Eta aitzinaldera athera dira, kampora, ametsetako, ustegabeko etxaitzin hortan, ikusten dituzte harrizko izkinak eta leiho-inguruak, harbizizkoak ere, dirdiran, urreztadura ilundu batean iduriz, zizelaz landuak, noizpaiteko joritasun baten ondarrak agian...

(Urriko goiz bat zen atzarri zenean)

XVIII. B.-ko jauregia

Etzen orduan egiazki erreka zoko batean galdua bezala zagon etxe tipito bat baizik, lehenago etxetiarrak bizi ziren etxe hartarik urrunago, noizpait erdi-berreginik bere zokoan abantzu ahatzia. Baina ametsetarik berraurkitzen zuen batzuetan “B.-ko jauregi” bilakatzen zen, ez batere hura bezalakoa: laur-kantoin luzetako eraikuntza gora bat – “hirur estaiakoa” erranen zizeen sarri – horapur bat zabaltzen zen mendiko ur-erreka baten luzara jarria (ezta alta alderdi hartan belar eta ihien artetik xurruxtan doan ithurri mehar bat baizik, aingira ala amarrain biltzen noizpait han etxeko norbaitekin ibilia baitzen...), gunea hertsu hala ere, mendiari goiti zut doazen aldapen artean.

Beribila ordoki ttipi batean utzia zuten etxeari hurbil, han haur batzu inguruan ibilki – lanartetan jiten diren “kolonia” hetarik bat menturaz - , eta lekuko jabearen mintzatzera aitzinatu dira, M. baita orai (bazakien alta bazela urte hamarreko andana hau Ameriketan bizi zela). Uste zuenaz guti dute ikusi, ezagutu ..., baina P. hango anaia zaharrenak, bizi zeno jabea izana zenak, ditu lagunduko, nahiz, iduri zizakonaz, doi-doiatarik den ezagutzen. Lehenago zuen elhasturi gora jestu handi batzuekilako hartaz – jendea orhoit zen oraino haren “aho handiaz”! – biziki murriztua da, guti edo aski hantzen zituen gerlako egintzez eta orhoitzapenez ezin ixildua baitzen, emana zaukoten medailaz – soinekoaren papo aitzinean xingola mehe bat erakusten zuen -, berak zionaz, gudu bateko une gaixto batez aitzindaria salbaturik. Etxekoek eta berak aski elhaide ukana zuten, mezatik edo merkatu zenbaitetik landa B.-ra sartzeko “itzuli handia” haren etxe sahetsean gaindi egiten zutelarik solas baten emaiten gogotik gelditzen baitziren.

Etxe inguruak osoki utziak aurkitu ditu, ordenurik gabe, baratzerik ez ageri, guzia araugabe handi batean, eraikuntza gotor horren ingurunetan, beso 'ta irla batzuetan banakatzen den ustegabeko ibai baten artean, bazterrak elhorri xuri motz iduriko landare batzuen lili floketan, margoa gozagarriki gorraxtara bihurtzen hasia, multzokatze berdin batzuetan orotan hedatuak. Hunkirik izana etzela iduri zuen leku horrek bazeman gozoa bereziki senditu zuen...

Etxean zinez sartu zelako orhoitzapenik eztu alta atxiki (nahiz bere buruari galdez dagon hea eraikuntza gotor hori berotua denez, mubleztatua, zolak ziratuak eta erhautsetik garbituak... baietz uste du alta); eta bizkitartean horra nun diren ephe batez etxe gibelera, erreka aldapa zutaren aldera luzatzen den galeria gora atherbedun batean, taula lodi ilundu apur bat dirdiratzen duten batzuekin zolan, handik ageri baitira, arrastiriko iguzkiak argitzen duen malda haren aldera, bi etxe zaharren hegaztegi buruak landaretzen artetik apur bat goititzen, haien azpian asmatzen direla phentze ttipi-ttipi mehe batzu, zuhazpetan gizontzera igortzen diren urdekin batean etxeko mozkin eta bizipide bakarrak; eta jendeak badira baten ondoan; ezagutu zuen andere gazte bat, urrundik ez biziki omore onean iduri, ileak airera barreatuk, A. etxekoa omen (baina han etxeko leihotik

ikusten duen urrunagoko auzo batean da etxe hori...). Bertze etxearen izena “Santa Ana” zatekeela diote batzuek: izena ontsa ezagutzen zuen, han mugaz haraindiko jauretxe ezagun baten kaperarena (eztu batere uste izen hortako etxerik badela alde huntan)...

Bitartean, gibelera deman halako zubi batetik athera dira, athegainean baitu gure ostatzaleak irakurr-arazten daukun harridazki bat hizki handitan egina: ontsa hartu baldin badu, etxeko jabek eta haien etxetiarrek elgarrekin dituzten harreman onen iragarkia da (P.-k ontsa oharr-arazten daue nagusi “liberalez” ari dela: “hitza izkiritua da, hortxetan!”): iduri zuen bazela hor lehenago etxeok etxetiarrekin ukanak zituzten auzien oiharzun bitxi zenbait...

Gero erreka bapatez hertsitu da; ezta uhaitz meharraren bi aldetarik belar xafla hertsu bat baizik – ezin erran laiteke “phentzea” – bi metraz zabal gehien-gehienik, harresi ttipi abantzu aurdiki batek berexten baititu elhorri-arhantzez hartuak diren bi maldetarik... Ephe batez gain argitu batera heldu dira, eta eskunean, mugez gainetik, ikusi du egiazko phentze musker batzuek, landek eta mahastiek estaltzen duten mendixka aphil andana bat haraindiko maldari goiti eztiki urruntzen, eta A. auzoko lurrak ezagutu ditu, hor baitira, aldi huntan, egiazki diren bezala, “B.-ko jauregi” bitxi horri hurbil...

(Hazaroko goiz batez)

*

* *

*Hitz neurtu joko lehena**Zazpikuna edo astekaria*

1

Hirur eta laur
 laur eta hirur
 hiruretik
 lauretara
 lauretik
 zazpitarara...

2

Hastapenean aste,
 asteak badu haste:
astelehena bata,
asteartea biga,
 herena
ast'azkena.

3

Hirurez hirur, nora?
 bederatzitan
 hogei-ta zazpitarara,
 hamarretan
 hogei-ta hamarrera.

4

Il beteak aldiz
 bi edo laur zatiz
 aski gutiago
 edo behar oraino
 hogei-ta zortzirano...

5

Laurden eguneko
 da lauren bata,
 hortik *larunbata*,
 egun bakoitza:
ebiakoitza.

6

Laurez lehen astea:
astelehena bata,
asteartea biga,
 heren *ast'azkena*,
 azken *larunbata*.

7

Erroma da nagusi,
 hark baditu zazpi:
 bat “Luneguna”,
 eta “Marteguna”,
 “Merkoreguna”,

8

Laurden “Jobeguna”,
 gero “Benereguna”;
 horien gainera
 Juduen “Xabatoa”,
 eta “Deus” jaun batena.

9

Edo zapitan laur,
 edo lauretan zazpi:
 hogeita zortzi beti.
 euskarak ezpaititu
 guziak hartu,

Ez Deus ez Jobe
 ezpaititu bere:
 “Urziak” du *ortzeguna*,
 ondotik *ortziralea*,
 zazpigarren *igandea*.

*

Urte zaharra edo euskal-ilen leloa

1

URTARRILA:
 urte hau, berriz,
 biz –halabiz!-
 zorion biziz!

2

OTSAILA:
 gosez, hotzez jinak,
 otso lazkarriak,
 janari bila.

3

EPHAILA:
 mahasti mozten,
 abar ephaiten,
 bada lan hemen!

4

JORRAILA:
 har jorraiak,
 jorra landak,
 berri gogo-bihotzak!

276

5

OSTARO:
ezpada hain bero,
bihi, hazi aro,
bil ditezen gero!

6

EKHAINA:
gau laburrena,
ekhi goiena,
zer uda lana!

7

UZTAILA:
bihi 'ta gariz,
hori 'ta zohiz,
zer uzta bada!

8

AGORRILA:
euritzen ezpada
agortzera doa
gure ithurria...

9

Noiz BURUILA,
noiz IRAILA:
gorri larrazkena,
urtelan azkena!

10

URRILA:
gazten' eta hur,

intzaur et' ezkur,
urden gizona!

11

HAZARO:
erein berriz hazial!
landa zuhatza!
lot diton oro!

12

Oi! NEGILA,
LOTHAZILA!
bihia sor dadila!
eta... lo dagigula...

*

Aro

1

Arte ala ephe,
oren laurden,
oren erdi,
ordu et' asti,
otordu,
haskal-, bazkal-, auhal-ordu,
jeiki ala etzan-ordu.

2

Goiz et' arrats,
goizalde,
arratsalde,
arrastiri,
eguerdi,
ala gauerdi,
goiz edo berant.

3

Gaur eta barda,
atzo, herenegun,
egun eta bihar,
bihar eta etzi,
etzi 'ta etziluma,
etzidamu,
etzi karamu.

4

Astelegunetan,
igandetan,
zortzian ala bederatzurrunean,
beherapenean,
gorapenean,
ilabetean,
udan ala neguan.

5

Aurten,
ala xaz,
ala geurtz,
urtez urte,
mendez mende,
lehen eta orai,
orai eta gero,
behin eta beti,
... aro.

*

Hamalaurkun (*)
Jean Haritschelbar jaunari,

Norbaitek noizpait norbaiti
 Eskaintzea bere lanen,
 Jauna, zuzen baldin bazen,
 Guk egitea zen zuri.

Nork ikhertu, nork ikasi,
 Hemen izenpetzen duten
 Gehienek zor zautzuten
 Zurekin baitziren hasi,

Ainitzak zure laguntzaz
 Ez behin egonik eskas.
 Gure *LAPURDUM* herena

Lehen urhatsak emanik,
 Agertua zen jadanik:
 Dathorzula laugarrena.

1999-ko uztailaren 29-a

(*) *Jean Haritschelabar jaunari eskainia den
 LAPURDUM IV urtekarian.*

*

**

*

*Ertaroko etxe izendegi neurtua,
Baxenabar begoaldean,
ibarrez ibar,
herriz herri.
45 kantu*

(*Aitzin oharra*: parenthesesietako bokalak sinalefan emaiten dira, ondokoarekin silaba bakar.)

I. ORZAIZ

IBARRA, hamalaurkuna zazpikotan.

Ahaiz-en Urruzpuru,
Irigoiz, Mendi, Murgi;
Horza-ko Harizmendi,
Sal(a), Ibarmendiburu;

Gabardu-n Ainziburu,
Apalats, Gortairi bi;
Eihartz-en Sagarmendi,
Oiharbil, Iraburu;

Etxaba-n Etxeberri,
Iriarte, Gortairi;
Iriberr(i)-Etxebarren,

Ameztoi, Iriarte;
Ugarzan-Ospitale,
Orpuztan, Etxegoien.

ZAZPI HERRIAK

1. *AHAIZ*, hamalaurkuna, zortzi, bederatzi, hamarrekotan.

Murgiarterekin Murgi,
Aroztegi, Baratzarte,
Iriartegarai, -behere,
Irikibeherre 'ta -garai;

Mendikoaga 'ta Mendi,
 Elgarte 't' Etxegapare,
 Iribarren, Etxebehere,
 Laharraga, Hegigorri;

Etxegoien, Leizarraga,
 Erreteli 't' Elizaga,
 Hegigorrizahar, -berri;

Irigoizbehere 't' Uhalde,
 Irigoizgarai, Irigoizarte,
 Urruzpuru, (Zaragorri).

2. *HORZA*, hamarkuna, sei, zazpi, zortzikoetan.

Harizmendi, Muru,
 Zubiate, Oihararte,
 Oihararte behere,
 Ibarmendiburu;

Etxegapare, Landa,
 Iribarren, Etxeberri,
 Etxebertze, Nagithurri,
 Baratzezarreta;

Urdoz, Ibarrondo,
 Sala 'ta Murrusko.

3. *GALHARDU*, hamaborzkuna, laur, bortz, seikotan.

Uhaizeta,
 Ithurralde,
 Ashalats eta
 Ashalastiri;

Gortairigarai,
 Gortairibehere,

Etxeberri,
Inzaugarate;

Etxebarren,
Etxegapare,
Irigoien,
Indart(e), Iriarte,
Ainziburu,
Bat edo bi bertze...
Lehengo *Galhardu*.

4. *EIHARTZE*, hamalaurkuna, hirur, laur, bortzekotan.

Arlausagarai
eta behere,
Sagarmendi,
Uhalde.

Oiharbil-xipi
Iratzezabal,
Etxeberri,
Oiharbil.

Ithurralde,
Ainziarte,
Bidarte;

Iraburu,
(Arrosathe,
Zubiburu...)

5. *ETSABA 'ta BIDARRAI*, bikunak, zazpikotan.

Etsaba-n Etxeberri,
Oheta 'ta Gortairi;

Elizald(e), Iriarte,
Irunbeher(e), Indarte;

Etsaba-n Otsamendi,
Iribarren, Arroki.

(Errekaldetik hara
Higuaindik) *Bidarrai*-ra.

6-7. *IRIBERRI*, *UGARZAN*, bi zortziko, hirur, laur,
bortzekotan.

Iriberr-n
Etxeberri,
Etxebarren,
Iriberr bi;
Ameztoia,
Etxegoien,
Etxenika,
Iriarte.

Ugarzan-en
Ospitale,
Etxegoien,
Iriarte,
Bizkaintz-ekin
(Ithurralde),
Orpuztan,
(Urrutibertze.)

II. ARBEROA

IBARRA, hamalaurkuna, seikotan.

Aiherra-ko Londaitz,
Belzuntz, Harrieta,
Jelos, Berroeta,
Apaura; *Bildarraitz*.

Izturitz: Sateritz,
Luro, Soroeta,

Hegi, Laharraga.
Donamarte: Soritz,

Hariztoi, Garate.
Donoxtir(i): Agerre,
 Argain, Soraburu.

Heleta: Gortairi,
 Garra, Larrategi,
 Bizkai, Ainziburu.

ZAZPI HERRIAK

1. *AIHERRA*, hamazazpikuna, bederatzikotan.

Belzuntz, Arraidu, Mendigorri,
 Londaitz, Apaura, Kurutxeta,
 Etxegapare, Harrieta,
 Iriarte, Garat(e), Ixuri.

Oiharat, Uhart(e), Etxeberri,
 Agerr(e), Uhagon, Berroeta,
 Mendi, Luku, Haranbileta,
 Uhald(e), Elizalde, Harregi.

Ixuribehere, Bidagain,
 Aiherrabehere, Sarrigain,
 Aiherragarai 'ta Garralda;

Zabalza, Mendi, Mendiburu,
 Etxarte, Larzabal, Urketa,
 Bidarte, Jelos, Haranburu;

Etxegoien, Iputzagerre,
 Etxebazter, Hergaitz-Zabalza,
 Etxebertze, Barrenuharte.

2-3. *BILDARRAITZ eta IZTURITZ*, hamalaurkuna,
zazpiko, zortzikotan.

Iriart(e), Etxenika,
Etxeberri, Oihararte,
Irigoien et' Agerre.
Garate, Laharraga,

Agerre, Zabaratza,
Sateritz, Etxebehere,
Sarrigain, Etxegapare,
Sorzabal, Soroeta,

Mendilaharsu, Luro,
Ameztoi, Oiharberro,
Irigoien, Sarribe,

Etxeberri, Sarri, Hegi,
Bidart(e), Urruti, Sokobi,
Iriberr(i), Iriarte.

4. *DONAMARTIRI (edo BELHORITZ)*, hamalaurkuna,
zazpiko, zeikotan.

Donamarte-jauregi,
Ibarrarte, Garbiza,
Alzurrun, Agorreta,
Garat(e), Inhabartiri;

Hariztoi, Otsazelhai,
Oihanarte, Zabalza,
Sarrilbe, Lakoaga,
Goloiotz-Etxeberri;

Agerre-Goloiotz,
Etxegarai, Argiotz,
Oiloet(a)-Agerre;

Ganderatz bi, Soritz,

Bidart(e), Iriarte,
Iribarren: *Belhoritz*.

5-6. *DONOZTIRI eta MEHARIN*, hamalaurkuna,
zazpikotan.

Donoztiri-jauregi,
Etxegoien, Agerre,
Basagaitz, Etxebertze,
Argainbehere, -garai;

Aphezetx(e), Etxeberri,
Uharte ‘t’ Iriarte,
Jara-sala ‘ta Minxe,
Larrondo ‘ta Mendibil.

Soritz et’ Urruzpuru,
Etxarte, Soraburu,
Urgaran, Irurita.

Uharte *Meharin*-en,
Oihanart(e), Etxebertze,
Etxegoien, Jauregi ...

7. *HELETA*, hamalaurkuna, zazpiko, laurkotan.

Santa-Mari(a), Agerre,
Bidarte, Lohigorri,
Amezpil, Etxeberri,
Iriart(e), Ainziarte;

Bizkai, Baratzearte,
Hegiagarai, Hegi,
Gortairi, Larrategi
Et’ Agerrebehere;

Garate ‘t’ Ainziburu,
Garra, Garra-gaztelu;

Errekart(e), Irigoien,
 Ospitale,
 Bu(zun)art(e), Etxebarren
 Et' Urrelze.

III. ARMENDARITZ-IHOLDI-IRISARRI

1. *ARMENDARITZ*, zazpiko, seiko, laurkotan.

Elizetxe, Jauregi,
 Mehairu 'ta Sorarte,
 Mendiri 't' Iriarte,
 Ainziondo, Beheiti.

Garrika, Donapetri,
 Olharan, Baratzarte,
 Soroeta 't' Elgarte,
 Errezuritz, Urruti.

Iriberrri,
 Salaberri,

Albinoritz, Erspila,
 Etxeberrigarai
 Bai Mendirigarai,
 Agerre 'ta Nagila.

2. *IHOLDI*, hamalaurkuna, zazpiko, laurkotan.

Uhald(e), Inzaugarate,
 Haran, Jauregiberri,
 Ameztoi, Olzomendi,
 Uhart(e), Etxegapare.

Olzo, Lukubehere,
 Saradarr, Lukugarai
 Bai Minaberrigarai,
 Azarol(a), Azkarate.

Haranburu,
Ithurburu;

Elizabelhar,
Etxegoien,
Irigoien,
Mendikoaga.

3. *IRISARRI*, hamalaurkuna, zazpiko, bortzeko, laurkotan.

Ospitale ‘t’ Uhalde,
Larragoien, Urruti,
Hitazaharr, Otsobi,
Etxebertze, Larralde.

Etxeberri, Bidarte,
Harnabarr, Aroztegi,
Muru, Kotroil, Othegi,
Herriezt(a), Iriarte.

Berro ‘ta Samau,
Golar, Arrikau;

Etxegapare, Borda,
Harrieta
Et’ Ezponda,
Urrutz(e), Elhorrieta.

IV. BAIGORRI

BAIGORRIKO INFANZONEN IZENDEGI-ERESIA,
hamabiko, hamarreko, zortzikotan. (*)

Urdoz-en Jauregi, *Leizparz*-en Jauregi,
Mehakagain, Betart(e), Errekarte;
Mendibur(u), Arranbid(e), Errekalde,
Mokozugain, Apheraren, Iriberri;

Leizaratz(u), Uhart(e), Ozafrain, Iriberrri,
 Etxauz, Sorzabalgari, -behere.
 Okoz-Agerre, Oronoz-behere,
 Uhide, Jauregi, Auzku 't' Etxeberri.

Germieta-n Jokoberro 't' Etxeberri,
 Oronoz-garai et' Ithurralde.
Irulegi-n Jauregi 't' Agerre;
 Jauregi *Soroeta*-n eta Gildeggi;

Bursoritx-Etxenik(a). *Anbautx*-Iriarte,
 Jauregi, Bereterretxe,
 Inzaurgazteta. *Lasa*-n Jauregi,
 Etxeberri 't' Ortustegi.

Azkarat(e)-n Etxegoien,
 Batxaler, Horza, Bidarte,
 Lohizubieta, Larre,
 Ainziendo, Larregoien.

(*) *La vallée de Baigorri, Baigorriko ibarra*, Izpegi 2002.

HAMEKA HERRIAK

1-2. URDOZ eta LEIZPARZ, hamalaurkuna, zortziko,
 hamarretan.

Etxezaharr, Etxeberri, Borda,
 Irigoien, Belarr, Ospitale,
 Errekarte, Betart(e), Arranbide,
 Iriart(e), Elizald(e), Elizaga;

Jauregi, Mokozugain, Berraga,
 Mehakagain, Elgart(e), Etxeluze,
 Etxebertz(e), Iribarren, Bidaurre,
 Leizaratzu, Zuhilarr(e), Olhaga.

Aphararen, Barren-iriberri,

Haraurrenetx(e), Indarte, Gortairi.

Beheretx(e), Errekalde, Jauregi,
Mendiburu, Gorrialde,
Jankoetx(e) ‘t’ Intzaurralde,
Garaikoetx(e) ‘t’ Arroki.

3. *HARITZETA* (edo *ELIZALDEA*), hamalaurkuna, sei,
laur, bortz, zazpikotan.

Etxauz, Ainziarte,
Sarrigarai,
Landagarai,
Harizp(e), Etxebertze.

Ozafrain, Uharte,
Iriberrri,
Etxamendi,
Sorzabalbehete,

Sorzabalgari,
Land(a), Otsoalde,

Urdinalde, Bidondo,
Zubiate,
Iriarte,
Jatsalde, Zubiburu.

4-5-6. *OTIKOREN*, *OKOZ* eta *GERMIETA*, hamalaur-
kuna, hamarreko, hamahirurkotan.

Indart(e), Etxeberri, Barrenetxe,
Elgart(e), Iriart(e), Okulumberro,
Agerre, Bidart(e), Ordokimberro,
Elizag(a), Ainziarte, Goienetxe.

Etxeberri, Kopena ‘t’ Uhalde,
Irigoien, Agerre, Sorhondo,

Latsalde, Narbaitz, Eiherald(e), Auzku,
Gort(e), Arozteg(i), Arrotzetx(e), Uhide;

Urrut(i), Inzaurzpe, Napal, Garat(e), Etxegarai,
Land(a), Ardantz(e), Etxebertz(e), Oronozpe, Jatsalai.

Haraurrenetx(e), Irar(i), Iriart(e), Etxeberri,
Larrald(e), Inzaurzp(e), Ithurrald(e), Aitzinekoetxe,
Jokoberr(o), Oronoz, Bidart(e), Indart(e), Ithurri,
Bord(a), Errekald(e), Irigoien, Garaikoetxe.

7-8. *IRULEGI eta SOROETA*, hamalaurkuna, hamabiko,
hamarrekotan.

Agerr(e), Iriart(e), Iribarren, Jauregi,
Lasart(e), Irigoingarai, Haraneta,
Harretx(e), Irigoienbeher(e), Uhald(e), Inda,
Etxeberri, Labair(i), Ithurralde, Mendi;

Erspila, Mendiburu, Lutsa, Harregi,
Harregipe, Larr(e), Ithurr(i), Ithurriaga,
Etxarte, Goienetx(e), Urruti, Garrika,
Etxebertze, Portugal et' Apheztegi.

Bursoritz-Etxenika, Minhondo,
Lorda, Landaradoi, Ainziondo;

Onaindi, Gortairi, Goienetxe,
Soroeta-jauregi, Gildegi,
Etxenik(a), Ithurrald(e), Orzaiztegi,
Indarte, Bergara, Barrenetxe.

9. *ANHAUZ*, hamalaurkuna, zazpikotan.

Jauregi, Haurrendegi,
Narbaitz, Bereterretxe,
Harrondo, Goienetxe,
Laskor eta Gortairi;

Eiherarte, Lastiri,
Inzaurgaztet(a), Inzaurzpe,
Iriart(e), Etxebertze
Et' Aparitzutegi;

Etxeberr(i), Irigoien,
Uhalde 't' Etxegoien;

Apheztegi 't' Erspila,
Irigarai, Etxarte,
Arandoki, Bidarte,
Minhondo 'ta Latsaga.

10. *LASA*, hamalaurkuna, zazpiko, seikotan.

Jauregi, Barrenetxe,
Aldakurr(u), Ithurriri,
Salaberr(i), Etxeberri,
Lur(o), Uhartebere;

Etxegoien, Agerre,
Abalzet(a), Ortustegi,
Bidart(e), Imizkoiztegi,
Urritzag(a), Uhalde;

Albinzaldegarai,
Hegiluzegarai,

Iribarren, Hegigain,
Uhartegarai, Landa,
Meriotegi, Gezain,
Harrizurieta.

11. *AZKARATE*, hamalaurkuna, seiko, laurko, hirurkotan.

Azkarate-Larre,
Horza, Larregoiien,
Bidart(e), Etxegoien,
Lastairi, Harizpe;

Etxeberr(i), Inzaurzpe,
Latsald(e), Irigoien,
Urrut(i), Iribarren,
Batxaler, Indarte;

Aintziondo,
Bidondo;

Goinenetx(e), Erspila,
Harregi,
Larregi,
Lohizubieta.

IV. GARAZI

IBARRA, hogeikuna, zazpiko, zortzikotan.

Suheskundik Jatsura,
Donazaharr, Urruti,
Usako Donapetri,
Zabalz(a), Errekulusa;
Donibane Garazi.

Izpura ‘t’ Ugenaga,
Uharterekin Zihe;
Arranegi, Luzaide;
Zaro ‘t’ Eiheralarre,
Ainzibil, Harrieta.

Lakarra ‘ta Gamarte,
Monjelos et’ Ainhiza;
Bazkazan, Alzueta,
Ahatsa ‘ta Garate,
Eta bi Ligueta.

Buztintze ‘t’ Iriberrri,
Buzunaritz, Sarasketa,

Sarriaizkoiti, Latarza,
Ianitz edo Lekumberri,
Mendibe, Behorlegi.

1. *SUHESKUN*, hamabikuna, zazpikotan.

Ibieder, Garate,
Zulhaitz, Etxart(e), Aldabe
Etxemendibehere,
Etxeberr(i), Etxebertze.

Uharte, Zaldumbide,
Ameztoi, Arbeletxe,
Jelos, Bereterretxe,
Ithurbur(u), Iriarte;

Irigoien, Urruti,
Iribarren, Trefoilla,
Irigarai, Larranda,
Etxegoien, Jauregi.

2. *JATSU*, hamalaurkuna, zazpikotan.

Iribarren, Lastiri,
Iriart(e), Itzanetxe,
Goienetx(e), Arbelbide,
Mendiagerre, Mendi.

Jelos et(a) Etxemendi,
Ithurriag(a), Indarte,
Ganaberr(o), Orgambide,
Baratzearte, Aintzi.

Elge 't' Ezpondaburu,
Bidarte 't' Ithurburu;
Elizond(o), Irigoien,

Etxeberr(i), Irigarai,
Laskorr et(a) Etxegoien,

Etxarte, Salaberri.

3. DONAZAHARR, ZABALZA, URRUTI

A. *Zabarrenak*, hamalaurkuna, zortziko, zazpikotan.

Arsu, Lako, Donapetri,
Sokarrogarai, Urritzpe,
Sokarrobeher(e), Indarte,
Ipharagerr(e), Irumberri;

Zabalz(a)-Uhald(e), Emategi,
Etxart(e), Apat(e)-Ospitale,
Arsoritz, Etxegapare,
Bord(a), Inhabarr, Prebostegi;

Iriberri, Haritzalde,
Iriarte 't' Uhalde,
Ithurrald(e) 't' Ezponda.

Etxeberri, Karlestegi,
Etxebertze 't' Urruti,
Alzate, Harrieta.

B. *1479-an*, hamabikuna, zazpi, zortzikotan.

Etxeto, Musutegi,
Bidarte, Zubialde,
Salaberr(i), Errekalde,
Goinetx(e), Orzaiztegi;

Sozperregi, Menditegi,
Hariztoi, Bereterbide
Goienburukoetxe,
Bidegain, Arsoritz-xipi,

Gilemoten(a), Elizaga,
Ginaberri, Teulagorri,

Errekulus-Etxeberri,
Bidakorri, Xibolosta.

4. *IZPURA*, hamalaurkuna, seiko, zazpikotan.

Lastaun, Etxegapare,
Hegito, Pereira,
Gortair(i), Iztileta,
Agot(e), Etxeaitzine;

Indart(e), Elgebehere,
Ithurrald(e), Olhaga,
Arranzal(e), Ezponda,
Elgegarai, Uhalde;

Bide, Larregoiien,
Aldab(e), Etxegoien;
Elizair(i), Agerre,
Bidart(e), Etxeberri,
Lukuz, Lekumberri,
Iribarren, Larre.

5.6. *UGENAGA, UHARTE, ZIHE*, hamazazpikuna,
hamar, hamekakotan.

Ugenaga-n Ithurri, Germieta,
Irigoiien, Barkoitz, Etxeberri.
Uharte-n Zubiate, Kalbetegi,
Metioteg(i), Arhalde 't' Argaba;

Luro, Halzpur(u), Uhald(e), Azpe 't' Ezponda,
Ihun(e), Etxart(e), Azpereg(i), Ipuztegi,
Larrondo, Gorriateg(i), Arraitegi,
Argarai, Berroetagibel, Intha;

Larrahondela, Bezonald(e), Aphate,
Argarai, Hegaburu 't' Etxehandi,
Zuritz(e), Elbat(e), Indarte, Berrotegi,

Zubiat(e), Elizetx(e), Ahatsetxe;

Etxegapare, Jauregiberri,
 Irigoien, Zubiat-Etxebertze.
Zibe-n Etxarren et(a) Etxeberri,
 Barrenetx(e), Etxebertze, Goienetxe,
 Lohiolazahar eta -berri,

7. *ZARO*, hamalaurkuna, laur, sei, zazpikotan.

Ipharza, Jauregi,
 Inhabarr, Ezponda,
 Indart(e), Urteaga
 Olhontz, Bizkaihandi;

Garate, Harregi,
 Agote, Berriaga,
 Pikoziuriaga,
 Urruti, Bizkaixipi;

Gomizetxe,
 Etxart(e), Arotzetxe,
 Irigoien, Munho,
 Haritzalde.
 Bidart(e), Ithurbide,
 Iriart(e), Etxondo.

8. *EIHERALARRE*, hamalaurkuna, bortz, sei, zortzikotan.

Alzu, Jatsutegi,
 Etxegapare,
 Urrut(i), Ospitale,
 Orzabaltegi.

Mindol(a), Ainzildegi
 Sala 't' Uhalde,
 Gambar(a), Eiheralde,
 Baigorritegi.

Enekoitz, Iriartegi,
Etxeberri, Menautegi.

Beherob(i), Artziate,
Gambara, Meriotegi,
Arroki, Goienetxe,
Antozaro ‘t’ Ezkertegi.

9. *AINZIBIL*, hamalaurkuna, sei, zazpi, zortzikotan.

Goienetx(e), Arotzetxe,
Iriart(e), Irigarai.
Etxart(e), Etxegapare,
Indart(e), Elgegarai;

Harretx(e), Ospitaletxe,
Lasparrengarai,
Etxberr(i), Ibarretxe,
Minazargarai;

Barbazan, Irigoien.
Ibust(i), Iribarren,
Minazarbehere;

Gorombilo ‘ta Lasparren,
Bereterretx(e), Etxebarren,
Donetx(e), Elgebehere.

10-11. *GAMOARTE* ‘ta *LAKARRA*, emezortzikuna,
zazpi, zortzikotan.

Gam(o)arte-n Mendiondo,
Etxeberri, Larralde,
Etxegoien, Uharte,
(Ere hameka bertze...)

Lakarra-ko Sarriko,
Eiheralde, Bidarte,

Garaikoetx(e), Etxarte,
Zuhurte, Barrenetxe.

Etxegoien, Ithurbide,
Oihanegi, Miranda,
Aldakoetx(e), Inzaurzpe,
Elge, Lohigorrieta,

Ithurriri 't' Uharte;
Aphezetxe, Jauregi,
Iribarren, Elizalde,
Argonga 't' Etxeberri,
Iriartebehere,
Laskoit(i), Iriartegarai.

12. *AINHIZ eta MONJELOS*, hamalaurkuna, zortzi,
bederatzikotan.

Irum(e), Elizald(e), Elizetx(e),
Baisu, Basagoien, Aralz,
Hegizabal, Harizp(e), Ondartz,
Orkazlarre, Goienetxe;

Otsabaratz(e), Etxebertze,
Garharreta 'ta Bildarraitz,
Iribarrenekin Erdoiz,
Urrut(i), Ireg(i), Ihitze;

Iriarte, Basubiri,
Ezponda 'ta Zaldixuri,

Aphezetx(e), Artsu 't' Irola,
Etxegoien, Etxeberri,
Errekarte, Martxoerri,
Agerr(e), Iriarte, Latseta.

13. *AHATSA*, *GARATE*, *LIGIETA*, hamaseikuna,
bortz, sei, zazpikotan.

Gaztelu, Donagarai,
Don Julian behere,
Ligieta behere,
Ligietagarai;

Garatehegi,
Elge 'ta Barrenetxe,
Indarte, Gomizetxe,
Erromateg(i), Ibusti;

Garate, Kurutxeta,
Eskoritze 't' Aphate,
Artoztegi, Harizpe,
Gomizetxe 't' Inda,

Erromategi,
Etxeberri, Bidarte,
Mantxoteg(i), Ithurralde
Ibusti 't' Aroztegi.

14-15. *ALZUETA* 'ta *BAZKAZAN*, hamaseikuna, sei,
zazpi, zortzikotan.

Alzqueta-n Urruti,
Aldakurru 't' Irigarai,
Olherr(i), Iriartegarai,
Elizairi, Getairi,

Iriartebehere,
Etxarte 't' Etxeberri,
Arrokietagarai,
Arrokietabehere.

Bazkazan Jauregi
Jauregibehe,
Irikin, Ospitaletxe,

Iriarte 'ta Mindurri;

Iriberri, Salaberri,
Etxebarren, Elizalde,
Etxeberri 'ta Zakute,
Urruti, Gaztelusarri.

16. *BUZUNARITZ*, hamaseikuna, sei, zortzi,
bederatzikotan.

Iribarren, Apeztegi,
Martxoherri 't' Ithurbide,
Jakestegi 't' Arrozpide,
Etxarte, Lopesantztegi;

Barrenetxe, Baskotegi,
Iriat(e), Elgebehere,
Mend(i), Iribarrenbehere,
Urruti, Behaskandegi;

Aphat(e), Errekald(e),
Ithurriaitzeta,
Ehuletx(e), Ezponda,
Gamo, Goienetxe;

Arotzetxe, Lakoxipi,
Agerr(e), Arozteg(i), Irigarai,

Jauregigoien, Elgegarai,
Etxeberr(i), Etxekon, Mugoki.

17. *SARASKETA*, hamabikuna, laur, bortz, seikotan.

Etxegapare,
Uhalde 't' Etxarte,
Iriart(e), Indarte;
Aroztegalde,

Miramont, Erspila,

Jauregi 't' Etxondo,
Agot(e), Ithurrusko,
Mizpireta;

Iribarren,
Etxezaharr,
Etxegoien,
Azkonzabal.

18. *LANITZ, SARRIAIZKOITI, LATARZA*
(*LEKUMBERRI*), hamarkuna, zazpi, zortzikotan.

Ianiz-jauregi, Harretxe,
Iribarren, Olherri,
Irigoien, Etxeberri,
Donamartebehere;

Iriart(e), Ezpondaburu,
Agerr(e), Arhamendaburu;

Barrenetxe, Sapararte,
Etxebertz(e), Etxehandi,
Maieztruetxe 't' Urruti,
Monderran, Donamarte (...)

19. *MENDIBE*, hamahirurkuna, sei, zazpikotan,

Ezkonz eta Bixintxo,
Errekald(e), Etxegoien,
Uhalde 't' Etxebarren,
Ithurburu, Minondo;

Latsalde, Mendiondo,
Etxebertz(e), Irigoien,
Mizpiret(a), Iribarren,
Lakazahar, Etxondo;

Laurhibar-ospitale;
Ezkonz-garai, Urruti,

Agerre ‘t’ Ithurralde,
 Etxart(e), Ezkonz-jauregi,
 Bixintxo-behere.

20. *BEHORLEGI*, hamalaurkuna, zei, zazpi,
 zortzikotan.

Behorlegi-n Irola,
 Iribarrenbehere,
 Legart(e), Etxegapare,
 Tarnaetx(e), Idoieta;

Elizagarai, Londa,
 Goienetxe ‘t’ Agerre,
 Ithurrald(e), Ospitale,
 Berango, Lekonaga;

Garat(e), Irigarai,
 Iribarrengarai;

Irigoien, Etxebarren,
 Etxebertze ‘t’ Etxeberri,
 Indarte, Jauregiberri,
 Harizpe, Jauregibarren.

*

*

*

Hitz neurtu joko bigarrena
Mibiz mibi...
Aroko bidetan zehar

I

"Haika haiku!..."

Uda lehenen,
Arrosaren ederra...
Hemen hastapen!

II

(Haïkou latin du Président de la C.E Van Rompuy: in *Le Monde*
17-4-2010)

a

(Original)

"Pastoris fuscī
Rugæ mi gratie rident
Pro mercedula."

b

(Traduction française)
Le rude pasteur
Sourit et me dit merci
Pour le bon pourboire.

c

(Traduction basque)
Artzain bepeltzak
Irriaz esker eni
Sariztaturik.

III

("Jorrail margo")

a

Jorraila hori,
Xuri, gorrail; beltz lurra;

Musker belarra.

b

("Jorrailak ez orotan berdin")

b-1

Haiti... Iuxu...
Badabil borobila,
Ikharan lurra...

b-2

Izotzetik su,
Islandak orotara
Errauts eta khe.

IV

(Intermède à Confucius maître de raison: quatrain de Voltaire et
traduction)

a

*"De la seule raison salutaire interprète
Sans éblouir le monde éclairant les esprits,
Il ne parle qu'en sage et jamais en prophète;
Cependant on le crut, et même en son pays."*

b

(Arte-hitz: Xaponiatik Xinara, Nagusi Gong-en ohoretan)

Arrazoin hutsaren mihi salbagarri,
Lilluratik urrun argituz gogoak,
Ehoiz profetaki, mintzo da zuhurki;
Zinetsi zen alta, bai bere herrian.

V

(2010-eko lorailekoak)

a

Nizan bagine
Itsasoa gaïnditzen
Ikus laiteke.

b

Orzaizen ere
Baratze hotz-hotzean
Loraila heze.

c

Behibidetan
Dabil emazte-xuri (*)
Itzul'itzuli.

(*) "*Behibidetako emazte xuri*: un nom basque du percnoptère, dit "petit vautour" ou "vautour blanc" en vol ici ce 14 mai, autrement *sai xuri*."

d

Baiguran goiti
Harringuruetara (*)
Joan beribilez.

d'

Baiguran goiti
Judu-hobietara (*)
Joan beribilez.

(*) 24 mai: après une tournée au dit "cimetière des Juifs" sur le Baigura, en réalité des vestiges de "cercles de pierres" ou "cromlechs".

VI

"*Kathleia ekhainean*" (Haïkous inversés 7/5/7) (*)

a (euskaraz)

Loreño hau zer ote
Sorotxan sortzen?
"Kathleia" zeritzoten.

b (en français)

Qu'est ce que cette fleurette
Qui sort du gazon?

On la nommait "kathleya".

(*) 6 juin, en découvrant une orchidée inconnue s'élevant sur le gazon.

VI bis (24-VI-2010)

a

Ekhia gorenean
Hogeitalauran
Urte hau ardatzean.

b

Suaren inguruan
Oro jauzika
Jondoni-Johanetan.

c

Amatxik: "Xanafera!
Onak barnera!
Gaitzak huxu! kampa!"

VII

(29-VII-2010)

a (erdaraz)

Ils dansaient là-bas
Le tango "Caminito"
Même les gauchos...

b (euskaraz)

Jantzatzen zuten
"Caminito" tangoa
Gauxoek ere...

VIII

(25-VIII--2010)

a

Iguzkiz agorrila,

Ixil bazterra,
Orhoitak banerama ...

(25-VIII-1944) (*)

b

Ezkilak bampan,
Gu lasterrez kampora:
Burutzen gerla?

c

Andia Jauna
Igan dorrera: Paris,
Omen, libro da.

(*) Lorsque par le très bel après-midi du 25 août 1944 la cloche de l'église sonnait à toute volée nous fit sortir devant la maison, et que ma mère s'écria "La guerre est finie". Monsieur A. s'était, d'autorité, emparé du clocher pour annoncer la libération de Paris. *Bidenabarr* I, 15.

IX

(Haiku orde *ilhartitz*: P. Bidart lagunaren hil-berrian. 17-IX-2010)

Ilhartitz

Izpegitik Lapurdi,
Bordeletik Bulgaria:
Bete duk egintzez bizia.
Euk hemen, *Pierre Bidart*,
Heure lagunen orhoita
Eta Euskal-Herritarrena.

X

(11-XI-2010)

Donamartetan
Etxetiarrak aldan

Negurakoan

XI
(25-XII-2010)

Eguberriko
Ekhia berriz jaio
Urte berriko

XII
(14-III-2011)

Oi! Xaponian
Gereziak loretan
Atomik' airean!

XIII
(10-IV-2011)
(erdara xoilez)

Le bleue ancolie,
Fleurant la mélancolie,
Saluait, polie.

XIV
(Arte-hitz, atsohitz)
(erdaratik itzulia)

Jorrailez
ehadila biluz
hari batez.

XV
(8-XI-2011)

Hazil zortzia
Lerro-lerro lertsunak
Doaz hegora.

310

XVI

(seiko arautua)
(14-XII-2011)

Inguruan
Ubel-muskerrez
Mendiak negilean
Orstail nabarrez
Haritzetan.

XVII

(Leihotik, 2014-ko otsailez)

Hauxuko (*) piramida
Soineko xuriz
Elhurrez jantzia da.

(*) "Hauxu" zen Orzaizen Auzako mendiaren izena.

XVIII

(22-III-2015)

(Idazle nagusi baten orboitez)

Aroak oro daroa
Ephaila bururatzen
Loreak ari jaiotzen
Hemen azkeneratzen
Ere bide-liburua.

*

AURKIBIDEA

Bidenabarr...

I. Haur bide.....	or. 3
II. Ikaspide.....	or. 73
III. Nabarbide.....	or. 171
Osakin:	
Amespide gorde batzuetan gaindi.....	or. 250
<i>Hitz neurtu joko lehena</i>	or. 273
<i>Hitz neurtu joko bigarrena (mihiz mihi)</i>	or. 304

J.-B. Orpustan

2020an Andoaingo Leitzaran grafikak inprimaturik
Lege gordailua, 2020ko Irailan

*

Achévé d'imprimer en Septembre 2020
À Leitzaran Grafikak, Andoain.
Dépôt légal Septembre 2020